

KLASE ZAPALDUAK IRLANDAREN HISTORIAN

James Connolly



Federiko Engels
Fundazioa

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

KLASE ZAPALDUAK IRLANDAREN HISTORIAN

James Connolly

Itzulpena: Federiko Engels Fundazioko Itzulpen Taldea

Lehenengo argitalpena: 2011ko Azaroa

ISBN: 978-84-96276-83-3

Lege-gordailua: M-45731-2011

Argitaratzaile eta banatzaileak:

Federiko Engels Fundazioa • Euskal Herria Sozialista
www.fundacionfedericoengels.org • www.euskalherriasozialista.net

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
Autorearen hitzaurrea	15
I. Kapituluua. Historiaren lezioak	24
II. Kapituluua. Jakobitak eta herri irlandarra	30
III. Kapituluua. Nekazarien matxinadak	37
IV. Kapituluua. Errebolta sozialak, eta miru eta bele politikoak	43
V. Kapituluua. Grattanen Parlamentua	51
VI. Kapituluua. Traizio kapitalista Boluntario irlandarrei ...	56
VII. Kapituluua. Irlandar Batuak	71
VIII. Kapituluua. Irlandar Batuak, demokrata eta internazionalista gisa	77
IX. Kapituluua. Emmeten Konspirazioa	92
X. Kapituluua. Lehenengo sozialista irlandarra: Marxen aitzindari bat	97
XI. Kapituluua. Utopia irlandar bat	108
XII. Kapituluua. Izugarrikerien pasarte bat: Daniel O'Connell eta langile klasea	124
XIII. Kapituluua. Gure girondino irlandarrek nekazalگو irlandarra sakrifikatzen dute jabego pribatuaren aldarearen gainean	134
XIV. Kapituluua. Gazte Irlandarren irakaspen sozialista; pentsalariak eta langileak	145
XV. Kapituluua. Mugimendu sozialistaren zenbait aitzindari irlandar gehiago	158
XVI. Kapituluua. Langile klasea: irlandarren iraganeko idealaren oinordekoa, etorkizuneko itxaropenen gordailua	162

AURKEZPENA

Konkistatua izan ez den langile klase irlandar horri eskaintzen zaio liburu hau, bere lerroetakoa den baten eskutik.

James Connolly,
Klase zapalduak Irlandaren historian

'KLASE ZAPALDUAK IRLANDAREN HISTORIAN': LIBURU BATEN ESANGURA

Euskal langileriaren arsenal teorikoari ekarpen berri bat egin asmoz, *Euskal Herria Sozialistaren* eta *Federiko Engels Fundazioaren* eskutik James Connollyren *Klase zapalduak Irlandaren historian* liburua argitara eman da euskaraz. Pazkoko Altxamenduaren lehen lerroan egon zen marxista irlandar honek 1910ean eman zuen argitara bere liburua, Irlandako uholde iraultzailea hasi baino pittin bat lehenago eta Pazkoko Altxamendurako hamarkada erdi falta zela. Ipin dezagun beraz liburua bere testuinguruan, garaiko gertakariak eta Connollyren figura irakurleari ekarriz.

1916ko apirileko Pazko astelehenean Irlandako Hiritarren Armada eta Boluntario Irlandarrak armak hartuta Inperio britainiarraren aurka altxa ziren, Irlandaren askatasuna eskuratzeko helburua eta Errepublika irlandarra fundatzeko asmoa zutela. Funtsean, altxamendu honen atzean, irlandarrek Inperio britainiarraren eta kapitalismoaren oinpean jasandako zapalkuntza nazionaleko mende ugariak metatzen ziren. Zapalkuntza honetan kapitalista irlandarren eta hierarkia katolikoaren kolaborazioa izan zuten, hauek interes britainiarrekin estuki loturik baitzeuden. Altxamenduak, apirilaren 24tik 30era luzatu zenak, Dublingo posizio klabeak hartzea lortu zuen eta bere buruzagiek Irlandako Errepublika Independentea aldarrikatu zuten, baina sei egun horien ostean, saiakera iraultzailea ejertzito britainiarrak garaitu zuen.

Errepresioa basatia izan zen. 3.000 susmagarri inguru atxilotu eta altxamenduaren 15 buruzagiak erail zituzten. Beraien artean James Connolly iraultzaile marxista zegoen, larriki zauritua izan

nik ere altxamendua azken uneraino gidatu zuena, ohe batean garraiatzen zutelarik. Aulki batera lotuta fusilatu zuten, bere zauri larriek zutik egotea baimentzen ez ziotelako.

JAMES CONNOLLY MARXISTA IRLANDARRA

Connollyk Irlandaren askapen nazionala langileen borrokarekin eta sozialismoaren aldeko kausarekin batzen zuen. Bere arabera, “langileen kausa Irlandaren kausa da, eta Irlandaren kausa langileen kausa da. Ezin bereiz daitezke”. Connolly Irlandako Langileen Sindikatu Orokor eta Garraio Sindikatuaren (ITGWU) idazkari nagusia zen. Lehen Mundu Gerra hasi aurretik Irlanda astindu zuen oldarraldi iraultzailea zuzendu zuten buruzagien arteko garrantzitsuenetariko bat izan zen. Gertakari historiko hauek Dublindik Belfasteraino hedatu ziren eta garrantzitsua da Connollyren zuzendaritzapean langile katolikoek eta protestanteen batasuna gauzatu zela azpimarratzea, patrioen aurkako borroka berean. 1911ko urrian ehungintzako andrazko langileen greba famatua zuzendu zuen Belfasten, soldata errukigarriak zituzten emakumeak antolatzea eskuratu zen gatazka batean.

1913 urtean enpresariak itxiera patronala erabili zuten greben uholdeari aurre egiteko. Burgesia irlandarraren egiazko papera praktikan ikusi ahal izan zen. Hasiara-hasieratik langileak eta hauen erakundeak zanpatzeko nahi osoa erakutsi zuten. Itxiera enpresarialari aurre egiteko helburuz, Connollyk langile britainiarren elkartasunari dei egin zion eta langile mitinak antolatu zituen Ingalaterran, Eskozian eta Galesen. Baina langile ingelesek, eskoziarrek eta galestarrek laguntza eta elkartasuna emateko borrontate osoa erakutsi bazuten ere, euren zuzendaritza sindikalek, burgesia ingelesarekin kolaboratuz, uko egin zioten elkartasunezko grebak antolatzeari.

IRLANDAKO HIRITARREN ARMADAREN JAIOTZA

Mugimenduari aurre egiteko eta langileria lerro erlijiosoetan zaitzeko, burgesia ingelesak eta irlandarrak sikarioen bandak antolatu zituzten Belfasteko auzoetan. Connollyk bazekien eraso

sektarioen aurka borroka egitea funtsezkoa zela langile mugimendua baturik mantentzeko eta borrokari jarraipena emateko. Enpresariak bidalitako hiltzaile hauengandik babesteko langileek Irlandako Hiritarren Armada sortu zuten. Euren ia kide guztiak langileak ziren: zamaketariak, garraio langileak, eraikuntzakoak, inprenta langileak eta langile klasearen beste sektoreetakoak. Lehen aldia zen Irlandan langileek kapitalistengandik defendatzeko erakunde armatu bat antolatzen zutena. Lehen unetik, Connollyk Irlandako Hiritarren Armada proletalgoaren masa erakundeei lotu zuen eta ez zituen inoiz hamarkada batzuk geroago Behin-behineko IRAk erabiliko zituen metodo armatu eta sektarioak erabili. Egiatzko langile milizia bat zen, armada gorri bat.

Mugimendu iraultzailea Lehen Mundu Gerraren eztrandak eten zuen. Egoera horren aurrean, Connollyk jarrera internazionalista hartu zuen eta gerra inperialistari eta Internasional Sozialistako buruzagien traizioari aurre egin zien, Leninek, Trotskyk, Rosa Luxemburgok eta beste hainbat internazionalistek egin bezala. Internasional Sozialistako buruzagien traizioari buruz Connollyk honakoa esan zuen *Langile Errepublikan* egunkarian: "Gizon hauek hil behar badute, ez al litzateke hobe euren herrialde propioan hiltzea euren klasearen askatasunaren alde borrokatuz eta gerraren abolizioa defendatuz, atzerriko herrialde-etara joan eta euren anaiak hilez eta hauengandik hilak izanez, tirano eta esplotatzaileek bizirik jarrai dezaten, hilak izan baino?". Era berean, TUC sindikatu britainiarrak gerrari emandako babesa kritikatu zuen idatzi zuen: "Izan zen garai bat Kongresuaren ahobatezko ahotsak langile klaseak klase kapitalista beste etsairik ez zuela aldarrikatu zuena, eta bere herrialdekoa lehen lekuan!".

PAZKOKO ALTXAMENDUA

Gerra hasi zenetik Connolly ia isolaturik gelditu zen nazioarte-ko harremanik ez zuelako. Bazirudien Irlandatik kanpo langile mugimendua hilda zegoela. Honen aurrean, inperialismo britainiarraren aurkako altxamendua antolatzea beharrezkoa zela ondorioztatu zuen, Europako langile iraultzaren metxa pizteko.

Horretarako aliantza bat egin zuen Boluntario Irlandarren buruzagi burges txikiekin, etorkizunean bere bizitzarekin ordaindu beharko zuena.

Autoritate britainiarrak langileen buruzagirik garrantzitsuenak atxilotzeko planifikazioetan ari zirenaren zurrumurruak zebiltzan batetik bestera eta Connollyk erasora igarotzea beharrezkoa zela erabaki zuen. Kolpea ematen aurrenekoak izatea hobea zela pentsatu zuen, baina erreallitatean testuinguruaren baldintzak ez ziren mesedegarrienak altxamendu arrakastatsu bat antolatzeko. Batetik, langile klasea ahulduta zegoen eta Boluntario Irlandarren buruzagiak zalantzati agertzen ziren. Connollyk, ordea, garaipena eskuratuko zutenaren konfiantza zuen eta bere aurreikuspenetan erratu bazen ere, bere ekintzak sarraski inperialista babestu zuten buruzagi sindikal haien jokabide koldarretik erabat bereizten ziren. Hala ere, akatsak egin zituen. Altxamenduak ahultasun puntu handiak zituen, ez zen greba orokorrik deitzeko saiakerarik egin eta soldadu britainiarren artean ez zen propagandarik egin iraultzaren helburuak azaltzeko eta borroka hartara erakartzeko.

Matxinadaren bezperetan Boluntario Irlandarren buruzagiak, Eoin MacNeillek, bere militanteek altxamenduan ez zezatela parte hartu agindu zuen. Honela, berriro ere errepublikar burges txikien traizioa burutu zen. Irlandako Hiritarren Armadarekin batera Dublingo Boluntario Irlandarren 1.500 kidek bakarrik hartu zuten parte. Ikuspuntu militar batetik, altxamendua hasi baino lehenagotik kondenaturik bazegoen ere, Boluntarioen buruzagien traizio hura gabe matxinadak arrakasta are handiagoa eskeratu ahal izango zukeen.

Langile klase irlandarrak porrot izugarria jasan bazuen ere, hilketa inperialistak oraindik ere jarraitzen zuen eta buruzagi sozialdemokratek euren burgesia propioak babesten zituzten testuinguru hartan, Pazkoko Altxamenduak bretxa garrantzitsu bat ireki zuen. Leninek, une hartan iraultzaile talde txiki batekin isolaturik aurkitzen zenak, gogo biziz jaso zituen altxamendua-
ren inguruko albisteak. Bere ustez, langile irlandarren zoritxarra behar baino lehenago altxatu izana izan zen, European iraultza sozialista oraindik ere heldu ez zen une batean. Altxamendua pare bat urte beranduago izan balitz, 1917ko Errusiako Iraultzak Europa osoan zehar mugimendu iraultzaile izugarria

zabaldtu ostean alegia, langile irlandarren iraultza ez zen isolaturik geldituko.

ALDERDI IRAULTZAILEAREN BEHARRA ETA JAMES CONNOLLYREN ONDAREA

Connollyk Alderdi Laborista irlandarra sortu zuen, sindikatuetan eta langile klasean oinarri sendo bat zuena; baina hala ere, eta Leninek ez bezala, ez zuen marxismoaren teoria eta metodoekin armaturiko alderdi iraultzaile bat eraiki. Hau izan zen, zalantzarik gabe, bere akatsik larriena. Connollyk berak defendatzen zituen ideiei jarraikortasuna emango ez zien alderdirik gabe, burgesiak eta burges txiki irlandarrek, egoeraz baliaturik, mugimenduen kontrola eskuratu zuten. Irlandarren borroka gerrillarien metodoetara desbideratu zen eta urte batzuk geroago, berriro ere, burgesiak eta IRAko sektore buruzagi burges txiki batek herria traizionatu zuten. Europan piztu zen mugimendu iraultzailea ikusita eta Irlandan bertan iraultza gertatuko zenaren beldur 1921ean burgesia irlandarra Londresekin akordio batetara iritsi zen irla bitan bereizteko, Hegoaldeko Irlanda “Estatu Libre” bezala aurkeztuz. Inperialismo britainiarrak bere historiaren luze zabalean aplikatutako “bereizi eta garaituko duzu” leloak bere helburua eskuratu zuen: langile klase irlandarra zatitu zuen, bere borroka iraultzailea eta honekin batera askapen nazionalako mugimendua ahulduz.

Gaur egun Sinn Feineko buruzagiek modu okerrean egiten duten bezalaxe, Ipar Irlandako gatazka politiko nazionala konpondurik dagoela edota bide onean doala esanaz, 1921ean sektore burges txikiak “Estatu Libre” aurrera pauso handi gisa aurkeztu zuten, sozialismoaren aldeko borroka zalantza ezotzotz baterako utziz. Baina egun bai hegoak bai iparrak kapitalista ingelesaren aginte ekonomiko eta politikoaren menpean jarraitzen dute. Honen inguruan jada ohartarazi zuen James Connollyk: “Bihar Ejertzito ingelesa botatzen baduzue eta bandera berdea Dublingo Gazteluan eskegi, Errepublika Sozialista antolatzeari ekiten ez badiozue behintzat zuen esfortzuak alferrikakoak izango dira. Ingalaterrak zuek menderatzen jarraituko du. Beraien kapitalisten bidez menderatuko zaituzte, lurjabe

handien bidez, finantzarien bidez, herrialde honetan landatu dituzten merkataritza erakunde eta erakunde indibidualisten bidez, gure amen malkoez eta gure martirien odolez ureztaturik. Ingalaterrak porroteraino eraman arte menperatuko zaituzte, baita zuen ezpaineak bere kausa traizionatu zenuten Askatasun horren santutegiari omenaldi hipokrita bat eskaintzen badiote ere”.

Connollyk askapen nazionaleko borroka beti klaseko ikuspuntutik aztertu zuen, sozialismoaren aldeko borrokaren ikuspuntutik. Ez zuen inoiz konfiantzarik izan burgesia irlandararrangan eta bere helburua langile klasearen mugimendu independentea eraikitzea izan zen. Berarentzat hauxe zen Irlanda aske bat eskuratzeko bide bakarra. Bera hil ostean gertatutako guztiak arrazoia eman dio. Irlandaren askapen nazionalaren aldeko borroka erabat loturik dago iraultza sozialistarekin, herri bakar batek ere ezin du egiazko askapen nazionala eskuratu kapitalismopean. Hori dela eta langile katoliko eta protestanteen batasuna eskuratzeari begira egingo zuen borroka bere bizitza osoan.

Hor kokatu behar da hain zuzen bere liburua. Burgesia eta burgesia txiki nazionalistek idatziriko historiaren mitifikazio guztiak eraistearen lana hartuko du Connollyk eta langileriari klase agintarien diskurtsoei aurre egiteko tresna bikaina esleitu dio. Euskal Herrirako irakasgai interesgarriak eman ditzakeen lana izanik, Irlandaren kasuan bezalaxe, beharrezkoa da euskal askapen nazionalaren alde borrokatzen duen langile, gazte, sindikalista eta militante orok Connollyren irakaspenak gogoan izatea, adibide praktikoa bat baita azken finean. Bide batzuk hautatuz gero helmuga zein izan daitekeen erakusten digute Irlandako gertakari haiek. Historiaren akatsak ez errepikatzea oinarrizkoa da. Halakorik gerta ez dadin, irlandar iraultzaileen historiak erakusten digu bidea: askapen nazionalik ez da posible askapen sozialik gabe.

Hori dela eta, Connollyren hitzak erabiliz, *Konkistatua izan ez den langile klase euskal herritar horri eskaintzen zaio liburu hau, bere lerroetakoa izan zen eta izaten jarraitzen duen irlandar handi haren eskutik.*

ITZULTZAILEEN OHARRA

Liburu honek ez du Irlandako klase langileen historia bat izatea helburu; Irlandaren historiako klase langileen memorial bat da hobeto esanda.(...) Argudio honek lanak gure historia modernoaren garai handietan izan zuen kokalekua eta buruzagi irlandarrek euren lanetik bizi diren haien itxaropenekiko, helburuekiko eta beharrekiko izan zuten jokabidea azaltzea eskatzen zigun.

James Connolly,
Klase zapalduak Irlandaren historian

Itzulpenean jatorrizko testuaren arimaren zati handi bat galtzen dena gauza jakina da. Itzultzaileak, finen artetik finena izan nahi badu ere, bere eskuen zirrikituetatik galduko du sostengatu nahi duen ur kantitate osoa. Liburu hau ez da salbuespena. Labour in Irish History izenez izan zen argitaratua 1910ean, ingelesez. Izenburuak berak bere zailtasunak eskaintzen zituen. Labourren itzulpenik egokiena Lana litzateke, lan egitearen ekintza baino gehiago hau burutzen duten giza taldea adierazten duena, Lan eskua, edo Eskulana. Baina izenburua era honetan itzultzeak bere ulermenerako agian buruhauste bat baino gehiago ekarriko zituela pentsatuta beste bide bat bilatzea pentsatu zen.

Langile klaseak Irlandaren historian bezala itzultzea ere pentsatu zen, baina honek ere "arazotxo" gehigarriak zekartzan. Pluralizazioak berak marxismoaren langileria kontzeptuarekin apurtzen zuen, hau bat baino gehiago bezala adieraztea ziurrenik ez baitator bat Marxek abian ipini zuen filosofiarekin. Testuan bertan langile klaseak edo klase langileak zenbait kasutan erabiliak izango dira, autoreak berak horrela erabiltzen baititu, baina lan egiten duten sektore ezberdinei erreferentzia egiteko erabiltzen duelako da: nekazariari, manufakturetako langileari, portulariari..., etab. Langileria bezala itzultzea ere pentsa zitekeen, baina berriro ere, filosofia marxistarekin egiten zen topo, langileria oro har langileria industrialia izendatzeko erabili ohi baita, nekazariak horren barne zertan geratu gabe, kasu jakin batzuetan ez bada behintzat. Hori dela eta, eta Connollyk berak testuan ematen

duen argudiatze bati helduz, Klase zapalduak Irlandaren historian gisa itzultzea erabaki da eskuetan duzun liburu hau.

Baina arazo hauek kontestualizazio bat egiteko balio digute. Connollyk ingeleraz idatzi zuen bere lana, hots, langile irlandar, ingeles, galestar eta eskoziarrei, eta haratago joanda, estatubatuarrei begira. Ez da bigarren mailako kontua. Liburuan zehar aipatzen diren arazoak eta gatazkak publiko honek ezagutzen zituen gertakariak ziren, eta Connollyk erabiliko dituen hitzak berak ere garai jakin bati egotzi behar zaizkio. Patriot hitza adibide gisa har dezagun. Ingeleseko hitz honen euskal itzulpena abertzale litzateke, baina abertzale hitza bera gurean historia luzea izan duen terminoa da, denboraren joanarekin esangura desberdinak biltzen joan dena, eta iraganean nazionalista edo patriotari erreferentzia egiten bazion ere gaur egun agian bestelako konnotazioak hartu dituena, konnotazio horren barnean, agian, independentziaren aldeko borrokaren azpimarra berezia eta zergatik ez, ezkerreko kutsua ere sartzen duena. Horrexegatik, ohar gisa, idazleak argi izan dezala liburuaren irakurketan zehar bertan agertzen den abertzalea XVI. mendetik XX.aren hasera bitarteko Irlandako patriota dela eta testuinguru horretan ulertu behar duela, bereak ez diren ezaugarriak gehitu gabe. Bide horretan, eta Irlandaren eta Britainia Handiaren historia politiko, ekonomiko eta sozialari buruzko aurretiazko ideiarik ez duen irakurle hari liburua ulergarri egiteko, oin oharren bidez ahalegindu gara idatziaren testuingurua osatzen. Horregatik, liburuaren ikasleak (Connollyk, kasu askotan, ikasletzat hartzen baitu) berau bere testutik haratago baliagarri izan dezan, azalpenezko oin oharrak gehitzeaz gain, erakunde irlandarren izen originalak eta egunkari izenen itzulpenak eskura ipini dira, Connollyren beraren izpiritua jarraituz, irakurleak ikusiko duen bezala, berak ere, testuan zehar, itzulpen lan txoak egiten baitzituen han hemenka.

Honela bada, itzulpen ororen poesia galera ulermenaren areagotzeak eta testua bere garai historikoan ipintzeak akaso konpentsatuko duenaren ustearekin, irakurlearen epaiaren aurrean uzten dugu arazo nazionalari buruzko filosofia marxistaren adierazgarria den testu bikain hau.

AUTOREAREN HITZAURREA

Irlandaren eraketa eta hondamena lan handian, zientzia historiko modernoaren metodoak erabiliz historia irlandarrari eginiko eza-gutzen dugun ekarpen bakarrean, bere autoreak, Stopford Green andereak, Henry VIII.ren eta Elizabethen garaietan Irlandan eman zen arraza irlandarraren dispertsatzearen eraginetaz, ondoriozko kultura gaelikoaren suntsipenaz eta tradizio eta zuzenbide gaelikoarekiko hausturaz ari dela, azaltzen digunez, atzerriko eskoletan hezitako irlandarrek Erin¹ antzinakoaren tradizioa erabat alboratuta zuten edota ezezagun zitzaien, eta Brehon Kodearen² espirituarekiko, eta hau bere espresio juridiko zuen ordena sozialarekiko, ez zuten inongo begikotasunik erakusten. “Hauek bultzatzen zuten teoria, *Irlandaren lege zaharrarekiko erabat antagonikoa zena*, zera zen: herriak bere agintaria hautatzeko eta bere borondatekoa den hari autoritate gorena esleitzeko gaitasuna edukitzea heresiaren estolda kutsatuenetatik bakarrik atera zitekeen ideia bat zela” esaten digu. Beste hitz batzuetan esanda, irlandar berriak, atzerriko arauen arabera hezia izan zen hark, bere bezala hartu zuen sistema feudal-kapitalista, Irlandaren kasuan Ingalaterra horren adierazgarri zuena, eta hau irlandar gaelikoari inposatu zion. Cromwellek buruturiko klanen dispertsaketak Irlanda gaelikoa bere hondameneraino eraman zuenean, irlandarren goi hezkuntza osoak ordutik atzerriko bide hau hartu zuen eta kolore arrotz honek markatuko zuen bere bilakabidean.

-
1. Erin adiera, izatez, Irlanda izendatzeko hitz irlandarraren, Eireren, datiboa izango litzateke. XIX. mendean zehar, poeta erromantiko irlandarrek adiera honi zabalpena eman zioten beren irla maitatua izendatzeko modu gisa, Irlanda zentzu femenino batean izendatzeko modua ere bai baita.
 2. Brehon Kodea Irlanda lehen inbasio normandiarra baino lehenago (1171) erregulatu zuen legedia izan zen. Kristautasunaren aurreko gizarte irlandarraren isla juridikoa izango litzateke, gerora apez monastikoez bildu zutena.

Hitz batean esanda, buruzagi irlandarren kultura gaelikoa bortizki apurtu zen XVII. mendean, eta bere lekuan, ikasle irlandarren buruetan, despota europarren eskola kontinentalak finkatu ziren; gero Irlandara bidaltzen zituzten bueltan eskumen erreala eta feudalen inguruko sinesmen fanatiko baten predikua egitera, Gaelaren³ geinuarekiko hain arrotza zena, menperatzaile ingelesa lur irlandarrekiko bezainbat. Zenbat argitzen duen honek Irlandaren XVII., XVIII. eta XIX. mendeetako historia! Eta zer-nolako azalpena “aristokraziarekiko begirune irlandarra” deiturikoaren egiazko jatorriaren inguruan, zeinaren inguruan hain ele ederrekin idazten duten literatura irlandarreko burges kalakariak! Ikus daiteke begirune honek bai exotikotik bai inportaziotik gurtzen zen kasta aristokratikoak adina zuela. Biak ziren “...gure lursailak pozoitzeko hemen ereindako atzerriko lore nardagarriak”.

Baina pentsamendu irlandarrean oso sakon finkatu da irlandarren joera aristokratikoaren inguruko amarrukeriazko gezur hau eta denbora asko beharko da ideia hori biztanleriaren buruetatik ezabatzeko, edota azken berrehun urte hauetako historia irlandararren kontzeptzio ortodoxoa, bere osotasunean, arraza irlandararren tradizioarik hoberenei traizio egitea eta haiek alde batera uztea izan dela ulertarazteko. Ez dago horren zalantzarik. Azter dezagun hau pixka bat sakonago!

Errekatxo bat bere ubidetik atera ezin den modu berean, egia da baita ere literatura nazional bat ezin dela bera inspiratzen duen herri baten maila moralaren, baldintza sozialen, ginetik altxatu. Herri baten literatura nazionala ulertzeko bere egoera sozial eta politikoa aztertu behar dugu, bere idazleak egoera horren produktu bat direla kontuan hartuz, eta euren garunen semeak baldintza historiko jakin batzuetan sortu eta jaio zirela gogoan edukiz. Irlandak, bere antzinako sistema soziala galdu zuenean, bere hizkuntza ere galdu zuen, bere buruzagi izan ziren haien pentsamendua garraiatzeko instrumentu baten zentzuan. Galera bikoitz honen ondorioz, nazioaren garapenak iraupen luzeko zurruntze sozial, nazional eta intelektuala jasan behar izan zuen.

3. Gaela gaelikoa hitz egiten duen hura da, Irlandan ingelera zabalki hedatu aurretik hitz egiten zen eta Eskoziara ere zabaldu zen hizkuntza zeltiarra bere duena.

XVII. mendearen azken urteetan, XVIII. mende osoan eta XIX. mendearen zatirik handienean zehar, herri irlandarra Europako ilotarik⁴ xeheena izan zen sozialki eta politikoki. Nekazari irlandarra, bere lur tribalen jabe zen klan bateko kide, bere parekoe-kin batera euren administrazioa kontrolatzen zuten klan bateko kide izatearen gizarte-mailatik erauzita, maizter arrunt bat izatera igaro zen, lantzen zituen lurretatik kaleratua izatera, desohorera eta bidegabekerietara azpiratua izan zelarik, jabe pribatu arduragabeen jostailu. Politikoki ez zen existitzen, legearen arabera ez zuen eskubiderik, arlo intelektualean umilazio sozialaren pisuarenean hondoraturik zegoen eta bere pobrezia-putzu tamalgarrira etsitu behar zuen. Betidanik "*Vae Victis!*"⁵ maxima erromatarra jarraituz ekin duen klase agintari eta nazio batek konkistatua izan zen, eta porrotaren ondorio lazgarri guztiak ari zen pairatzen.

Umilazio handiagorako, hondamendi orokorretik ihes egin ahal izan eta semeak atzerriko eskoletara heztera bidali zituzten euren izen eta arraza bereko haiek, erbestera haiek, euren jaioterrira itzuli zirenean honako honetaz jabetu ziren: Koroa ingelesaren eta Irlandako lur jabe handi ingelesen aurkako gorrotoz beterik Frantziara, Italiara edota Espainiara itsasontziratu ziren haiek, tronu ingeleserako erregegai baten jarraitzaile katoliko huts bezala itzultzen zirela, euren atzerriko hezkuntzaren ospea berdintasunaren eta demokraziaren ideia gaelikoen izena zikintzeko erabiliz, eta hauen lekuan orduko belaunaldi berriaren buruetan erregeen gobernatzeko eskubide jainkotiarren eta menpekoen baldintza-gabeko obedientziaren inguruko ideia feudalak txertatuz. Ikasle irlandarrak Aitasantutzak oraindik ere bere ohizko maisutasunarekin eta iraunkortasunarekin – mendeen igaroak gutxi axola dion iraunkortasun batekin – burutzen duen plan baten lehen produktuak bilakatu ziren kontinenteko unibertsitateetan, Ingalaterra katolikotasunarentzat espiritualki birkonkistatzeko bidean Irlanda Katolikoa helburu horretarako instrumentu soil bat bihurtzen duen egitasmobaten produktu. Porrot egin zuen egitasmobonek, irrigarriro, 1715 eta 1745eko errebolta eskoziarren urteetan Estuardoen kausagatik langile irlandar bakar

4. Morroi-esklaboa izendatzeko modua Espartan.

5. Ai ene, garaituok!

batek, hirian edo landan, behatz bat mugitzeko burutu zuen saia-keran, baina aldi berean ez zien utzi langile irlandar hauei ez euren kausa propioagatik mugitzen, ez euren etsaien gatazka zibiletatik abantailaren bat ateratzen ere. Are gehiago egin zuen. Irlanda gaelikoa hil zuen; ele irlandarreko katoliko batek ez zuen inongo baliorik katolikotasunaren misiolari gisa Ingalaterran, eta bere gurasoen hizkuntza estimu handian zuen nekazari irlandar batek, era berean, errespetua senti zezakeen bere arbasoak kontaezinezko urteetan zehar bizitu eta aurrera egin ahal izan zuteneko konstituzio sozialarekiko eta zibilizazioarekiko. Eta printzipio hauek askoz ere desatseginagoak ziren kontinenteko eskola irlandarrak mantentzen zituzten frantsesentzat, espainiarrentzat eta Aita Santuaren mezenasentzat monarkentzat baino. Honela bada, irlandar txiroak ez ziren euren garaiko sistema sozialaren pariak bakarrik; euren ondorengo eskutik etor zitekeen bizitza intelektual baten berpizkundearen itxaropena ere ezinezko xede bilakatu zitzaien. Hauei euren gurasoen hizkuntza eta tradizioak mespretxatzen erakutsi zitzaien.

Garai honetan edota bertan zehar jazo zen nekazari irlandarra mailarik xeheeneraino zanpatua izan zenekoa, eta gehienera ere espero zezaketena animalietaz errukia izaten den bezala beraietaz ere errukia izatea zen; garai hau izan zen ingelerazko literatura irlandarra jaio zen ueña. Literatura irlandar hau ez zegoen irlandarrentzat idatzita, egiazko literatura irlandarrekin, irlandarrekin eta irlandarrei buruz idatzitakoarekin, gertatuko zen bezala; ingelesan edota anglo-irlandarren kontsumorako egina zegoen.

Beraz, esan liteke irlandarra literatura ingelesean ahoan desenkusa bat zuela jaio zela. Bere sortzaileek ez zekiten ezertxo ere Irlanda gaelikoko irlandar aske eta independenteari buruz, baina bestalde ezagutzen zuten irlandar konkistatua, lapurretaren biktima, esklabizatua, aberetua eta etsitua, aginte terrateniente eta kapitalistaren belaunaldi eta belaunaldietako produktua; eta honetaz baliatu ziren, munduaren begien aurrean ipini zuten eta nazioei irlandararren egiazko eredu bezala onar zezatela eskatu zieten.

Ehun urtetako ilegalitate politikoaren eta atzerriko ideiak bereganatu zitzen jasan zuen entrenamenduaren ondorioz jaiotako menekotasun *abailduarekin* erregetzaren ordezkariaren baten aurrean burua makurtzen bazuen, bere umilazioa harrotasunez

seinalatzen zen “zeltek oinordeko monarkekiko zuten fideltasun zaharraren” adibide gisa; gosete etengabeen, maizterren kalera-tzeen, presondegien, urkaketen eta errentamenduen oroipenek bere garuna ilunduta, goi klaseen aurrean umiliatzen bazen edota bere aberastasun pertsonalei zakur bat balitz bezala itsasten bazen, bere zurikeria “aristokraziarekiko iraganeko begirune irlandarraren” adierazpen gisa aipatzen zen, eta lurra bizitza zen sistema batean, bere inguruko maitenak zaindu nahirik, bizitzaren segurtasun falta etengabeak lur puska baten jabe izatearen desira sutua pizten bazion, lur gose berri hau arrandiatasunez aditzera ematen zen “jabego pribatuaren printzipioarekiko irlandarren atxikimenduaren” froga gisa. Uler bedi ez garela ari orain irlandarren gaizki-esale ingelesei buruz, irlandarren apologistei buruz baizik. Gaizki-esale ingelesak inoiz ez zuen irlandarren izaeraren diseinatzaile bilakatu ziren hauek adina kalte egin. Gaizki-esale ingelesak irlandarra munduaren begien aurrean gutxietsi zuen, baina klase ertain irlandarreko bere irakasle eta idazleek bere begi propioen aurrean gutxietsi zuten irlandarra, belaualdietan zehar jasandako esklabotzatik sortutako edozein lausengukeriazko bizio irlandarraren bertute gisa goraiapatuz. Ondorioz irlandarra, berdin nekazari, langile edota artisau izan, bere arbasoen lurrean bizitzeko eskubidea defendatuz bere zapaltzaileei aurre egiteko bere kideekin elkartzen bazen, atzerriko ideiak bereganatu zituzten klase “beneragarriek” publikoki deitoratzen zuten ekintza hau eta melengakeriaz “ingelesek izaera irlandarra gobernatzeko erabiltzen zuten modu okerraren eragin kaltegarri” egozten zioten; bestalde, noiz edo noiz irlandarren batek, bere arrazaren tradizio guztiak alde batera utziz, aberastasuna edota posizioa lortzeko bere kideak azpian utziz goraka egiten zuenean, bere karrerari babesa ematen zitzaion, irlandarrak testuinguru onean daudenean zer nolako gauzak egiteko gai direnaren adibide gisa. XVII., XVIII. eta XIX. mendeak arraza irlandarren Via Dolorosa izan ziren egiaz. Hauetan zehar, Gael irlandarra erabat hondoratu zen, eta bere lekuan irlandar hibrido bat sortzeko eginahalean aritu ziren klase ertaineko politikariak, kapitalistak eta elizgizonak, atzerriko sistema soziala, hizkuntza eta izaera bereganatzeko gai izango zen irlandarraren bilaketan. Irlandarrak lehen biak bereganatzeko ahaleginean, tamalez, arrakasta handia izan zuten, hainbestekoa ezen gaur egun irlandarren

gehiengoak ez dakien bere gurasoek betidanik beste jabego sistema bat ezagutu izan zutela, eta Irlanda bertako irlandarrak gaur egun saminez ari dira euren ama hizkuntza bera atzerritar ahoskera zalantzati baten bitartez konkistatzeko borroka egiten.

Zorionez, irlandar izaerak atzerriko molde errespetagarrien barnean sartzeko oso zaila dela erakutsi du, eta izaera horrek konbentzionalismo ingeles kapitalistaren besarkada hilgarriari eginiko arbuioak, gaeliar hizkuntzaren birbaluazioa ekarri duen modu berean, probabilitate osoarekin, Gaelak Europako zibilizazioaren eta kulturaren goi-puntua erdietsi zueneko sistema sozialaren berraztetzea eta baloratzea ere ekarriko du.

Irlanda elikadura eta mantenu baliabideen gaineko jabego komun gaelikoaren printzipiora birmoldatzeko unean, Irlandaren izaeraren eta historiaren inguruko euren ideiak literatura anglo-irlandarrean oinarritzen dituzten gizon eta emakume horien oposizioa izango da garaitu beharko den oztoporik zailena. Literatura hau, jada azaldu dugun moduan, gure esklabotzaren oinazetik okerrenetan sortu zen, jatorri horren jaiotza-marka guztiak daramatza, baina ironiarik handiena esklabotzaren jaiotza-marka hauek gure maisuek “zeltiarren jaiotzazko ezaugarri” gisa gorai-patzen dituztela da.

Esklabotzaren jaiotza-marka horietako bat gizartearen sistema kapitalistarengan fedea izatea da; sistema kapitalista Irlandak duen gauzarik atzerritarrena izatearen egia ulertzen duenean askatzen du irlandarrak bere burua esklabo marka horretatik.

Hortik Irlandan, berrehun eta berrogeita hamar urte baino gehiagotan zehar, izan dugun fenomeno berezia: klase ertain eta goi-klaseetako irlandarrek, arbaso gaeliarrek lauhun urtetan zehar, presondegietako zigor-gelak, gosea edota ezpata jasanda ere, erasotu zuten ordena soziala mantentzeko beharra langile irlandarrei eginbehar sakratu nazional eta erlijioso gisa buruan sartzearena. Irlandan finkaturiko normandiarrak ez bezala, zeintzuenegatik “irlandarrak baino irlandarragoak” izatera iritsi zirela esan baitzen, jabeen klase irlandarrak ingelesak baino ingelesagoak bilakatu ziren eta halaxe jarraitu dute gaur egun arte.

Beraz, liburu hau, herri irlandarraren masa desjabetuek Irlandaren historia modernoko krisi handian zehar izan duten jarrera deskribatzen saiatzen den neurrian, berpizkunde gaeliarraren literaturako parte bezala hartu behar dugula iruditzen zaigu hain

zuzen ere. Jabeen klaseek erdeinaturiko hizkuntza gaeliarrak bere azken sendotzea “maila apalenekoen” bihotzetan eta etxeetan bilatu eta aurkitu zuen bezala, bertatik gure garaira berpiztuz — eta idazten duen honek iraganean zibilizazioan izan zuena baino leku handiagoa eta iraunkorragoa eskuratuko duela pentsatzen du —, era berean, Thomas Francis Meagherren hitzek dioten bezala, “txabola miserable horiek beraiek izan dira Irlandaren tradizioak eta itxaropenak gorde eta transmititu dituzten aldare sakratuak”.

Klase kapitalista irlandarraren abertzaletasun apostatak, tradizio gaeliarrarekiko hausturaren gainean zutitzen denak, uko egingo dio, noski, kontzepzio honi, eta atzerrikeriez saturaturik, “atzerriko ideien” epitetoa jaurtitzen jarraituko du demokrazia irlandar militantearen aurka. Baina Irlandaren egungo berpizkunde zeltiarrak, behar bezala, inbasio ingelesaren aurreko Irlandaren legeen eta egitura sozialaren berrausnartzea eta ikerketa analitikoago bat ekartzen badu, beste emaitza onen artean honako hau ere izango du: kontzepzio honen egitasunaren berrespena eta finkapena. Orain arte, Irlandaren errealtate sozialaren ikerketa akats larri batek kutsaturik egon da. Irlandarren bizitza sozialaren eta ohituren deskribapen eta interpretazio azterketa hauen inguruan eta deskribatzen zituzten gertakarietaz eta izpirituaz ez ezagutzarik ez ikuspeirik ez zuten gizonen baldintzapean zegoen erabat. Ordena sozial feudalaren eta kapitalistaren kontzepzioa buruan sartuta, idazleek, erakunde irlandarrak azaltzen saiatzen zirenean, berauekiko erabat arrotzak ziren gauzen bestelako ordena bateko terminoak erabiliz egiten zuten hau. Titulu irlandarrak, berauen jabe zirenek gizarte hartan ordezkatzeko zuten funtzioaren adierazgarriak zirenak, Ingalaterrako ordena feudaleko noblezia tituluak balira bezala azaltzen ziren, haien analogo gisa, honako hau erabat ahaztuz: gizarte forma bata bestearen antitesia zelarik eta ez haren irudi, titulu zerrenda batak ezin zuela bestearen esanahi berbera izan, eta are gutxiago izan zitekeela bestearen itzulpen huts bat.

Antzeko akatsa burutu zuten Amerikan, hein handi batean, lehenengo konkistatzaile espainiarrek, Mexikoko eta Peruko sistema sozial eta politikoak deskribatzen saiatu zirenean, herrialde haien konkista aurreko bizitza nolakoa zen ulertzen saiatu zirenean amaierarik gabeko nahasmenduzko emaitza berberak eman

zituztelarik fruitutzat. Idazle espainiarrak ezin ziren mentalki mendebaldeko Europaren egitura sozialetik baino haratago joan, eta horrexegatik “enperadore” eta “noble” despotiko perutarren eta mexikarren inguruko fantasiako kontakizunak zabaldu zituzten, hau errealtatean herri baten familia-sistema garatu eta antolatu bat zen bitartean, oraindik ere estatu politikora eboluzionatu ez zuena. Eta egoera hau ezin izan zen gainditu Morganen *Gizarte primitiboa* lan monumentalara argitaratu zen arte, bera izan baitzen jatorrizko zibilizazio amerikarraren ikerketarako giltza. Giltza berberak irekiko ditu, bestalde, gure jatorrizko zibilizazio zeltiarraren sekretuak gordetzen dituzten atepak, eta honek posible izango da beraren inguruan denok ezagutza handiagoa izatea.

Bien bitartean, liburu honek oinarri dituen bi proposizioak aurkeztu nahi dizkiegu gure irakurleei – hausnartuko diren proposizioei begira aldi berean iraganeko esperientziaren fruituak eta egungo pentsamenduaren heldutasuna bere baitan elkartzen dituztela uste dugun proposizioak berauek.

Lehenengo proposizioaren arabera, zibilizazioaren eboluzioan, zapalduriko edozein nazioren askapen nazionalako borrokaren garapenak, nahita ez, nazio horretako klase zapalduenaren askapen borrokaren garapenarekin batera joan behar du, eta gizarte kapitalistaren sistemaren garapenak eskutik dakartzan indar ekonomikoen eta politikoen aldaketek, ezinbestean, elementu ez-langilearen kontserbadorismo hazkorra eta langile klasearen kemen eta potentzia iraultzailea dakartzate.

Bigarrenik berriz, Irlandaren borroka luze eta zabalaren emaitza, orain arte, bere iraganeko buruzagi eta kazikeak desagertzea, edota beren ondorengo degeneratuak hitzarmenak egitera iritsi izana izan da, bidegabekeria onartuz, finkatutako ordenaren jarraitzaileen partaide bilakatuz; klase ertaina ere, borroka nazionalaren erdian sorturikoa, 1798an gertatu zen bezala, Ingalaterraren norgehiagoka ekonomikoaren pisuari aurre eginez bere lehiakide industrialen despotismoaren aurkako buruzagi iraultzaile izatearen posizioa bat-batean jaso izan zena, orain Baalen⁶ aurrean belaunikatu da ordea, orain milaka lokarri eko-

6. Baal, Infernuko zazpigarren printzea, Itun Zaharrean feniziarren lehen idolo pagano gisa behin baino gehiagotan agertzen dena.

nomiko ditu, inbertsioen forman, kapitalismo ingelesari lotzen dutenak eta abertzaletasun irlandarrera bultzatuko luteken edozein lotura sentimental edo historikoren aurka eramaten dutenak; langile klase irlandarra da Irlandaren askapenaren aldeko borrokaren oinordeko ustelgaitz bezala mantentzen den bakarra.

Konkistatua izan ez den langile klase irlandar horri eskaintzen zaio liburu hau, bere lerroetakoa den baten eskutik.

I. KAPITULUA

Historiaren lezioak

Zer da historia adosturiko alegia bat baino?
Napoleon I.a

Politika irlandarrak lan eskuari eman dion menpeko paperaren adierazle esanguratsua da idazle batek, lehendabizi, bere helburua zein den azaldu beharko lukeela pentsatzea hutsa, langile irlandarrek iraganean izan zuten jarrera haren azterketatik langile klasearen egungo mugimendua gidatzeko eratoritzen diren lezioak zeintzuk diren zehaztasunez, eta irakurleen onurarako, azaltzen hasi aurretik. Historia izan beharko lukeena, lantzen saiatzen den garaien isla literario egoki bat, izango balitz, bere orriak gizendu egingo lirатеke, ia osotasunean, betidanik gizateariaren masa handiena osatu duen eta osatzen duen herri langilearen akatsen eta borroken errezitaldi batekin. Baina historiak, orokorrean, manipulatzaile politikoak langilea tratatzen duen moduan tratatzen du langile klasea, hau da, mesprexuz pasibo dagoenean, eta irainaz, gorrotoz eta gezurkeriaz morrontza politiko edota sozialaren uztarriarekin amaitzeko nahia azaltzera auzartzen denean. Irlanda ez da arauaren salbuespen bat. Klase agintariak, betitik, Irlandaren historia klase agintariaren intereserako idatzi du.

Historia irlandar modernoan auzi soziala agertu zen guztietan, lanaren auzia eta honen gaitzak gure politikari moderno irlandarren idatzi eta diskurtsoetan azaldu ziren guztietan, sinpleki aurkari baten kontrako borrokan arma bezala erabili ahal izan zirelako izan zen, eta ez inondik ere hauek erabili zituen idazle hura lanaren esklabotza, bere baitan, gaitz bat zenaren inguruan konbentziturik zegoelako.

Liburu honek, lehen lekuan, iritzi hori frogatu nahi du. Egiaztapen hau aipu bidezko frogei – dokumentalei edota bestelako-
ei – erreferentzia eginez egin nahi da, hauek argitzen baitute langile klase irlandarrak iraganean izandako egoera, gure politikari

irlandarrek populazio masen oinazeen aurrean izan duten erabateko axolagabetasuna eta XVIII. eta XIX. mendeetan zehar guda-zelaien izan ziren asaldura politiko askoren egiazko esentzia. Batasunaren aurreko garaiari atentzio berezia eskaintzen zaio eta Irlandak Grattanen Parlamentuaren garaia aurretik eta zehar izan zuen egoerarekin, landako eta hiriko langileen baldintzekin eta alde guztietako politikariek, bai abertzaleak izan bai ministerialistak izan, lan eskuarekiko hartu zuten jarrerarekin erlazionaturiko ebidentziak emango dira. Beste hitz batzuetan esanda, gure historialarien aldetik auzi sozialak jasan duen bazterketa konpontzeko gure esku dagoen guztia egiteko asmoa dugu, eta bidea prestatu nahi genuke, luma desberdinek eta gurea baino iaioagoak direnek, irakurleari baldintza ekonomikoek gure historia irlandarra nola kontrolatu eta menperatu duten erakuts diezaioten.

Baina, entsegu honen aintzinsolas gisa, beharrezkoa da betidanik temati azaldu ditugun historiako gertakaririk aipagarrienetako batzuk laburtzea, oinarrizkoak baitira “auzi irlandarra-*ren*” erabateko ulermena izateko.

Politikoki, Irlanda Ingalaterraren kontrolpean egon da azken 700 urteetan zehar, eta denbora horren zatirik handienean aginte horren aurkako etengabeko gerren eszenatokia izan da herrialdea, jatorrizko irlandarren aldetik. 1649rarte gerra hauek erabat korapilatatu ziren, inbaditzaile ingelesak finkaturiko ordena politikoaren eta *sozialaren* aurka zuzendu baitziren. Irakurle asko harritu egin daiteke aipatu den dataraino Irlandako gizartearen oinarria, Palen barnean izan ezik (Dublin hiriburuaren inguruko lurralde-zerrenda txiki bat), lurra-*ren* jabego komunal edo tribalean sostengatzen zela jakitean. Frantziako, Espainiako eta Erromako gorteek buruzagi irlandarra Europan erreinatzen zuten printzeen pareko gisa onartzen bazuten ere, errealitatean, bere posizioa mantentzen bazuen bere herriak zion tolerantziagatik zen eta auzi tribalen administratzaile izatea zen bere eginkizuna, klarenen lurra eta lurraldea bere jurisdikzio pribatutik erabat aparte zeudelarik. Lehen konkista⁷ (deiturikoaren) osteko 400 urteetan

7. 1169an normandoek egindako Irlandaren inbasioa. 1155ean Adriano IV. Aita Santu Ingelesak Henry II Ingalaterrako erregeari Irlandaren gaineko eskubideak eman zizkion bula baten bitartez. 1177rako irlaren zati esanguratsua ingelesen boterepean geratu zen, Aita Santutzak konkista berronetsiz.

zehir gobernari ingelesak, ejertzito boteretsu baten buruan ez bazihoazen behintzat, sartu ezin izan ziren Irlandako zonalde haie-tan, Ingalaterran indarrean zegoen ordena soziala –feudalis-moa– ezezaguna zen, eta zonalde hauek herrialdearen zatirik handiena osatzen zutenez, denborarekin, atzerritar zapaltzailea-ren aurkako gerrak lurraren jabe go pribatuaren aurkako gerra ere bazela ulertzera iritsi ziren. Baina 1649an klanen sistemaren indarrezko disoluzioa eman zenean, borroka irlandarraren as-pektu soziala desagertu egin zen begien bistatik, eta bere lekua askatasunaren aldeko borrokaren adierazpen politiko soilak usurpatu zuten. Gertakari hau ezinbestekoa zen, noski. Lurraren jabe go komunalak, zalantzarik gabe, lurjabe-kapitalistaren jabe-go pribatuaren sistemari emango zion bidea, Irlanda indepen-dente mantendu izan bazen ere. Baina hau jazo zenean, barneko indar ekonomikoen funtzionamendu propioagatik izan beharre-an atzerriko indar armatuaren presioagatik gertatu zenez, herri irlandarraren masa zabalak modu garratz eta zilegitasunez egin zion erresistentzia aldaletari, berauetako askok oraindik ere eu-ren askatasun ametsak jada organikoki ezinezkoa zen antzinako lur jabetza sistemara itzultzeko irrikarekin nahasten zituztelarik. Klanen dispertsioak buruzagien gidaritzari amaiera eman zion, noski, eta ondorioz, *aristokrazia bere osotasunean jatorri atzerritarre-koa edota traidorea zenez*, mugimendu abertzale irlandarrak klase ertainen eskuetara erori ziren erabat eta, ia euren osotasunean, klase honen interesen adierazpen idealizatu soilak bilakatu ziren.

Horrexegatik, hain zuzen, ahalegindu dira klase ertainaren bozeramaileak, prentsan edota tribuna politikoan, mugimendu nazional irlandarra zikiratzen, historia irlandarra distortsiona-tzen eta, batez ere, desjabetu irlandarren eskubide sozialen eta nazio irlandarraren eskubide politikoen arteko erlazio oro uka-tzen. Honen bidez, espero zena eta egin nahi zen saiakera “egiaz-ko mugimendu nazional” bat sortzearena zen, hau da, klase ba-koitzak gainerako klaseen eskubideak onartuko lituzkeen mugi-mendu bat, desadostasunak alde batera utziz, eta denak borroka nazional bakar batean elkartuz denen etsai komuna den hura ezarri jopuntu: Ingalaterra. Esan beharrik ez dago langile kla-sea izan zela esaldi horiekin engainatua izan zen bakarra. “Kla-se” intereseke auziak eztabaida publikotik ezabatzen direnean, garaipena jabeen klasearena, klase kontserbadorearena, da, bere

segurtasun itxaropen bakarra hain justu ezabapen horretan sus-
traitzen baita.

Iruzurrezko fideikomisodun baten gisan, burgesak ez du bel-
dur handiagorik bere tituluen baliozkotasunaren inguruko ikerke-
ta inpartzial eta zorrotz bat egitea baino. Horrexegatik ahalegin-
tzen dira prentsa eta politikari burgesak, atsedenek gabe, langile
klasearen pentsamenduak hauen klase interesen ikus-eremutik
kanpo dauden arazoekin haserrarazten, beraien gogoak sukarre-
raino berotuz. Gerrak, erlijioak, arrazak, hizkuntzak, erreforma
politikoak, abertzaletasunak – izan ditzaketen berezko merituez
gain –, denek, jabeen klasearen eskuetan badaude, hauei langile-
riarengan sustatu duten sukar horren erremedio apalgarri gisa ba-
lio diete, eta estrategia hori iraultza sozialaren katastrofea saihe-
teko baliatzen dute, sukar hori gorputz politikoaren atalik urrune-
netara lekualdatuz, eta langileria itaunketa ekonomiko bat bere
kabuz burutzeko gaitasunetik, eta ondorioz, bere klase kontzien-
tziatik, urrunduz.

Burges irlandarra halako azpijokoen jarraitzailea izan da den-
bora luzean zehar eta, aitortu behar da, neurritz gaineko malguta-
suna duen materiala aurkitu duela langile klaseko bere herrikide-
en artean. Azken ehun urteetan zehar, Irlandako belaunaldi ba-
koitzak aginte ingelesaren aurkako matxinadaren bat ezagutu
du. Konspirazio edota matxinada orok bere partehartzaileen gehi-
engo hiri eta landako maila apalenetatik atera du, eta, hala
ere, klase ertaineko zenbait doktrinatzaileren inspiraziopean,
auzi soziala zorroztasunez baztertua izan da errebolta horien
ekintza eremutik, matxinada horiek arrakasta izanez gero, baz-
terketa horren bitartez, goi klaseak erakarri ahal izan eta askata-
sunaren aldeko borrokan izen emango dutenaren itxaropenez. Ia
kasu guztietan, emaitza beti berbera izan da. Langileek iraultzai-
leen borrokarako lerroak errekruta proportzio handienaz horni-
tzen bazituzten ere, eta ondorioz, presondegietako eta urkamen-
dietako biktimen gehiengoaren hornidura ere ematen bazuten
ere, ezin izan ziren zazpiehun urtetan zehar beren herriaren bi-
hotzean ezarritako agintea serioski arriskuan ipintzeko behar adi-
nako su iraultzailez en masse bereganatuak izan. Denek nahikoa
askatasun irrika zuten, baina zailtasun izugarrietaz jakitun eta es-
plizituki arrakasta izanik ere, ez zutela beren esklabotza soziale-
ko egoeran aldaketarik espero behar esaten zieten buruzagiak

izanda, blokean desertatzen zuten saiakera bera ere egitetik eta bakarrik uzten zituzten euren klaseko adimenik puruenak eta adeitsuenak zailtasunaren aurrean eta tiranoaren mendekua asebetetzen; ohartarazpen bat, beraz, edozein herrialdetakoak izanik ere, hil ala biziko egia hau ahazten duten haientzat guztientzat: iraultza arrakastatsuak ez dira gure garunen produktu, baldintza materialen heldutasunaren emaitza baikik.

Goi klasea ere, mespretxati, entzungor mantendu zen abertzale burgesaren xarmaren aurrean. Beraiek (goi klasea) euren jabe-goari, lurrarena izan edota beste edozein motatakoa izan, tinko atxikitzen ziren, jakina; Ingalaterraren botere babeslearenpean seguru sentitzen ziren euren jabeagoan, baina ez zuten inongo asegururik, inondik inora, altxamendu iraultzaile arrakastatsu baten kasuan izango zuketean patuaren aurka. Lurjabeen klaseak, hortaz, Ingalaterrari leial izaten jarraitzen zuen erabakitazunez, eta klase ertaineko poetak eta erromantikoak “klaseen eta kredoan batasunaren” itxaropenarekin irrikaz aurkitzen ziren bitartean, aristokraziak bere maizterren aurkako interes pribatuak atzetik jarraitu zuen, herrialdearen despopulaketaren arriskua zekarren gupidagabetasun batekin, eta egunkari ingeles kontserbadore bat ere, *The London Times*⁸, “lurjabe irlandar baten izenari kiratsa dario Kristandadearen sudurren aurrean” adieraztera iritsi zen.

Ona da, etorkizunean antzeko burugabekeriak ez burutzeko ohartarazpen gisa, Thomas Davisek ele ederrez eginiko erregru haiek entzun zituen lurjabe irlandarren belaunaldi hura, goseteen garaian “bere eskubideak burdinazko barrekin betearazi eta bere eginbarrei lotsarik gabeko kopetarekin uko egin zien” belaunaldi berbera izan zela gogoratzea.

Klase ertain baxuak abertzale desinteresatu asko eman zizkion iraganean kausa nazionalari; baina, bere osotasunean, euren herrikide xeheak atsegintzea nahi eta horretarako prest bazeuden ere, eta, askatasunaren kausaren aldeko euren debozio nekaezina beste inork baino altuago oihukatuz euren kontzientzia lasaitu nahi bazuten ere, klase gisa, etenik gabe ahalegindu ziren iritzi publikoa agitazio konstituzionalaren bideetara bakar-bakarrik zuzenduarazten, soberan zegoen ofizialismo amorragarriari amaiera eman diezaiokeen edozein erreformaren alde eginez, baina

8. Londreseko Denborak.

esklabotza nazionalaren eta ekonomikoaren oinarria ukitu ere egi-
ten ez zen bitartean. Politika honek jendetza ezjakinaren aurrean
abertzale gisa mozarrotzea ahalbidetzen die, eta, aldi berean,
“buruzagi abertzale” gisa jaurtikitako euren hitzek indar gehiago
hartzen dute beraien zintzotasunaren froga gisa euren biriken in-
darrak eman ditzaketenak baino gehiago edota sakrifizio gisa eu-
ren finantzek ahalbidetzen dietena baino gehiago emateko exijitzen
dieten mugimendu iraultzaile haiek salatuko dituztenean. 1848
eta 1867 urteetan, Irlanda Gaztearen mugimenduak⁹ eta Mugi-
mendu Feniarrak¹⁰, klase ertain irlandarraren politika honen
ilustrazio klasiko bat ematen digute.

Hauxe da politika eta historia irlandarraren gaineko gure ikus-
puntua. Ondorengo kapituluetan ikuspuntu honek oinarri dituen
gertakariak aurkeztuko dira irakurleen aurrean.

9. Young Ireland.

10. Fenian Movement.

II. KAPITULUA

Jakobitak eta herri irlandarra

Gizon publikoei esplizituak izatea zegokien garairik izan bada, giza arrazaren kontrako zigorra diren politikari deituriko horiek euren faltsukeria eta sotiltasuna alde batera uzteko garairik izan bada, oraintxe da unea. Egon ziur herri honek ez duela bere ongizatea zenbait familia frakzioen arteko kirol izatea denbora gehiagoan zehar jasango; egon ziur herri honen egiazko interesa herriaren kontura beraiek eta beren familiak mailaz igotzea beste helbururik ez duten gizon haiek agintetik botatzea dena, eta hauen lekuan nazioa ordezkatzeko luketen gizonak, nazioaren aurrean kontuak emango lituzketenak eta nazioaz arduratzeko direnak, jarri nahi dituztela.

Arthur O'Connor, Komunen Ganbara irlandarrean, 1795eko maiatzaren 4an

Esan liteke historia moderno irlandarra, adiera honen zentzu osoan, Williamisten gerren amaierarekin hasten dela 1691an. Hurrengo berrehun urtetan zehar, Irlandaren bizitza politikoak Ingalaterrako James erregearen eta bere tronurako erregegaiaren, William, Orangeko Printzearen, arteko gatazkaren argitan hartuko du bere kolorea eta honela bakarrik uler liteke. Politika irlandarra, momentu eta belaunaldi honetaraino ere, herri irlandarren sektore ezberdinek Sarsfield eta Limerickeko goarnizioa hau inguratzen zuten indar williamisten aurrean errenditu zenean amaitu zen gatazka luze hura zein argirekin ikusi izan dutenaren arabera determinaturik egon da eta hala jarraitzen du. Hala ere, Irlandaren historia osoan izan ziren gerretan, herri irlandarrak ez zuen bando baten edota bestearen aldeko interesa erakusteko arrazoi gehiago edo gutxiago izan. Tamalez, ez dago zalantzarik garai hartako katoliko irlandarrek lehoiek bezala borrokatu zutela James erregearen alde. Ez dago zalantzarik katoliko irlandarrek,

James erregea tronuan mantentzeko ahaleginean, euren odola ura bailitzan isuri zutela eta euren aberastasunak hautsa bezala galdu zituztela. Baina era berean, ez dago zalantzarik borroka honek guztiak beraiekin zerikusirik ez zuela; ez dago zalantzarik James erregea tronu bat okupatu duen arrazarik gupidagabeenaren ordezkari gupidagabeenatariko bat zela; ez dago zalantzarik William “errukitsu, loriatsu eta hilezkorra” bere kontura borrokatzan zuten abenturazale soil bat zela, bere ejertzittoa Europako ezpatari txiroek, protestantismoaz giza bizitzaz bezain gutxi arduratzen zirenek, osatzen zutelarik; eta ez dago zalantzarik ejertzito bakar batek ere ez zuela inongo eskubiderik bere burua arraza irlandarraren askatasunaren alde borrokatzen ari zen ejertzito abertzale baten moduan agertzeko. Sarsfieldi eta ejertzito jakobitari eskainiriko alabantzazko ereserkiak justifikaturik egotetik urrun, oso arraroa litzateke gurea baino buruargiagoa eta abertzaleagoa den aro batek hauei traidore kondena baino zerbait apalagoa ematea, herri irlandarra euren herrialdearen askatasunaren kausarekiko obedientziatik bereiztu baitzuten, tirano atzerritar baten aldeko gerra batera bultzatuz – borroken erdian Dublingo Parlamentuaren beraren aurka ipini zen tirano baten alde egitera alegia, Dublingo Legebiltzarra Parlamentu ingelesaren gailentasuna ezerezteko ahaleginetan ari zen unean bertan. Williamen eta Jamesen arteko gerrak aukera bikaina eskaini zion Irlandako herri zapalduari bere askatasunaren aldeko aldarria egiteko, bere zapaltzaileen indarrak gerra zibil batean elkar odol-hustutzen ari ziren bitartean. Baina aukera alde batera utzi zen eta herri menperatuak bere etsaien fakzio kontrajarri batekin edo bestearekin hartu zuten posizioa. Ez da zaila arrazoia aurkitzea. Momentu hartan Irlandako herriaren lidergoa zuten zaldun eta noble katoliko haietako guztiak, salbuespenik gabe, herrialdean jabetza esanguratsu baten jabe ziren gizonak ziren, eta euren katolikotasuna katolikotasun, ez zuten abenturazale cromwelliar edota williamista soil batek baino eskubide gehiago edo gutxiago jabego hura eurena izateko. Jabetzan zituzten lur haiek antzinako garaietan herri irlandarrarenak izan ziren lurak ziren – beste hitz batzutan esanda, tribu-lurak ziren—. Honela izanik, nekazalgora zen – ordurako maizter xehe baten posiziora murriztuta zegoena – luraren zilegizko jabea, eta bien bitartean, James erregearen zerbitzuan zeuden zaldun jakobita haiek euren

jabegoa iraganeko konfiskazioren baten bidez, konkista garaiko harrapakin bezala, eskuratu zuten gizon haien ondorengoak bes-terik ez ziren; euren herrikideen aurka zapaltzailearekin posizioak hartu eta traizioaren fruitu gisa euren jabegoa kontserbatzea bai-mentu zitzairen gizon haien ondorengoak ziren; edota, Gobernu ingelesari, sari gisa, euren klanaren lurren gaineko titulu pertso-
nal bat eskatzera iritsi ziren haien ondorengoak ziren. Konbinake-
ta horretatik ezin zitekeen egiazko ekinbide nazional bat espero,
eta euren jokabide publikoaren hasieratik bukaeraraino, fakzio
ingeles baten moduan bakar-bakarrik jokatu zuten. Williamisteki-
ko desadostasuna eragiten zieten puntua edozein zela ere, puntu
batean behinik behin erabat ados zeuden haiekin, herri irlandar-
rak herri menperatu bat izan behar zuenaren inguruan alegia;
eta erraz ulertuko da, gerra Williamen erabateko porrotarekin eta
Jamesen garaipenarekin amaitu izan bazen ere, irlandarren ge-
hiengoak, bai lurraren langile gisa bai nazio gisa, ez zuela esangu-
ratsuki hobera egingo. Gerlari xeheen abertzaletasun ukaezinak
ez du egoeraren errealtatea aldatzen. Beraiek Ingalaterratik zeto-
rren etsai berria bakarrik ikusi zuten, baina Irlandan finkaturik
zegoen etsai ingeles zaharrarekin eskuzabaltasunez, baina inozo-
keriaz, jokatu zuten, edozertan sinesteko prest zeuden irlandar
abertzaleen bertute eta atributu guztiak erakutsiz.

Irlandako buruzagi jakobiten izaeraren inguruko gure ikus-
puntua are gehiago erakusteko, 1675eko Irlandako lur banaketa
handiaren emaitzak ekar ditzakegu hona. Hamaika milioi akre
mugarrituak izan ziren orduan, hauetatik lau milioi kolono pro-
testanteen eskuetan zeudelarik, lehenagoko konfiskazioen emai-
tza gisa.

Azken lur mota hauek ez ziren inoiz ukituak izan, baina gai-
nerakoa ondorengo eran banatua izan zen:

	Akreak
• Gerra irlandarrean zerbitzatu zuten soldaduei . . .	2.367.715
• 49 ofizialei	497.001
• Abenturazaleei (Dirua mailegatu zutenei)	707.321
• Hornitzaileei (Lurra hitz eman zitzaienei)	477.873
• Ormondeko Dukeari eta Butler Koronelari	257.518
• Yorkeko Dukeari	169.436
• Apezpiku protestantei...	31.526

Katolikoei utzi zitzaizkien lurrak zaldun katolikoaren artean banatuak izan ziren, ondoko moduan:

Akreak

- "Errugabe" deklaratuak izan zirenei, hau da, askatasunaren alde borrokatu ez zutenei, Gobernuaren alboan lerrokatu zirenei1.176.570
- Hornitzaileei (hitz emandako lurra)... .497.001
- Jabe izendaturikoei... .68.260
- Jabegoen itzulpenetarako... .55.396
- James I.arenpean Connachtera lekualdatuak izan zirenentzako .541.330

Ikus daiteke, beraz, Irlanda osoko aristokrazia katolikoaren eskuetan geratu ziren lur guztiak, Connachteko lurren jabegoaren salbuespena alde batera utzita, lehen deskribatu dugun moduan irabazitako lurrak izan zirela: konkistaren harrapakin gisa edota traizioaren fruitu bezala. Salbuespenezko probintzia horretan ere, aristokraziaren lurrak Koroa ingelesarekin eginiko alokairu feudal baten bitartez eskuratu ziren, eta ondorioz, hauen jabeak hitzarmen zuzen batean sartu ziren inbaditzailearekin klannaren komunitatearen eskubideak baliogabetu zitzaizkien euren komenentzia pertsonalen mesedetan. Hemen topatzen da, beraz, garai hartako buruzagi irlandarrek nazio irlandararen estandar-tea altxatzeari uko egin izanaren egiazko arrazoia, haren ordezkario ingelesak askatasunaren alde, edota herri irlandarrei bere eskubideak berriro ere itzultzeagatik, baizik eta herri irlandarrei lapurreta egiteko pribilegioa zuen klase hura lur-lapurren gudaroste berri baten aurrean amore ematera behartua izan ez zedila segurtatzeko baizik. Asko esan izan da aristokrata hauek Poyningesen Legea¹¹ baliogabetzeko edota, beste kasu batean, Dublingo Parlamentuaren ebazpenei indar legegile handiagoa emateko egindako saiakeren inguruan, ekintza horiek herrialdea as-

11. Poyningesen Legea. 1494an Sir Edward Poynings Irlandako erregeordeak Parlamentu Irlandarrean abian ipinitako lege parlamentarioa. Modu honetan, gerra zibileko testuinguru hartan, Irlanda monarkia ingelesarekiko obedientzia osoan ipini nahi zenez, Parlamentu Irlandarra Parlamentu Ingelesaren menpe gelditzen zen.

katzeko euren desira zintzoaren froga bat bailiran, eta ez simpleki boterea eurek mantentzen jarraitzeko aseguru. Baina zenbait idazleren aldetik datozen halako aldarriek, gidatuko gaituen eta eginkizunean zuzenduko gaituen printzipio zentralik edukitzen ez denean gertakari historikoak ulertzeko garaian zailtasunak besterik ez direla sortzen frogatzeko bakarrik balio dute.

Gure irakurleen probetxurako Historiaren orrialdeen giltzari sozialista azal dezakegu hemen, errazago uler dadin zergatik iraganean klase agintariek, une oro, botere politikoaren konkista euren menperatze ekonomikoaren berme, edota modu errazagoan esanda, masen esklabotasun sozialaren berme gisa finkatu duten, eta aldi berean errazago uler dadin zergatik langileen askatasuna, zentzu politikoan bada ere, osagabea eta zalantzia izango den klase agintariei lurraren eta aberastasuna ekoizteko instrumentuen gaineko jabetza eskuetatik erauzten ez bazaie. Proposizio hau, edota historiarentzako giltzarri hau, Karl Marxek, pentsalari modernorik handienak eta lehenengotariko sozialista zientifikoak, ezarri zuenaren arabera honako hau da:

Garai historiko bakoitzean gailentzen den ekonomiaren ekoizpen eta banaketa moduak, eta halabeharrez honetatik eratorzen den antolaketa sozialak, garai horretako historia politikoa eta intelektuala azaldu ahal izateko oinarri bakarra osatzen dutela.

Irlandan, gerra Williamistaren garaian, "gailentzen zen ekonomiaren ekoizpen eta banaketa modua" herri irlandarrari lapurtutako lurren jabetza pribatua oinarritzen zen modu feudala zen eta garaiko borroka politiko guztiak lur horien gaineko jabetza mantendu nahi zuten usurpatzaile gutxi batzuen eta lur haiek eskuratu nahi zituzten beste gutxi batzuen interes materialen gainean eraiki ziren; beste era batean esanda, James erregearen Parlamentu jakobitak planteatzen duen arazoari goian aipatu dugun giltzarria aplikatzeak, behingoan azalduko izango du noblezia katolikoak ahalegin abertzale deitu izan diren horiek egin izanaren arrazoia. Euren ahaleginak euren jabetza eskubide propioen kontserbaziora zuzendurik zeuden, Parlamentu ingelesak eskubide horietan edota hauen erregulazioan muturra sartzeko zuen eskubidearen aurka zeuden bezalaxe. Parlamentu abertzalea, errealtatean, Dublinen finkatu izan diren beste edozein parlamentu bezala, lur lapurren eta hauen lekaioen bilduma bat

besterik ez zen; euren abertzaletasuna bertako nekazalگو aktibori ateratako harrapakinari eusteko, beraientzat eusteko, ahaleginean oinarritzen zen; influentzia ingelesaren aurka protesta egiten zutenean harrapakinaren zati bat eskuratzeko gose ziren euren kideko Ingalaterrako lapurren eraginari buruz ari ziren; eta William erregearen Gobernuaren aurka egindako borrokan, Sarsfield eta bere jarraitzaileak ez ziren abertzale irlandar izatera iritsi, ez behintzat Gubernutik kanpo dagoen *whig*¹² irlandar bat, bertan dauden *tory*ekiko duen gorrotoa dela eta, izatera irits daitekeena baino gehiago. Derryko edota Limerickeko harresien ondoan borroka egin zuten indar haiek ez ziren Ingalaterraren edota Irlandaren indarrak, Gobernuaren botereak eskuratzeko norgehiagokan zeuden bi alderdi politiko ingelesen indarrak baizik; eta erbesteuratutako irlandarren buruzagiek ez zuten Irlandarenganako fidelitateagatik isurtzen euren odola gudu zelai europarretan, gure historialari batzuek sinetsi nahi duten bezala, politika ingeleseko bando garaituarekin konprometitu zirelako baizik. Izate hau erabat argi geratu zen franko-irlandarrek Frantziako Iraultzaren garaian burututako egintzetan, eta ondorio gisa, Europa ikuskizun baten lekuko izan zen, non batetik erbesteratu errepublikar irlandar berriek Iraultza Frantsesaren alde borroka egiten zuten, eta bestetik aristokrata irlandarren erbesteraturiko semeek Ingalaterraren banderapean borrokatzen zuten, Iraultza hori bera zapaltzeko. Bada garaia gai hauen inguruko egia aintzat hartzen eta balioesten ikastekoa eta gure begietatik Historia idazten duten gure politikari ezjakin eta arduragabeek ehundu diguten armiarma sareak kentzekoa.

12. Whig: Adiera honek, Eskoziako gaelikoan, “abere-lapur” adierazten du, Edimburgoren konkistan parte hartu zuen hegal presbiterianoari eman zitzaion izena. Hegal honek errege jakobita, katolikotasunerako bilakatu berri zena, boteretik botatzeko egin zuen borroka bandera williamista hartuz, eta merkatarien defentsa zen euren bandera. Gerora Alderdi Liberalekoak izendatzeko erabiliko da, botere sektore liberalenari erreferentzia eginez.

Tory: Adiera hau berriz irlandarazko “bide lapurretik” dator, eta hain justu Jacobi babesa eman zioten haiek osatzen zuten. Elitearen hegalik kontserbadoreena izango litzateke, lurjabe terratenienteen defentsa azken muturreraino eramane zuena eta gerora Alderdi Kontserbadorean amaituko zuena.

Beste aldetik, gogoratu beharrekoa da baita ere, William erregeak, Irlandako bere etsaiak azkenean menperatu zituenean, bere arerioen klase sentimendu eta kontsiderazio berberak gidaturik zegoela erakutsi zuela bere eta bere jarraitzaileen ekintzetan. Gerra amaitu zenean, Williamek milioi bat eta erdi akre konfiskatu zituen eta arpilatzaile aristokraten artean banatu zituen ondorengo modu honetan:

Lord Benticki 135.300 akre eman zizkion; Lord Albemarle 103.603; Lord Coningsbyri 59.667; Lord Romneyri 49.517; Lord Galwayri 36.142; Lord Athloneri 26.840; Lord Rochfordi 49.512; Leslie doktoreari 16.000; F. Keighley jaunari 12.000; Lord Mountjoyri 12.000; Sir T. Prendergasti 7.083; Hamilton Koronelari 5.886.

Gizon hauexek dira hain zuzen, ustez irlandar sanoak diren eta askok "klaseen batasuna" predikatuz "nazionalista" bilakatu-ko direla uste duten ondorengoak eman dituztenetako batzuk.

Eta ahaztekoa ere ez da, bere zintzotasun erlijiosoaren froga bezala baldin bada ere, William erregeak, herri irlandarrari arpilaturiko 95.000 akre, bere maitaleari, Elisabeth Viellers Orkneyko Kondesari, eman zizkiola. Baina Parlamentu irlandar bertutetsua tartean jarri zen, lurrak errekueratu zituen eta bere berehalako lagunen artean banatu zituen, abenturazale irlandar legitimisten artean alegia.

III. KAPITULUA

Nekazarien matxinadak

*Klase txiki batek, atzerritarra edo bertakoa izan, lur-
raren gaineko monopolioa eskuratzea onartu ezin
den bidegabekeria bat da; hau praktikan jartzea txiro-
aren irabazi latz eta neketsuen lapurreta bat besterik
ez da.*

*Irish People*¹³ (Anaidi Feniarraren Organoa),
1864ko uztailaren 30a.

Aurreko kapituluan aipatzen genuen gerra Williamista Irlandan, Derrytik Limerickera, batez ere herri irlandarraren gaineko agintegatik gerra bat izan zela, eta askatasun nazional edota industrialaren inguruko auzi guztiak baztertuak izan zirela bi bandoe-tako buruzagien aldetik, euren prototipo modernoek dioten moduan “politika praktikotik baino haratago” baleude bezala.

Nazioa berriro ere bakearen eginkizunei ekiten hasi zenean eta altxamendu katoliko edo jakobita baten beldurra zalduntxo timoratoenaren burutik ere jada desagertu zenean, zoritxarreko Irlandako biztanleek, katoliko edo protestante izan, argi ikusi zuten zein desberdintasun gutxi ekarri zuen gerrak klase zapaldu gisa zuten egoerarekiko. Katolikoak, Jamesen ejertzitoarekin elkartzeko bezain inozoa izan zenak, ezin zuten, normala den bezala, kontsiderazio asko espero bere konkistatzaileen aldetik, eta ez zuten bat ere jaso, baina bere etsai protestanteen tropa bera baino okerrago tratatua ez zela ikustearen kontsolazioa behintzat izan zuten. Williamen zerbitzura zeuden konpainiak bete zituzten abenturazaleen horda gosetiak harrapakinarekin ase zirenean, kanala gurutzatzeko izan zuten arrazoia hau baitzen, ez zuten gogo handirik erakutsi soldadu arruntaren —hau da, boterera igotzen lagundu zien ezpata eraman zuten haien— eskakizunak gogoratzeko, edota ez behinik behin egungo gure gobernariak erakusten

13. Herri Irlandarra

dutena baino gehiago, krimenaren eta harrapakeriaren bitartez euren ugazabei Indian eta Afrikan inperio bat irabazi dieten inozo gizagaixo horien hondakin eskeletikoak txiroen asiloetara bidaltzen dituztenean.

Denbora gutxira, maizter protestante eta katolikoek dagoeneko zapalketa komuna jasaten zuten. Gailentasun politikoaren auzia azkenean konpondu zenean, esklabotza ekonomikoaren uztarrria krudelki erori zen herri langilearen bizkarren gainean. Sekta erlijioso guztiek berdin jasan behar izan zuten arrazoi honengatik. Katolikoek aurka indarrean zeuden lege penalek jabegodun katolikoek bitzita arriskutsuago bilakatzen zuten, bestelako kasu batean izan zitekeena baino arriskutsuagoa; baina biztanleriaren masa zabalarentzat lege ekonomikoek garapenak eragiten zituen miseria eta nekea edozein unetan lege penalek eragin zezaketen sufrimendua baino askoz ere handiagoak ziren.

Izatez, lege-kode hauek katoliko aberatsen pobretzean izandako eragina asko puztu izan da. Klaseko interesek, une oro komunitate bateko jabeen klasea batarazten dutenek, maila gorengo batean funtzionatu zuten, jazarpen-boterearen aplikazioa bere azken muga legaleraino iritsi ez zedin. Katoliko aberatsak lasaitasun osoz onartuak ziren eta, orokorrean, protestante aberatsen aldetik beraiek euren maizter edota langileei inoiz eskaintzen ez zieten begirune eta induljentzia kantitatea jasotzen zuten. Hainbesteraino zen hau hala ezen zenbait katoliko, judutarren moduan, famatu bilakatu zirela diru mailegari gisa eta 1763an Komunen Ganbera irlandarrean lege-proiektu bat aurkeztu zela katolikoei dirua maileguan eskatu nahi zieten protestanteei erraztasunak emateko. Lege-proiektuak proposatzen zuena katolikoek lur jabetzen hartzekodun hipotekari izatera iristeko aukera izan zezatela zen, dirua maileguan eskatu nahi zuten lurjabeek, berme gisa, euren lurren gaineko hipoteka bat diru mailegari katolikoei emateko aukera izateko. Lege-proiektua ez zen onartua izan, baina aurkeztua izateak bakarrik lege penalek, jabeen klase katolikoek aberastasunaren metaketa eragozterako unean, zein gutxi funtzionatu zuten erakusten du.

Honela, Irlandako lurretan hain zurrunki sustraituriko sistema soziala – klase agintariak, bere erlijioa edozein izanda ere, zilegizkotzat onartu zuena – edozein legedi erlijiosoren intolerantziari bururatu zitzaiona baino etsai handiagoa izan zen herriaren

oparotasunarentzat eta zorionarentzat. Politikari irlandar modernoek, Historiako gertakariengatik ezjakintasun zoriontsuak inspiraturik edota honen irakaspenen aurrean muturrerainoko axolagabetasuna erakutsiz, Irlandaren miseriaren jatorria Batasun Legegileari egozteko ohitura dute, baina Batasunaren aurreko literaturaren azalenean ezaguerak kausa ekonomikoek eragindako gosearen, zapalketaren eta zuzengabekeriaren aurrekariak erakutsiko dizkigu, historia irlandar modernoaren beste edozein gairaitan gainditu ez diren mailetan. Honela Swiftek, 1729an sarkasmoaren maisulan hura, *Proposamen xume bat Irlandako txiroen semeak euren guraso edota herrialdearentzat zama bat bilakatzea eragozteko, eta publikoarentzat onuragarri bilakatzeko* idatzi zuen hark, pobrezia eta miseriaren ikuskizunarekin hain hunkiturik geratuta, eta herriagatik maitasunik sentitzen ez bazuen ere, zeinarentzat ez baitzuen, errealtatean, “irlandar zahar basatia” baino izen hobearik topatu, egun haietako gizartearen salaketa sutuena eta garratzena – eta etsipenaren koadrorik txundigarria – burutu zuen, literaturak inoiz ezagutzera eman ez duena. Hona hemen, errealtatean, bere *Proposamena*:

“Malenkoniaren objektu da hiri handi honetatik osteratzen edota herrialde honetatik bidaiatzen duen ororentzat kale, bide edota txabolen atariak andrazko eskalez beterik ikustea, hiru, lau, sei hurrek jarraitzen dutela, denak trapu zaharrez jantzita eta igarotzen den oro gogaituz limosnaren eskearekin. Hori dela eta, nik, gogoeta publikorako proposatzen dut kontaturik dauden ehun eta hogeita mila haurretatik hogeita mila ugalketarako erreserbatzea... eta gainerako ehun milak, urtebetera iristean, erreinu osoko kalitatezko eta aberastasundun pertsonen salmentan eskaintzea, beti ere amari azken hilabetean zehar bularra emateko gonbidatuz mahai on baterako mardul eta lodi entregatzeko. Haur batekin bi plateretarako adina iritsiko da lagunarteko gonbiteetan, eta familiak bakarrik jaten duenetan aurrealdeko edota atzealdeko laurdenek itxurazko plater baterako adina emango dute; eta piperbeltz eta gatz apur batekin ondurik, gisatu on bat eman lezake laugarren egunean, bereziki neguan... Jada kalkulatu dut eskale baten semea elikatzearen kostua (eta eskaleen zerrendan laborariak, langileak eta nekazarien lau bosten sartu ditut) urteko bi txelinekoa dela gutxi gora behera, trapu zaharrak barne; eta uste dut zaldun batek berak ere ez liokeela uko

egingo, lehen esan bezala, lau plater haragi bikain eta elikagarriak betetzeko emango luken ongi gizendutako haur baten gorputzarrara hamar txelinengatik ordaintzeari”.

Sarkasmoa, dudarik gabe, baina zein latza behar izan du mi-seriak halako sarkasmoa onargarri bilakatzeko! Handia, zalantzarik gabe izan zen gisan; eta hamabi urte geroago gainditua izan zen, 1740ko gosetean, gosez edota goseak eragindako eritasunez 400.000 pertsona baino kopuru txikiagoa hil ez zela estimatzen den hartan. Hau handikeri bat iruditu liteke, baina baieztapena zabalki konfirmaturik dago garaiko testigantzengatik. Honela, Berkeley apezpikuak, Eliza Anglikarrekoak, Dublingo Thomas Prior jaunari idazten ziolarik, 1741ean, zera dio, “lehenago batean Limerickeko konderriko bati entzun nion herri osoak despopulaturik daudela. Bi hilabete lehenago Sir Richard Coxi entzun nion bostehun hil zirela parrokan, uste dudanez, oso populaturik ez zegoen konderririk baldin bazen ere”. Eta *Irlandaren aieneak* izeneko eskuorriak, 1741ean argitaratuak, zera baieztatzen du: “Eskasi unibertsalari disenteriak eta sukar galgarriek jarraitu zioten, genero guztietako jendetzak garbituz, herri osoak murrizturik geratzeraino”.

Gosete hau, azpimarratu behar da, gosete moderno oro bezala kausa ekonomikoei bakarrik egotz zitekeen; erlijio eta ideia politiko guztietako txiroek berdin jasan behar izan zuten; erlijio eta ideia politiko guztietako aberatsak berdin salbuetsita gelditu ziren. Aipagarria da baita ere, jabeen klaseen soldatapeko eskribauk historia nola idatzi zutenaren argigarri gisa, lege penalen inguruko literatura mardul bat sortu den bitartean —hil ostean soil-soilik interesa izan duen auzia—, halako garrantzia izugarria, bai historikoki bai praktikoki, izandako auzi batek, gose irlandarra eragin zuten kausen inguruko auziak alegia, aipamenik mezezi ez izana bestalde, historia nazionaleko erreferentzia hutsal eta ezinbesteko gutxi batzuk salbu.

Herrialdea oraindik ere ez zen gosete honen ondorio latzeta-tik errekuperatu beste gertakari ekonomiko bat biztanleria etsipenik beltzenean hondoratzen etorri zenean. Gaixotasun batek Ingalaterrako abelburu kantitate handiak erasotu eta suntsitu zituenean, herrialde hartako agintari aristokratek —haragiaren prezioen berehalako igoerak Ingalaterrako langile klasearen aldetik soldata handiagoen eskakizunak ekar zitzakeenaren arriskuak

izaturik— portu ingelesetan ganadu, haragi, gurin eta gazta irlandarrek zuten blokeoa kendu zuten, honela, partzialki, artikuluhorien merkataritza askea finkatuz bi herrialdeen artean. Honen berehalako emaitza zera izan zen, hornigai horiek halako prezioa erdietsi zutela Ingalaterran ezen hauekin konparaturik lurraren laborantza produktiboa ez izatera iritsi zela eta ondorioz ahalegin guztiak lur goldagarria abere taldeentzako bide eta bazkarako zelai bilakatzeraz bideratu zirela. Klase lurjabea bere maizterrak kaleratzen hasi zen, etxalde txikiak desegiten eta herrialde osoko lur komunaletaz eta herri-larreetaz ere jabetzen, herri langilearentzat eta laborarientzat orokorrean ondoriorik hondagarrienak ekarriz. Ehun bat familiak euren etxalde txikietan, edota euren lana etxalde handietako jabeei alokatuz, euren elikabidea erein zuten leku haietan, orain dozena bat artzain topatzen ziren haien lekuan. Segituan, Irlanda osoan zehar, elkarte sekretu pila bat sortu ziren, hauen bidez herri desjabetua, ekintza ilegalak eta biolentziatzako metodoak erabiliz, euren ugazaben diru-gosea mugatzen eta bere bizitzeko eskubidea inposatzen ahalegindu zelarik. Talde handitan biltzen ziren, gauerdian orokorrean, eta hesiak eraisten zituzten, ganaduari izter-zainak ebakitzen zizkieten, bazkalekuetan lurra altxatzen zuten ezertarako balio ez zuela utziz, artzainen bordak erretzen zituzten; eta laburbilduz, euren agintariengan beldurra zabaltzea bilatzen zuten, larreen politika alde batera utz zezaten, eta langileei enplegu gehiago eta laborariari segurtasun handiagoa eman ziezaieten. Erakunde sekretu hauek izen ezberdinak hartu zituzten eta maiz metodo desberdinak ere aukeratu zituzten, eta ezinezkoa zaigu antolakuntza koherenterik bazuten edo ez esatea. Hegoaldean Whiteboys¹⁴ izena hartu zuten, euren gaueko espedizioetan euren arropen gainetik alkandora zuriak eramateko ohitura zutelako. 1762 aldera euren aldarriak ipintzen zituzten herrialdeko distrituetan —bereziki Corken, Waterforden, Limericken eta Tipperayen—, ikusteko errazak ziren lekuetan, euren nahigabea eragin zuten ganaduzale haietatik mendekatuko zirela mehatxatuz, lurjabeak euren lurretatik botaz, etab.

Aldarri hauek alegiazko emakume batek sinatzen zituen, baztuetan “Sive Oultagh” gisa, besteetan “Sive erregina eta bere

14. Mutil zuriak.

menpekoak” moduan. Gobernuak modurik mendekagarrienean borrokatu zuen zoritxarreko gizagaixo horien aurka; urkatuz, fusilatuz, gupidarik gabe erbesteratuz, gauetan Whiteboyen kide izatearen susmagarri ziren haien bila herriak inbadituz, eta dohakabe gaixo haiek presoen defentsan emandako frogarik entzutea onartzen ez baina klaseko izpirituak edota liseriketa txar batek diktaturiko edozein zigorretara kondenatuko zituen magistratu baten aurrera eramanez.

Klase agintariak esklabo pobre matxinatu haien aurka izan zuen izpiritua bi gorabeheraren bitartez epai daiteke, hauek bai jabe katolikoak bai protestanteak justizia indartzerako orduan eta euren pribilegioak mantentzerakoan nola elkartzen ziren erakusten duten adibide baitira, batasun hori gauzatzeko lege penalek suposatzen zuten oztopoa gaindiezina zela sinestarazi diguten garai batean hain zuzen ere. 1762 urtean, Gobernuak 100 libera eskaini zituen Whiteboyen aurreneko bost buruzagiak harrapatzearen truke. Cork hiriko bizilagun protestanteek 300 libera gehitu zizkioten eskaintza horri buruzagiarengatik eta berrogeita hamarna libera atxiloturiko bere bost konplizeengatik. Berehala, hiriko katoliko aberatsek, aipaturiko kantitateei, buruzagiaren truk 200 libera gehitzea hitz eman zuten eta berrogeina libera bere aurreneko bost menpekoengatik. Garai honetan adierazi zuen hain zuzen gobernari ingeles batek, Lord Chesterfieldek, askoz ere lan eraginkorragoa izango zela lurjabeek hilarazi zituzten Whiteboy haiek hil beharrean, hauen kopuru erdira iritsiko ziren adina lurjabe erailteza militarren aldetik, bakea ezartzeko bidean; nekazalgoaren artean egin zen sarraskiaren ideia arin bat ematen duen behaketa bat da hau. Hala ere, Floodek, “abertzale” protestante handiak, zeinagatik Davisek honako hau kantatu zuen:

*Bedeinkatua Harry Flood, nobleki,
urte ilun haietan, gurekin egon zena.*

gogorki salatu zuen Gobernu, Komunen Ganbera irlandarrean, 1763an, behar adina Whiteboyri heriotza ez emateagatik. Horri “errukia” deitu zion.

IV. KAPITULUA

Errebolta sozialak, eta miru eta bele politikoak

Aristokraziak aurrera egiten duenean, herriak atzera egiten du; herriak aurrera egiten duenean, aristokrazia, atzean gelditzeko beldur, gure lerroak limurtu nahian hurbiltzen da eta buruzagi lotsati edota laguntzaile traidore gisa goratzen da gure buruen gainetik.

Irlandar Batuen Elkarteko¹⁵ Proiektugileen Manifestu Sekretua, 1791.

Irlandaren iparraldean, nekazalgoaren erakunde sekretuak askotariko moduetan ezagutzen ziren, Oakboys gisa¹⁶ edota Hearts of Steel edota Steelboys bezala¹⁷. Lehenengoek euren ahaleginak, batez ere, errepedeen derrigorrezko konponketaren sistemaren aurka zuzentzen zituzten, honen arabera, doako lana eginez, herrialdeko bideen mantenturako euren ekarpena egitera behartuta baitzeuden; sistema honek, esan beharrik ez dago, euren jabegoak eta bide pribatuak edertzeko doako lan esku bat bermaturik izateko aukera guztiak eskaintzen zizkien herrialdeko aberatsei, helburu publikoari zerbitzatzearen aitzakiarekin. Oakboyen erakundea bereziki Monhagango, Armagheko eta Tyroneko konderrietan zen indartsua. 1762 aldera argitaratutako panfleto batean aipaturiko lehen konderriko nekazalgoaren “altxamendu” bat kontatzen da eta altxamendu hori zapaltzeko eginbeharra zuten tropen buru zegoen ofizialaren balentria heroikoak azaltzen dira, ejertzito britainiarrak Indiako mendietako tribuen edota Birmaniako dacoiten¹⁸ harrapakeriaren aurka noizbehinka egiten dituzten

15. Society of United Irishmen.

16. Haritzezko Mutilak.

17. Altzairuzko Bihotzak edota Altzairuzko Mutilak.

18. Dacoity: Britainiar kolonialismoarenpeko Indian “bidelapur” izendatze-

zigor-espedizioen inguruan egunkari ingelesek gaur egun egiten dituzten kontakizunak gogora ekartzen dituena ezinbestean. Narrazio honek Iparraldeko oraintsuko matxinaden deskribapen erreal eta fidagarria, Coote koronelak Monaghango Konderriko Oakboyen artean izandako kanpainaren kontakizun batekin, etab. izena du. Historialariak dio nola ofizial britainiar ausartak, "matxinada" entzun orduko, Castleblayney hirira jo zuela bere gizonekin; nola bidean zihoala norabide berean zihoazen nekazari talde ugari aurreratu zituen, hauetako bakoitzak, bere kape-lari lotuta, haritz adar bat edota sortatxo bat zeramararik, euren azpikeriazko begikotasunen erakusgarri gisa; nola Castlebayneyn sartu zeneko jendeari dispertsia zedila ohartarazi zion eta hauen aldetik ihardespren probokatzailak eta adierazpen liskartiak besterik ez zituen jaso; nola merkatuan babestu behar izan zuen eta bere defentsarako prestatu zen, behar izanez gero; eta nola gau osoan zehar babesleku hura okupatu ostean, hurrengo goizean matxinatuek hiria jada utzirik zutela topatu zuen. Jarraian jeneral adoretzu berberak Ballybay hirian egindako sarre-raren deskribapen bat dator. Etxe guztiak itxi egiten zitzaizkiola topatu zuen hemen, etxe bakoitzak bere leihoetan haritz adar bana erakutsiz, eta herri guztiak amaieraraino eusteko prest zegoela zirudien. Dirudienez, etsenplua emateko erabakia hartuta, eta, ondorioz, terrorea eragiteko asmoz, soldadu ausart hark eta bere gizonak matxinatuen burua atxilotzeari ekin zioten, eta borroka gogor baten ostean txiroen etxola batzuetan sartzea eta pertsona batzuk atxilotzea lortu zuen, atxilotuak Monaghan hirira eramanez izan zirelarik horrenbestez, justiziaren kontsiderazio oro baztertzen zuen legedi baten formen arabera tratatuak izateko.

Clones hirian jendeak erret-indarrei Merkatuaren plazan aurre egin zienaren berri dugu, baina, noski, garaituak izan ziren. Monaghango Oakboyak euren konderriaren mugetan barrena Armagheraino bideratuak izan ziren, bertan hartu zituzten posizioak azkeneko aldiz, baina erasotuak eta garaituak izan ziren zelai beteko bataila batean, eta borroka honen gogortasunaren

ko modua. 1836-1848 bitarteko lege sorta batekin hauen aktibitateak legez kanpoan utzi eta hamarkadetan zehar iraungo zuen errepresioari eman zitzaion hasiera.

adierazgarria da tropen bandoak izan zituen hildakoen kopurua-
ren berri eman ez izana.

Baina herriak errepideetako lan behartu eta doakoarekiko
zuen sentimendu orokorra hain zen aurkakoa, Gobernuak, behin
aplikatu eta gero, abolitu egin behar izan zuela eta beharrezko la-
naren ordainketarako adina emango zuen errepide-tasa bat eza-
rri behar izan zuela distrituko jabetzen jabeen eta maizterren gai-
neko zerga bat finkatuz. Esan beharrik ez da Gobernuak legedi
erremediatzaile horren bitartez bidegabekeria bat zela onartu
zuen hori konpontzeko egindako ahalegin guztiengatik preson-
degiaren martirioa jasaten ari ziren nekazari gizagaixo haiek guz-
tiak euren zigor-geletan usteltzen utzi zirela – erreformaren ai-
tzindarien ohiko patua.

Steelboyena erakunde izugarriagoa zen, eta euren kuartel na-
gusia Downeko eta Antrimeko konderrietan zuten. Presbiterianoak
ziren, orokorran, eta beste batzuk Eliza ofizialaren disidentek,
eta Whiteboyena bezala, euren helburua hamarrenak abolitzea
edota murriztea eta etxaldek bazka-larre bilakatzeko helburuz
bateratzeko sistema mugatzea ziren. Askotan armekin agertzen
ziren eta diziplina maila jakin batekin mugitzen ziren, zentro ko-
mun baten aginduei, dirudienez, obedienciaz jarraituz elkartzen
zirelarik, gune urrun eta elkarren artean bereiztuenetik etorrira.
1772an, beraietako sei atxilotuak eta Belfasteko presondegian
kartzelaratuak izan ziren. Hauen kideak berehala bildu ziren, mi-
laka, eta egun argiz hiri honetara jo zuten, hiriaren jabe egin ziren,
presondegia asaltoan hartu zuten eta euren burkideak askatu zi-
tuzten. Ekintza adoretzu honek atsekabea eragin zuen klase agin-
tarien lerroetan, tropak leku hartara bidaliak izan ziren eta neurri
guztiak hartu ziren buruzagien atxiloketa bermatzeko. Hartu zi-
ren preso ugariaren artetik batzuk epaituak izateko aukeratu ziren,
baina bai intimidazioagatik edota bai presoen artean lortu zuten
begikotasunagatik, zaila da zehazten, Belfasteko epaimahaiak uko
egin zion preso hauek kondenatzeari, eta epaiketaren egoitza Du-
blinera lekualdatu zenean, Gobernuak zorte txar berbera izan zuen.
Epaimahaiek preso hauek kondenatzeari uko egin izanaren zioa,
hein handi batean, ezarri berri zen lege batek zuen ospe txarra izan
zen ziurrenik, lege honek Gobernua nekazal erasoengatik akusa-
tuak ziren pertsonak euren ez zen beste konderri batean epai-
tuak izateko gaitzen baitzuen. Lege hau erretiratu izan zenean,

kondenek eta exekuzioek lehen bezain alaiki jarraitu zuten. Nekazarien hilotz asko egon ziren zintzilik urkatik eta bizitza prometagarri asko ihartzera eta kartzeletako zigor-gelen muga zantarretan gain beherara etortzera kondenatuak izan ziren, klase agintarien mendeku gosea asetzeko. Arthur Youngek, bere Irlandari Itzulia lanean, nekazari txiro haiek matxinadara eraman zituen gauzen egoera honela deskribatzen du:

“Irlandako lurjabe batek ia ezin du bere zerbitzari, langile edota laborari batek hura betetzeari uko egingo liokeen agindu bat bera ere asmatu... Errespetu falta edota lotsagabekeriarako joera oro bere makilarekin edota ustarekin zigor dezake, segurtasun osoarekin. Txiroren batek defentsa propioan eskua jasotzeko atrebentziarik balu, hezurak hautsiko litzaizkioke... Lurjabe garrantzitsuek baieztatu didate euren laborarietako asko ondraturik sentituko liratekeela euren emazteak edota alabak ugazabaren ohera bidaliz –pertsone horiek bititu behar duten zapalkuntza frogatzen duen esklabotza-marka”.

Adi egoten den ikasleak ikusiko du landu dugun garaian zehar Irlandako oholtza publikoan zeuden “abertzaleek” ez zituztela behin bakarrik ere euren ahotsak halako bidegabekeria sozialen aurka protesta egiteko ozendu. Euren imitatzaileek gaur egun egiten duten bezala, herri irlandarraren miseria agitazio politikorako palanka egokitzen zuten; eta, euren imitatzaileek gaur egiten duten bezala, une oro prest egon ziren halako miseriaren aurka erremedio erradikal bat bilatzen saiatzen ziren haiek guztiak, eurak baino zintzoagoak zirenak, salatzerako orduan Gobernu bera ere gainditzeko.

Abertzaleen hirukotearen –Swift, Molyneux eta Lucas- borroka Sarsfieldek eta bere jarraitzaileek bere garaian ekin zuten borrokaren errepikapen soil bat izan zela ikusi behar da – pertsonaien eta eszenaratzearen aldaketa, errealitatean, baina ez izaeraren aldaketa; miru eta beleen arteko bataila bat.

Klase pribilegiatu bateko kide izatearen errealitatearekin topatu ziren ordea, herri irlandarraren espoliaziotik bizi zen klase bateko kide, baina berehala konturatu ziren, atsekabez, ezin zutela klase pribilegiatu gisa zuten posizioa ejertzito ingelesaren laguntzarik gabe mantendu, eta ejertzito hori hornitzearen ordain sari gisa klase agintari ingelesa harrapakinaren lehoiaren partea hartzeko prest zegoen. Parlamentu irlandarra, esentzian, instituzio

ingeles bat zen; antzeko ezer ez zen topatzen Konkistaren aurretik. Zentzu honetan, latifundismoaren, kapitalismoaren eta hauen seme naturala den pobreziaren zimendu berberen gainean aurkitzen zen. Ingalaterrak abenturazale andana bidali zuen Irlanda konkistatzera; garaipena, hein batean, eskuraturik zutela, abenturazale hauek Parlamentu bat ezarri zuten euren arteko liskarrak konpontzeko, jatorrizko biztanleei lapurreta egiteko neurriak finkatzeko eta Ingalaterran geratu ziren euren kide tiranoek harrapakina exijitzea eragozteko. Baina, denboraren joanarekin, Ingalaterran bizi zen lurlapurren sekzioak, Irlandan zeuden abenturazaleen ekintzak ikuskatzeko eskubidea eta, ondorioz, Parlamentu hura kontrolatzeko ere erreklamatu zuten. Hemenetik sortu zen Poyningsten legea eta Dublingo Parlamentua Londreseko Parlamentuaren menpeko bilakatzeari. Parlamentuaren menpeko egoerak klase agintari ingelesa langile irlandarrei euren izerdiaren fruitua desjabetzeko gaitzen zuela ikusita, Irlandako klase pribilegiatuko buruargienak larritu egin ziren, desjabetze prozesu hori urrunegi joango ote zenaren beldur, beraiek gizenetzeko ezer utzi gabe.

Bat-batean, abertzale bilakatu ziren, Irlanda — euren fraseologian Irlandako klase agintaria esan nahi zuena — Ingalaterrak Parlamentuaren gainean ezarri zuen kontroletik askatzeko gritatsua. Euren eskuorri, diskurtso eta agerraldi publiko guztietan, herri irlandarrei lapurreta egingo ziona bertako aristokrazia bazarrik izatea herri horrentzat zein ederra, bidezkoa eta orobat atsegingarria izango zitekeen kontatzen ahalegintzen ziren munduari, bertako aristokrazia hori bere arerio ingelesarekin harrapakina elkarbanatzera behartua izatearen ikuskizun tristea ikusi beharrean... Agian Swiftek, Molyneuxek edota Lucasek ez zioten euren buruari konfesatu beraien kredu politikoaren oinarria zein zen ere. Giza arrazak bere ekintzarik baxuenak aitzakia multzo mardul batekin desenkusatzeko eta bere makurkeriak sentimentalismo faltsu baten xarmarekin estaltzeko joera erakutsi du une oro. Baina ez gara ari itxuren inguruan, errealitateen inguruan baizik, eta geure buruarekin bidezkoak izateko, borroka zeken eta egoista bati mugimendu abertzale baten itxura eman nahi dion sofisteria zirtzila argitara eman behar dugu. Herriaren mugimenduari kontrajarririk, politikari patriotek eta Gobernuak masa bakar bat osatzen zuten.

Hamarrenen aurkako borrokan Munstergo nekazalgoak, 1786an, dokumentu aipagarri bat eman zuen argitara, jarraian erreproduzitzen duguna, garai hartako pentsamolde probintziarraren adibide gisa. Dokumentu hau egunkari askotan idatzia izan zen eta berrargitaratua, baita ere, urte bereko urriko eskuorri batean.

MUNSTERGO NEKAZALGOARI ZUZENDURIKO GUTUNA

“Gure etsaien gezur beltzek sortutako inpresio txarra saihestu nahirik, lizentzia eskatzen dizuegu giza-nobleziaren babeserako eskari hau aurkezteko eta umilki zuena eskatzen dugu, eskari hori bidezko justizian eta politikan oinarrituta dagoela iruditzen bazaizue.

“Garai, herrialde eta erlijio guztietan, elizgizonek baimendua dute iruzurrean aritzea, eurena ez dena hartzea eta modu txarretan eskuraturiko eskumenei gogor eustea. Askotan, beraien interesen eta iritzien arteko talkek odol kristauean hondoratu dute aspaldidaniko deboziodun irla hau.

“Duela hogeita hamar bat urte, gure gurasoak, egoera horrekin gustura ez eta, giza-sufrimenduaren azken muturra baino haratago sumindurik, sareetan harrapatutako lehoi gatibuen gisa alferrik borroka eginez, euren kateak indarrez apurtzen saiatu ziren, baina, lortu beharrean, hauek gehiago errematxatu zituzten. Borroka odoltsuarengatik nekatuta, probintzia honetako behartsua haien zapalkuntzara menpekotu zen, bere bizitzarekin izain hamarrenzale haiek guztiak elikatuz.

“Parroko luxuzaleak bere mahai betearen nahaspilan ito zituen bere ahalduna zenak desjabetzen zituen miserable haien guztien aieneak, eta txiroari ahaldunak buruturiko ebasketaren ondoren geratzen zitzaion soberakin apurra, ziurrenik, apez harrapariak hurrupatuko zion; baina honetaz kezatzea biraoa zen; Zeruak, pentsatzen genuen, bere tximista bota behar zuen Aita Santuaren banaketan eskua sartzen zuen zorigaiztoko hura leherrazteko. Edozein elizgizonen eskutik era honetako lapurretak jasanda, bagenuen arrazoirik berriro ere gure Druida xeheak desiratzeko.

“Azkenean, bestalde, Zeru errukitsuak gure gainean hainbeste urtetan zehar esekita egon zen fanatismoaren laino iluna desagerraraztea ontzat jo zuen. Liberalitateak bere argi izpi bizi-garriak jaurti zituen eta nekazariaren etxola argitu zuen, hall bikainarekin batera. O’Learyk esan zigun, fraide batek bezain argi, maitasun unibertsaleko Jainko batek ez lukeela bere Salbazioa sekta bakar batera mugatuko, eta koroa baten titulurik hoberena bere menpekoek berau hautatzea zela.

“Era honetan, gure erlijioa eta politika hobeturi... gure sentimenduen aldaketa une oro erakustea erabaki genuen eta arrakasta eskuratzea espero genuen gure saiakera zintzoetan. Gure gaitzen arrazoi bikoitza aztertu genuen eta berauek nola ezereztu eztabaidatu genuen denbora luzez; gure adostasunek, azkenean, protesta baketsu orokor hau ekarri zuten konklusio gisa.

“Giza-legeak, justiziak eta politikak indarra ematen diote gure eskakizunari. Hamarrenak jasotzen dituen etxaldezinak gure lanaren fruituaz aprobeztatzen jarraitzen duen bitartean, nekazaritzak behera egingo du, eta apaiz zapaltzaileak ezkontzogatik behar baino gehiago eskatzen badu, populazioa jaitsi egingo da.

“Legea gurekiko lagunkor ager dadila eta gu ere betirako izango gara berarekiko. Gure debozioarekiko grinan erakusten dugun zintzotasuna, behin debozio hori aitortu genuenetik inoiz ez da auzitan ipinia izan, eta Munstergo nekazalgoari halakorik inoiz ezingo zaiola leporatu esatera ausartuko ginateke.

“Munstergo nekazalgoaren ordezkariak, 1786ko uztailaren 1ean, asteartea, eginiko bilkura jendetsu eta baketsu batean, aho batez honako ebazpenak erabaki ziren:

“Erabakita - Gure eskuetan dauden baliabide justifikatuenak erabiliz gure zapaltzaileei aurre egiten jarraituko dugula, bai gure odolaz nazkatzen diren arte, edota bai gizateriak nazioaren kontseiluetan bere ahots sumindua nekazari langilea babesteko eta bere zama arintzeko jasotzen duen arte.

“Erabakita - Jendetzaren konstantzia faltak beharrezkoa egiten duela denontzat eta norbanakoarentzat geure borondatez ez diegula apaiz eta elizgizonei honako hau baino gehiago ordainduko zin egitea:

“Patatak, lehen uzta, 6 txelin akreko; idem, bigarren uzta, 4 txelin; garia, 4 txelin; garagarra, 4 txelin; oloa, 3 txelin; larredia, 2

txelin, 8 penike; ezkontza, 5 txelin; bataioa, txelin bat, 6 penike; familia bakoitzaren konfesioa, 2 txelin; parrokoaren iganderoko meza, txelin bat; gaixoen oliadura, txelin bat.

Dekretuz izenpetua,
William O'Driscoll,
Munsterko Nekazalgoaren Jenerala”.

V. KAPITULUA

Grattanen Parlamentua

Dinastiek eta tronuek tailerrek, etxaldeen eta faktoriek duten garrantziaren erdia ere ez dute. Are gehiago, esan dezakegu dinastiak eta tronuak, eta baita behin-behineko gobernuak ere, edozer gauzetarako direla onak, lan egiten duten haien joko garbia, justizia eta askatasuna bermatzen dituzten proportzio berean hain zuzen.

John Mitchell, 1848.

Boluntarioen garaira iristen gara orain. Urte honetan, 1778an, Belfasteko herriak, ustezko kortsario frantziarren inguruko zurrumurru batek larriturik, Estatu Idazkari irlandarrarengana jo zuen Dublingo Gaztelura, euren hiria babesteko indar militarren eske. Baina bazen denbora ejertzito ingelesa Estatu Batuetara –Ingalaterraren kolonia iparramerikar matxinoetara – bidalia izan zenetik eta Irlanda ia troparik gabe aurkitzen zen. Dublingo Gazteluak karta famatu harekin erantzun zion Belfasti, Iparralde-rako eskura zuen indar bakarra “zalditeriako tropa bat edo bi, edota elbarrien konpainia baten zati bat” zela esanez.

Berri hauek jasotzean herria bere kabuz armatzen hasi zen eta herrialde osoan zehar Boluntarioen gorputzak antolatzen hasi ziren publikoki. Denbora gutxian Irlandak hiritarrek osatutako 80.000 soldaduko ejertzito bat zuen, gerrarako gailu guztiakin ekipatuta; trebaturik, antolaturik eta gobernu erregular baten agindupeko edozein indarren pareko zentzu guztietan. Boluntarioen ejertzito hau haragizko egiteko gastu guztiak gizabanako pribatuen harpidetzen bitartez ordaindu ziren. Inbasio atzerritarren alarma igaro bezain pronto, Boluntarioek barne arazoan gainean ipini zuten euren arreta eta erreformarako zenbait errebindikazio formulatzen hasi ziren –Gobernuak berauei aurre egiteko nahikoa indar ez zuen eskakizunak—. Denborarekin, Boluntarioen aldetik etorritako urte batzuetako agitazioaren ostean,

Gobernuaren azpijokoen aurrean, Grattanek eta Floodek gidaturiko alderdi “abertzaleak”, Parlamentuaren hormen alboan Boluntarioek egindako parada baten presio moralak (?) babesturik, Parlamentu ingelesak College Greeneko asanbladari legeak inposatzeko planteaturiko eskakizuna denbora batez alde batera uztea eskuratu zuen legebiltzarraren eskutik. Honek eta merkataritza askearen kontzesioak (merkatarari irlandarrei euren arerio ingelesekiko berdintasunezko baldintzetan merkataritzan aritzea baimentzen zienak) Historian Grattanen Parlamentua izenez ezagutzen den garaia eman zioten hasiera. Gaur egun gure agitate politikoez ez dute nekerik erakusten, errepikatze akigarrienarekin, Grattanen Parlamentuaren garaia aurrekaririk gabeko oparotasun garaia izan zela Irlandarentzat esaterakoan, eta ondorioz, zoriontasun egoera horretan hasiera berri bat espero behar dugula, “jatorrizko legedia” deitzen duten horretara itzuliz; Home Rule-ak¹⁹ suposatzen duen azpikeria politiko horren produktu abortagarri hori izendatzeko modu apur bat irragarria betetan.

Hautaketa bat eginez gero, gure historialari politikoen argudiatzeari aurre egin diezaiokegu, beraiek oparotasun bezala aipatzen dutena oparotasun kapitalista dela huts-hutsik azpimarratuz, hau da, ekoiztako aberastasunen kopuruaren arabera soilik neurtutako oparotasuna, berau ekoizten duten langileen artean aberastasun hori banatzeko modua alde batera utziz. Honela, aurreko kapitulu batean Munstergo nekazalgoak 1786an argitaratutako manifestu bat aipatu dugu, non —Grattanen Parlamentua ezarri eta lau urte geroago— gorputz legegilari babesa eskatzen zieten eta laguntza hori gertatu ezean —eta ez zen gertatu— “gure odolaz nazkatzen diren arte aurre egiten” jarraitzeko erabakia hartzen zuten, Grattanen Parlamentuaren garaiko “oparotasuna” Munsterren gehiegi barneratu ez zenaren seinale. 1794an, Capel kaleko 7. zenbakian, Dublinen, argitaratutako eskuorri batek Meathko Konderriko langile baten bataz besteko soldata eguneko sei peniketara bakarrik udan eta eguneko lau

19. Home Rule-a, Irlandari Britainia Handiaren barnean autonomia piska bat ematen zion estatutua, eta abertzale irlandarren ikuspegitik Irlandarentzako askapena eskuratu beharrean ogi apur batekin konformatu behar zela argudiatu zuten zenbait buruzagi konstituzionalek eginiko traizioa.

peniketara neguan iristen zela baieztatzen zuen; eta *Dublin Journalen*²⁰ orrietan, organo ministerial bat zen egunkarian, eta Grattanen alderdia babesten zuen *Dublin Evening Posten*²¹, 1796ko apirileko hilean, Dublingo Meath Streeten, Parish parrokiako kape-ra batean irakurriko zen karitatezko sermoi baten iragarkia agertzen zen, iragarkian bertan St. Catherine parrokiako hiru kaletan “2.000 arima baino ez gutxiago inanzio baldintzetan aurkituak izan zirenen” adierazpena agertzen delarik. Begibistan denez, “oparotasunak” ez zuen ezer asko esan nahi St. Catherineko herriarentzat.

Baina ez da hau abiapuntutzat hartu nahi dugun oinarri oraindik behintzat. Aitzitik, gure argudioaren xederako, onartuko dugu Home Rule-aren “oparotasunaren” definizio kapitalista zuzena dela, eta Irlanda oparotsua zela Grattanen Parlamentupean, baina kategorikoki baztertu behar dugu oparotasun hori Parlamentuak eragin izana, gradu infinitesimal batean ez bazen behintzat. Hemen, berriro ere, Historiaren filosofia sozialistak arazoaren giltzarria ematen du, garapen ekonomikoa seinalatzen du egiazko soluzio gisa. Aipaturiko garaian zehar eman zen merkataritzaren bat-bateko aurrerakada ia eskusiboki indar mekanikoaren sarreragatik eta ondoriozko merkantzia manufakturatuen merkatzearengatik gertatu zen. Industria Iraultzaren garaia zen, Erdi Arotik jaso genituen industria etxetiarrak azkenean garai modernoetako fabrika sistemarengatik ordezkatuak izan ziren garaia. Arkwrightek 1769an asmatutako marku birakorra; Hargreavesek 1770an patentaturiko *spinning jenny*; 1779an Cromptonen esku-tik etortitako *mule* mekanikoa, eta lurrun makinaren aplikazioa 1788an labe garaietan, denak konbinatu ziren ekoizpenaren kostuak merkatuz eta ondorioz, baita eragin hauek jasan zituzten hainbat industrietako merkantzien salneurrik ere. Honek bezero multzo berriak ekarri zituen eszenatokira eta ondorioz, merkataritzari oldar itzela eman zion orokorrean, bai Britainia Handian bai Irlandan. 1782 eta 1804 artean, kotoiaren merkataritzak bere errendimendu orokorra hirukoiztu baino gehiago egin zuen; 1783 eta 1796 artean, lihoaren merkataritza ia hiru aldiz igo zen; 1788 eta 1796 arteko zortzi urteetan burdinaren merkataritzak

20. Dublingo Egunkaria

21. Dublingo Iluntzeko Posta

bere bolumena bikoiztu zuen. Azken merkataritza mota honek ez zuen denbora luzean jasan oparotasunaren eztanda hau. Egurra-ekin beharrea ikatzaren bidezko galdaketaren asmakuntzak, 1750. urtean, eta lurruna labe garaiei aplikatzeak, jada aipatu duguna, fabrikatzaile irlandarra desabantaila latzean ipini zuen lehiakide ingelesarekin aritzeko unean, baina merkataritza aktiborekin garai zorionsuetan —1780 eta 1800 artean— hau ez zen sakontasun handiz nabaritu. Baina merkataritzak berriro ere lehiakortasun zorrotzeko itxura arrunta hartu zuenean, fabrikatzaile irlandarrei, bertako ikatz erreserbarik gabe eta inportaturiko ikatz ingelesaren menpeko ia erabat, ezinezkoa egin zitzairen herrialde anaieko merkatal arerioekin lehiatzea, zeintzuei ikatz erreserba izugarriak euren ate ondoan izateagatik oso erraza egin zitzairen, burdinbidearen garaien aurretik, prezio azpitik saltzea eta dohakabeko irlandarrak porrotera eramatea. Zori berbera, eta arrazoi beragatik, izan zuten beste hainbat merkataritza irlandar garrantzitsuk. Grattanen Parlamentuak politikoki markatutako garaia merkatal inflazioko garaia izan zen, herrialdeko industria garrantzitsuenetan aurrerapen mekanikoak sartu zirelako. Makineria honek manualki funtzionatu zuen bitartean, Irlandak bere postua mantendu ahal izan zuen merkatuetan; baina lurruna industriaren zerbitzura aplikatu zenetik, 1785ean eskala txikian hasi zena, eta ehundegi elektrikoa sartu ostetik, erabilera orokorrekoa lehen aldiz 1813an izan zena, jatorrizko erreserba bat edukitzea partiduaren amaiera fabrikatzaile ingelesen alde erabakiko zuen abantaila natural izugarria bilakatu zen.

Jatorrizko parlamentu batek ondorengo gainbehera hura berandutu ahal izango zukeen, atzerriko parlamentu batek azkartu ahal izango zukeen bezala, baina, edozein kasutan, baldintza kapitalistenpean, prozesua bere baitan saihestu ezina zen, berau bere sintoma garrantzitsuenetako bat zuen eboluzio ekonomikoa bezain beste. Parlamentuak zein gutxi egin zezakeen Irlandaren eta Eskoziaren posizioak konparatuz neur daiteke. 1799an, Foster jaunak, Parlamentu irlandarrean, Irlandako liho produkzioa Eskoziakoa baino bi aldiz handiagoa zela baieztatu zuen. Eman zituen zifra errealak 1796 urteari zegozkionak ziren —23.000.000 yarda Eskoziarentzat, Irlandaren 46.705.319 yarden aurrean—. Desberdintasuna Irlandaren aldekoa izatearen arrazoia bertako Parlamentu bat edukitzeari egotzi zion. Baina 1830 urte aldera,

McCullochen Merkatal Hiztegiaren arabera, Dundeeko portuak bakarrik, Eskozian, Irlanda osoak baino liho gehiago esportatzen zuen. Bi herrialdeei euren autonomia kendu zitzaizkien. Baina zergatik egin zuen aurrera manufaktura eskoziarrak Irlandarra gainbeheran sartu zen bitartean? Eskoziak ikatz erreserba propioa zuelako bertan, eta Irlandak ez zituen helburu industrialetarako erraztasun guztiak.

Irlandaren "oparotasuna", zalgurdi baten gorpilen errota-zioak eragindako hautsari begira zalgurdian pausatutik eta bera hauts horren sortzaile dela ustez dagoen euliari hauts hori zor zaion bezain gutxi zor zaio Grattanen Parlamentuari. Eta, beraz, Parlamentu horrek inoiz imajinatu ere egin ez zituen neurri zerbait gogorragoen bitartez ez baldin bada behinik behin, ezin daiteke Irlanda egiazko oparotasunera iritsi.

VI. KAPITULUA

Traizio kapitalista Boluntario irlandarrei

*Oroitu, ordea, onean eta txarrean,
zein alferrikakoak izan ziren otoitzak eta malkoak,
zein alferrikakoak izan ziren hitzak
ezpatek distira egin zuten arte
boluntario irlandarren eskuetan.*

Thomas Davis

Azaldu dugun garaiko Irlandaren “oparotasun” iragankorra Grattanen Parlamentuak eragindakoa izan zenaren teoria hau, Britainia Handiaren eta Irlandaren arteko Batasun Legegileak azken herrialde honen merkataritza suntsitu zuela, eta ondorioz, Batasun horren baliogabetzeak manufakturatzaile guztiak oinarri konpentsatorio beraren gainean berrezarriko litzukeenaren argudioa zabaltzen duten haientzat bakarrik da baliogarria. Batasunak, legalki, fabrikatzaile irlandar guztiak Ingalaterrako fabrikatzaileekiko berdintasun absolutuko oinarri baten gainean jartzten zituela normalean ahaztua izan da, edota okerragoa dena, itxuraldatu egin da, halako punturaino temati errepikatuz ezen erabat kontrakoa denaren inpresioa ematera iritsi den. Izatez, gure aberriki-deen arteko milaka eta milaka pertsonak oraindik ere lege ingelesak Irlandan zenbait mineralen esplotazioa edota artikuluko batzuen fabrikazioa debekatzen dutela uste dute.

Hausnarketa arin batek ideia horrekin amai lezake. Kapitalista ingeles batek gustura inbertituko luke bere dirua Tombuctun, Txinan edota Errusian, edota irabazi bat bermaturik izan dezakeela uste duen edozein lekutan, bere etsairik handienaren lurraldea izan da ere. Ez du bere dirua bere langileei enplegua emateko helburuz inbertitzen, irabazi bat ateratzeko baizik eta tentelkeria bat litzateke, beraz, bere Parlamentuari Irlandan langile irlandarren lanetik berarentzako irabazia ateratzeko meategiak edota faktoriak irekitzea debekatuko liokeen legerik egiten utziko liokeela pentsatzea. Eta ez dago, eta Batasunaren garaitik ez da izan, halako legerik.

Ikasleak Irlandaren historiaren inguruko eztabaida harrigarri honen azterketarekin jarraitu nahi badu eta gainbehera industrial irlandarraren teoria parlamentarista hau lehen aurreratu dugunarekin —aurreko kapitulu batean zirriborratutako teoria sozialistarekin— konparatu nahi badu bide erraz eta eraginkorra du auzi hau proban jartzeko. Hauta ditzala parlamentarismoaren adierazle gailenenak eta planteatzen diren ondorengo galdera hau:

Azal ezazue, mesedez, Dublingo Parlamentua Londresera lekualdatzeak —industria irlandarrarentzako lege-interferentziarik inondik inora ekarri ez zuen lekualdaketa batek— klase kapitalista irlandarrari merkatu irlandarrerako merkantziak ekoizten jarraitzea eragotzi izanaren prozesua.

Ez diote erantzun logiko bat emango galdera honi —ez auzi ekonomikoetan aditua den pentsalari entzutetsu batentzat puntu bakar batean ere onargarria izango litzatekeen erantzunik behin behin. Batasunaren aurretik Irlandan zeuden merkatarien eta lantegietan enplegaturik zeuden langileen kontaketa luze batera mugatuko dira, zalantzarik gabe, eta gero gauza bera egitera hogei edota hogeita hamar urte geroagoko garai jakin bateko kopuruekin. Hau izan zen Daniel O'Connell, Askatzaileak, Batasunaren abolizioaren aldeko agitazioa hasi zuenean bere lehen diskurtso handian erabili zuen metodoa, eta ordutik fidelitasunez kopiatua eta popularizatua izan zen bere imitatzailen eskutik. *Baina ez O'Connell ez bere imitatzailen arteko inor ez da saiatu inoiz industria hauek zergatik suntsitu ziren argituko lukeen prozesua analizatzen eta azaltzen. Azalpen horretara entsegatu den hurbilketarik handiena, Batasunak lurjabeen absentismoa ekarri zuela eta hauek fabrikatzaile irlandarren bezero izateari utzi ziotela dion baieztapena da. Halako azalpen bat, sinpleki, ez da azalpen bat inondik ere. Umekeria bat baino ere okerragoa da. Nork baieztatuko du seriooki bezero aristokrata milaka batzuen galerak, adibidez, paper industriarekin, garai batean zehar Irlandan halako loraldia izan eta orain ia existitzen ere ez denarekin, amaituko lukeela? Dublin hirian, Thomas Streeten eta South Circular Rr.ren artean kokatuta dagoen distritua larruaren zurratzean eta honekin erlazioaturiko merkatal aktibitate guztietan jarduten zuten gizonen erlauntza aktibo bat izan zen garai batean. Orain, merkataritza hau erabat desagertu da barruti horretatik. Parlamentu irlandarreko ki-deak eta lurjabe irlandarrak al ziren Irlandan zapatak erabiltzen*

zituzten bakarrek? Beraientzako bakarrik zurratzen eta lantzen al zen larrua? Honela ez bada, zer dela eta hauek Ingalaterrara emigratu zutenean ezinezko egin zitzaion fabrikatzaile irlandarrari Batasunaren ostean oraindik ere Irlandan geratzen ziren milioika pertsonentzat zapatak eta uhalak ekoiztea? Behaketa berbera aplikagarria da ehungileentzat, distritu berean halako gorgaldian egon zen instituzio bat garai batean zehar; aplikagarria da baita ere artilearen merkataritzarentzat, arrainaren merkataritzarentzat, eta honela, etenik gabe, lerro berean beheraka jarraituz. Irlandako herriak lehen bezain beste beharrian zituen Batasunaren ostean ere, azaleko historialariak fabrikatzaile irlandarra eskariari erantzuteko gai ez zela, eta horren ondorioz, negozioa alde batera utzi zuela esaten badigu ere. Ongi da, irlandarrok umore-sen handia izatearen fama dugu, baina bat hau zalantzan jartzerainoko puntura iristen da, herri masa irlandarrek teoria parlamentarista hau nolako seriotasunez onartu duten ikusten duenean.

Ziurrenik teoria dibertigarri bat da, fabrikatzaile irlandarrak, lurjabe zalapartari milaka batzuen merkataritza galdu zutelako, hainbeste atsekabetu zirenez, euren ateetan zeuden milioika irlandarren beharrak aseztatu irabaziak ateratzen ezin izan zutela jarraitu esaten baitu inplizituki. Fabrikatzaile, meatzari, merkataria eta arrantzale ingelesek, eskoziarrek, frantziarrek eta belgikarrek lodi eta oparo ipintzeko aukera izan zuten eta ipini ziren, komunitate irlandarren beharrei kasu eginez, baina fabrikatzaile irlandarrak ezin izan zuten. Denda itxi eta karitate etxera joan beharrean aurkitu zen, Rackrent Gazteluko ene Lord Rackrent eta bere pertsonal gertukoena Londresera joan zirelako.

Gure historialari parlamentaristak Historiako eskribau guztien artean azalekoenak izan ez balira, euren arinkeria hain izugarria izan ez bazen, halako punturaino ezen bere parekoak euren etsai lealisten fanatismoan eta inozokerian besterik ez diren topatzen, erraz formulatu ahal izango zuketenean beste teoria bat, gertakari multzo beretik abiatuta, euren kausarentzat erabilgarritasun berbera eta egiaekin kontsonantzia gehiago izango zukeena. Teoria hau honako modu honetan formulatu daiteke:

Batasunaren Akta posible izan bazen manufaktura irlandarra ahula zelako izan zela, eta ondorioz, Irlandak ez zuela klase kapitalista indartsurik Batasuna saihesteko behar adina izpiritu publiko eta eragin zuenik.

Gainbehera industrialia hasi zenean, klase kapitalista irlandarra ez zen gai izan Gobernu ingelesak ustelkeria helburuekin erabiltzen zituen funtsen eraginari aurre egiteko, eta ez zen bizitza publiko irlandarraren desmoralizazioa geldituko zuen alderdi bat sortu eta gidatzeko behar bezain indartsua ere. Kasu honentzat formulazio egokia hauxe denaren ziurtasuna dugu. Ez Parlamentuaren galerak manufaktura irlandarra suntsitu zuela, baizik eta manufaktura irlandarraren gainbeherak, aurretik zirriborratutako kausengatik, Parlatu irlandarraren suntsipena posible egin zuela baizik. Irlandak klase kapitalista indartsu bat, ekintzailea eta arrakastatsua, izan balu, masa irlandarrei sufragiorako ahalmena emango ziekeen erreforma parlamentario bat eskuratzeko posible izango zen, Boluntarioen armen bitartez eta odol tanta bat bera ere isuri gabe; eta baldintza horietan hautatutako parlamentu batekin Batasun Akta hura ezinezkoa izango zitekeen. Baina klase kapitalista irlandarrak Gobernu ingelesarengandik merkatal erreformak eskuratzeko erabili zituen Boluntarioak, eta gero, Henry Grattan buru zuela, Boluntarioak alde batera utzi eta salatu egin zituen, erakunde hau ordezkari sistema erreformaren alde egiten hasi zenean, sistema berri honekin klase kapitalista herriaren borondatearen aurrean erantzuleago bilakatu nahi baitzuten, eta era berean biolentziaren mehatxuaren bitartez era baketsuan irabazi zuten hura bermatu nahi izan zutenean. Sufragio herrikoiak kontrolaturiko Irlanda bat, zalantzarik gabe, industria irlandarra salbatzen saiatuko zen denborarekin, babes sistema zorrotz baten bitartez, inportaturiko merkantzien gainean atzeritarrei euren ikatz erreserbak suposatzen zien abantaila neutralizatzeko behar adinako pisua izango zuen tasa bat ezarriz, eta halako sistema batek industria irlandarraren gainbehera hori ez gertatzeko neurriak hartu ahal izango zituen, lehen esan bezala, beste edozein modutan ezinbestekoa zena. Baina Irlanda hau burutzeko itxaropen bakarra Boluntarioen indar armatuan aurkitzen zen, eta une hartan klase kapitalista, klase moduan, aristokraziari alde batetik eta herriari bestetik aurre eginez, Estatuaren lema mantentzeko behar besteko indarrarekin sentitzen ez zenez, zuen alternatiba bakarra hartzera beharturik ikusi zen, bere zoria gatazkan zeuden klaseetako baten zoriarekin elkartzea aukeratu behar izatera. Bere konfiantza aristokraziarengan jartzea erabaki zuen, jendaila baztertu egin zuen, aukeratu zuen klasearen aldetik

babesik ez zuen jaso eta porrotean eta esklabotasunean hondoratu zen traizionatu zuen klasearekin batera.

Boluntarioen mugimenduaren erregistroari begirada azkar bat emateak Irlandako klase kapitalistak epe luzera begira eginiko traizioaren inguruan ilustratuko gaitu, bere aristokrazia herrikideak eginiko gauza berbera errepikatu baitzuen, hau da,

*postuagatik edo errearengatik,
euren aberria eta euren Jainkoa,*

saldu zituen, baina aristokratek, kapitalistek ez bezala, euren ekin-
tzek eragiten zuten gorrotoa saihesteko modua aurkitu zuten.

Mugimendu honen hasieran Irlanda Lege Penalenean aurkitzen zen. Oraindik ere, lege liburuetan, katoliko-erromatarren aurkako parekorik gabeko dekretu krudelak topatzen ziren. Lege horiek, ustez katolikoak fede protestantero bihurtzeko sortuak izan baziren ere, errealtatean jabego katolikoa jabego protestante bilakatzeraz bideraturik zeuden. Jabe katoliko baten semeak bere aita bera desjabetu eta haren jabegoaren buru bilakatu zitekeen sinpleki berak, semeak, erlijio protestantea onartu izana zin egiten bazuen. Une horretatik aurrera aita, legearen arabera, semearen eskuzabaltasunaren pentsionista bat izango zen. Katoliko baten emazteak bere senarrari honen jabegoaren gaineko kontrol guztia ken ziezaiokeen protestante bilakatzearekin baka-
rrik. Katolikoa ezin zitekeen bost libera baino gehiago balio zuen zaldi baten jabe izan. Hala eginez gero, edozein protestantek egun argiz zaldia ken ziezaiokeen zaldiaren gaineko eskubide guztiengatik bost liberako ordaina emanaz. Maisu edota apez katoliko baten buruagatik otso baten buruagatik ipintzen zen prezio berbera jartzen zen. Katolikoak ezin ziren postu publikoetarako hautatuak izan eta lanbide gehienetatik baztertuak ziren.

Izatez, erlijio katolikoa legez kanpoko instituzio bat zen. Bestalde, hazi eta loratu egin zen, eta kasualitatez, herri irlandarra-
ren estimua eta bihotzetan eragina irabazi zuela ikus daiteke, hain justu Frantzian eta Italian, erlijio katolikoa Estatuaren erakunde agintaria zen lekuetan, erlijio hau bere eragina galtzen ari zen azkartasun berarekin –kontutan hartu behar duten gauza erakunde katolikoaren finantzaketa funts publikoetatik atera behar dela eskatzen duten katoliko horiek.

Ikastunak gogoratu behar du, aitzitik, Lege Penal horiek, oraindik lege liburuetan aurkitzen baziren ere, hein handi batean eraginik gabeak izan zirela XVIII. mendearen azken laurdena baino lehen. Hau ez zen Gobernu ingelesaren errukitasunagatik izan, irlandar protestante zentzudunen gehiengoak lege horiengatik sentitzen zuten atsekabearen emaitza izan zen. Hauek uko egin zioten, besterik gabe, lege horien bitartez abantaila ateratzeari, euren goratze pertsonalarentzako erabili ahal izateko aukera izan bazuten ere, eta gerra williamistaren amaiera ondoko belaunaldietan katolikoek euren bizilagun protestanteek, Lege Penalen emaitza gisa, jabegoa erauzi izanaren oso kasu gutxi daude artxi-batuta. Lege hauek izugarriak ziren gainera praktikan ipintzeko, eta puntu honetan iritzi publikoa promulgazio legala baino urrunago joan zen. Historialari guztiak bat datoz honetan.

Klase mugalerroak zorrotzago marraztu ziren mugalerro erlijiosoak baino, Irlandan betidanik gertatu den bezala klanen sistema hondoratu zenetik, eta gaur egun ere gertatzen den moduan. Honen inguruan, Whately artzapezpikuaren itzaleko autoritate goren baten hitzak ditugu, Gobernu britainiarraren eta instituzio protestantearen jarraitzaile baten lumatik etorri diren eran etorrita, bi bider balio dutenak politika eta zatiketa irlandarrak lehen lekuan jabegoaren auziaren inguruan mugitzen zirenen eta erlijioaren inguruan soilik nominalki ibiltzen zirenen testigantza gisa. Honela dio:

“Nire belarrietara berri asko iritsi dira, Orangen jarraitzaile sutsuenek bertan belaunaldietan zehar egondako maizter protestanteak euren jabegoetatik bota dituztela eta lur hauek akreko txelin bat aurreratu duten katoliko-erromatarrei eman dizkietela”.

Gogoratu behar da era honetan kaleraturiko protestanteak Irlanda William erregearentzat eta protestantismoarentzat, James erregearen eta katolizismoaren aurka, irabazi zuten haiek gurasotzat zituzten gizon eta emakumeak zirela, eta hemen erregistratzen diren jabego horiek hauen gurasoek garaipenagatik eta fidelitateagatik jasotako ordainsari izan ziren. Gainera, esparru ekonomikoan emandako klase izaerako mugaketa honetaz gain, herrialdearen ordezkartza politikoa ere goi klaseen jabego eskusiboa zen.

Parlamentu irlandarreko kideen gehiengoak aristokraziako zenbait kideren hautagai gisa hartzen zuen eserlekua, hain zuzen

ere aristokrazia horrek bere jabetzak zituen udalerriak “ordezkatzuz”. Udalerrri hauei “poltsikoko udalerrri” deitzen zitzaaien aristokrata lurjabeek, sakelean eramango balituzte bezala, kontrolatzen zituztelako. Honetaz gain, irla osoan zehar Parlamentuko kideak hautatzeko boterea pribilegiatu gutxi batzuen jabetgoa zen bakar-bakarrik. Biztanleri katolikoaren eta protestantearen masa handiak ez zuen boto eskubiderik.

Hauxe zen egoera Boluntarioen mugimendua sortu zenean. Hiru bidegabekeria sozial handi zeuden, beraz, ikuslego irlandarraren aurrean. Parlamentu ingelesak merkataritza irlandarra debekatu zuen Europarekin eta Amerikarekin, portu ingeles baten bidez ez bazen salbu, era honetan kapitalismo irlandarraren garapena moztuz; Dublingo Komunen Ganberako ordezkariak ukatu egiten zitzaaien langile nola protestanteei hala katolikoei eta orokorrean denei, hainbat kapitalista protestanteri eta aristokraziak izendaturiko batzuei salbu; eta azkenik, katoliko guztiek ezinezkotasun erlijiosoak jasan behar zituzten. Boluntarioak (zeintzuk denak protestanteak ziren) armak eskuetan izan zituzten bezain pronto bidegabekeria horien guztien deuseztapenaren alde agitatzen hasi ziren. Lehenengoaren inguruan denak ados zeuden, eta horregatik, Parlamentua biltzen zen egunean Dublingo kaleetatik desfilatzen zutenean, euren kanoien ahoetan kartelak zintzilikatzen zituzten

MERKATARITZA ASKEA EDO EZER EZ

Hitz esanguratsuekin, eta armetan batutako herri batek suposatzen zuen mehatxua zela eta, euren kausak garaipena eskuratu zuen. Merkataritza askea bermaturik gelditu zen. Eta momentu hartan Irlandako Errepublika merkataritza askea eskuratu zen segurtasun berberarekin eskuratu ahal izango zen. Baina Boluntarioen lerroetako gizonak oraindik ere gelditzen ziren bidegabekeria politikoen deuseztapenaren aldeko eskakizunak zirriborratzen hasi zirenean —Parlamentuan ordezkariak herrikoia egotearen eskakizuna—, buruzagi guztiek desertatu egin zuten. Aristokratak, mihi arineko lege gizonak eta abertzale profesionalak hautatu zituzten euren buruzagi gisa, eta behar izan zituztenean goiko lerro hauek guztiek traizioa egin zieten. Merkataritza

askea bermatu ostean Boluntarioen Konbentzio bat deitua izan zen Dublinen, Parlamentuko ordezkariak herrikoia- ren auziaz hausnartzeko. Lord Charlemontek, erakundearen komandante buruak, bilkura gaitzetsi egin zuen; bere eredia funtzionario aristokraten zabor-jende guztiak jarraitu zuen, eta azkenean, Henry Grattani txanda iritsi zitzaionean, eta honek, bere ondare politiko eta pertsonal osoa Boluntarioei zor zelarik, salatu egin zituen Parlamentuan “jendilaje armatu” gisa.

Konbentzioa suspenditu egin zen nahasmenaren erdian, fruiturik gabeko eztabaidaren ostean, eta beste Konbentzio bat deitzeko geroagoko saiakera bat debekatua izan zen Gobernuaren erabakiz, asanbladarako deialdirako sinatzaileak atxilotuak eta gogorki isunduak izan zirelarik. Gobernuak, Amerikan bakea egin ostean, independentzia amerikarra onartu eta gero, tropa kantitate ugari eraman ahal izan zituen Irlandara eta Boluntarioekin istiluak izateko kasurako prestatu zituen. Herri ordezkari- zaren eskakizuna kontuan hartzeari ere uko egitea izan zen euren gerra adierazpena, eta Konbentzio berri bat aldarrikatzearen saiakeraren porrota izan zen Gobernuaren garaipenaren seinalea. Boluntarioak, izatez, borrokatzaera ere ailegatu gabe errenditu ziren. Errendizio lotsagarri honen ardura osoa klase kapitalista irlandarrarena da. Erreformatzaileen alboan mantendu izan bazen, aristokraziaren errendizioak gutxi axolako zuen, nahiz eta era berean egia den elementurik erradikalenean hau aurreikusi eta des- sertzio hori ematen zenerako prest egon behar zutela. Baina mer- katariek euren patua aristokraziarenari lotzearen gertakaria ezin izan zen aurreikusi; ekintza lotsagarriegia zen hau antolatzaileen artean egon ez zen inork aurretiaz ikusi ahal izateko. Ez dugu pentsatu behar, bestalde, elementu erreakzionario hauek euren traizioa askatasunaren kausari ezkutatzeko saiakerarik egin ez zutenik.

Alderantziz, kontu handiz aritu ziren begikotasun herrikoia- ren itxura mantentzeko ahaleginean eta iritzi publikoa egiazko arazoak ez ziren beste norabide desberdin batzuetara desbidera- tzen. Bere semeak argitaratutako *Henry Grattanen bizitza* lanean bada pasadizo zoragarri bat, Gobernuak Dublingo Boluntarioen gorputz desberdinen armak nola eskuratu zituen deskribatzen duena, bere kabuz Irlandaren historiako garai askotako koadro mikrokosmiko bat aurkezten duena eta klaseen ezaugarrietaz eta

bizitza publiko irlandarrean jokatzeko duten paperaz ilustratzen gaituena.

Dublin Irlanda bat da miniaturan; are gehiago, Dublin Irlandaren esentzia kontzentratua da. Irlanda handi edo miserable, izugarri edo ahul, idealki iraultzaile edota ezinbesteko erreakzionario, eskuzabalki oparo edota zitalki traidore egiten duen oro indartsuagoa eta nabarmenagoa da Dublinen Irlandako beste edozein lekutan baino. Honela, Dublinek edozein krisi nazionaletan jokatzeko duten papera, ziurtasun osoz, irrika berdinek Irlandako probintzia guztietan jokatu duten paperaren isla metropolitano soil bat da. Hortik Irlandaren historiaren azterketarentzako inkontzienteki egindako ekarpen honen balioa, Henry Grattanen semearen lumatik.

Dublinen hiru Boluntario Dibisio zeuden, indar "abertzaleen" hiru dibisio herrikoiei zegozkienak. Askatasunaren Gorputza, eskusiboki langile klasearen artean errekrutatua; Merkatarien Gorputza, klase kapitalistak osatua, eta Abokatuen Gorputza, senidetasun legaleko kideek osatua. Henry Grattan Jr.ek, "Armen eta Kanoientzako Polboraren Lege Proiektua", Boluntarioei euren armak, hauek leku seguruan gorde zituzten, autoritateei entregatzeko exijitzen zuten legea onartu ostean Gobernuak hartu zuen ekinbidez hitz egiten duenean, Gobernuak "Askatasunaren Gorputzaren artilleriaren jabe egin" zela, "akordio pribatu batera iritsi" zela, "honen arabera Merkatarien Gorputzaren ziren armen jabe eginez" eta "abokatuak eurenak entregatzera bultzatu" zituela "errenditu aurretik prozesio publiko bat egitera behartuz" dio.

Beste hitz batzuetan eta lengoia argiago bat erabiliz esanda, Gobernuak indarra erabili behar izan zuen langileen armak hartzeko, baina kapitalistek eurenak sekretupean entregatu zituzten, bere terminoetaz ezer ez dakigun kontratu pribatu baten bitartez; eta abokatuak eurenak Dublingo kaleetatik barrena eramantuz zituzten desfile publiko batean, senidetasun legalaren izen ona mantentzeko langile irlandar sinesberen begien aurrean, eta gero, euren eztarriak oraindik ere publikoki "Boluntarioen armak" bibakatu oihukatzen aritzeagatik urrututa ziztuztela, arma horiek berak pribatuan entregatu zituzteten herriaren etsaiei.

Langileek borroka egin zuten, kapitalistek saldu eta abokatuak iruzur.

Orduan, Irlandan beti bezala, herrialdearen zoria aristokraziaren indarren eta demokraziaren indarren arteko borrokaren emaitzaren menpe zegoen. Langile klasea hirian eta nekazalgoa landan gogatsu zeuden Amerikan eta Frantzian indar iraultzaileek izandako arrakastarengatik, eta irrikan zeuden Irlandan ere gertakari haien mailara iristeko. Baina klase kapitalista irlandarrak izu gehiago sentitzen zuen herriarekiko Gobernu britainiarrarekiko baino, eta bere herrialdearen zoriaren krisian bere eragina eta aholkuak esparru herrikoitik erretiratu egin ziren. Askatasunaren kausarentzat hain ondorio tamalgarriak ekarri zituen bataila hau gertatzen zen bitartean, Irlandaren gainerako zati osoan bataila itzelago batek jarraitzen zuen, isekazko gai baten inguruan. Eta Irlandako gauzen ohiturei jarraiki, gezurrezko bataila honek arreta kantitate handiena jasotzen du historia irlandarrean. Lehenago aipatu dugu Henry Flood, Parlamentu irlandarrean gure Herodes herodestzaile gisa nabarmendu zela Gobernuari bera asebetetzeko adina nekazari urkatu ez izanaren salaketa eginez. Henry Grattan jauna ere aurkeztu diegu gure irakurleei. Bi gizon hauek “alderdi abertzalearen” buruzagi parlamentarioak ziren Komunen Ganbaran —“Harry aurkariak”²², Dublingo jendeak sarkastikoki deskribatu zituen eran—. Boluntarioen mehatxua zela eta, autoritate ingelesek Parlamentu irlandarrentzat lotesleak ziren legeak egiteko zituzten eskubideei formalki uko egin behar izan zietenean, bi abertzale hauek liskartu egin ziren, eta historialari errespetagarriek eta historialari jakitunek serioski berri ematen digutenaren arabera, Irlanda osoa bitan zatitu zuen liskar hau eragin zuen gaiak. Gai hori zein den esatean espero dugu gure irakurleek beraiei iseka egiten ari garela ez pentsatzea; ez gara iseka egiten ari, tentazioa ia jasanezina baldin bada ere. Gertakari historikoak neurritasunez azaltzen ari gara. Historialari errespetagarri eta jakitunek Grattan eta Flood honako honengatik liskartu zirela esaten digute: Flooden arabera Ingalaterra zin bat egitera behartu behar zen, Parlamentu irlandarrean, hau kontrolatzeko legeak eginez, berriro ere muturra sartuko ez zuela zin egitera, eta bestalde, Grattanen ustez halako

22. Ingeleraz bai Harry bai Henry gaztelerazko Enrique edota euskarazko Henrike edo Endika neologismoaren parekoak dira, hortik Dublingo herriaren hitz jokia “Harry aurkarietaz” hitz egitean.

hitz emate bat exijitzea Ingalaterraren ohorearentzako iseka bat izango zen.

Esan dugun bezala, historialari errespetagarri eta jakitunek baieztatzen dute Irlanda osoa bataren edo bestearen alde ipini zela liskar honetan, eta Ingalaterra hainbeste gorrotatzen zuen John Mitchell bezalako gizon batek ere bere *Irlandaren Historian* hala izan zela uste duela dirudi. Hala ere, uko egiten diogu historia honen sinesgarritasuna onartzeari. Erabat konbentzitura gaudete, Grattanek eta Floodek gai honen inguruko aldarriekin airea zikintzen zuten bitartean, ikerlari bat edozein uzta-soro irlandarrrera joan izan bazen eta bertan topatutako lehen segalariari gaitaren inguruko iritzia galdetu izan bazion, aipaturiko segalariak, bere segaren mugimendu bat bera ere galdu gabe, auziaren bihotz-bihotzean bete-betean joko zuela. Hauxe esango zuen ziur:

“Tira, zer axola du Ingalaterrak zin egindakoak? Ez al du, edonola ere, hitz emate hori hautsiko komeni eta ahal bezain pronto?”.

Zaila da Grattan eta Flood, seriooki, Ingalaterra hitz emate baten bidez lotu zitekeela pentsatzera iritsi zirela sinestea, garai haietan jada bere fideltasun faltagatik eta itunei muzin egiteagatik mundu osoan famatua zen herrialde bat izanik gainera. Gaur, eztabaida famatu honen gertakarien kontaketak, saiakera umoristikoa eskas bat dirudi, baina eztabaidaren testuinguru tragikoa ikusita esan beharra dugu umorearekin txiste batek tortura-ganbera batekin duen erlazio bera duela. Grattan eta Flood, kasu honetan, herri batean eraildako itzaropenen agonia-ohearen aurrean eginiko pailazokeria oratorio batera gehitu ziren bi aktore iaio besterik ez ziren izan. Gezurrezko halako bataila batek herriaren masa handiaren aurrean errealitatean zein interes apurra zuen frogatzeko beste argudioren bat beharrezkoa izango balitz, alde bietako sofisteria legalen absurduaz gain, buruzagi hauen historiala nahikoa litzateke. Flood jauna ez zen nekazalgoaren etsai ezagun bat bakarrik, ez zen katolikoak —hau da, Irlandako biztanleen masa handiena— gorrotatzen zituen gizon bat bakarrik; horretaz gain Parlamentu irlandarrean Amerikan iraultza zapaltzera bidalia izango zen 10.000 soldadu britainiarren gastuak ordaintzeko mozio baten alde hitz egin eta bozkatu zuen, eta bere aldetik, Grattan jaunak Gobernuaren 50.000 liberako donazio bat onartu zuen bere zerbitzu “abertzaleengatik”, eta beranduago,

laguntza apropos honengatiko gehiegizko esker onez, Boluntarioak traizionatuz eta salatuz itzuli zion ordainketa Gobernuari.

Eguneko ordenako gainerako auzi handien inguruan biek ala biek posizio anbiguoak hartu zituzten, arinkeriaz jokatu. Adibidez:

Flood jaunak demokrazian sinesten zuen — protestanteen artean, baina erlijio askatasunaren aurka.

Grattan jaunak erlijio askatasunean sinisten zuen — jabeen artean, baina sufragoia langile klasera zabaltzearen aurka.

Flood jaunak protestante guztiei, aberats edo txiro, emango ziekeen sufragoia, eta Katoliko guztiei, aberats edo txiro, debekatu egingo ziekeen.

Grattan jaunak jabegoa zuen gizon orori, erlijioa edozein izanik ere, emango ziokeen botoa, eta honen zabalpenaren aurkakoa zen jabegorik gabeko edozein gizonen artean. Komunen Ganbera irlandarrean garrazki salatu zituen aurrerago aipagai izango ditugun Irlandar Batuak sufragio unibertsalaren proposatu izanagatik, sufragio honek, bere adierazpenen arabera, herrialdea hondatu eta ordena oro suntsituko baitzuen.

Ikus daiteke Grattan jauna Estatu gizon kapitalista ideala zela; bere izpiritua burgesiaren izpirituaren haragitzea zen. Gehiago zaintzen zituen jabegoaren interesak gizakiaren eskubideak edota erlijio baten gaientasuna baino.

Norabide honetan zuen joera goiztiarra lagun bati, Broome jauna delako bati, 1767ko azaroaren 3an bidalitako gutun batean ikus daiteke, semeak bere aitaren bizitzaren eta diskurtsoen argitarapenean esaten duena. Gutunak Henry Grattan antiiraultzaile eta erlijioso txit agurgarria barru-barrutik libre-pentsalari, maitasun askearen aldeko eta filosofo epikureo bezala azaltzen du, baina iritzi horiek berak gobernatzeko asmoa zuen jende xeheak ez ezagutu beharraren jakituria oso goiz bereganatu zuela erakusten du. Laburbilduz:

“Zu eta ni, beste gauza gehienetan bezala gaude ados honetan; ezkontza instituzio artifizial bat dela pentsatzen dugu, ez naturala, eta emakumeak bizitza bezalako bidai luze eta ekaiztsu baterako hauskorregiak diren itsasontzi bezala imajinatzen ditugu... Filosofo epikureo bat bilakatu naiz; mundua gure ‘non plus ultra’ kontsideratzen dut eta zoriontasuna bertan dugun helburu handia... Halako gai bat zabalegia eta arriskutsuegia da gutun baterako; pribatuan joriago arituko gara honen inguruan”.

Hau, esan behar da, ez da agian Moore poetaren rapsodiako Grattan, baina bai egiazko Grattan ordea.

Ez da harritzekoa Dublingo herri xeheak behinola Grattani harrika egin izana, hau Ingalaterratik bueltan zela, Londreseko Parlamentura joan ostean. Bere erretorikak edota egintzek, historialariak sorgintzea lortu bazuten ere, ez zuten herria engainatu. Gaixorik oheratuta zela Batasuna onartzeko euren botoak saldukeriaz eman zituzten traidore haiengana joan eta itun hura ez zezatela bete esatera joateko dramatikoki jaiki izanak koadro bennetan ederra osatzen du historialari erromantikoen azalpenetarako, baina herri xehearantzat, Boluntarioei eginiko iseken eta traizioen eta sufragio unibertsalari eginiko oposizioaren eta tergi-berbetsazioaren ostean, oso kalte-ordain ahula zen.

Irlandako egiazko nazionalistek eta pentsalari aurrerakoiek “82ko Parlamentua” nola kontsideratzen zutenaren azken froga erabakiorra, gure iritziz, Theobald Wolfe Tonek idatzi eta 1791 urteko irailean argitaratu zen *Argudio bat Irlandako katolikoek alde izendatutako eskuorri famatuko ondorengo zati honetan dugu*. Interesgarria da “1782ko iraultza loriatsuaren” deskribapen eztenkari hau, garaiko irlandar buruargienaren lumatik aterea izan zen hau, zein gutxi gustatu zaien eta zein gutxitan azpimarratu duten gure historialari eta kazetariak, zorrozki boikotatu baitzuten gainera beraiek guztiek, hau idazten dizuen idazle honek 1897an Dublinen, “98ko Irakurketak” izeneko sail batean berriro argitaratu zuen arte, garai bereko beste hainbat dokumentu ahaztu eta ezegoki biltzen zituena. Orduetik hainbatetan berrargitaratua izan da guk berrargitaratu genuen testu zati bera, baina gure zenbait lagunek beraiek “82ko konstituzioa babesten dutela” esateko duten moduagatik zenbait pertsonarentzat alferrik argitaratua izan dela pentsatzen dugu.

WOLFE TONE GRATTANEN PARLAMENTUAREN INGURUAN
(*Argudio bat Irlandako katolikoek alde eskuorri famatuko testu zatia, 1791ko irailean argitaratua*)

“Gobernu Nazionalik ez dugula esan dut. 1782 aurretik ez genuen hau izateko asmorik, eta, espekulazio bitxi bat da, edota erabilgarria behinik behin, orain ere ikuspegi berbera mantentzen

jarraitzen dugula behatzea. Honako baieztapen honengatik in-pugnatua izateko beldur gutxi dut, izan ere Iraultza izenarekin poztasunez duintzen dugun horren bitartez lortu genuen gauza bakarra legeen bidez ongia egiteko baliabide diren horiek bakarrik izan baitziren, baina naturaren arau handira, Estatutu positibo oren gainetik dagoen horretara, bestalde ez genuen errekurritu; egin duguna ongia izan edo ez, ongia egiteari zergatik utzi diogun galdetzea benetan auzi serioa da. Nazioaren harrotasuna, gertakari haietan zerikusia izandako gizabanakoen handikeria, gizon ondradu batzuen moderazioa, arloteen ustelkeria, badakit larritu egingo direla 1782ko Iraultza halako epiteto loriatsu bat, hau duintasunik gabe bereganatuz, inoiz irrigarritu duen negozio lardats eta akastunena izan zela baieztatzen dudanean. Halako kontzesio bat ez da atsegina irlandar bakar batentzat ere, baina ezin daiteke saihestu egiak hala nahi baldin badu. Hobe da gure egiazko egoera jakitea eta sentitzea, geure buruak engainatzea edota gure etsaiek merezi ez ditugun laudorioekin eta jaso ez ditugun ametszko bedeinkazioak ditugula esanez iruzur egitea baino.

“Aro horren miresle direnei uzten diet garaiaren abantaila teorikoei eta loria bisionarioei buruzko nahi beste deklamazio jaurtitzen; oso gai polita eta bereziki lausengaria da nire herrikideentzat, hauetako batzuk bertako aktore izan baitziren eta ia denak ikusle. Izan bedi nire eginkizun desatsegina bere lumajea eta distira faltsua kendu eta gorputz biluzia erakustea. Operazioa latza izango da, baina komeni den eran burutzen badugu, zuhurtasunaren eta jakituriaren inguruko lezio gogor eta harrigarri bat eman diezaguke.

“1782ko Iraultza, irlandarrei euren ohorea, osotasuna eta herrialdearen interesak prezio askoz ere altuago batean saltzeko posibilidadatea eman zien iraultza bat izan zen; erreinuko hirietako trafikatzailer bakoitzaren balioa bat-batean bikoiztu bitartean gure herrikideen hiru laurdenak esklabo, hau da, lehen zeuden bezalaxe, utzi zituen iraultza bat izan zen, bizitza osoan zehar Irlandako Gobernu bera umiliatzen eta arpilatzen igaro zuten esku doilor, zital eta arbuiagarri beretan utzi zuen; are gehiago, esku hauetako batzuk, ausartki baina etsipenez, euren azken botoa gure iraultza famatu honen aurka eman zuten. Herrialdearen zein etsai beteranok galdu zuen bere postua edo pentsioa? Oposizioaren lerroetatik zein izan zen postu militar baterako edota

ministerio baterako deitua? Inor ez. Boterea gure etsaien eskue-
tan mantendu zen, berriro ere gure hondamenerako erabilia izan
zedin, desberdintasun honekin: lehen gure saminak, gure aurka-
ko ele txarrak eta irainak doan jasotzen genituen Ingalaterraren
eskutik; orain ordea oso garesti ordaindu behar dugu gauza bera,
berau astuntzen duten elementuekin gainera, esku irlandarreta-
tik jasotzeko; eta hala ere beragatik harro agertzen gara eta Iraul-
tza deitzen diogu!"

Eta honela ixten dugu Boluntarioen inguruko kapitulu hau
— galdutako aukera handien kapitulua, traizionaturiko konfian-
tza herrikoiarena —. Dublinen garai hartan idatzi ziren zenbait
bertsoren zati batzuek garai haien epitome gisa balio dute, pixka
bat garratzak badirudite ere.

*Nork matxinatu zuen herria?
Harry arerioak izan ziren
eta elkarren sudurretatik tiraka ibiltzen ziren
eta herria beraiek matxinatu zutela esaten zuten.*

*Zer egin zuten Boluntarioek?
Elkartu eta desfilatu
euren erramu hostoak ihartu arte.
Hori egin zuten Boluntarioek.*

*Nola hil ziren Boluntarioak?
Esklaboak hiltzen diren legez,
euren hilobietara jauzi eginez.*

VII. KAPITULUA

Irlandar Batuak

Gure askatasuna arrisku ororen aurrean mantendu behar da. Jabegoa duten gizonek laguntzen ez badigute, orduan erori egin behar dute; guk geuk lortuko dugu askapena komunitateko klase zabal eta errespetagarri horren laguntzarekin — jabegorik ez duten gizonekin.

Theodore Wolfe Tone

Boluntarioen traizioaren eta gainbeheraren garai berean, Irlanda Irlandar Batuen Elkartearen goraldi eta aurrerakadaren testigu izan zen. Erakunde hau, hasieran, elkarte ireki eta baketsu bat izan zen, agitazio politikoaren bide arruntak erabiltzen saiatzen zena euren propaganda masen artean zabaltzeko eta hauek euren helburu gorena bete zezaten prestatzeko, Frantziak iraultzarekin ezarritako lerro beretan Irlandan errepublika bat eskuratzearen helbururako alegia. Gero, izaera demokratikoaren zaporerik minimoena zuen orok gobernu britainiarraren aldetik jasaten zuen jazarpen zorrotza zela eta, ezinezko egin zitzaion bere izaera publikoa mantentzen jarraitzea, estalki bat gainean ipini eta erakunde honek klandestinitatearen metodoak hartu zituen eta modu honetan halako proportzioetaraino iritsi zen ezen Frantziako Direktorio Iraultzailearekin negoziazioetan sartzea baimendu ziola, alde biak, botere nazionalaren gaineko eskumenen inguruan, maila berean kokatzen zituen itun baten bitartez. Frantzia iraultzaileak eta Irlanda iraultzaileak etsai komunaren aurka, Ingalaterra aristokratikoaren aurka, eginiko itun sekretu honen ondorioz, kontinentetik hainbat ontziteria eta ejertzito bidaliak izan ziren errepublikar irlandarrei laguntzeko, baina espedizio haiek guztiak emaitza tamalgarriekin amaitu ziren. Lehenengoa, Grouchy eta Hocheren agindupean, ekaitz batek dispertsatu zuen, itsasontzi batzuk Frantziara itzuli behar izan zuten konponduak izan zitezen, eta gainerakoak, ejertzitoaren zatirik handiena barne,

kosta irlandarreko Bantryko Badiara iritsi zirenean, komandante frantziarrak zalantzak, ezbaiak eta erabateko ekimen falta erakutsi zituen, geroago ere erakutsiko zituena, Napoleonentzako zoritxarreko emaitza berberekin, Waterlooko batailaren bezperan. Azkenean, ontzian ziren iraultzaile irlandarren etsipenezko protestak protesta, aingurak altxatu eta Frantziara itzuli zen, tiro bakar bat bera ere bota gabe eta guardiako kabo bat bera ere lehorreratu gabe. Egoerak eskatzen zuen mailan jokatu zuen gizonik egon izan balitz eta espedizioa lehorreratu izan bazen, Irlanda, ia zalantzarik gabe, Ingalaterratik bereiziko zen eta bere patu nazionalaren jabe bilakatuko zen.

Beste espedizio bat, Errepublika Holandarrak, Frantziarekin aliantzan, prestatu zuena, kontrako haizeek gelditu zuten, ontzite-ria britainiarrak batailaren eszenatokira iristeko denbora izan zuen arte, eta orduan, komandante herbeheretarrak, zaldunki baina tentelki, britainiarren borrokarako desafioa onartu zuen, eta baldintza desberdin eta kontrakoetan borrokatzean, garaitua izan zen.

Beste ofizial frantziar batek, Humbert Jeneralak, beste saiakera bat egin zuen, baimenik gabea, baina adoretsua; lehorreratu egin zen hain zuzen Irlandan, Irlandako Errepublika aldarrikatu zuen, Killalan, Connachetn, biztanleen arteko Irlandar Batu ugari armatu zituen, eta hauekin batera, indar britainiar askoz ere gorengo bat borrokatu eta garaitu zuten Castlebarren eta herrialdearen oso barnera sartu ziren, bera baino hamar aldiz handiagoa zen indar batek inguratua eta errenditzera behartua izan zen arte. Espedizionario frantziarren kopurua oraingo honetan ez zen aski izan ordea herriak beraiengana iritsi, armatu eta modu eraginkorrean antolatzeko behar zuen denboran zehar irauteko, eta horregatik egin zuten porrot. Baina Humbertek Grouchyk komandaturiko jende kopurua izan bazuen, edota Grouchyk Humberten ausardia eta suhartasuna izan bazuen, Irlandako Errepublika jaio egingo zen, onerako edo txarrerako, 1798an. Neurri batean askotan aipatu izan den behaketa bat da, baina hain egiazkoa denez errepikapena behartzen duena, elementuek gehiago egin zutela Ingalaterrarengatik bere ejertzitoei baino. Egiazki, bai Humberten indar espedizionario frantziarren aurkako gatazkan, bai Munro Jeneralaren agintepEAN iparraldean borrokatu zuten Irlandako Armada Batuko²³

23. United Irish Army

presbiteriano eta katolikoen aurkakoan, edota Wickloweko, Wexfordeko, Kildareko eta Dublingo indar matxinatuen aurkakoan, ejertzito britainiarrak bere izen ona ez zuela momentu bakar batean ere justifikatu esan daiteke. Loria osoa, errealtatean, beste aldeari zegokion, gehiengo kasuetan, gizatasuna eta giza askapenaren grina osoa ere zegozkion bezala. Herria miserableki armaturik zegoen, batere esperientziarik gabea zen eta inongo kanpainarako plan sistematikorik gabe ekitera bultzatua izan zen, bere buruzagien bat-bateko atxiloketaren eta kartzelaratzearen ondorioz. Hala ere, borroka egin zuten eta tropa britainiarrak hogeit bat guda-zelaietan garaitu zituzten, hauek erabat diziplinatuta, bikain armatuta eta zentro komun batetik makina handi bat bailitza zuzenduta bazeuden ere. Soilik Wickloweko eta Wexfordeko matxinada zapaltzeko 30.000 soldaduren ahalegin guztiak behar izan ziren; Irlandar Batuek irla osoan egun jakin batean adosturiko altxamendu bat egiteko zuten planak porrot egin izan ez bazuen, indar errepublikarrekin lehitzeko Gobernuaren eginkizuna hain handia izango zen ezen ezingo zutela berau bete. Baina garai haietako komunikabideen gabeziak edozein distritutako matxinada, honen inguruko albisteak herrialdeko beste hainbat guneetara zabaldu baino lehen erasotua eta garaitua izatea ekarri zuten.

Errepublikanismoak eta despotismoak, era honetan, lurraren gaineko gailentasunagatik borroka egiten zuten bitartean, garai-pena, errealtatean, itsasoan ari zen erabakitzen azkenekoaren alde, honek bertan zuen nagusigoagatik. Ontziteria britainiarraren arrakastek, beren kabuz, Ingalaterrako hondartzak etsai inbadi-tzaileetatik libre egotea baimendu zuten eta Pitt, lehen ministro ingelesa, Europako aliatu despoten ejertzitoak, kontinente osoko askatasunaren eta aurrerapenaren indarren aurkako gatazkan, diruz laguntzeko eta mantentzeko gaitu. Izate eztaba daezin honen aurrean hein handi batean umiliagarriagoa da ontziteria horretan zerbitzatzen zutenen gehiengoa irlandarra zela onartzera behar-turik egotea. Baina, ejertzito britainiarrean zerbitzatzen zutenak ez bezala, itsas armadako marinel eta soldadu haiek euren borondatearen aurka zeuden han. Gobernu britainiarrak Irlandan sus-tatu zituen koertzio prozeduretan zehar, mugimendu iraultzai-leak behar baino lehen eztanda egitea bultzatzen baitzuten, auto-ritateek Habeas Corpusaren Legea (prozesu legal arrunt baten bermea) balio gabe utzi eta Lege Martziala eta ejertzitoarentzako

“Ostatu Libreko” sistema ezarri zuten. Azken honenpean, tropa biztanleri zibilaren ostatutur obligatua zen, familia bakoitza soldadu kopuru jakin bati jatekoa eta ostatu ematera beharturik zegoen. Soldaduteria basatiaren lasakeriazko jokamoldeen aurka eginiko erresistentzia saiakera guztien edota edozein protestaren aurka, edota herriko etxeetan hain gaizki hartutako egonaldi honetan zehar soldadu haiek kasualitatez entzuniko zuhurtzirik gabeko edozein adierazpenen kontra, autoritateek erremedio subirano handi bat zuten, hau da, itsas armada britainiarrera deportatzea.

Milaka gazte hartu zituzten preso irla osoan zehar eta kateaturik portu ezberdinetara abiatu behar izan zuten, ordutik gerra ontzi ingelesetan egonaz, eta han euren etxeak suntsitu, euren bizitzak hondatu eta euren herrialdea erraustu zituen gobernu baten alde borroka egitera behartuak izan ziren. Distritu bat begikotasun traidoreak izatearen susmagarri baldin bazen, Lege Martzialarenpean ipintzen zen; gero, etorkizun handiko gazte oro harra-patua eta presondegira jaurtia izaten zen susmagarri gisa, epaiketara bat egiteko aukerarik gabe. Jarraian, exekutatuak edota hil arte jipoituak izan ez ziren haiek guztiak, ontziteriara eramana ziren. Irlanda osoan, baina bereziki Ulsterren eta Leinsterren, XVIII. mendearen azken urteetan eta XIX.aren aurrenekoetan, garaiko egunkariak eta gutun pribatuak prozesu hauen inguruko testigantzez josita daude eta jende kopuru handietaz hitz egiten dute, alde guztietatik ontziteriara bidaliak zirenak herria beldurtzeko prozesuaren gorakada itzel haren emaitza gisa. Beraietako asko Irlandar Batuetakoak ziren, Irlandako herriak pairatzen zuen despotismoa garaitzeko ahaleginetan temati ari zirenak, eta hauek itsasontzietan zuten presentziaren emaitza gisa, ontzi britainiar bakoitza segituan konspiratzaileen habia bana bilakatu zen. “Ingalaterra Zaharreko Jack Tars-ek”²⁴ Inperio Britainiarra suntsitzeko konspiratzen zuten eta beraien nagusiek edota autoritateek ematen zieten tratamenduaren inguruko berri apur bat duen pertsona oro ezin daiteke egiten zituztenekin harritu. Gai hau ez da oso gustagarria klase agintari ingelesaren historialari patrioteroentzat,

24. Ingalaterra Zaharreko Jack Tarsak Maiestatearen itsas armada errearen marinelak ziren, eta hauetako asko Napoleonen aurkako gerretan boluntario gisa errekrutatuak izan zirenak.

eta ondorioz, gezurra askotan esaten dute gaiaren inguruan, atseginez beterik, baina errealitate gordina zera da, “Ingalaterraren egurrezko horma” haiek, herrialde hartako poetek hainbeste maite zituztenak, benetako ur gaineko infernuak zirela marinel eta soldadu gizagaixoen zatia.

Ofentsarik azalenekoarengatik zartailuz ematen zen zigorra mailarik baxueneko ofizialak banatua zen, frogarik gabe eta bere hitz hutsean oinarrituz; gizonak lo egitera eta jatera behartzen zituzten itsasontziaren bizkarpeko gelak baldintza doilor eta lohitsuenetan aurkitzen ziren; janaria izan daitekeen nardagarriena zen eta marinel orok tributua ordaindu behar zion itsasoko kabo diruzale bati egiazko inanziotik ihes egiteko, eta ontziko ofizialen bitzta osoa, kapitainetik hasita brigadier gazteeneraino, aberasatasunean eta bereizkerian oinarritzen zen eta klase xeheenei zegokien ororen aurkako gorrotzoko eta mespretxuzko giro batean. Mutinak eta mutin saiakerak, ondorioz, etengabeak ziren eta indarrez errekrutaturiko Irlandar Batuek eremu emankorra topatzen zuten euren operazioetarako. Itsas armadaren gerra kontseiluen gobernu-artxiboetan “Irlandar Batuei sekretupean zin egitearen” salaketa akusatuen aurka egiten den salaketa arruntenetako bat da, eta delitu honengatik fusilatuak edota itsasoaz bestalde deportatuak izan diren gizonen kopurua, sinpleki, izugarria da. Marinel ingelesak edota eskoziarrak askatasun osoz gehitzen ziren konspiratzaileen lerroetara, eta haserretuen kopurua hainbestetarik hazi zen ezen halako batean —iparraldeko mitinean— marinelak gai izan zirela errebelatu eta euren ofizialak postutik kendu eta ontziteriaren gaineko agintea hartzeko. Beraien arteko buru zuhurrenek, Irlandar Batu eredugarriek, itsasontziak portu frantziar batera eramatea proposatu zuten, baina Frantziara abiatu aurretik Londreseko portuko beste hainbat itsasontzi irabazten saiatzearen proposamena onartzera behartuak ikusi ziren azkenean. Hau egin zuten, eta hiria bonbardatzearekin ere egin zuten mehatxu; baina atzerapenak, Gobernuari, leial zitzaizkion ontzi batzuk biltzea baimendu zion eta baita errebelaturiko ontzietan oraindik ere bazituen esklabo “leial” haiek matxinaturiko britainiar zalantzatien sentimendu “abertzaleekin” jokatzeko hastea ere, frantziarrek aliatu gisa ongi etorria egin beharrean, presondegi frantziarretan kartzelaturik amaituko zutenaren probabilitatearen zurrumurrua zabaldu baitzuten ontzidiko jendearen artean.

Azkenean, almiranteak eta ofizialek, “euren kexa justuak aseko zituztela” hitz emanez, erresistentzia posibilitate oro eteteko adina jende bereganatzea eskuratu zuten ontzi bakoitzean eta mutina menperatua izan zen. Honi fusilamenduen, jipoi en eta deportazioen ohizko kontakizunak jarraitu zion, baina ontzietako bizi baldintzak hobetuzetik urrun gelditu ziren. Harrigarria iruditu daiteke indarrez errekrutatuturiko gizon batzuek eta gobernu tiraniko baten aurka konspiratu zutenek gero gobernu horren beraren alde borrokatu izana, dohakabe hauek Nelsonenpean egin zuten bezala, baina kontuan izan behar da behin gerra buke baten barnean, eta behin buke hori itsaso zabalean etsai baten aurkako erasoan sartu dela, ez dagoela inongo aukerarik ihes egiteko edota etsaiarekin elkarlanean aritzeko bederen; kontserbazio senak ordea, beraien artean zeuden arimarik gabeko esklabo haiek itsasontziagatik egiten zuten bezain leialki borroka egitera behartu zituen Irlandar Batu errebolutari haiek eta matxinatu ziren kontentagaitz haiek. Eta gizon hobeak izanik, gizontasun handiagokoak zalantzarik gabe, hobeto egiten zuten borroka.

Altxamendu demokratiko haren aspektu honen laburpen motz hau amaitzeko, *Pressetik*²⁵, Dublinen argitaraturiko Irlandar Batuen organotik, garai hartako honako albiste txiki hau ekarri nahi dugu hona, garai haiek bikain ilustratzen dituen testutzat hartua izango dela uste duguna, lehen azalduko puntuen konfirmazioa izateaz gainera aldi berean.

KISKALTZEA

“Castle Ward iparraldeko herrixkatik gertu, aita bati eta bere semeari, buruak erre zizkieten, euren su propioan, armen gordeleku baten inguruko aitorpen bat atera nahian. Agurearen emaztearen jabegoko etxe zahar batean suzko arma baten itxigailua aurkitu izana izan zen arrazoia. Aipaturiko bikoteak ontziteria britainiarrean zerbitzatzen duten bi seme dituela gauza jakina da, bata Lord Bridgporten agindupean eta bestea Lord St. Vincentenean”.

25. Prentsa

VIII. KAPITULUA

Irlandar Batuak, demokrata eta internazionalista gisa

*Ai ene! Irlandarrok, nire burkideok,
zer egin duzue zuen bandoekin,
Sinesmen eta ogibide guztietako gizonok
ipin zaitezte ados,
Laranja eta Berdea, gizonok,
jada ez balira ikusiko, gizonok,
Ai! nablaren semeok, zein erraz izango
litzatekeen Irlanda libre²⁶.*

Jamie Hope.

Beste lekuren batean azaltzen genuen bezala (*Erinen itxaropena, helburua eta bitartekoak*), jatorrizko zibilizazio irlandarra 1641eko matxinadaren porrotarekin eta Kilkennyko Konfederazioaren disoluzioarekin desagertu zen oro har. Matxinada handi hau klanen sistema irlandarra, jabego komunean eta gizarte antolaketa demokratiko batean oinarritzen zena, garai berean jabeen despotismo politikoa eta benetako ekoizleen esklabotza politiko eta sozialaren lehia gisa azkeneko aldiz agertu zen uea izan zen.

Altxamendu honetan zehar, noble anglo-irlandarrek, tribu-lur irlandarrak sistema feudal ingelesarenpeko euren jabego pribatu kontsideratzen zituztenek, euren zoria jatorrizko tribu irlandarretako gizonenekin elkartu zuten, baina batasun hau ez zen inoiz

26. Laranja koloreak Orangeko (Laranjako) Dukea eta protestantismoa adierazten dituen bitartean kolore berdea katolikotasunaren adierazgarri da eta aldi berean Irlanda berarena ere bai, hirustaren edota trebolaren sinboloarekin estuki erlazionaturik. Izatez, Irlandako banderaren hiru koloreek protestanteen (laranja) eta katolikoek (berdea) arteko bakea (txuria) adierazten dute paradajokoki. Nabla berriz, antzinateko harizko musika instrumentua, Irlandaren sinbolo den harpa aipatzeko beste adiera bat da.

adeitsua izan eta matxinatuen kontseiluetan, noble hauen presentzia eztabaida, traizio eta ezgaitasun iturri oparoa izan zen beti. Katolizismoaren alde borroka egingo zutela zin egin bazuten ere, errealitatean euren alboan borrokatzen zuten gizon haiei edota hauen gertuko arbasoei eginiko konfiskazioen ondorioz euren jabetzakoak ziren lurren gaineko eskubideak kontserbatzea bakarrik bilatzen zuten. Altxamendua garaitua izatearen kasuan ingelesen belaunaldi berriaren aldetik konfiskazioak jasatearen beldur ziren, eta matxinadak garaipena eskuratuz gero klan matxinatuen eskutik konfiskazioak jasateko beldur.

Gogo-aldarte honek eragiten zizkien zalantza-egoerek eta traizioek bakarrik azal dezakete klan irlandarren mugimendu bikain haren porrota, gailentasuna mantendu eta Irlandaren zati handienarentzako legeak sortzeko adinako proportzioetaraino iritsi zen mugimendua berau, bere moneta txanpondu zuena, bere ontzite-ria propioa izan zuena eta atzerriko kortsarioentzat kortso patenteak jaulki zituen, atzerriko nazioekin itunak egin zituen eta euren banderapean borroka egiten zuten ejertzito ezberdinak mantentzeko zergak eskatu zituen. Bi gizarte sistema desberdinetako ordezkariak bandera berarenpean aliatu izanak beraien hondamenaren hazia gordetzen zuen. Erabat feudala izan bazen, Irlanda independente bat eskuratuko zukeen, nahiz eta garai hartako Ingalaterran bezalako biztanleri jopuarekin izan. Bere osotasunean tribu familia zaharrek osatu izan bazuten, botere ingelesa zanpatuko zuketan eta egiazki askea izango zen Irlanda bat jaso; baina bien arteko hibrido bat besterik ez zenez, bien akats guztiak biltzen zituen eta bat beraren indarririk ez, eta ondorioz, hondamendian aurkitu zuen bere amaiera. Euren suntsiketarekin eta jarraian etorritako sarraskiekin, desjabetzeekin eta jatorrizko irlandarraren dispertsioarekin, azkenean, klan irlandarrek historiatic desagertu ziren.

Zirkunstantzia hauekin batera, historia irlandar modernoa ulertu nahi duen ikasle ooren azterketa merezi duten baldintza batzuk sortu ziren.

Honela, sortu zen baldintzetako bat zera izan zen, klana erreboltan puntu elkartzailerik eta askatasunarentzako oinarri posible gisa desagertzearekin batera, ahalegin matxinatzailea lehen bezain lokalizatua izatea edota edozein matxinadak nazio irlandarra baino helburu txikiago bat edo mugatuago bat izatea ezinezkoa

bilakatu zela. Cromwellen altzairuzko besopean klan irlandarrak esklabotzaren hilobi komunean hondoratu zirenetik, handik aurrera, ideia irlandarraren berragerpen posible bakarria altxamendu nazionalaren bidetik bakarrik etorriko da. Eta egun hartatik aurrera, jabego komunaren ideia ekintzarako manifestuaren azken puntura igarotzera kondenaturik geratu zen, nazioaren energiak, prozesu geldo eta tamalgarri batean, konkistatzailearen sistema soziala asimilatzeaz arduratzen ziren bitartean, jabegoan oinarritzen zen gizarte politiko horren printzipioak xurgatuz, ondare komunean oinarrituriko klanen gizarte irlandarra ordezkatzeko zuten bitartean.

Ordena sozial irlandarraren desagertzea ekarri zuen beste baldintzetako bat konkistatzaileen barneko klase kontraesanen hazkundera eta sakontzea izan zen. Irlandan zeuden industria guztien jabegoa, egun hartatik aurrera, elementu protestantearen eskuetan egotearen izate eztabaida ezina ez dugu historialari sofista anti-irlandarrak ahalegintzen diren moduan azalduko, egoera hori protestanteek katolikoekin alderaturik ekimen handiagoa izan zutelako sortu zela aipatzen baitute. Errealitatean, garai hartatik aurrera, luraren gaineko legeak katolikoak ilegalitate sozial eta politikoko egoeran ipini zituelako izan zen. Konstituzio ingelesaren arabera, hau Irlandaren mesederako interpretatzen den eran, katoliko irlandarrak ez zirela existitu ere egiten irizten zen, eta hortik, enpresa industrialak euren eskuetan egotearen edota euren hastearen ezinezkotasun praktikoa. Katolikoek lur jabegoa abenturazale protestanteen menpera igaro zen bezala, nazioaren manufaktura negozioak ere ehizaturiko eta proskribaturiko "papisten" erpe zaurituetatik euren etsai arrakastatsuen eta gupidagabeen hatzaparretara erori ziren.

Beraien artean bi elementu zeuden: protestante fanatikoa eta honen sugar erlijiosoarekin merkataritzan aritzen zen abenturazale soila. Bigarrenak lehenengoaren fanatismoa erabiltzen zuen etsai katoliko komuna desarmatzeko, uztarripean ipintzeko eta honi lapurtzeko, eta behin hau lortuta, bera ezarri zen klase lurjabe eta merkataria gisa, soldadu protestantea maizter edota artisau izatearen patuan abandonatuz. Jada gerra williamista lehertu zen garaian, Cromwellen osteko hurrengo belaunaldian, Irlanda iparraldeko industriak hainbeste garatu ziren ezen Derryko apendizak zirela faktore nagusi borrokan zeuden errege ingelesekiko hiri

hark zein jarrera izan behar zuen determinatzerako unean, eta gerra honen amaieran industria hain azkar garatu zenez herrialdean, Ingalaterrako kapitalistentzat mehatxu bat bilakatu zen, erregeari industria horri mugak eta trabak ipintzea eskatu ziotelaririk, honek eskaera hori industria irlandarren aurkako legedi murriztaile baten bitartez burutu zuelaririk. Kapitalismo irlandarra desleiala eta konformaezina izan zen, iraultzaile bilakatzeko boteririk eta adorerik izatera orokorrean inoiz iritsi gabe. Inbasio ingelesaren eta haserre anglo-irlandarraren aski errepikaturiko dramaren taularatze berri bat izan zen, eskenatokiaren ohiko atzealde ekonomikoarekin. Aurreko kapitulu batean adierazi dugu nola jabe bezala gure lurrian ezartzen ziren abenturazale ingelesak belaunaldi bakoitza erresumindu egiten zela belaunaldi berri bat iritsi orduko, eta euren abertzaletasun irlandarra beraiek beste batzuk desjabetu zituzten moduan eurak berak desjabetuak izateko zuten beldurratetik besterik ez zetorkiela. Lurjabe "abertzaletari" aplikatu daitekeena, manufakturalariei ere aplikatu daiteke. Kapitalista protestanteek, abenturazale ingelesak, herbeheretar eta beste hainbaten laguntzarekin, bertako katolikoak desjabetu zituzten eta aberastu egin ziren; merkataritzak gora egiten zuen heinean, merkataritza ingelesaren egiazko lehiakide bilakatu ziren, eta ondorioz, kapitalista ingelesek haien aurkako legedia bat derriortu zuten eta berehala, iraganean "Irlandako goarnizio ingelesak" izan ziren haiek alderdi "abertzale" irlandar bilakatu ziren.

Noizbehinka teoria arraro eta fantastiko batzuk garatu izan dira belaunaldi bateko kolono ingelesak hurrengo belaunaldiko abertzale irlandar nola bilakatu ziren justifikatzeko. Irlandaren airea, hizkuntza, erlijioa, begikortasuna edota adetasuna izan zirela esan zaigu, eta une oro, izate ekonomiko gordina, arrazoi materiala, ematen zen argudioaren mitikotasuna eta faltsutasuna bezain argia zen. Baina ikusi nahi ez duena baino itsu handiagorik ez dago, lur irlandarraren konfiskazio ingelesak amaitu zirenetik lurjabe irlandarren erakunde bakar bat ere abertzale edota errebolitari bilakatu ez izanaren errealitatea hor baitago, eta manufakturalari irlandarren aurkako legedia ingeles errepresiboa indargabetu zenetik kapitalista irlandarrek menperatze egitura ingelesaren erreserba baliotsu izaten jarraitu izan baitute Irlandan. Honela, badirudi zio ekonomikoak funtzionatzeari utzi ziotetik, Irlandaren aireak, hizkuntzak, erlijioak, begikortasunak eta

adeitasunak euren erakarpen gaitasuna galdu zutela, jabeen klaseetako kolono ingelesa abertzale irlandar bilakatzeko indar osoa galdu zutela alegia.

Politika "abertzale" honen garapenarekin, manufakturalari irlandarren klaseak politika zinez bizia eta oldarkorra garatu zuen hiriko eta landako protestanteen klase behartsuenaren artean. Izatez, Irlandan, garai hartan ez baitzeuden bi nazio bakarrik, katolikoena eta ez katolikoena; nazio horietako bakoitza beste bitan banaturik zegoen, nazio aberatsean eta txiroan. Industriaren garapenak protestante txiro kopuru handiak nekazal eginkizunetarik lan industrialetara eraman zituen, eta azken hau manufakturalari ingelesen mesederako ezereztua izan zenean, lurrik eta lanik gabe geratu ziren. Egoera honek hiriko eta landako langileak morroi mailara murriztu zituen. Lurra eta lana bilatzeko lehiaren bortiztasunak jaunen klaseari protestanteak eta katolikoak bere borondatearen arabera makurraraztea ahalbidetu zion, eta honen emaitza aurretiaz gure historian berri eman dugun erreboltetan ikusi dugu. Langile eta maizter protestanteak berehala ikasi zuen Erromako Aita Santua errealitatean oso arrisku irreala eta ezdeusa zela bere enpresariaren edota lurjabearen botere sozialarekin alderatuta, eta maizter katolikoari esnatu berri zitzaion kontzientziaren arabera, ordena sozial berripean, lurjabe katolikoak meza gutxiago errepresentatzen zuen errenta-bilketa baino. Garaiak oso aproposak ziren Irlandako bi masa herrikoien batasuna eman zedin. Bi puntu oso desberdinetatik egin zuten bidaia, etsipenezko eta desenkantuzko bilarak igaroz, oinaze komunaren ur bateratzaileetan azkenean topo egin zuten arte.

Batasun hau gauzatzeko eta nazioaren bizitzako indar bizi bat bilakatzeko, bi elementu hauek batu ahal izango zituen puntu komun bat aurkitzeko, behar adinako estadista gaitasuna izango zuen iraultzaile baten ekimena beharrezkoa zen, batetik, eta haien guztien atentzioa deitu eta eurengan sentimendu komun bat piztuko zuen gertakari dramatiko bat ere bai, bestetik. Lehena, gizon iraultzailea eta estadista, Theobald Wolfe Toneren figuran topatzen zen, eta bigarrena, gertakaria, Frantziako Iraultzan. Wolfe Tone, protestantea izanik ere, denbora batean zehar Komite Katolikoaren idazkaria izan zen, eta postu horretatik aurreko kapitulu batean aipaturiko eskuorria idatzi zuen, baina denborarekin, Komiteak ziurrenik nahi izanik ere hasi ezingo zituzkeen neurri

zabalagoen eta drastikoagoen ordua iritsi zenaz konturatu zen Wolfe Tone. Frantziako Iraultzak era berean jokatu zuen masa katolikoei eta protestanteei izate hau frogatzeko unean eta honen etorrera onartzeko prestatu zituen. Langile protestanteek iraultza bat ikusi zuten herrialde benetan katoliko batean eta ondorioz zalantza sortu zitzairen amarrukeriaz euren buruetan sartu zieten ideia buruz, katolikoak despotismoaren borondatezko esklabo zirenean inguruan alegia; eta katolikoek bertan botere herrikoia- ren adierazpen itzel bat ikusi zuten, herriaren iraultza bat, aristokraziaren aurka, eta beraz, euren salbaziorako buruzagitza aristokratiko bat beharrezkoa zela sinesteari utzi zioten.

Une apropos hau aprobetxatuz, Tonek eta bere kideek edozein sinesmenetako gizonak onartuko zituen elkarte baten sorrera proposatu zuten, Parlamentuan herri osoaren berdintasunezko ordezkari bat bermatzeko helburuz.

Ahalegin hau, Toneren geroko hitzek eta ekintzek zabalki erakusten duten bezala, batasunerako baliabide gisa bakarrik burutzen zen; bere garaiaren eta boterean zen oligarkia politikoaren izaeraren ezagutzailerik bikaina zen neurrian, eskakizun hark gobernuaren erresistentzia indar osoarekin talka egingo zuela ulertzen zuen, baina jakinduriak kalkulatu zuen eskakizun herrikoien baten aurkako erresistentziak herriaren batasuna hurbilagoa eta iraunkorragoa egingo zuela erlijio bereizkeriarik tarteko ez bazen behintzat. Eta Tonek aristokraziaren balioaren inguruan ilusiorik ez zuela egiten bere autobiografiaren pasarte askotan frogaturik gelditzen da. Bat aipatuko dugu, puntu honetaz gain, Frantziako Iraultzak Irlandako pentsamendu herrikoiean izan zuen eragin determinatzailea ere erakusten duena:

“Iraultzak aurrera egiten zuen neurrian eta gertakariak zabaltzen zihoazen heinean, Irlandako izpiritu publikoak azelerazio bizkorrez egin zuen goraka. *Aristokraziaren beldurrak eta ezin-kusiak proportzio berdin edo handiagoan hazi ziren.* Denbora gutxian Frantziako Iraultza gizon ororen kredo politikoak proban jarriko zituen gertakaria bilakatu zen eta nazioa erdibiturik gelditu zen argiki bi zati handi emanez: aristokratak eta demokratak, Frantziari kopiatutakoak, orduetik une oro euren indarrak neurtzen aritu direnak eta gerra isil antzeko bat aurrera eramanez dutenak, zeinak gertakariaren joanarekin ziurrenik energia eta ekintzan amaituko duen”.

Ikus daiteke nola Tonek bere itxaropenak klase arteko borroka baten jarraipenak ekarriko zuen garaipenean oinarritzen zituen, nahiz eta orain bera imitatzen saiatzen direnek euren besopak beldur santuz jasotzen dituzten esaldiaren aipamen soilagatik.

Berdintasunezko ordezkartzaren eskaera Irlandako demokraziaren oihu batutzaille bezala erabiltzearen jakinduria politikoa garai hartako sufragioaren egoeraren inguruko ikerketa batek argi uzten du. *Dublingo Irlandar Batuen Aldarria Herriaren Lagunen Elkarte Ingelesari* testuan, Dublinen 1792ko urriaren 26ean dataturikoan, errepresentazioaren egoerari buruzko honako deskribapen hau topatzen dugu:

“Errepresentazio protestantearen egoera honako hau da: hamasei udalerrik²⁷ ez dute bertan bizi den boto-emailerik; hamaseik ez dute bat baino gehiago; laurogeita hamarrek hamahiruna boto-emaile dituzte; laurogeita hamar pertsonak 106 landa-udalerrirengatik ordaintzen dute, hau da, zifra osotik, 300dik 212ren-gatik; bost noblek eta lau apezpikuk 54 kiderengatik ordaintzen dute; udalerrien eraginak halako boterea eman die lurjabeei konderrietan ezen hauek ere udalerrri bilakatzen dituztela... baina hala ere, oraindik ere zirrarako miresmenez hitz egiten da Herriaren Maiestatearen inguruan; eta portzio protestantearen zatiren bati gainean, modu nabarmenean, koroa bat ipintzen bazaio, hau isekaz egiten da, arantzaduna baita hau.

“Katolikoei dagokionean, errealitate soil eta tristea ondorengo hau da: hiru milioi pertsonak, eurak guztiak Estatuarengan interesa dutenak eta kolektiboki baliotsutzat hartzen dutenak, zergak ordaindu behar dituzte, ordezkartzarik ez duten bitartean, eta beraiek onartzen ez dituen legedia bat izatera beharturik daude”.

Aipaturiko aldarriak, Thomas Wrightek idazkari gisa sinatuak, badu esaldi bat, beraren azterketa zenbait sozialistentzat eta beste batzuentzat, Irlandan eta Ingalaterran, erabilgarria izango

27. Udalerrri gisa itzuli den administrazio esparru mota honen ingelesezko adiera *borough* da, baina udalerrien sistema ez da egun ulertzen dugunarekin alderatu behar. Egundualerriek osatzen dute mapa osoa, garai hartan udalerrriak eta, adibidez, konderriak, batera bizi ziren, baina esparru bakoitzak bere pribilegio eta legeak zituen. Horrexegatik, aurrerago aipatzen den gisan, hainbat noblek nahiago izan zuten euren konderri izaera *borough*arengatik aldatzea.

litzatekeena, eta aldi berean garaiko pentsamendua argitzeko ere baliagarria dena. Ondorengo hau da:

“Bi irla hauen batasunaren inguruan, sinetsiezaguzue gure batasuna gure elkarren arteko independentzian sostengatzen dela esaten dugunean. Elkar maitatuko gara bakoitza bere buruz arduratzen baldin bada”.

Hauxe zen egoera, beraz, Irlandar Batuen Elkarteak jaio zenean. Gaur egungo irlandar iraultzaileek alde batera baztertu dituzten ekintza printzipioen garrantziaz kontziente ziren gizonek hasia eta zuzendua izan zen Elkarte hura. Ondorioz, egungo “abertzaleak” Irlanda lerro erlijioso etsaieran bereizirik mantentzen bezain eraginkorrak ziren Irlandako demokraziaren batasunari eusten. Aristokrazia, halaber, askatasunaren printzipioaren eta praktikaren etsaia zela argi zuten; askatasunaren aldeko borroka irlandarra giza arrazaren mundu mailako aurrerakadaren parte zela ulertzen zuten, eta ondorioz, Britainia Handiko iraultzaileekin aliatu ziren, Frantziakoekin bezala eta gutxi hitz egin zuten iraganeko loriez eta asko miseria modernoaz. *Komunen Ganberako Komite Sekretuaren Txostenak* osotasunean berrargitaratu zuen Wolf Tonek eta bere kideek 1791ko ekainean herrialde osoan zehar zirkulatuarazi zuten *Irlandaren Askatasunaren Lagunen Manifestu Sekretua*, eta honek historian Irlandar Batuen Elkarteak bezala ezagutzen den erakunde iraultzailearen planen zirriborro bat jasotzen duenez, hainbat pasarte aipatuko ditugu gure argudioen babeserako eta elkarte haren fundatzaileen iritzi demokratikoak erakusteko. Manifestua Wolfe Tonek idatzia izan zela pentsatzen da, Samuel Nelsonekin eta beste hainbatekin elkarlanean:

“Fede politikoaren printzipio argi eta sinple apur batzuen inguruan errari ibili izanagatik, gure politika, gure erlijioa bezala, sermoi bat bilakatu da, ez praktika; hitzak, ez ekintzak. Hau bezalako elkarte batek ez du onartuko giza bihotzak konpartimentu txikietan ohol-hesitzen dituen eta zentzu, ondradutasun eta ongizate komunak sektetan eta sekzioetan partzelatzen dituen aldarri alderdikoirik.

“Abertzaletasunaren lengoaiarekin mozorrotzen den aristokrazia bat ez da despotismoarekin lehiatuko dena izango, bere mesederako bada ere, ezta bere etsairik amorratuena ere gu guzion onerako. Atzera birgizatzen duten ikuspegi hutsekin ez du

gizateriaren martxa geldituko eta hau ezingo du euren arbasoen bidezidor eta irteerarik gabeko kaleetara desbideratu.

“Elkarte hau egiazki helburu handi bat sustatzeko baliabide-rik boteretsuena izan daiteke. Zein helburu? *Gizakiaren Eskubide-ak Irlandan*. Zoriontasunik handiena irla honetako jende kopuru handienarentzat, nazio aske orok aske izaten jarraitzeko egiten dituen eskakizun natural eta ukaezinek hala izaten jarrai dezaten - nazio batek zorionsua izateko borondatea izan dezan eta bote-rea ongizate komuna eskuratzeko erabil dezan, gizabanakoak bere ongizate pribatua bilatzen duen bezala, eta herri subirano bat bere independentzia intsularrean manten dadin.

“Zoriontasun Handiena Kopuru Handienarentzako. Harkaitz honen gainean sostengatzen da elkarte hau; honen arabera epai dadila auzi politiko oro eta ez dadila arriskatutzat kontsideratu helburu hau burutzeko beharrezkoa izango den guztia, gure in-teres, eginbehar, lori eta erlijio komun baizik. Gizakiaren Eskubi-deak Jainkoaren Eskubideak dira, eta batzuk aldarrikatzea beste-ak mantentzea da.

“Askeak izan behar dugu Hura zerbitzatzeko helburuz, bera-ri zerbitzatzea askatasun perfektua baita.

“Elkarte honen kanpo aktibitateak honako hauek izango dira: lehenengoa, argitarapena, defendatzen dituen printzipioei difu-sioa emateko eta helburuak burutzeko xedez. Bigarrena, hiri des-berdinekin komunikazioak maiztasunez mantentzea eta Irlanda-ko Herriaren Konbentzio Nazionala, iraganeko akatsetatik eta bi-lera honetatik aurrera jazotako edozein ezusteko gertakaritatik mesedetarik aterako dena, ospatzeko ahalegin guztiak egitea. Hi-rugarrena, atzerriko antzerako elkarteekin komunikazioak izat-ea, Parisko Jakobinoen Klubarekin, Ingalaterrako Elkarte Iraul-tzailearekin, Eskoziako Erreformatarako Komitearekin. Nazioek el-karrekin egin dezatela aurrera. Gizateriaren artean Gizakiaren Eskubideen inguruko sentimenduen elkartrukea ahal bezain az-karrena izan dadila.

“Aristokrazia aurrera egiten duenean, herriak atzera egiten du; herriak aurrera egiten duenean, aristokrazia, atzean gelditze-ko beldur, gure lerroak limurtu nahian hurbiltzen da eta buruza-gi lotsati edota laguntzaile traidore gisa goratzen da gure buruen gainetik. Instrumentu bezala erabili nahi gaituzte; hobe, bilaka ditzagun gure instrumentu. Bi gauzetakoren bat gertatu behar

da. Herriak alderdia zerbitzatu behar du, edota alderdiak herriaren indarretik sortu, eta Herkulesek bere makuluaren gainean hartu ahal izango du atsedena. Uztailaren 14an, Frantziako Iraultza beti ospatuko duen egunean, elkarte honek isur dezala askatasun europarrarengatik lehen libazioa, denborarekin munduaren askatasunarena, eta eskuak elkarturik eta begiak Zerurantz jasota, Bere presentzian, haiengan betiereko arima bat sustatu zuen haren aurrean, Irlandak herri independente gisa dituen eskubideak eta eskumenak mantentzea zin egin dezatela.

“*Dieu et Mon Droit*’ (Jainkoa eta nire eskubidea), da erregeen leloa. ‘*Dieu et la liberté*’ (Jainkoa eta askatasuna), oihukatu zuen Voltairek Franklin, munduko hiritar-kidea, ikusi zuenean. ‘*Dieu et nos droits*’ (Jainkoa eta gure eskubideak), oihukatu behar die-te elkarri irlandarrek; errukiaren, justiziaren eta garaipenaren oihua”.

Zaila litzateke literatura sozialista modernoan, bere ikuspegiari eta asmoetan hain begirada zabala izanik, are internazionalagoa litzatekeen, bere metodoetan klase izaera definituagoa izango lukeen, edota bere izaeran aldarri honetan baino nabarmenki demokratikoagoa izango litzatekeen norbait bilatzea, izan ere, Rory O'Moren garaietatik iraultzak Irlandan izan duen antolatzaile hoberena bezala onarturik dagoen iraultzaile baten inspirazioa eta metodoak islatzen baditu ere, gaur egun, bere jarraitzaile direla baieztatzen duten guztiek printzipio hauetako bakoitza etengabe zapaltzen eta gaitzesten baitute eta ekintza politikorako gida gisa ukatzen baitituzte. Sozialista irlandarra bakar-bakarrik aurkitzen da Irlandar Batuen apostolu iraultzaile honen pentsamoldearekin harmonian.

Aipaturiko manifestua 1791ko ekainean kaleratu zen eta urte bereko uztailan elkarte eta hiritar boluntarioak Bastillaren Erorketaren urtemuga ospatzeko bildu ziren; manifestua eraiki zuenak gomendaturiko ospakizuna, Irlandako egiazko herria, ekoizleak, hezteko eta batzeko baliabide gisa. *Dublin Chronicle*ko²⁸ *Belfasteko hiriko eta auzoen arteko Boluntarioen eta Biztanleen Adierazpena, Frantziako Iraultzaren auziaren inguruan dokumentutik ondorengo pasarte hauek aipatuko ditugu. Belfast ideia iraultzaileen fokua zenez Irlandan eta Irlandar Batuen lehen elkartearen egoitza*

28. Dublingo Kronika

bilakatu zenez, eta gainerako elkarte guztiak jatorrizko honetan oinarriturik zeudenez, erabilgarria izango da hemen adierazten diren sentimenduak aztertzea.

“Aho batez onartua iragarpen publikoz ospaturiko Asanblada batean, 1791ko uztailaren 14ean.

Sherman Koronela, presidentea”.

“Ez marmolaren ez brontzearen gainean ezin dira gizakiaren eskubideak eta eginbeharrak hauen buruetan eta bihotzetan erregistratzen diren bezalako iraunkortasunarekin erregistratu. Egun honetan, beraz, Frantziako Iraultza ospatzeko bildu gara; gertakari handi honen oroimena gure bihotzetan murgildu dadila, baina hau ez dezala soilik elkarren arteko hiritar sentimendu komun batek bakarrik epeldu, baita giza arraza osatzen dugunok interesezko, eginbarreko eta afektuzko anaitasun batean biltzen gaituen elkartasunak ere.

“Hemen, beraz, gure jarrera hartzen dugu, eta guretzat Frantziako Iraultza zer den galdetzen badigute, asko dela erantzungo diegu. Askok, gizaki gisa. Giza naturarentzat ona da belarra Bastilla egon zen lekuan haztea. Poztu egiten gara esklabotza zibilaren eta erlijiosoaren suntsiketa adierazten duen gertakari honengatik, poztu egiten gara gehiegikerien metaketa itxuragabe hau, tradizioaren gainean soilik oinarritzen eta herriaren ezjakintasunaren gainean jasotzen den hau, belaunikaturik, bere oinarrian bertan balantzaka dabilela ikusten dugunean, berdintasunezko askatasunaren eta aberastasun komunaren mailetaraino iritsiz. Poztu egiten gara giza naturaren matxinada honengatik eta torturaren kriptetatik eta heriotzaren kobazuloetatik sortzen diren gure anaiak zoriondu egiten ditugu. Mundu kristaua zoriondu egiten dugu bere baitan konkistaren ideia orori uko egin dion nazio handi bat izateagatik eta gizatasunezko batasunezko eta bakezko lehen manifestu loriatsua argitara eman izanagatik. Aldi berean Jainkoari errege egiten diogu bakea izan dadila haien lurrian eta erregegoak, nobleziak eta kleroak ez dezatela inoiz botererik izan bere zoriontasuna eta oraindik ere jaio ez diren beste milioikarena bermatzeko legeak aztertzen ari den herri on baten harmonia kaltetzeko.

“Jarrai ezazu, beraz, herri handi eta adoretu horrek, zure legediaren filosofia gorena, justiziagatik borroka egiteko zu bezain prest ez dauden beste nazioen txaloak irabaziz, eta ez konkistaren bidez, baizik eta arrazoiak mundua bilakatzeko eta askatzeko

duen omnipotentziaren bidez baizik, begiak zuri begira dituen mundu bat, bere bihotza zurekin duena, bere hizkuntza guztietan zuri buruz hitz egiten duena; zu zara egiazko mundu honen itxaropena, guztiena, kabinete batzuetako zenbait gizonentzat salbu, beraiek giza arrazarenak zirela pentsatu beharrean giza arraza eurena zela pentsatu zuten haientzat salbu; baina orain irakaspen izugarri bat jaso dute eta dardarka daude, eta ez dira ausartzen zure eta zure kausaren aurka sortu diren ejertzitoengana konfiantza izatera”.

Honela hitz egiten zuen Belfastetik. Manifestu sekretuaren argitaratzaileen ideiek herriaren bihotzetako zuntz sentibera bat ukitu zutela ikus daiteke. Urte bereko urrian Dublingo Boluntarioen Gorputzen hainbat bilera burutu ziren, katolikoak armak zituztela harrapatzen zituztenentzat dirusariak eskaintzen zituen gobernu aldarrikapen bat salatzeke, itxuraz, baina errealtatean egoera politikoaz eztabaidatzeko. Ateratako konklusioen izaera ebazpenaren azken paragrafo baten arabera epai daiteke, 1791ko urriaren 23an adostua izan zena, eta besteak beste James Napper Tandyk sinatua, Askatasunaren Artilleria Gorputzaren izenean. Hala zioen:

“Nazio handi eta argitu horren filantropia miresten dugun birtartean, gizateriari jakinduria politiko eta erlijiosozko adibide bat eman baitio, atsekabetu besterik ezin gaitezke egin desberdintasunek, bi aldeentzat iraingarriak izan direnek, gehiegizko denbora batean zehar irlandarren izena desohoratu dutelako; eta suhartsuki gure etsaitasunak gure arbasoen hezurrekin batera lurperatu nahi ditugu; eta gu eta gure anai katoliko-erromatarrek hiritar gisa batzea eta Gizakiaren Eskubideak exijitzea”.

Hau urrian gertatzen zen. Hilabete berean, Wolfe Tone Belfastera joan zen, Boluntarioen zirkulu aurreratuenetako batek gonbidaturik eta Irlandar Batuen lehen zirkulua eratu zuen. Dublineara itzultitakoan beste bat antolatu zuen. Eagle Innen, Eustace Streeten, 1791ko azaroaren 9an ospaturiko Dublingo Irlandar Batuen lehen Elkarte honen inaugurazio bilkuraren aktetatik ondorengo zati hauek ateratzen ditugu, hasierako bi zirkulu haien jatorrizko kideek zituzten printzipioak, hau da, elkarte hura denbora gutxian Irlanda osora iristera destinaturik dagoen elkarte bat izatearena, eta bi laguntzaile atzerritarren ontziteriak mugimenduan ipintzea, defendatzen dituztenak.

“Helburu garrantzitsu eta handi hau, desberdintasun absurdu eta hondagarriak suntsitzearena, eskuratzeko, eta herriaren erabateko koalizio bat sustatzeko, zirkulu bat eratu da, sinesmen erlijioso guztiek osatua, eta Dublingo Irlandar Batuen Elkartearen izena hartu duena eta Belfasteko antzeko elkarte baten adierazpena, honako hau, bere egin duena:

“Erreformaren gaur egungo aro handian, Europako eskualde guztietan gobernu bidegabeak erortzen diren honetan, jazarpen erlijiosoak kontzientzien gaineko bere tirania alde batera uztera beharturik ikusten den honetan; *Giza Eskubideak teoriarik deskubrituak izan eta teoria hori praktikan egiaztatua izan den honetan*; antzinatasunak jada gizakiaren zentzuaren eta interesen aurkako forma absurdu eta zapaltzaileak defendatu ezin dituen honetan; gobernu oro herritik datorrela eta ondorioz, honen eskubideak babestu eta ongizatea sustatzen duen heinean bakarrik dela derrihorrezkoa onartzen den honetan, irlandar gisa dugun betebeharra aurre hartzea eta bidegabekeria larria dela iruditzen zaigun hura eta honentzako erremedio eraginkorra dela dakiguna adieraztea dela uste dugu.

“Ez dugu gobernu nazionalik; ingelesek eta ingelesak zerbitzariak menperaturik gaude, eta hauen helburua beste nazio baten interesa da, honen instrumentua berriz ustelkeria; bere indarra Irlandaren ahultasuna; eta gizon hauek herrialdearen botere eta sustapen osoa dute, baliabideez gainera, legebiltzarreko euren ordezkarien ondradutasuna eta izpiritua limurtzeko eta euren menpean ipintzeko. Kanpotik eragiten duen halako botere bati, gure begi-bistako interesen egiazko lerroaren aurka maiztasunez indar uniformearekin ekiten duen horri, herriaren aho batekotasunez, erabakimenez eta izpirituz bakarrik egin ahal zaio aurre, Irlandaren oparotasunerako eta askatasunerako nahita ezkoa den neurri handi horrekin, herri osoaren berdintasuneko legebiltzarreko ordezkariak batekin, modu legal, konstituzional eta eraginkorrean betearaziak izango diren kalitateak berauek.

“Gaizkiaren sustraia dela uste duguneraino joan gara beraz; erremedioa dela pentsatzen duguna aldarrikatu dugu; honela erreformaturiko parlamentu batekin dena erraza da; bera gabe, ezin daiteke ezer egin”.

Hemen sozialista europarrek apur bat aurrerago, arrakastaz, jarraituko zuten kanpainaren lehen lerroko plan bat dugu, bere

begikotasun iraultzaileak modu irekian adierazten zituen alderdi iraultzaile bat, baina bere lehen eskakizuna masak, bere arrakasta amaieraraino eramateko sostengua zirena, askatuko zituen eskakizun herrikoi batetara mugatzen zuena. Inork ezin du aipatu dugun manifestua irakurri gizon hauen asmoa iraultza sozial eta politiko bat, Frantzia burutu zen bezalako, edota handiagoa, burutzea zela ulertu gabe, izan ere Frantziako Iraultzak ez baitzuen herri osoa askatzen, bereizketa bat egiten baitzuen hiritar aktiboen eta pasiboen artean, zergen ordaintzaileen eta ez ordaintzaileen artean. Ikastun inpartzial bakar bat bera ere ezin liteke erratu elkarte bezala zuten arrakastaren sekretua euren helburu ausartean oinarritzen zela ulertzerako unean, hau bera ere gure garaiko sozialisten eraginkortasun politikoaren sekretua delarik. Beste ezerk ezin izango zukeen masa protestanteek eta katolikoek, gorroto erlijiosoaren sakrifizio odoltsu ooren gainera, elkarri eskua ematea lortu, beste ezerk ezingo du emaitza berbera eskuratu langile irlandarren artean. Irlandar Batuen buruzagien ausardiari egotzi behar zaio euren printzipioekiko leial izaten jarraitu izana, moderazioak euren patua leuntzea baimendu izango zukeen uneetan ere. Komunen Ganberaren Komite Sekretuaren aurrean itaundua izan zenean, Fort Georgeko presondegian, Eskozian, Thomas Addis Emmetek ez zuen zalantzarik ere egin bere inkesidoreei, arrakasta izan balute, garai hartan zegoen sistema sozialarekin alderaturik oso desberdina izango zen beste bati hasiera emango ziotela esateko.

Historian oso mugimendu gutxi izan dira euren etsaien eta ustezko jarraitzaileen aldetik Irlandar Batuek bezalako mailan halako faltsifikazio kontzientea jasan dutenak. *Suggestio falsa*²⁹ eta *suppressio veria*³⁰ inongo ahaldurarik gabe erabili dira. Irlandako klase ertaineko historialari, mintzalari eta kazetari “abertzaleak” euren artean lehiatu ziren gizon haiek lurrez eta itsasoz egitiko balentria militarren, mirarizko ihesaldien eta heroitasunezko martirioen inguruko deskribapen gogotsuak egiterako orduan, baina gizon haien idatzi, kantu eta manifestuak erabakitazunez ezabatu eta terribertsatu zituzten. Prozesuari buelta ematen saiatu gara, haien literaturari publizitatea ematen, horrek

29. Sugestio faltsua

30. Egiazko ezabapena

gizonak edozein biografo partidistak baino hobeto islatzen dituela uste baitugu. Madden Doktoreak, biografo oso arduratsu eta arretatsua izan zenak, bere lanak biltzen zituen *Irlandar Batuen hondar literarioak* bolumenean aitortu zuen hauen lanetako asko ezabatu egin behar izan zituela euren tendentzia errepublikano eta erlijioaren aurkako jarrera “doilorrak” zirela eta.

Hau tamalgarria da, gainerako biografo eta historialariak Irlandako demokraziaren aitzindari izan ziren haien obraren inguruko baloratze zuzen bat eraikitzerakoan berriro ere material literarioa bilatzearen eta biltzearen dilemaren (gaur egun mila bider zailagoa denaren) aurrean ipintzen baititu. Eta gizon eta emakume irlandarrak printzipio sozial eta politiko zuzenen baloratze leialerantz aurrera egiten ari direnez, agian posible da, iraingarria edo errespeturik gabea izan gabe, iraganaren eraikitzaile horiek alde batera utzi zituzten harriak eraikinaren harri angeluarrak bilakatu direla esatea.

IX. KAPITULUA

Emmeten Konspirazioa

Aberatsak beti txiroari traizio egiten dio.
Henry Joy McCracken, bere arrebari
zuzendutako gutunean (1798)

Emmeten konspirazioa, 1798ko Irlandar Batuen mugimenduaren bigarren atala izan zena, azken hau baino argiki demokratikoa-goa, internazionalagoa eta herrikoiagoa izan zen bere sinpatiei eta afiliazioei begiratzen badiegu. Gobernuaren eskuetan zeuden Irlandar Batuen buruzagiek eginiko traizioak mugimendu iraultzailearen kide ziren klase ertaineko jarraitzaile guztiak eszenatik kendu zituen, ia bere osotasunean, eta herri masa abandonaturik geratu zuten, bere baliabide eta joera propioek beharrazten zutenaren arabera ekitera alegia. Ondorioz, hiriko eta landako langile umil hauekin aritu behar izan zuen Emmetek askatasunaren indar sakabanatuak berrantolatzen ahalegindu zenean, garai hartan Irlanda eta Ingalaterra menperatzen zituen klase izaerako gobernu haren botere despotikoaren aurkako talke berri baterako prestatu zitezten. Auzia aztertu duten aditu guztiek aho batez aitortzen dute Emmeten konspirazioa bere aurrekoak baino langile izaera handiagokoa izan zela. Benetan azpimarratu beharrekoa da Irlandan, Ingalaterran eta Frantzian zehar eman zen konspirazio hau, altxamendua proiektatu zen egunetik egun gutxira, azkartasunez hedatu zela biztanleriaren sektore txiroen artean, errebolta armaturako prestatze-lan guztiak eginik, eta hau dena gobernu ingeles jagolea edota bere botere exekutibo irlandarra auziaz informatu ere egiteko gai izan gabe gertatu zen.

Ziurrenik mugimenduaren izaera proletarioa —errekrutamendua batez ere Dublingo eta beste zentro handi batzuetako langile klasearen artean eta landa distrituetako elementu langilearen artean eman izana—, izan zen mugimendu honek bere aurrekoak bezain traidore ugari ez izanaren egiazko arrazoa. Konspirazioak porrot egin ostean, Gobernuak, noski, beronen berri lehendik

ere bazuela erakutsi nahi izan zuen —errealitatean, Irlandako Gobernu ingelesak betidanik omnisziente izan nahia erakutsi zuen—, baina halako usterik justifikatuko zuen ezer ez zen argitara eman Emmeten epaiketan zehar. Eta ordutik ere ez da halakorik argitara atera, nahiz eta garai hartako gobernu-dokumentuen ikerlariak, “Castlereagh paperak”, zerbitzu sekretuaren artxiboak eta bestelako informazio iturriak aztertu dituztenek, publikoaren begien aurrean eta belaunaldi batean baino gehiagotan zehar abertzale gogatsu eta erreformatzaile kontsideratuak izan ziren asko euren zitalkeriaren egiazko koloreekin jendaurrea atera ahal izan dituzten. Honela gelditu zen agerian Leonard McNally, Irlandar Batuen abokatua eta defendatzaile legala, erakunde honen epaiketa guztietan honen buruzagien izenean aritu zena, Komite Katolikoko kide izan zena eta 1811n Ingalaterran ordezkari katoliko bezala hautatua izan zena, eskubide katolikoan abokatu izukaitz eta jazarririko nazionalisten gudari gisa kontsideratua eta errespetatua izan zena, une oro Gobernuaren soldatapekoa izan zela, informatzailearen paper erdeinagarria jokatuz eta sistematikoki epaitegien aurrean euren kausa defendatzen ahalegintzen ziren gizon haien sekreturik ezkutuenak Gobernuari emanez. Baina sekretu hau mende erdi batean zehar gordea izan zen. Francis Maganek, merituz beteriko beste pertsona batek, urteko 200 liberako pentsio sekretu bat jasotzen zuen Gobernuaren eskutik Lord Edward Fitzgeralden ezkutalekua ezagutzera eman zuelako, eta hiritar zintzo eta errugabe bezala bizi eta hil zen. Meatheko Erret Miliziako gorputz batek, Corkeko Konde rrrian, Mallowen, geldialdi bat egiten ari zela, bertan zegoen artilleriaz jabetu eta armamentu baliotsu horrekin matxinatuekin elkartu ostean gorputz bakar bat osatzeko konspiratu zuen. Haue-tako batek konplot hori aipatu zion Thomas Barry Mallowko parroko agurgarriari bere konfesioan, eta honek hori autoritate militarrei ezagutarazteko agindu zion. Konjuratzaileen buruzagia, Beaty sarjentua, hartu zituen neurri arretatsuak zirela eta, etsaiak konplotaz jabetu zirela konturatu zenez, kuarteletik hemeretzi gizonekin irteten saiatu zen, baina geroago harrapatua eta urkatua izan zen Dublinen. Barry Aitak (zein ironikoa dirudien tituluak), urteko 100 liberako pentsio bat jaso zuen Gobernutik eta diru odol-ztatu hau sekretuan mantendu zuen bere bizi osoan zehar, krimena deskubritua izan zen arte. Daniel O’Connell handia behinola

Barry Aitak sinaturiko diru odoleztatu honen errezibo bat erakutsi zitzaionean zuri gelditu zela gogoratu izan ohi da, eta gauza jakina da, bestalde, O'Connel berak, Dublingo abokatuen Yeomanry Gorputzeko kide zela, matxinatuen aurka lan egin zuela Emmeten altxamenduaren gauean, eta Dauntek bere *Memorietan* kontatzen du O'Connellek behin etxe bat seinalatu ziola James's Streeten, bera (O'Connell) bertan "Croppie"n (abertzaleen) bila ibili zena.

Hemen idazten ari zaizuen honek, Derrynanen, Kerryko Konderrian, arbasoen garaietatik O'Connellarren etxea izandakoan, brontzezko trabuko bat ikusi du, familiako kide batek segurtatu zigunaren arabera Dublingo James's Streeteko etxe baten jabeak, Emmeten jarraitzaile zenak, O'Connelli oparitu ziona, eta xehetasun honek Dauntek aipatzen duen "Croppie-n ehiza" hura ekarri zigun gure buruetara, eta aipaturiko trabukoa Derrynanen egoitea seguruenik erasoaldi gogoangarri hari zor zitzaionaren ustea sortu zitzaigun.

Baina gero etorri diren ikerlariak aipatu ditugunak bezalako askatasunaren aurka eginiko traizio asko egun argitara ekarri badituzte ere, eta txoko susmagaitzenetako ustelkeriaren barrenak errebelatu badituzte ere, ez da oraindik ere Emmeten konspirazioaren sekretu arriskutsu hura jakinarenpean izan eta hain ongi eta leialki azkeneraino gorde zuten langile klaseko gizon eta emakume haien loria apaldu edota izen ona zikindu duen ezer frogatu. Honen inguruan gogoratu behar da garai honetan legez kanpo zegoela langileak modu agerikoan antolatzea, edozein helburutarako, eta ondorioz, langile klasearen artean loratu ziren sindikatu haiek guztiak erakunde ilegalak zirela, bere kideak antolaketa-
ren krimenagatik atxilotetaren eta deportazioaren arrisku etengabea zeudela, eta gainera, klase agintari errepresiboa eraitsi eta hiritar guztien botoan oinarrituriko errepublika bat ezartzearen proposamena, Emmeten asmoetan topatzen zena, gai zela era berean irlandar desjabetuen behar materialei eta imajinarioari erantzuteko. Eta antolakuntza klandestinorako jada prestaturik zenez, euren izate propioagatik, material bikaina bilakatu ziren mugimendu iraultzailearentzat. Esanguratsua da zoritxarreko matxinada haren gau hartan eman zen borroka serio bakarra Dublingo Libertieseko Coombe distrituan gertatu izana, eskusiboki ehunlariak, zurratzaileak eta zapatariak, hirian hobekien antolaturik

zeuden sindikatuak, bizi ziren auzoan, eta Dublinera Michar Dwyer buruzagi matxinatuak eraman zituen Wicklowko gerlari talde bat, kaian babestu zela, portuko langileen artean, eta honi esker euren etxeetara itzuli ahal izan zirela, traidore bakar batek ere hiria zeharkatzen zuten Gobernuaren espia ugariei hauen kokalekuaz argibiderik eman gabe.

Landako langile elementuak, orokorrean, askapen sozialaren itxaropenak berarekin zeramatzan mugimendu batean parte hartzeari begira zuen heldutasuna kalibratzeko Limericken, Waterforden eta Tipperaryn 1802an jazo zen matxinada partzial batek balio dezake, non Harvestyren *Irlandaren historiaren* arabera erreboltaren ustezko kausak “pataten eskasia” eta “antzinako maizterrek euren etxaldeen jabegoa mantentzeko eskubidea” izan ziren.

Halako material etxetiarren gainean sostengatzen zen Emmeten konspirazioa: askapen politiko eta sozialaren itxaropenagatik sukurturik zeuden langile klasearen elementuetan. Atzerrian Errepublikak Frantziarrarekin — garai hartako atsekabearen eta ondoriozko iraultza politiko, sozial eta ekonomikoaren haragitzea zenarekin — aliantza bilatu zuen, eta Britainia Handian berriz “Sassenach” erreformatzaileekin, monarkia ingelesa eraisteko konspiratzen zutenekin, osatu zuen aliantza. 1802ko azaroaren 13an, Despard Koronela deituriko bat, beste 19 pertsonarekin batera, atxilotua izan zen Londresen, traizio goreneko krimen baten salaketapean; erregea erailtzeko konspirazio baten akusaziopean epaituak izan ziren; akusazio horri babesik emango zion frogarik ez baldin bazegoen ere, Despard eta beste zazpi urkatu egin zituzten. “Castlereagh paperen” arabera, Emmet eta Despard aldi bereko altxamendu bat prestatzen ari ziren, William Dowdall ize-neko dublindar bat, Irlandar Batuen arteko adoretzuenetako bat bezala deskribatzen dena, bien arteko agente konfidentziala zelarik. W. J. Fitzpatrick jaunak, bere *Pitten garaiko Zerbitzu Sekretua* eta *Aberats faltsua* liburuetan, gertakari hauetako asko argitara ematen ditu Gobernuaren artxiboen eta familia pribatuen paperekin ikerketa zabal eta zehatz bat egin ostean, baina, hala ere, liburu hauek duela mende erdi bat inguru argitaratu baziren ere, igarotzen den Emmeten urteurren bakoitzak Emmeten martirioari buruz gutzia dakiten mintzalari uzta berri bat ekartzen jarraitzen du, baina ezer ez Emmeten printzipioen inguruan. Bere panegirista kartsuenetako hainbatek badirudi oraindik ere ez dutela

ulertzen haren loria estaltzen dutela Irlandako bidegabekeria lokalak aurkako protesta baten biktima gisa agertzen dutenean, mundu mailako askatasunaren, berdintasunaren eta anaitasunaren aldeko mugimendu baten apostolu irlandar gisa aurkeztu beharrean. Hala ere hauexek ziren Emmeten egiazko izaera eta posizioa, eta era honetan izango da miretsia etorkizunean. Erabat elkarbanatzen zuen Dublingo Irlandar Batuen Elkarteak zuen elkartasunezko izaera internazionala, azken hau erreformatzaile eskoziar bat Irlandar Batu izendatzera ere iritsi zelarik, Gobernuak, Edimburgon ospatutako erreformatzaileen konbentzio batetara joateagatik, eskoziar hau deportaziora kondenatu zuela jakin zuenean. Zapalduen anaitasunean eta nazio askeen komunitatean sinesten zuen eta bere idealagatik hil zen.

Emmet da martiri irlandar guztien artean gurtuena, unibertsalki laudatuena. Ondorioz, nabarmendu behar da "Irlandako Behin-behineko Gobernuaren" izenean argitaratzeko erredaktatu zuen aldarrikapenean, lehenengo artikulua jabetza eklesiastikoaren erabateko konfiskazioa eta honen nazionalizazioa dekretatzen zuela, eta bigarren eta hirugarren artikuluek debekatu eta balio gabetu egiten zituztela jabetza terratenientearen zesio, titulu, obligazio eta efektu publiko guztiak gobernu nazionala ezarri bitartean eta borondate nazionalak hauen inguruan adierazpenik eman arte.

Honek, modu honetan, bi gauza ezartzen ditu; hau da: Emmetek "borondate nazionala" jabetza eskubideen gainetik zegoela eta hauek bere borondatez abolitu zitzaizkela sinesten zuela; eta klase ekoizleak iraultzarako antolatzea ezin zela espero ere ulertzen zuela, ez behinik behin hauei iraultzak euren esklabotzatik, hala sozialetik nola politikotik, askatzea esan nahi zuela ulertarazten ez zitzaizkien bitartean.

X. KAPITULUA

Lehenengo sozialista irlandarra: Marxen aitzindari bat

Sistema hau, nardagarrienak ez diren bere aspektuei begiratzen badiegu, trapu zaharrak jantzita eta mision bizi diren milaka eta milaka pertsona sufritzera eta gosez lan egitera behartzen dituen sistema bat da, erlamando alferrontzi gutxi batzuek erosotasunaz eta luxuaz gozatzea helburu duena.

Irish People, 1864ko uztailaren 9an

Irlandarentzat, Europako beste edozein lekurentzat bezala, XIX. mendeko lehen laurdena iluntasun politikoko, despotismoko eta erreakzio geldiezineko garai bat izan zen. Frantziako Iraultzak klase agintarien bihotzetan sorturiko izuak erreformarekiko gorroto ia osasungaitz baten jaiotza ekarri zuen, erreformatzaile moderatuena ehizatzeke ankerkeria otsotiar batekin batera. Napoleonen aurka subirano aliatuek izan zuten garaipenari despotismozko Saturnalia perfektu batek jarraitu zion Europa osoan, eta antolaketa herrikoiko forma oro gupidarik gabe zanpatua eta klandestinitatera jaurtia izan zen. Baina erakunde bat klandestinitatera jaurtitzeak ez ditu atsekabearen kausak ezabatzen, eta ondorioz, erreakzioak lurraren gainean arrakasta izan zuten azkartasun berarekin hauen antagonistek lur honen azpian euren konspirazio sekretuak zabaldu zituztela ikus dezakegu. Herriaren atsekabea are gehiago areagotu zen gerra napoleonikoetan lizentziaturiko soldaduak euren etxeetara itzultzeak izan zuten eragin ekonomiko larriagatik. Nekazariei euren produktuentzako merkatu bat ukatu zien eta nekazal eta industria krisi larri bat eragin zuen. Langabeturik gelditu ziren tropen horniketari aritzen ziren itsasontzi guztiak, hauek eraikitzeke, ekipatzeko eta konpontzeko behar ziren ontziola guztiak, gerrarako materiala egiten jarduten zuten industria guztiak, eta lanaren etenaldiarekin

eta langabeturiko gizon eta emakumeen uholdeak urperatutako lan merkatu batekin, milaka soldadu eta marinela bulartsu noraezera kondenatuak izan ziren, lehen gerran zehar beraiek elikatzen, janzen eta mantentzen aritu ziren zibil haiekin lehia egitera beharturik ikusi zirelarik. Irlandan bereziki emaitzak hondamendizkoak izan ziren, lizentziaturiko soldadu eta marinelen artean irlandarren gehiegizko proportzio izugarri bat aurkitzen zelako. Hauek, etxera itzuli zirenean, hirietako lan merkatua langabetuz lepo aurkitu zuten, eta landa distrituak berriz lurjabeek euren maizterren aurka zuzenduriko triskantza gerra batean murgilduta, azken hauek, euren merkatuak eta gerra garaiko prezioak galdu zituztenez, ez baitziren gai lurraren jabeen estortsio gorakorri erantzuteko. Garai hau izan zen Ribbon³¹ konspirazioa landa distrituetako langile irlandarrean barneraino sartu zenekoa, eta mugimendu honen inguruko egia inoiz desestalia izan ez bada ere, izatez langileen eta nekazarien nekazal sindikatu sekretu bat, usurpatzailearen aurkako justizia burutzeko eta bere kideen artean topatzen ziren traidoretaz mendeku hartzeko bere modu basati propioak hartu zituen sindikatu bat izan zela esateko adina ezagutzen da. Garai hau izan zen baita ere sindikalismo irlandarra, sekretua eta legez kanpokoak izanik ere, bere indarraren gorenera eta antolakuntzarik batuenera iritsi zenekoa. 1824an, Dublingo kondestablerik garrantzitsuenak, Komunen Ganberako komite baten aurrean testifikatzen ari zela, Dublingo sindikatuak bikain antolaturik zeudela aitortu zuen eta enpresarietako asko "sindikatu irlandarren tiraniaz" kexatzen hasiak zirela adierazi. Testuinguru horretan, ez da harritzekoa XVIII. mendean erreforma politikoei eta honen inguruko filosofiari eskaini zitzaizen arreta, XIX. mendean hobekuntza sozialaren auziari begira ipini izana.

Ingalaterran, Frantzian eta Alemanian filosofo sozial mordo bat sortu zen, bakoitza ordena sozial perfektuaren bere eskemarekin, bakoitza bere planarekin, hauei jarraituz gizartearen birsorkuntza eta pobrezia eta honetatik eratorritako gaitz guztien abolizioa emango zelarik. Orokorrean, teoriarari hauek ez zuten inongo kexarik indarrean zen sistema sozialak mesedetzen zituen haien aurka; euren kexa sistema sozialaren emaitzen aurkakoa

31. Zinta edo xingola.

zen. Errealitatean, euren gehiengoak klase agintariak eta jabeenak bere borondatez bere pribilegioei eta jabegoari uko egin eta ordena berri bati ekingo ziola uste zuen, behin honen abantailetatik konbentzitzen zirenean. Sinesmen honekin, ulertzekoa da euren gizarte kritikaren norabide nagusia konpetentziak eroslearen eta saltzailearen gainean zituen eraginaren analisisira zuzentzea eta langileak ekoizle gisa eta jabeak ekoizitako gauzaren desjabetzaile gisa zuten erlazioa euren azterketan agertu ere ez egitea. Erlazio sozialen aldebakarreko ikuspuntu honek emaitza gisa, halabeharrez, zera zekarren, erabateko ezjakintasuna zutela hain zuzen ere garapen historikoa euren ideala betetzeko faktore azeleratzailea zenaren inguruan; ordena berria klase agintariak sartuko zuenez, klase hau zenbait eta indartsuagoa izan trantsizioa orduan eta errazagoa izango zela eratoritzen zen uste horretatik, eta, ondorioz, klase bereizketak sakonduz, edota langileak bere ugazabekiko mantendu zituen errespetu sentimenduak kaltetuz, lokarri sozialak ahultzera jotzen zuen gauza oro aurrerapenarentzako oztipo izango zela pentsatzen zen.

Filosofo hauek sekta sozialistak eratu zituzten, eta gauza jakina da filosofo hauen jarraitzaile bilakatu ziren haiek, euren buruzagien jeinu inspiratzailea galdu zutenean, erreakzionario nabarmenenak bilakatu zirela, langile klasearen aurrerapenerako neurri orenen aurkari.

Irlandarrak, orokorrean, ez dira filosofoak; oso azkar pasatzen dira pentsamendutik ekintzara.

Beraz, ez da arraroa Frantzia, Ingalaterran eta Alemanian sozialista utopikoak sortu zituen aro hark berak Irlandan ekonomista bat sortu izana, bere edozein garaikide baino nabarmenki sozialistagoa zentzu modernoan: William Thompson, Corkeko Konderriko Roscarberryko Clonkeengo gizasemea, bere begirada lanaren esklabotza politiko eta sozialean, gizarte haren gaitz handiena kontsideratzen zuen hartan, pausatzeko eta egiarekiko fideltasun gupidagabez, gizarte batean klase aberats bat egoteak askatasun politikoarentzako zekartzan ondorio kaltegarriak deskribatzeko zalantzarik egin ez zuen sozialista bat. Thompsonnek sozialismoa burutzeko posibilitatean sinesten zuen, kooperatiben koloniak eratuz, Robert Owenek defendaturiko moduan, eta zentzu horretan, utopiko bezala sailka daiteke. Bestalde, kolonia horiek langileek beraiek eraiki behar zituztela uste zuen eta ez

klase agintariak. Klase agintariaren aberastasuna lanaren harra-pakeriatik zetorrela erakutsi zuen eta ordezkari politikoaren konkista, bi sexuetako biztanleri helduaren sufragioaren gainean oinarrituko zena, defendatu zuen sozialismoaren nahitaezko aurrekari gisa. Ez zuen Estatuan sinesten gizarte sozialistaren oinarri gisa, baina arma politikoen erabileraren beharra behin eta berriro azpimarratu zuen zuzenbidean oinarrituriko klase pribilegio oro suntsitzeko baliabide gisa eta komunitate sozialisten hazkunderen aurrean klase agintariak jarri nahi izango zituen oztopo guztiak ezerezteko neurri bezala.

Baina bai pentsalari original gisa, bai kontinenteko edozein sozialista utopikoren gainetik zegoen teorialari eta Karl Marx baino askoz lehenagoko pentsamendu sozialistaren aitzindari gisa, bai lanaren esklabotza miseria sozial, krimen moderno eta dependentsia politikoaren kausa zela nabarmendu izanagatik edota bai kapitalaren egiazko definizioaren inguruko analisi benetan sakona egin izanagatik, Thompsonen obrak dituen meritu ugariak puzten ari garela pentsa ez dadin, bere lan garrantzitsueneko parte bat aipatuko dugu, 1824an argitaratua izan zena: *Ikerketa bat giza zoriontasunera hobekien gidatuko gaituzten aberastasunaren banaketaren printzipioen inguruan, duela gutxi proposatu den aberastasunaren borondatezko berdintasunaren sistemari aplikaturik*. Hirugarren argitarapena.

“Zein da, beraz, kapitalaren inguruko ideiarik aproposena? Lanaren emaitzaren zati hori da, zeinak izaera iraunkorra izan edo ez izan, mozkina sortzeko instrumentu bilakatzeko gaitasuna duen. Horiek izan daitezke lanaren produktuen zati bat kapital bezala definitu dezaketen zirkunstantzia errealak. Bereizketa horren gainean, ordea, eraiki dira langile produktiboaren segurtasun eza eta zapalkuntza —jakintzarekin batera, aberastasun ororen egiazko aita den horrena—, eta baita kapitalista edota lurjabe izendatzen diren horiek, metaturiko produktu horien jabe-goa eskuratuz, komunitatearen urteroko erreserbak diren horiek berenganatuz, burutu duten ekoizpen indarren usurpazio izugarria ere. Hortik datoz kapitalistaren eta langilearen eskakizun kontrajarriak. Kapitalistak, segurtasun ezaren eta indarraren erreinu horretan, hurrengo urterako langile askoren kontsumoa bere eskuetan duenez, hauen lana produktibo bilakatzeko beharrezkoak diren erremintak eta makineria dituzenez, eta haiek biziko

diren etxebizitzan jabe denez, kalkulurik hoberenera jo zuen eta lana eta honen etorkizuneko produktua ahal bezain merkeen erosi zituen. Kapitalaren irabazia zenbat eta handiagoa izan edota kapitalistak langileari elikaduraren, erremintak edota makineria erabiltzearen edota bere etxebizitzan bizitzearen aurrerapen gisa zenbat eta gehiago ordainarazi, orduan eta gutxiago gertzen zen langilearentzako, noski, berak nahi zuen edozein objektu erosteko”.

Edota ikus dezagun, beste behin, nola helburua eskuratzeko baliabide kontsideratzen zuen erreforma politikoaren alde egiten zuen bitartean, erreforma hau bere baitan helburu gisa hartzea ez-eraginkorra zela deskribatzen zuen:

“Gizartearen kapital metatuak esku gutxi batzuetan jarraitzen duen bitartean eta aberastasuna sortzeko botere produktiboa beste esku batzuetan den artean, kapital metatua banaketaren lege naturalei aurre egiteko eta ekoizleei euren lanak ekoitzi duen hori erabiltzea ukatzeko erabiliko da, giza naturak orain bezala jarraitzen duen bitartean. Jendea ordezkatzeko duten erakunde batzuen existentziaren testuinguru batean, halako segurtasun faltako sintomek, kapitalaren eta lanaren arteko bereizketak bezala, existitzen jarraitzea baimendu beharko litzatekeela hausnartuz gero (eta botere politikoaren harrapakaria guztiari amaiera emanago balitzaio ere) erakunde horiek ez lirakeke oso aprobetxagarriak izango gizateriaren egiazko zorientasuna eskuratzeko, ez behinik behin jakintzaren garapenerako eta sintoma horien guztien azken aboliziorako baliabide gisa ekiten ez badute behintzat. Kapitalista soilen klase batek bizirik dirauen bitartean, gizarte honek eritasunezko egoera batean jarraituko du. Botere politikoaren eskuetatik salbu legokeen harrapakaria modu oro, beste bide batzuetatik bilduko dute kapitalistek mozkin izenarekin, kapitalistak diren bitartean legearen egileak izango baitira beti”.

Thompsonen guztientzako hezkuntza aske baten alde egiten zuen eta hau martxan ipin zitekeela frogatzeko xehetasun handiei eskaini zien arreta, hezkuntza horren kostu osoa Irlandak oso erraz jasateko modukoa izango zela erakusten zuten estatistikak emanez, ekoizleen gaineko zama behar ez bezala handitu beharrik izan gabe. Honetan bere garaitik hiru belaunaldi aurreratua go aurkitzen zen –berak garai hartan defendaturiko erreforma gaur egun oso partzialki bakarrik burutu delarik—. Gutxiengo

txiki batek indarrez konkistaturiko herri bati erlijio gorrotatu bat inposatzen zion herrialde batean bizi bazen ere, eta emaitza gisa fanatismo anker batek bi aldeak etsaitzen bazituen ere, behar adinako kuraia eta ikuspegia izan zuen hezkuntza laikoa defendatzeko, eta orduan orain bezalaxe Estatuaren babesik izan ezean erlijioa hil egingo zela oihukatzen zuten fanatiko haiei honela erantzuten zien:

“Esperientziak erakutsi duenez erlijioa existitu daiteke banaketaren lege naturalak segurtasun bortxaketaren bidez oztopatzen aritu beharrik izan gabe, eta ez hori bakarrik, erlijio hau bera hazi eta loratu egin zen, Irlandan edota Grezian mendeetan zehar gertatu bezala, bere fededunak zirenei, indarrez, klero etsai eta gorrotatzeko bat asebetetzeko edota bera kateatzen zuen indarra elikatzeko, euren baliabideak atera izan bazitzaizkien ere”.

Thompsonnek predikatzen zuen sozialismoa jabeen klaseen “gizatasunari” etengabeko deialdiak egiten zizkieten Europa Mendebaldeko utopikoen sentimentalismo bisionarioarekin edota Ingalaterrako lehen garaietako Owenekin alderaturik zein desberdina zen askoz ere hobeto ilustratzen du ondorengo pasarteak, eta luzea izanik ere berau erreproduzitzeak ez digu inongo aienerik eragiten. Gizarte politikoaren estadio desberdinetan aberatsak duen jokabidearen eta muturreko aberastasunak lagun izaten duen botere gosearen analisi zorrotz hau ikusita, pasartea XX. mendeko sozialista batek idatzitakoa izan zitekeen:

“Aberats naghi horiek ez dute inolako okupazio aktiborik: helburu bat falta zaie euren bizitzetan. Zentzuak, imajinazioa, euren desira eta gutizia guztiak ere asetzeko baliabideak badituzte. Boterearen plazerak ez dituzte oraindik erdietsi ordea. Hauxe da induljentzian bizi eta moderazioa gorrotatzeko, oposizioan ipurterre bizitzeko, eta ondorioz, moderazioaren eta oposizioaren gaitzak ezabatzeko helburuz boterea desiratzeko heziak izan diren haiek guztiek duten joera indartsu eta halabeharrezkoa. Nola eskuratuko dute boterea? Lehendabizi, euren aberastasunaren eragin zuzenagatik eta honek sortzen dituen itxaropen eta beldurrengatik; gero, baliabide haiek agorturik daudenean, edota eraginkorrago bilakatzeko, ahal duten guztia egiten dute Gobernuaren botereak hartzeko eta monopolizatzeke.

“Despotismoa existitzen denean, funtzio legegileen zati posible handiena bere osotasunean bereganatzen ahalegintzen dira,

edota Estatuaren buruarekin edota beste erakunde batzuekin elkarlanean arituz bestela. Despotismorik existitzen ez denean edota eraldaturik dagoenean, euren guztien artean Gobernuaren menpeko departamentu guztiak elkarbanatzen dituzte; zuzenean edo zeharka, botererik handiena emango dieten indar armatuen agintea, epaileen bulegoak, apaizgoak eta departamentu exekutibo guztiak, arazorik txikienak ematen dituztenak eta diru errenta handienak ematen dizkietenak, monopolizatzen dituzte. Despotismoa existitzen denean, aberatsegiak direnen klasea posible den akordiorik hoberenera iristen da despotarekin honekin boterea elkarbanatzeko, maila bereko kide gisa edota esklabo soil gisa.

“Euren egoerak euren indarretan konfiantza izatera bultzatzen baditu, akordio batetara iristen dira despotarekin eta euren esku-bidetzat dituzten haietan tematzen dira; ahulak badira, alegereki ibiltzen dira herrestan despotaren aurrean, eta euren morrontza egoera horregatik loriatsu agertzen dira, komunitatea euren esklabo bilakatzeko botere delegatua eskuratzearen truk. Nazio guztietako historialariek aberastasunaren joerak halakoak direla frogatzen dute”.

Hizkuntza ingeleseko herrialdeetan pentsalari irlandar honen lana ia ezezaguna da, baina kontinente europarrean bere posizioa aspaldidanik finkatua izan da. Aipaturiko obraz gain, *Giza arrazaren erdi bati – emakumeei – deia, beste erdiak – gizonek – lehenengoak esklabotza politikoan, eta ondorioz, zibilean eta etxetiarrean, mantentzeko dituen asmoen aurka idatzi zuen, Londresen argitaratua 1825ean. Lan saritua, lanaren errebindikazioak eta kapitala errekontziliaturik, edota nola bermatu lanari bere esfortzu guztien produktu osoa 1827an argitaratua, eta Komunitateen ezarpen azkar eta ekonomikorako gida praktikoak, 1830ean Londresen argitaratua, bere beste bi lan ezagunetako dira. Gai beraren inguruko beste lan batzuen eskuizkribuak ere utzi zituen, baina inoiz ez dira argitaratuak izan eta orain ez da ezagutzen euren topalekua. Bere inguruan esan ohi da hogeitertan zehar barazkijalea eta abstinente totala izan zela, eta bere testamentuan bere aberastasunaren zati mardulena Irlandan finkatu beharreko lehen kooperatiba fundatzeko utzi zuela, bere gorputza berriz zientziaren interesetan disezionatua izateko utzi zuelarik. Bere familiakideek bere borondateari aurre egin ahal izan zioten “bere testamentuan helburu inmoralak” aurkitzen zirela argudiatuz.*

Gure ustez, sozialismoak zientzia gisa duen garapenean, bere jarrera lehen idealisten utopismoaren eta Marxen materialismo historikoaren erdibidean aurkitzen da. Azken honi aurrea hartu zion sistema ekonomikoaren bere analisietan eta klase profesionalen pribilegio legalak bidetik baztertzeko helburuz politikaren demokratizazioak bete beharreko papera aurrikusi zuen. Bere biografoetako bat den Anton Menger alemaniarren obraren ingelesezko itzulpenaren hitzaurrean, H. S. Foxwell idazleak honakoa dio Thompsonek zientzia ekonomikoari egindako ekarpenari buruz:

“Thompsonen ospea ez da kooperazio owenista defendatu izanean oinarritzen, defentsa horretan oso sutsu eta izpiritu publiko handiz aritu bazen ere; aberastasunaren banaketa justu baten auzia orduraino gai honek ekonomia politiko ingelesaren esparruan izan zuen posizio gorenera igo zuen idazlea izatean baizik. Orduraino ekonomia politikoa komertzialagoa izan zen industrialia baino, eta hortik dator “industrial” terminoaren esanahia azaltzearen beharra ikusi izana, esaten duenez, frantsesetik datorrena, zalantzarik gabe Saint Simonetik hartua”.

Thompsonen eta Marxen lorpen erlatiboak estimatzen saiatuko bagina, ez genieke justiziarik egingo elkarren aurka ipiniz eta Thompson Marx murriztu nahian goraipatuz, azken honen kritikari kontinental batzuek egin nahi duten eran. Are hobe, esango genuke jenio irlandar honen eta Marxen posizio erlatiboa ederki konpara daitezkeela eboluzionista aurredarwindarren eta Darwinen arteko erlazio historikoarekin alderatuz; Darwinek bere aurreko teoria guztiak sistematizatu eta bere bizitza osoa bere eta haien posizioa ezartzeko beharrezko frogen metaketari eskaini zion bezala, Marxek ere aipaturiko pentsamendu ekonomikoaren lerro zuzena bilatu zuen eta bere jeinua eta jakinduria eta ikerketa entziklopedikoak gehitu zizkion, oinarri mugiezin baten gainean jartzeko. Mozkina elkartrukearekin eskuratzen zela zioen fikzio ekonomikoarekin, ekonomilari ortodoxoek mantendu eta utopikoek onartzen zutenarekin, amaitu zuen Thompsonek eta irabazi hori lanaren esklabotzari eta honen emaitza zen eta kapitalistek eta lurjabeek burutzen zuten besteren lanaren fruituen desjabetzeari zor zitziola azaldu zuen. Klaseen arteko borrokaaren teoria osoa printzipio honetatik eratorritako dedukzio bat besterik ez da. Baina Thompsonek klase borroka hau errealtate

bezala onartu bazuen ere, ez zuen faktore gisa, askatasuneranzko gizartearen eboluzioaren faktore gisa, ulertu. Hau Marxentzat erreserbatu zegoen eta hau da gure iritziz bere loria nagusi eta gorenena. Owenek eta sozialista kontinentalek erregeen, parlamentuen eta kongresuen mesedea erregutzen zuten bitartean, irlandar hau aberatsa salatzen ari zen, boterearen irrika aberatsek beti lagun izaten dutela seinalatzen, “kapitalistak, kapitalista diren bitartean, legearen egileak izango” direla beti azaltzen, eta halaber, “kapitalista soilen klase batek bizirik dirauen bitartean, gizarte honek eritasunezko egoera batean jarraituko” duela aldarrikatzen. Doktrina hau predikatzen zuen zeltiar ausart hark, aldi berean gizartearen agintari politiko sozialak eta gizartea bera salatuz, suhartasunez sufragioa biztanleri heldu osoarengana zabaltzea eskatu izana, ziurrenik azalpen nahikoa da bere idazkiek gizarteko klase errespetagarrien laudoriorik, garaiko sekta sozialisten buruzagiek maiztasunez goratzen zituzten klase haixenik, eskuratu ez izana ulertzeko.

Gure garai honetan, beste irlandar handi bat, Standish O’Grady, seguruenik Irlandako literaturik handiena, gizarte kapitalistari aurre eginez, honetatik ihes egiteko Irlandan komunitate kooperatiboak ezartzearen beharra predikatzen aritu da Dublingo *The Peasants*³² orrietan, 1908-1909 artean, eta bereziki esanguratsua da irlandarrek zein ezagupen gutxi duten euren arrazaren arrakasta intelektualean inguruan, bai baitirudi O’Gradyri erabat ezezagun zaiola bere interes esparru bera lantzen aritu zen aitzindari handi haren obra. Tradizio ingelesek buru irlandarra nola konkistatu duten bikain erakusten duen errealtatea da baita ere nola nazionalista irlandarrek, askotan, sozialismoa amorrutik erasotzen duten “ideia alemaniar” bat dela argudiatuz, Marxengan loraturik topatzen dugun kontzeptio oro, jada, Thompsonen ere topatzen baita, lore-kapulu itxuran, *Manifestu Komunistaren* argitarapena baino hogeita hiru urte lehenago, eta *Kapitalaren* agerpena baino berrogeita hiru urte lehenago.

Sozialismo iraultzailearen aitzindari irlandar honen beste aipu batekin amaituko dugu kapitulu hau; kontzienteki hitz egingen dugu sozialismo iraultzailea aipatzen dugunean, bere irakaspenen konklusio guztiek ezinbestean langile klasearen ekinbide

32. Nekazaria.

iraultzailera eramaten baitute. Filosofia sozialistak dion moduan, langile klasearen mugimenduaren eskakizun politikoak une oro mugimendu hori aurkitzen den garaiazen eta herrialdearen garapen mailaren menpe dauden bezalaxe, begi-bistakoa da Thompsonen ekintzarako teoriak ere garaiko pentsamendu iraultzailearen islarik gorenena zirela.

“Langile ekoizleek, euren lana produktibo egiten zuten kapital, erreminta, etxe eta material oro kendu zitzaizkien haiek, euren miseriagatik, euren existentziarako beharrengatik egiten dute euren ahalegin osoa, eta euren ordainsariak beraien laneko habituak ordaintzera iritsiz mantentzen daitezkeen mailarik baxuenean topatzen dira.

“Nola izango dira ba bertutetsu behartsu gizagaixo horiek? Nork zaintzen ditu? Zer gal dezakete? Zein eragin du iritzi publikoak euren ekinbidearen gainean? Zer nolako arduraren sentituko dute bada erreputazioaren plazer delikatuaren inguruan, behar absolutuaren hozkadek oinazeturik bizi badira? Nola errespetatuko dituzte besteren jabegoa eta eskubideak, azken hauek gabezia pairatzen duten haien begikotasuna irabazteko ezer propiorik ez badute? Nola sentituko dituzte bada besteen oinazeak, besteen kexa iragankorrek, euren oinarrizko miseriengatik oinazeturik aurkitzen badira? Besteren arazotxoak aipamen soilak iraindu eta sumindura pizten du, begikotasun ulerkor bat irabazi beharrean. Dezentziarik eta erosotasunik gabe, bizitzeko nahitaezkoa denaren gabeziak amorrua sortzen du. Euren ingurura begiratzen dutenean, beraien egoera berean dauden beste asko topatzen dituzte, eta zoriontsua den harkikiko sinpatia sentimendurik ez izatea elkarbanatzen dute haiekin. Publiko bat bilakatzen dira elkarren artean, sufrimenduzko, haserrezko eta ezjakintasunezko publiko bat; iritzi publiko propio bat osatzen dute aberatsaren iritzi publikoaren aurrean, aberatsa, bere legeekin batera, indarkeriaren emaitza hutsa dela kontsideratuz. Norengandik ikasiko dituzte printzipioak, moralitatearen praktika inon ikusten ez badute? Segurtasunarenganako errespeturik ikusten ez badute? Euren gainetik dauden haiengandik? Legeengandik? Euren gainetik dauden jokabidea, lege horien funtzionamendua, indarkeriaren eta debekuaren lezio praktikoa izan da beraientzat, euren onarpenik eta inongo ordainsaririk gabe egin dieten euren lanaren fruituen erauzketaren inguruko lezio bat. Zertarako balio dute

moralak, printzipioek edo arauak elkar kontraesaten badira, praktikaren bidez gezurtatuak badira? Hauek ez dute balio jokabide bertutetsua sustatzeko arrazoi gisa, *arrazoiak gauzetatik sortzen dira, inguruko baldintzetatik, ez hitzen hutsaltasunetik edota aldarrikapen soiletatik. Hitzak gauza eta baldintza hauen inguruko jakintza transmititzeko eta irakasteko bakarrik dira baliagarriak. Gauza horiek existitzen ez badira, hitzak iseka hutsa dira*".

Ekonomia deterministaren filosofia apur honekin –morala hazkunde sozialaren auzi bat, gauzen eta baldintzen produktu bat dela azaltzen duen irakaspen honekin– utziko dugu iraultza sozialaren apostolu irlandar goiztiar hau. Zeltiar porrokatuek aldarrikatu ohi dute –eta badirudi egungo ikerlariak berretsi egiten dutela– misiolari irlandarrak izan zirela European jakintzaren lanpara berriro piztu eta Inperio Erromatarraren gainbeheraren osteko iluntasun intelektuala aldendu zuten lehenak; ez al lukete harro egon beharko, baita ere, iluntasun egiptoarra baino okerragoa den basakeria kapitalistaren zioetan barneratzen, eta jabego gabeko haien esklabotasunaren baldintzak eta euren askapenerako oinarrizko aurrebaldintzak erakusten lehena irlandar bat izan zelako?

XI. KAPITULUA

Utopia irlandar bat

Lockereren eskuak zerutik nazio irlandarrari modurik aproposenean egokitzen zaizkion izaera eta gaitasunak dituen gobernu proiektu bat hartuko balu, pergamino soil bat eroriko litzateke lurrera, eta bere bikaintasun intrintsekoa izango luke bera burutuarazteko baliabide bakar. Benetako irlandar guztiak ados daude egin beharko litzatekeenaren inguruan, baina auzia hori nola egin da.

Manifestu Sekretua (Irlanda), 1793.

Gure azken kapituluan azaltzen genuen nola gerra napoleonikoen amaierak Britainia Handian eta Irlandan merkatal krisia ekarri zuen, eta nola azken herrialde honetan lurjabearen eta maizterra-ren arteko erlazioen tentsioa intensifikatzeko ere balio izan zuen. Napoleonen aurkako gerrek iraun zuten bitartean, nekazal prezioak azkartasunez igo ziren, Gobernu britainiarraren hornigai eskaria zela eta, bere ejertzitoak eta armada hornitzeko. Prezioen igoerarekin, errenta ere igo egin zen, baina gerraren amaierak eskaria moztu zuenean eta prezioak jaitsi zirenean, errentak ez ziren haiekin batera erori. Beheraldian zegoen merkatu batek eta maila berean egonkor mantentzen ziren errentek ezin zuten Irlandan emaitza bakar bat besterik izan, hau da, nekazal gerra bat.

Lurjabeek euren "libera bat haragi" exijitzen jarraitzen zuten eta nekazalgora sekretuan antolatu zen, bere zapaltzaileak beldurtzeko eta bere burua babesteko. 1829an herriaren miseria eragiteko kausa berri bat agertu zen, Emantzipazio Katolikoa bermatzen zuen Legearen emaitza gisa. Urte hartaraino katoliko bakar batek ere ez zuen eskubiderik Komunen Ganbara ingelesean esertzeko, epaile gisa epaitegi batean eserleku bat izateko edota zerbitzu zibilean, militarrean edo itsas armadan edozein goi kargutara iristeko. "Jatorri protestante" bidegabe horren aurkako borroka luzearen goi puntu gisa, biztanleri katoliko osoa bere

aurkako injustizien aurka eromenaren muturreraino altxarazi eta gero, Daniel O'Connell buruzagi katolikoa Parlamentuan Clareko Konderria ordezkatzeko hautagaitzara aurkeztu zen, hautatua izango balitz Parlamentuko kide izateko derrigorrez egin behar zen zina egiteari uko egingo ziola adieraziz, zin hark erlijio katolikoa iraintzen zuelako. Irlandan garai hartan boto irekia zen nagusi, hautesle bakoitzak modu irekian adierazi behar zuen bozkatu nahi zuen hautagaiaren izena hauteskundeetako funtzionarioen eta bertaratu nahi zuten beste guztien aurrean. Irlandan, garai hartan baita ere, nekazari gehienak lekuz alda zitezkeen maizterrak ziren, agentearen edota lurjabearen borondate hutsaren arabera. Ondorioz, hauteskundeak fartsaren eta tragediaren arteko konbinaketa bat ziren — fartsa bat hautesleen egiazko borondatea bermatzeko moduari dagokionean, tragedia bat edozein nekazari bere lurren jabeak babesten zuen hautagaiaren aurka bozkatzera ausartzen zenean. Sufragioa urteko berrogei txelinetako errenta bat ordaintzen zuten nekazari guztiengana zabaldu zen, sinesmen erlijiosoak edozein izanik ere, baina lurjabeak bizitzaren eta heriotzaren gainean zuen botere itzelak normalean baliogabetu egiten zuen sufragio hau helburu herrikoietarako. Hala ere, O'Connellek Clareko nekazalgotako katolikoari euren lurjabe tiranoen mendekuari desafio egiteko eta, askatasun erlijiosoaren interesen alde, berari bozka emateko dei egin zionean, honek nobleziak erantzun zion. O'Connell hautatua izan zen eta honen ondorioz segituan Emantzipazio Katolikoa eskuratu zen. Baina klase agintariak eta Gobernu britainiarrak mendekua hartu zuten, erreforma honi lege proiektu bat gehituz, zeinaren arabera nekazari txikienei sufragioa kentzen zitzaie, eta bozkatu ahal izateko beharrezko errentari hamar libera gehiago eransten zitzaizkion.

Orduraino, lurjabeek dezente sustatu zuten euren jabegoetako biztanleriaren hazkundera, euren jarraitzaile politikoek kopurua handitzen zuelako, baina Parlamentuak lege hau onartu zenean arrazoi honek existitzeari utzi zion eta berehala eskala handiko nekazari kanporaketei ekin zioten, eta lur goldagarriak bazkarako lur bilakatzen hasi ziren. Klase ertain, profesional eta lurjabe katolikoak, Emantzipazio Katolikoarekin, Gobernuaren postu ordaindu guztietarako bidea ireki zitzaie; klase behartsuko katolikoak, lege berberaren emaitza gisa, sarraskira kondenatuak

izan ziren Gobernu atzerritar baten eta aristokraziaren mende-
kua asetzeko, hauen botereari desafio egin baitzitzaion hauek be-
raien gorentasunaren esparrutzat zuten hartan bertan.

Nekazari txikien eskala handiko kanporaketak eta lursail haiek
bazkarako etxalde handi izateko xurgatuak izanak, lanari enple-
gurako bide oro itxiz, heriotza esan nahi zuen nekazal biztanle-
riarentzat, eta ondorioz, nekazariak eskura zituzten baliabide
guztiekin erantzun zioten kolpeari. Ribbon Elkarte Sekretuaren
logiak sortu zituzten, jende aberatsaren etxeetan gaueko erasoal-
diak egin zituzten armak eskuratzeko, talde handitan biltzen zi-
ren gauetz eta bazka lurrak iraultzen zituzten abeltzaintza helbu-
ruetarako balio ez zezaten, lubakiak irekitzen zituzten, artzainak
beldurtzen zituzten euren arrantxoak utz zituzten, abere-jabe
edota lurjabe gorrotatuen zerbitzura lan egiten hasita zeuden haiek
zauritzen edota erailtzen zituzten, agenteak hiltzen zituzten, eta
batzuetan, etsipen hutsez, ejertzitoaren armei aurre egiten zieten
euren gorputz desarmatuekin. Izaera odoltsueneko gerra zibil
batek astindu zuen herrialdea; 1831ko maiatzean, Irlandako Lord
Tenientea eta artilleriaz lagundutako indar militar izugarri bat
Clarera zuzendu ziren herrian beldurra zabaltzeko asmoz, baina
honek nekazariak lantzen zituzten lurretatik kanporatzea, edota
abelazkuntzaren ezarpenak etxaldeetako ohiko lana kendu zieten
langileei enplegurik eman ez zenez, "gehiegikeriek" jarraitu egin
zuten. Abertzale profesional eta katoliko aberats emantzipatu be-
rriak ere ez ziren gupidatsuagoak izan lurrik gabe gelditu zirene-
kin. Langilea eta nekazaria fanatismoaren eta "jatorri" erlijioso-
aren gotorlekua suntsitzeko palanka bezala erabiliz ireki zuten haiek
euren posiziorako eta gorairako bidea, eta orain, borroka iraba-
zi zenean, bakarrik utzi zituzten euren erlijio-kide gizagaixo haiek
euren ugazaba ekonomikoen eskuetan. Euren etxe hondatuen au-
rreko errepideetan goseagatik makurtzen ziren familia desjabe-
tuen bihotzetatik sortzen zen etsipenezko aienearentzat, bere en-
pleguaren iturria suntsitu zutelako etengabe langabeturik zegoen
langilearen atsekabe gordinarentzat, emakume eta ume gosetien
arrangurarentzat, politikariek, kasua edozein izanik ere, erantzun
bakarra zuten: "Legea bete ezazue eta itxaron Batasunaren Abo-
lizioari". Ez gara ari egoera hura puzten. Abolizionista sutsuene-
tako bat eta O'Connellen lagun gertukoena zen Thomas Steele
jaunak, honako manifestu hau ipini zuen Enniseko Merkatuko

plazan eta Clareko beste zonalde batzuetan, langile eta nekazari atsekabeei zuzentzen zena:

“Amore ematen ez baduzue, Irlandaren askatasunaren aldeko kausaren traidoretzat salatuko zaituztet... Gobernuaren eta ejertzi-toaren baioneten suaren aurrean utziko zaituztet. Zuen odola eror dadila zuen arimen gainean”.

Salaketazko hizkera hau euren etxeak, segurtasuna eta euren semeak elikatzeko itxaropen guztiak ongi elikaturiko esnob haiek, orain herria uzten zuten haiek, tirania erlijiosotik askatzeko sakrifikatu zituzten gizon eta emakume heroiko haiei zuzendurik zegoen. Zaila da ikustea zein erabilgarritasun izan zezakeen etorkizunean promesturiko Batasunaren Abolizio hark goseak hiltzen zeuden Clareko gizonentzat, bereziki euren gurasoek gosea, kanporaketak eta tirania bai Batasunaren *aurretik* bai *ondoren* jasan zituztela zekitenean. Garai hartan, bestalde, ekintza benetan aberetzalea zen haragi irlandarrak herentzian jaso zituen gaitz guztien errua Batasunari egozte. Esate baterako, O’Gorman Mahon deituriko jaun batek, Londreseko Komunuen Ganberan 1831ko otsailaren 8an hitz egin zuenean, ordu hartan Irlanda estaltzen zuen elur ekaitza Batasun Legegilearen emaitza zela intsinuatu zuen. Zera zioen:

“Ganberakide ohoragarriek uste zuten elurpean bost oinetara zeuden gizon dohakabe haiek euren egoera Batasunaren Abolizioaren bitartez hobetuko zutela pentsatzea saihestu ahal izango zutela. Esan daiteke Ingalaterrak ez duela elurtea eragin, baina jendeak elurra bere gainean du eta topatzen den egoera horretara murriztu duena Ingalaterrarekin duen konexioa dela pentsatzen du”.

Beste abertzale batek, urte batzuk geroago errebolitari irlandarraren estalkia janztera destinatutik zegoen William Smith O’Brienek, garai honetan zehar, 1830ean, eskuorri bat argitaratu zuen, inmigrazioa miseria irlandarraren erremedio bakar bezala defendatuz.

Beste alde batetik, Loren Kamarak 1839an klase txiroaren dohakabetasuna eta konspirazio sekretuak ikertzeko izendaturiko Komisio batek, nekazalgoaren bizitzarekin estuki erlazionaturiko lekuko ugaritan itaunketak egin zituen eta testigantza oso interresgarriak eskuratu zituen, gaitz hark Gobernuaren edozein proiektu politikok baino sustrai sakonagoak zituela eta bere erroak

baldintza sozialetan aurkitzen zirela frogatzera jotzen zutenak. Era honetan, langileek Ribbonen Elkartearakiko zuten jarreraren inguruan galdetuta, lekuko batek hau aitortu zuen:

“Askok babes bila jotzen dute Elkartera. Beste babesik ez dutela pentsatzen dute”.

Galdera: “Zeintzuk dira ikuspegiari dituzten helburu nagusiak?”.

Erantzuna: “Euren lurretan mantentzea. Askotan entzun dut euren elkarrizketa, honakoa esanez:

“Zein onura ekarri digu guri Emantzipazioak? Hobeto jantzita edota elikatuta al gaude, hobeto jantzita edota elikatuta al daude gure seme-alabak? Geunden bezain biluzik eta eskuratu ahal ditugunean patata lehorrak janez ez al gara bizi? Esan diezaiegun etxaldezainei elikadura eta soldata hobeak eman diezazkigutela eta ez diezaiotela hainbeste eman lurjabeari eta gehiago eman diezaiotela langileari; ezin dugu baimendu jende txiroa lurretatik botatzea”.

Eta Poulet Scroope izeneko jaun bat, bere idatzietan, txiroentzako lege baten behararen inguruan adierazi zen: “Hamarrenaren auzia, Eliza, Epaimahai Gorenaren legeak, sheriffgoetan edota magistraturetan katoliko kopuru handia edo txikia egotea; hauek denak lanik egiten ez duen jendailaren agitazio politikorako topikoak dira; baina Irlandako nekazal distritu guztietako sarraski gautarrak, eguneroko harrapakaria, maiztasunezko matxinada, bizitzaren eta jabegoaren segurtasun falta, ez ditu agitazioak eragiten eta ezin dira agitazioaren bitartez ezabatu”.

Ikus daiteke, beraz, Parlamentuko kide independentearen iritziak bat egiten zuela langile matxinatuenarekin, politikarien buruetan espazio gehien okupatzen zuten auziei lurrik gabe geratu zirenek, orain egiten duten bezala, garrantzia erlatiboa ematen zioten urriaren inguruan.

Hauxe zen gauzen egoera politiko eta soziala 1831. urteko Irlandan, eta Clare emantzipazio erlijiosoa lortzeko eman zen azken kolpe eraginkorra gertatu zen lekua izan zen neurrian, Clare izan zen baita ere emantzipazio sozial hori eskuratzeko bide baketsu bat bilatzearen lehen ahalegina ikustera destinaturik zegoen lekua, emantzipazio mota hori gabe, edozein askatasun, erlijiosoa izan edota politikoa izan, Itsaso Hilaren fruitua ahosabaiarentzat den bezalakoa izango baita elementu langilearentzat.

1823an, Robert Owen sozialista ingeles handiak Irlanda bisitatu zuen eta bilera sail bat ospatu zuen Rotundan, Dublinen, hiri horretako herriari sozialismoaren printzipioak azaltzeko asmoz. Bere publikoa oro har biztanle aberatsek osatzen zuten, errealtatean leku guztietan gertatzen zen bezala, garai hartan sozialismoa aberatsaren kapritxoak baitzen txiroaren fedea izan beharrean. Leinsterreko Dukeak, Murray artzapezpiku katolikoak, Lord Meathek, Lord Cloncuryk eta beste batzuek betetzen zuten oholtza, eta Owenek orduko miseriaren eta honen ondorioz klase guztietako kideen bizitzek eta jabegoek zuten segurtasun faltaren inguruan marraztu zuen koadroaren emaitza gisa eta kooperazio sozialistako sistema batek sortuko zituen aukerak zirriborratu ostean, Elkarte Filantropiko Hiberniarra³³ deituriko elkarte bat eratu zen, euren ideiak gauzatzeko. Diru kantitate bat harpidetu zen elkar-tearen xedeei laguntzeko, Brow jeneralak 1000 libera emanek; Lord Cloncurryk 500 libera; Owen Jaunak berak 1000 libera harpidetuz, eta beste iturri batzuetatik 100 libera bilduz. Elkarteak bizitza laburra izan zuen eta ez zen eraginkorra izan, baina bere kideetako bat, Arthur Vandeleur jauna, sozialismo owenistaren posibilitateen inguruan ikusi eta entzun zuenagatik halako sakontasunez txunditu zen ezan 1831an, krimena eta bidegabekeria puntu gorenera iritsi zirenean eta bere klase bereko kideen bizitzek zuten segurtasun falta bere etxaldearen administratzailea, langileekiko jokabide krudela zuelako, erail zutenean bere etxeraino bertaraino iritsi zenean, Ralahineko bere jabetzetan, Ciareko Konderrian, kolonia sozialista bat ezartzeko ahalegina egitea erabaki zuen. Asmo horrekin Craig jauna, Manchesterrekoa, Owenen jarraitzailea, Irlandara gonbidatu zuen eta proiektuaren gauzapena aurrera eramateko eginkizuna esleitu zion.

Craig jaunak irlandera ez bazekien ere eta Ralahineko herriak, orokorrean, ingelesa ezagutzen ez bazuen ere – azalpen lana nabarmenki nahaspilduko zuen egoera ziurrenik –, azkenean ulermen batera iritsi ziren eta etxaldea “Ralahineko Nekazal eta Manufaktura Elkarte Kooperatiboa” izenpean antolaturiko herriaren elkarte bat bilakatu zen.

Elkar-tearen legeen hitzaurrean, bere helburuak modu hone-tan definituak izan ziren:

33. “Hiberniar” adiera “irlandar” esateko beste modu bat da.

“Kapital komun baten eskurapena.

“Bertako kideen aseguru komuna pobrezia-aren, gaixotasuna-
ren, eritasunen eta zahartzaroaren gaitzen aurka.

“Klase langileek egun dutena baino parte hartze handiago bat
eskuratzea bizitzako erosotasunetan.

“Bere kide helduen hobekuntza mental eta morala.

“Beraien seme-alaben heziketa”.

Ondorengo paragrafoek, Elkartearen arauditik hautatuak
izan direnek, ideia argiago bat emango dute bere ezaugarri ga-
rrantzitsuenen inguruan:

GIZARTEAREN OINARRIAK

“Lanabes guztiak, laborantzarako tresnak eta bestelako jabetzak
Vandeleur jaunaren jabegokoak direla, elkarreak berauengatik
ordaintzeko adina metatzen duen arte: orduan, Elkartearen jabe-
go elkarbanatua bilakatuko dira.

EKOIZPENA

“Indibidualki izan dezakegun edozein iaiotasun, mentala izan
edo muskularra izan, nekazal, manufaktura edota zientzia alorre-
koa izan, denen onurarako erabiltzea hitz ematen dugu, bai beha-
rrezko eginbehar guztietan hau zuzenean erabiliz, bai gure ja-
kintza denon artean eta nagusiki gazteriari transmitituz.

“Praktikara eraman litekeen neurrian, gizabanako bakoitzak
nekazal eginkizunetan lagunduko duela, bereziki belar moztean,
erabat argi geratuz gizabanako bakar bat ere ez dela langileburu
gisa arituko, denek lan egingo dutela baizik.

“Gazteria osoa, gizonak eta emakumeak, nekazaritaz eta lore-
zaintzaz gain, ogibide erabilgarriren bat ikasteko konprometitzen
dela bederatzi eta hamasei urte bitarteko adinean.

“Komitea arratsaldero bilduko dela hurrengo eguneko egin-
kizunak koordinatzeko.

“Lan orduak goizeko seietatik arratsaldeko seietara izango di-
rela, udan, eta eguna argitzen duenetik iluntzen dueneraino, ne-
guan, bazkaltzeko ordubeteko tartearekin.

“Gizonezko nekazal langileek zortzina penike eta emakumeek bosna penike jasoko dituztela egun bateko lanagatik (hauek ziren herrialdeko soldata arruntak, idazkariak, biltegiaren nagusiak, errementariak, mihizatzaileak eta gutxi batzuek gehiagok apur bat gehiago jasoz; soberakina jabeek eramaten zuten), diru hauekin biltegiko hornigaiak edota elkarteak ekoizten dituen edota bertan gorde ditzakeen bestelako artikulua ordaindu ahal izango direla espero delarik; beste edozein artikulua beste edozein lekutan eros daiteke.

“Kide bakar batek ere bere sentimenduekin³⁴ bat ez datorren egingizunik edota egiten ez dakien lanik ez duela egingo espero dela; baina edozein kidek beste kideren bat bere denbora modu erabilgarrian erabiltzen ari ez dela pentsatzen badu, bere eginbeharra Komiteari honen berri ematea dela, honen eginbeharra kide horren jokabidea bilera orokor batera eramatea izango delarik, zeinak boterea izango duen, beharrezkoa izango balitz, kide gauzaez hori kanporatzeko.

BANAKETA ETA ETXE-EKONOMIA

“Normalean zerbitzariak burutu dituzten zerbitzuak hamazazpi urte baino gutxiagoko sexu bietako gazteriak burutuko dituela, errotazioz edota hautaketaz.

“Haurren elikaduraren, arroparen, garbitasunaren, lo egiteko lekuaren eta hezkuntzaren gastuak elkartearen funts komunekin ordainduak izango direla, titia hartzeari uzten diotenik hamazazpi urteko adinera iristen diren arte, kide bilakatzeko hautagarri izango direlarik adin honekin.

“Euren gurasoek hezten dituzten eta euren etxebizitzetan bizi diren haur haien elikaduraren, arroparen, etab.en kargu bat egin dadila.

34. Euskararako itzulpenak hau baloratzea baimentzen ez badu ere, aski interresgarria da, eta bereziki dokumentu hau idatzi zen garaia kontuan hartuta, determinatzaileak, aldi oro, bi generoetan, maskulinoan eta femeninoan, erabiltzen direla aipatzea: his or her feelings (bere sentimenduak), his or her time (bere denbora), his or her duty (bere eginbeharra).

“Etxe bat okupatu, eta hango hornigaiak bertako sukalde kon-tuetan erabili edota kontsumitzen dituen pertsona orok, erabilita-ko erregaia ordaindu beharko duela.

“Gela publikoetan erabilitako erregaiarengatik kargurik ez da-dila egin.

“Etxe-ekonomiaren azpi-komitearen edota departamendu ho-nen superintendentearen asmo berezia elikagaiak prestatzeko metodorik hoberenak eta ekonomikoenak bermatzea eta prakti-kan ipintzea izango dela.

“Garbiketa guztiak batera egin daitezela garbitegi publikoan; xaboi, lan, erregai, eta abarren gastuak berdintasunez jasango di-tuztela kide heldu guztiek.

“Kide bakoitzak penike eta erdiko kopurua ordain dezala sol-data gisa jasotzen duen txelin bakoitzarengatik Komitearen es-kuetan ipiniko den funts bat osatzeko, funts honetatik gaixotzen edota istripu bat jasaten duen edozein kideri soldatak ordaindu-ko zaizkiolarik.

“Elkartearenak diren lanabes, tresna edota edozein jabegori kideren batek kalteak eragiten badizkio, eginiko kaltea gizabana-ko horren soldatatik ordainduko dela, Komiteari bere zioak ondo azaltzen ez badizkio behintzat.

HEZKUNTZA ETA IZAERAREN FORMAKUNTZA

“Elkarren artean bermatuko dugu elkarte honen kide izandako edozein hildako pertsonaren seme-alaba gazteak bizirik dauden kideen seme-alabekin berdintasunean eta batera babestuak, ha-ziak eta heziak izango direla eta hamazazpi urte erdietsitakoan kideen pribilegio guztiekin titulatu direla.

“Gizabanako bakoitzak kontzientzia askatasun betea eta iri-tzi adierazpenerako eta kultu erlijiosoko askatasun osoa izango duela.

“Inolako likore mozgorgarririk, ez tabakorik ez tabako-hautsik ez dela biltegian edota etxeetan gordeko.

“Gutako edonork, zoritxarrez, beste edozein pertsonarekin gatazkaren bat izango balu, kideen gehiengoaren erabakiari obe-dituko diogula adosten dugu, edota hauek auzia esleitu dioten pertsona hari.

“Beste pertsona batekin ezkondu nahiko lukeen edozein pertsonak, deklarazio bat sinatuko duela helburu horrekin ezkontza burutu baino astebete lehenago, eta bikoteari harrera egiteko asmoz etxe egoki bat eraikitzeko eta altzariz hornitzeko berehalako presaketak egingo direla.

“Kidea ez den beste pertsona batekin ezkondu nahi duen edozein pertsonak deklarazio bat sinatuko duela, azken arauaren arabera; kide ez den pertsona, orduan, bozketa baten menpe ipiniko da, eta ukatua izango balitz, biek utzi beharko dute elkartea.

“Edozein kideren jokabidea elkartearen ongizatearentzako kaltegarri kontsideratua izango balitz, bere jokabidea kaltegarri zein aspektutan izan den azalduko diola Komiteak, eta kide horrek arauak hausten jarraitzen badu, kide hori kasu horretarako konbokatua izango den bilera orokor baten aurrera eramana izango dela, eta kexa tinkoa dela kontsideratzen bada, bertaraturiko kideen hiru laurdenek bozketa bidez kide hezigaitz hori kanporatzeko boterea izango dutela.

GOBERNUA

“Bederatzi kidek osaturiko Komite batek gobernatuko du elkartea eta honek tramitatuko ditu bere auziak, eta Komite hau urte erdi-
ro hautatuko dute kide diren gizon eta emakume heldu guztiek bozketaren bidez, bozketa zerrendak gutxienez azken Komiteko lau pertsona izango dituelarik.

“Komitea arratsaldero bilduko da eta bere kudeaketak erregulariki akta liburu batean bilduko dira, idazkariak honen laburpena aurkeztuko duelarik elkartearen bilera orokorrean.

“Elkartearen asteroko bilera orokor bat ospatuko da; diruzainaren kontuak Komiteak errebisatuko ditu eta elkarteari irakurriko dizkio; “Iradokizunen Liburua” ere bilera honetan irakurriko da”.

Koloniak ez zuen herrialdeko txanpon arrunta erabiltzen, honen ordez “Lanagatiko Txartelaren” ordainketa sistema hartu zuen, langile guztiei txartelekin ordaintzen zitzaien, egin zuten lan orduen kopuruaren arabera, eta txartel hauek biltegian bizi-
tzeko beharrezkoak ziren produktu guztiengatik trukatu zitezke-
en. Txartelak bisita txartel baten tamainara hurbiltzen zen txartel

gogor batean inprimaturik zeuden eta egun oso bateko lana, egun erdikoa, egunaren laurdenekoa, egunaren zortzirenekoa eta egunaren hamaseirenekoa errepresentatzen zuen. Tinta gorritz inprimatutako txartel bereziak ere bazeuden, egun eta erdiko lanak edota bi egunetakoak ordezkatzeko zituztenak. Koloniaren inguruko bere memorian, *Ralahinen Historia* izenpean Heywood & Sons-ek Manchesterren argitaraturikoan, (gure irakurle guztiei biziki gomendatzen diegun liburu bat), Craig jaunak zera dio: "Lana egunero erregistratzen zen "Lanaren Orri" batean, eta hurrengo astean zehar denek ikusteko moduan ikusgai jartzen zen hau. Kideek euren diskrezio propioaren arabera egin zezaketen edo egin ez zezaketen lana. Lan egiten ez bazuten, ez zuten erregistratzen, eta ondorioz, ez zitzairen ordaintzen. Praktikan, neurri hau erabilgarritasun handikoa izan zen. Ez zen alferrontzirik izan". Aurrerago aipatzen du:

"Lanaren txartelen abantailak berehala egin ziren begi-bista-koak kideen aurrezkietan. Ez zuten antsietaterik enpleguari, soldatei edota bizigaiaren salneurriei zegokionean. Bakoitzak nahi beste elikagai har zezakeen. Haurtzarotik seme-alaben elikaduraren eta hezkuntzaren gastuak funts komunitetik ordainduak ziren.

"Xedea justiziaren arau bat eskuratzea izango litzateke, zuzentasunaren lege bat bilatzen ari bagara behintzat. Hau jabego-komunitate batetik sortzen den berdintasun horrekin bakarrik burutu daiteke bere osotasunean, kide baten lana beste kide bate-naren tasa berberaren arabera balioesten den leku batean eta lana lanarengatik trukatzeko den leku batean. Ezinezkoa zen Ralahinen berdintasun egoera honetara iristea, baina gauzak denei segurtasun, berdintasun eta justizia sentimendua emateko moduan antolatatu genituen. Langile bati asteko txelin bat kobratzen zitzaion kontsumitu nahi zituen barazki eta fruitu guztiengatik; esne laurden bakoitza penike batean zegoen; behi haragia eta ahari txuleta lau peniketan, eta txerrikia liberako bi penike eta erditan. Bereizitako logelak erabiltzen zituzten ezkonduko kideek asteroko sei peniketako errenta ordaindu behar zuten eta bi penike erregaiagatik".

Irlandaz ari den inork ezin du kleroaren jokabidearen auziari ez ikusia egiteko luxua baimendu; interesgarria da, beraz, Ralahinen izan zen bisitari ingeles baten hitzak aipatzea, Finch jauna deituriko batenak, gero komunitate hura deskribatzen zuen hamalau

gutuneko sail bat idatzi eta Komunen Ganbarako Komite Hautatu bati gaiaren inguruko txosten berezi bat aurkezteko eskaini zena. Hala dio:

“Elkartekak irakasten zuen erlijio bakarra gizon, emakume eta haur ororen zoriontasun etengabearen praktikarena zen, hau erdietsi zitekeen puntu goreneraino. Beraz, Biblia ez zen testu liburu bezala erabiltzen; eskoletan ez ziren iritzi sektarioak irakasten; dogma erlijiosoen eta alderdi ezberdinen auzi politikoen inguruko liskar publikorik ez zen izaten; eta besteen erlijioa irrigarritzen ere ez zitzairen baimentzen kideei; ez zegoen inongo proselitismo saiakaririk. Guztiei erabateko askatasuna bermatzen zitzairen euren eginbehar eta ariketa erlijiosoak burutzerakoan. Erlijio heziketa erlijioaren ministroei eta gurasoei uzten zitzairen; baina ez apezek ez ministroek ez zuten ezer jasotzen elkarlearen funtsetatik. Hala ere, bai apez protestanteak bai katolikoak sistemaren alde ipini ziren hau ulertu zuten orduko, eta honen arrazoietariko bat pertsona neurritsu eta langile haiek euren aurrezkien zaitxo bat erlijioso hauei eman ziezaietela izan zen, iraganean eska-leak izan ziren bitartean”.

Craig jaunak, era berean, baieztatzen du komunitateko kideak, honek funtzionamenduan denbora jakin bat eman ostean, hasieran baino katoliko hobeagoak zirela. Hasieran zailtasunak izan zituen protestante proselitista jeloskorren erasoetatik libratzeko, eta hau egiteko erakutsi zuen zurruntasuna izan zen herriaren konfiantza irabazteko faktore nagusienetako bat, eta baita haren babesa eskuratzeko modua ere, hezkuntzak inongo izaera sektariorik ezin zuela izan azpimarratzen baitzuen.

Kideen arteko liskar guztiak bilera orokor baten bitartez konpontzen ziren, non bi sexueta heldu guztiek parte hartzen zuten eta epaile, abokatu eta anaidi legaleko gainerako kide guztiak zorroztasunez albo batera utziak ziren.

Jabego komunaren ezarpena aurrerapenaren eta asmakuntzen etsaia izango ote denaren beldur diren haiek guztiak lasai daitezke nekazari irlandar “ezjakin” haien komunitateak Ralahinen Irlandan lehendabiziz erabili zen belar moztailera sartu zutela jakiten dutenean, eta bedeinkapen gisa agurtu zuten gainera, Ingalaterrako nekazal zaldunek oraindik ere asmakuntza haren erabilgarritasuna seriozki eztabaidatzen zuten garai batean. Makina hau sartu zuten abagunea aprobetxatuz komunitateak, Ciareko

Konderriko langileei zuzendurik, argitaratu zuen aldarri batetik ondorengo pasarte hauek hartuko ditugu, asmakuntza honen eraginek jabego komunapean edota jabego kapitalistapean dituzten desberdintasunak agertzen dituztenak:

“Makina hau langileen klaseei euren lana arintzeko eta aldi berean euren erosotasuna handitzeko eman zaien aurrenetariko makina bat da. Gutako inor ez du eskusiboki mesedetzen, eta gizabanako bakar bati ere ez dio enplegurik kentzen. Lana murrizteko erabilitako edozein makineriak – gurea bezalako gizarte kooperatibo batean erabilia ez denean salbu – soldatak txikitzera eta langileak enplegurik gabe uztera jotzen du, eta azkenean, gosez hiltzera, beste enplegu bat hartu behar izatera (eta han ere euren soldatak murriztera) eta emigratzera.

Bestalde, langileen klaseak, gure sistema onartuz, bihotzez eta era baketsuan batuko balira, botere edo alderdi bakar batek ere ezingo luke euren arrakasta oztopatu”.

Hau Komitearen aginduz argitaratu zen 1833ko abuztuaren 21ean, eta data hau ikusten dugunean txunditu besterik ezin gara egin egun hartatik hona Ciarek –eta Irlandaren gainerako zatia– ahaztu dituen gauzen kopurua ikusitakoan.

Ez da pentsatu behar Ralahinen kokaturik zegoen lur sail haien jabea zen terratenienteari sozialismoaren aldeko grinak bere interesak ahaztarazi zizkionik. Alderantziz, komunitateari bere etxaldeak eman zizkionean ordain gisa errenta oso pisutsu bat hitzartu zuen espeziean. *Brotherhoodetik*³⁵, 1891an Irlandaren iparraldean argitaraturiko egunkari sozialista kristau batetik, Ralahineko errentaren aitortpen bat eta bertatik ateratako lezioaren laburpen oso buruargi bat, ekarriko dugu hona, Bruce Wallace jaunak, egunkariaren zuzendariak, eginikoa, denbora luzean zehar langile tinke eta eskuzabala izan zena sozialismoaren aldeko kausarekiko Irlandan:

“Elkartea urtero, bai Ralahinen, bai Bunrattyn, bai Ciaren edo bai Limericken, terratenienteak eskatzen zuenaren arabera eta gasturik gabe honakoa entregatzera derrigorturik zegoen:

Garia320 barrika
Garagarra240 barrika
Oloa10 barrika

35. Anaidia.

Gurina	10 kintal
Txerria	30 kintal
Behikia	70 kintal

“Garai hartan indarrean zeuden prezioen arabera, produktu kantitate honek 900 libera inguru izango zituen baliokide, 700 indarren eta baliabide naturalen erabileraren errentagatik eta 200 kapitalaren gaineko interesagatik. Tributu benetan gogorra zen, beraz, langile irlandar gizagaixo hauek ordaindu behar zutena euren jatorrizko lurraren zati txiki bat loratuaraztearen pribilegioagatik. Tributu hau langile haiek aurkitzen ziren egoera hobetzeko zituzten baliabideetatik murriztuko zen beste hainbeste zen, noski. Ralahinereen eredutik onurak atera eta nekazaritzan kooperazioaren printzipioak berriro ere aplikatzeko ahalegina egingo lukeen etorkizuneko edozein saiakerak, arreta benetan berezia eskaini beharko dio langileak ez direnei ordaindu beharreko tributua minimora murrizteari, eta ahal izango balitz, honetaz erabat libratzeari. Hala ere, alferren luxuzko mantentze hau ekoiztu beharraren zama pisutsua bazuten ere, ikusiko dugun bezala, Ralahineko lurgabeen egoera zoragarriro hobetu zen beraien artean printzipio kooperatiboa sartu zenetik. Zenbat bider gustagarriagoa izango zitezkeen pisu hil triste horretatik aske egon izan balira?”.

Horixe da Ralahineko lezioa. Lur eta eraikin guztiak herriarenak balira, Irlandako gainerako etxalde guztiak printzipio berdinek gidatuko balituzte eta herrialdeko industriak ere hala antolatuko balira, beraietako bakoitzak ordezkariak izendatuko balitu Dublin bezalako zentzoren batean bilduta herrialdearen inguruan zer egin eztabaidatzeko, Irlanda aske baten egitura eta oinarria finkatuta egongo lirateke. Eta Irlanda bere zoriaren gaineko kontrol absolutuaren gainean altxatzen denean herriaren zorientasuna bilatu beharko du, Ralahineko disposizio sozialak oinarri nazional batera zabalduz, txiroentzako beste purgatorio sozial bat besterik izan nahi ez badu behintzat, —erreformatzaile politikoen iruzurrezko hitz emateetaz oroitzen diren aldi oro euren oinazearen oihartzuna biderkatzen duten haientzako purgatorio bat.

Krimenak zapalduena zuen Irlandako Konderrri honetan, sozialismoaren esperimentu partzial honek, krimena abolitu zuen; menperatze erlijiosoaren aurkako borrokarik amorratuena gauzatu zen leku hartara tolerantziarik bihozberena eraman zuen;

mozkorkeriaik pasio ilunenen sua bizitu zuen lur hartan, neurritasuna eta zalduntasuna ezarri zituen; pobreak eta gabeziak basakeria, gaueroko harrapakaria eta lokarri sozial ororekiko mespretxua eragin zuen gune hartan, seguritatea, bakea eta justiziarrekiko errespetua finkatu zituen, eta hau dena kontzepzio sozial berriaren eraginaren bertutez bakarrik egin zen, berari lotuta guztien interes komunaren defentsa daraman jabeko komunaren ezarpenean oinarrituz. Han, aldaketa haiek guztiak lore-kapulua-
ren forman bakarrik gertatu ziren hartan, zer espero beharko genuke lore batetik? Sozialismoaren esperimendu partzial batek, esperimendu batek dituen desabantaila guztiekin, hain emaitza bikainak eskuratu bazituen, zer ez genuke espero beharko Irlanda osoa, mundu osoa, jabego komunaren oinarriaren gainean, eta esplotazioa eta esklabotza betirako abolituta, antolaturik egongo balitz?

Elkartearen gainbehera Britainia Handiaren nekazal lege zitaelen emaitza gisa etorri zen, halako komunitate baten eskubidea aitortzeari uko egiten baitzieten, eta errentamendu bat edukitzea edota kontzesionario gisa aritzea debekatu baitzieten. Lurjabeak, Vandeleur jaunak, bere aberastasun osoa joko transakzio batean galdu zuen Dublinen eta zoritxarrean erori zen, bere zorrak ordaintzeko gaitasunik gabe. Porrotaren tramiteetan aurkitzen zen etxalde haren ardura hartu zuten pertsonak uko egin zioten komunitatea onartzeari, etxaldeko kideak langile arrunt gisa tratatu zituzten temati, eraikinen eta lursailen jabe bilakatu ziren eta Elkartea desagerrarazi zuten.

Honela amaitu zen Ralahine. Baina etorkizuneko Irlanda gazetuan miresmenez azpimarratuko da nekazari xume hauek egin zuten hartan, eta mugarri handi eta garrantzitsu bezala azpimarratuko da giza arrazaren erabateko askapen sozialaren bidean. Ralahine pentsamendu kapitalistaren basakeriaren eta praktika feudalaren erdian altxatu zen galdera ikur irlandar bat izan zen, bi horiek, alferrik, erantzun bat emateko lehiatu zirelarik. Garai berean zehar beste komunitate txikiago batzuk ere ezarri ziren Irlandan. Lord Wallscourt delako batek hein batean antzeko itxura gordetzen zuen komunitate bat ezarri zuen Galwayko konderriko bere haziendan; 1819ko azaroko *The Quarterly Review*ek³⁶

36. Hiruhilabetekaria.

baieztatzen du ordu hartan Dublindik bederatzi miliatara komunitate txiki bat topatzen zela, hogeita hamar akre zituena, apaiz bat eta 300 haurreko eskola bat mantentzen zituena, eraikinak jaso eta osteratxoak egiteko zaldi-orgak egin eta saltzen zituena eta harakin, arotz eta orgagileak biltzen zituena; Dublingo kuakeroek³⁷ Artile Kooperatiba bat ezarri zuten, bertako kide ziren konformagaitz batzuek, kooperatibaren lehiakideak ziren kapitalisten bandora igarota, haren aurkako auzi judizial bat sustatu eta elkartearen loraldia suntsitu zuten arte iraun zuena; eta etxe komunal bat ere finkatu eta mantendu zen denbora luzean zehar Dublinen, sekta erlijioso bereko kideen eskutik, hobekuntza sozialaren aldeko aurrerabidean laguntzea beste helbururik ez zuena. Ulerturik dugunez, Messrs. Ganly & Sons-en biltegi zabala, Usher's Quayn, Dublinen, komunitate honen egoitza zen, gaur egun enkante jardueretan ibiltzen den kapitalista baten jabegoa den horren areto handietan bizi, lan egin eta dibertitu eta bere gela txikietan lo egiten zuen komunitate batena.

37. Kuakeroak, *Lagunen Elkarte Erlijiosoa*, komunitate erlijioso disidente bat, quaquer, dardara, hitzetik bere izen herrikoa hartzen duena, euren biletetako isiltasunean euren gorputzek dardara isil bat egiten omen zutelako. Pertsona bakoitzak zerbait jainkotiarra gordetzen duenaren ideia defendatuz, berdintasunari garrantzia handia eman dion taldea izan da, emakumeak gizonen pare hasierako uneetatik ipiniz eta gutxiengo sozial zapalduerari (preso, garai haietako esklaboei, homosexualei...) laguntza emanez.

XII. KAPITULUA

Izugarrikerien pasarte bat:

Daniel O'Connell eta langile klasea

Hau da zibilizazioa, esaten duzue, eta ezin alda dai-teke, gizakien ahultasunagatik.

Kontu izan, kontu izan, otso basatia bere kobazuloa-ren hondoraino eramateko modu arriskutsu bat da.

Kontu izan zuen zibilizazioarekin, bihotz dardaratien gainean eraikitako piramide bat da.

Badira aldiak, Parisen 93an bezala, gizaki arruntenek paper beldurgarriak jokutzen dituztenak.

Kontu izan zuen aurrerapenarekin, bere oinak bere ustelkeriekin erail zituen arimekin jantzita daude.

Otzantasuna ona da, baina Jaungoikoaren aginteak iraultzen argi-zuzia piz dezake.

John Boyle O'Reilly

Hala Irlandan nola Britainia Handian, Emantzipazio Katolikoaren konkistaren (1829) eta 1850.eko urtearen arteko garaia izugarrizko miseriak eta gabeziek markaturik egon zen klase ekoizleentzat, beraiekin batera hainbat iraultza saiakera abortibo eta garrantzia gutxiko zenbait erreforma politiko eta sozialen kontzesioak lagun izan zituztelarik bi herrialdeetan. Irlandan, pribilegioaren indarren aurkako lehen neurria hamarrenen abolizioa izan zen, edota, zuzen esanda, hamarrenen bilketari laguntzen zioten portaera zorrotz eta bortitzenen abolizioa. Eliza Episkopalaren kleroak, Irlandan dekretuz ezarririko Elizarenak, izendapen legala zuen klero hau topatzen zen barruti bakoitzeko herriari, erlijio bereizketarik egin gabe, tasa jakin bat exijitzeko, aipaturiko Eliza hau eta bere ministroak mantentzeko helburuz. Praktika hau Eliza Katolikoa gailentzen zen herrialde haietan ere burutzen zenaren berbera izateak ez zuen errealitate hau irentserrazagoa bilakatzen Irlandako nekazalgo katolikoarentzat, etengabe bere uzten zati bat inoiz joango ez zen kultu batentzat eta bere erlijio propioa

gorrotatzen zuen klero bat mantentzeko erauzia eta saldua ikusten zuenean. Denboraren joanarekin bere atsekabea eta bidegabekeri sentimenduak hain zorrotzak egin ziren ezen matxinada ireki batean amaitu zutela, eta ondorioz, nekazariak Irlanda osoan hamarrenaren bilketari erresistentzia egiten hasi zirela eskura zituzten baliabide guztiak erabiliz.

Klero episkopalak legearen laguntza eskatu zuen, eta poliziak eta ejertzitoak eskoltaturik, nekazari txiroen produktua hartzen zuen eta enkantean saltzeko eramaten zuen; nekazariak, euren aldetik, egunsentiaren aurretik elkartu eta uztak eta abereak bahikuntzak burutuko ziren etxaldeetatik beste lekuren batera eramaten zituen, eta hau ezinezkoa zenean, enkantelariak eta erosleak indarkeriazko ekintzekin izutzen saiatzen ziren, erosketa burutu ez zedin. Bizitza gazte asko itzali ziren galeretan edota usteldu presondegiatako zigor-geletan erlijio gorrotatu bat baioneten mehatxuarekin eskatuarazitako zerga bilketen bidez mantentzeko egindako saiakera honen ondorioz, denborarekin, borrokak gerra zibil baten itxura osoa hartu zuen arte. Hainbat lekutan, ejertzittoa nekazari txiroen batzuen etxaldeen eginiko erasoalditik bueltan zela, herrialdearen luze zabaleko jende herritarrak, puntu batean bildu eta barrikadak jasotzeari ekiten zion, eta indarrez egiten zion aurre tropen igaroari. Herriak borrokaldi horietan izan zuen jeinua eta gaitasunak nahiko esanguratsuki islatzen dituen errealitatea da gehienetan poliziaren eta ejertzitooaren eskueetatik euren uztak eta abereak berreskuratu eta aldi berean Irlandak oraindik ere matxinada armaturako baldintza material guztiak zituela frogatzeko ere erakusten zuten gaitasuna.

Newtonbaryko gatazka batean, hamabi nekazari hil ziren eta hogeitahirri zaurituak izan ziren; beste batean, Carrigshocken, hamaika polizia izan ziren hilak eta hamazazpi larri zaurituak; eta Rathcormackeko borroka handi batean, hamabi nekazari izan ziren hil zirenak, militarren eta polizia armatuaren gorputz handi batek parte hartu zuen borroka batean. Lekukoek aitortutakoaren arabera borroka egin zuten nekazari txiroek eta langileek, tropa erregularrak balira bezala, zurruntasun berberarekin, egin zieten aurre soldaduen tiroei eta kargei, Gobernua milioi bat diskurtsok baino gehiago txunditu zuen gertakaria berau. Krisiaren larritasuna areagotu egin zen kasu gehienetan jasotzen zen uzta kantitate txikiaren eta hau jasotzeko isuri behar zen odolaren arteko

kontrasteagatik. Esaterako, Rathcormacken, sarraskituak izan ziren hamabi nekazariak alargun txiro batek zor zituen hamarrenengatik ordaindu behar zituen berrogei txelinak eskuratzeko bere ondasunak saltzea saihesten saiatzeagatik izan ziren erailak. Erresistentzia honen guztiaren azken-buruko eragina "Hamarrenen Konmutazioaren Legearen" onarpena izan zen, zeinaren bitartez hamarrenen bilketa abolitua eta "Errentaren gaineko Hamarrenaren Karguarengatik" ordezkatua izan zen, honen bidez klero episkopala mantentzeko beharrezko kantitateak errentaren barruan sartzen zirelarik eta tributu horren zati zen heinean aristokrazia lurjabeari ordaintzen zitzaielarik. Beste hitz batzuetan esanda, odoluste ekonomikoak jarraitu egiten zuen, baina zerga bilketaren ezaugarri gorrotagarrienak eta narritagarrienak kentzen zitzaizkion. Ribbondarren eta Whiteboyen elkarteak nekazalgoak borroka honetan izan zituen armarik eraginkorrenak izan ziren eta garaipena hein handi batean euren aktibitateei egotzi behar zaie. Politikariek ez zioten ez laguntzarik ez babesik eman borrokari, eta idazle protestante gazte batzuek osaturiko talde txiki baina distiratsu batek aurrera eramandako Dublingo egunkari txiki batek eginiko defentsaren salbuespenarekin, Irlanda osoko beste egunkari bakar batek ere ez zuen kausa hau defendatu. Klero katolikoari dagokionean, hamarrenen gerra honi ekin zitzaion bitartean ia unibertsaltiki "konspirazio sekretuaren bekatu tamalgarri" honen inguruan isilik mantendu zela esatearekin nahikoa da, orokorrean gaiaren inguruan hain hitzontziak izan ostean. Elkarte sekretuek klero lehiakide baten aurkako euren lana egiten zuten bitartean, apaizgo katolikoak, momentuz, bere salaketa gutxikoa izatea hobe zela onartu zuenik esaten ez gara ausartuko; agian hori ez da azalpena, baina jazo ziren gertakari guztietan kontuan hartu beharrekoa da hamarrenen gerrak garaipena eskuratu zuen bezain pronto, berriro ere mota guztietako ekintza estrakonstituzionalen aurka metaturik zituzten asmakizun zahar haiek guztiak berehala erabiltzen hasi zirela.

Hamarrenen gerra honen garai berean, Batasun Legegilearen Abolizioaren aldeko mugimendua hazi egin zen, Daniel O'Connellak zuzendurik eta klase ertainen zatirik handienak eta ia klero katoliko osoak babesturik. Agitazio honen hasieran, langile klase irlandarrak, hein batean O'Connellen azalpena, merkataritza irlandarraren gainbehera Batasunaren ondorio zela, onartzen

zuelako eta hein batean buruzagi honek monarkia ingelesari zion leialtasuna gezurrezkoa zela uste zuelako eta bere asmoak aboli- zio hutsera ez zirela mugatuko sinesten zuelako, bere mugimen- dua gogo biziz babestu eta bultzatu zuen. Berak, bere aldetik, gremioak bere elkartean txertatu zituen, erregulariki izen eman zuten kide haien eskubide berberekin, sektore askoren artean di- sidentzia esanguratsua eragin zituen prozedura honako hau. Honela, *Irish Monthly Magazine*³⁸ (Dublin), egunkari o'connellista amorratua zena, 1832ko iraileko bere alean, Abolizionisten Bata- sun Nazionalea arriskuan aurkitzen zela azalduz kexatzen zen, "gremioek eta klase operatiboek osaturiko batasun bat" zegoela- ko, "bertako kideak sesioetan bozkatzeko kualifikaturik" zeudel- ako, "eta zentzu guztietan Batasun Nazionaleko kideekiko ber- dintasun perfektuan kokaturik" zeudelako. Eta urte bereko aben- duko alean salaketa berera itzultzzen da, baieztapen esanguratsu bat eginez, honako hau dioena: "Izatez, gaitz larriak ditugu eta onetik oso gutxi sindikatuen aldetik, gaur egun antolaturik dau- den eran". Errege ingelesaren Irlandako ordezkaria, Lord Angle- sey, itxuraz bat zetorren O'Connellen jarraitzaile honen iritziare- kin sindikatu irlandarrek politikan izan zezaketen arriskuaren in- guruan, izan ere, Dublingo erakunde gremialak Abolizioaren aldeko manifestazio erraldoi bat antolatzekotan zeudela, hau az- kartasunez eman baitzuen aditzera eta ejertzitoari beharrezkoa balitz indar armatuaren bitartez zanpatu zezala agindu baitzion. Baina O'Connellen indarra herrialdean zehar handitzen zihoanez eta honek berarengana Irlandako klase kapitalista eta profesiona- la are eta gehiago erakartzen zituenez, eta Ingalaterrako wigh poli- tikarien proiektuentzako are beharrezkoagoa bilakatu zenez eta O'Connellek azken hauek bere arrakastarako beharrezkoagoak zirela kontsideratzen zuenez, antolaturiko langileen alde jokatzeari utzi zion eta gradualki Irlandak sortu duen sindikalismoaren etsairik ankerrena eta batere eskrupulurik ez zuena bihurtuz joan zen, Dublingo gremioei bere erasorik pozoitsuena erreserbatuz.

1835ean, O'Connellek Komunen Ganbarako jesarleku minis- terialean hartu zuen bere eserlekua, Whig gobernuaren jarraitzaile gisa. Garai hartan, Ingalaterrako biztanleri langilea Europako herri guztien artean zapalduena, degradatuena eta bere gizatasu-

38. Irlandako Hilabetekaria.

na ia osotasunean gehien galdu zuena zen. Bere egoeraren kontaketak halako krudelkeria erakusten du bere jaunen aldetik, desjabetuen halako degradapen mingarria islatzen du, ezen legebiltzarreko komisiio ezberdinen aurrean lekukoek buruturiko testigantza hotzengatik frogaturik ez balego, kontaketa bera erabat sinestezi-na litzatekeela. Emakumeek ia biluzik egiten zuten lan ikatz meategietan, soldata triste baten truk, askotan euren lan lekuetako iluntasunaren erdian erdiminek harrapatzen zituztenean izaten zituzten umeak; mutiko eta neskato txikiak ikatzez beteriko bagoneta pisutsuak galerietan zehar herrestan eramateko erabiliak izaten ziren, euren gorputzak inguratzen zituen eta euren hanka txikien artetik igarotzen zen korrea bati lotuta eta tiraka; kotoi fabriketan, zortzi, zazpi eta sei urtetako haur txikiek, bi sexueta-koek, makineria zaintzen zuten, esklabo gisa alkilatuak ziren umezurztegiei, eginkizun horretan hamabi, hamalau eta hamasei ordu ere lan eginez egunero, izurri bat bailitzan heriotzara eramaten zituzten baldintzetan biziz, lo eginez eta lan eginez; eltzegintza lanetan, gozotegietan, arropa fabriketan eta tailerretan, gehiegizko lanak eta osasunarentzako kaltegarriak ziren laneko baldintzek halako oinaze, degradapen eta bizitzaren mozketara eraman zuten ezen langile klasearen existentzia bera arriskuan ipini baitzen. Nekazal barrutietan txiroen paimenak hain beldurgarriak ziren ezen nekazal langile ingelesak —lur osoko pertsonarik lasai eta izukaitzenak eta imajinazio gutxienekoak— matxinadekin, makinak suntsituz eta animalien bazkarako belar metatuak errez egin zuela eztanda. Irlandan Rock kapitaina edota Moonlight kapitaina nekazalgoaren gaueko erreboltek buru izan zituzten jeinu magikoak izan zirela suposatzen zen bezala, Ingalaterran Swing kapitaina, pertsonaia mitikoa besteen gisan, izan zen batzuen erruztapena edota besteen sinesgarritasuna jaso zuena. Nekazal langile ingelesaren artean ibili zen eskuorri batean Swing kapitainari zera esanarazten zaio: “Ez naiz erreketara hauen egilea. Sute hauek azeriei gordelekua emateko euren lurra kenduak izan zaizkien nekazari haiek eragin dituzte, eper bat hartzeagatik bi urtetan zehar kartzelan egon diren nekazariak, eta aza baratza bat edukitzearen hamarren gisa apaizek zuen behi bakarra kendu dioten gizon gizagaixo hark”.

Hain handia zen miseria, hain basatiak legeak eta hain etsiturik zeuden langileak, 1830eko abenduan Winchesterren bildutako

epaitegi berezi baten aurrean hirurehun preso, ez gutxi, epaituak izan zirela, haietako kopuru handi bat heriotzara sententziatuak izan zirelarik. Hauen artean sei izan ziren benetan urkatu zituztenak, hogei biziarterako deportatuak izan ziren eta gainerakoak denboraldi murriztagoetaraino. William Heathen *Via Dolorosa Ingelesa* lanean zera esaten zaigu: “hamalau urteko haur bat heriotzara kondenatua izan zen; eta bi anai, bata hogeia eta bestea hemeretzi urtekoak, gupidarik gabe urkatuak izan ziren Penenden Heathen, bertaraino Scots Greyen erregimentu batek eskoltatu ostean”. Sufrimendu honen guztiaren arduradunei dagokienean, lekuko garaikideek ez dute zalantzarik uzten. *The London Times*ek, egunkari kapitalisten artean kontserbadoreenak, 1830eko abenduaren 27ko alean, hau adierazten zuen: “Klase honetako gizon gupidagarri hauen (langileen) ekintzak goi klaseen eta klase ertainen partetik jaso duten tratua inguruko komentario bat direla baieztatzen dugu. Egungo biztanleriak printzipio liberalenez eta kristauenez hornitu behar du, gorputz eta arimaz, edota bestela langile masak bidelapur legio bilakatzen hasiko dira, horrelako bilakatzerak bultzatu dituzten bidelapur haiek bezain kriminalak izango ez direnak bestalde, azken hauek, ordainsari justu baina beldurgarri baten ondorioz, laster aurrenekoen biktima bilakatuko direlarik”. Eta 1833an, Legebiltzarreko Komisio batek zera informatzen zuen; “Nekazal langileen egoera lazgarria eta miseriazkoa zen; egunez, beren semeek txerriekin egin behar zuten borroka janaria eskuratzeko, eta gaez lasto bustiaren gainean uzkuratzen ziren, lastail ustelezko teilatu batenpean”.

Hiri handietan errebolta egoera bera gailentzen zen, ejertzitua une oro zerbitzuan zegoen eta hainbeste ziren hildako pertsonak ezen funtzionarioek itaunketak egiteari utzi ziotela. Halakoa zen egoera Ingalaterran – miseria eta matxinada azpian eta erreprezio odoltsua gainean, diru gose gupidagabe batek lagundurik – O’Connellrek, Parlamentuko jesarlekua hartuta, bere indar guztia pribilegio kapitalistaren alde eta erreforma sozialaren aurka ipintzen zuen garaian.

1838an, Glasgoweko, Eskoziako, bost kotoi gorulari, zazpi urteko deportaziora kondenatuak izan ziren gremioekin konbinaketan euren klasearen egoera miserablea hobetzeko eginiko ekintzengatik. Zigorra leku guztietan, garaiko izpiritu basatiarentzat ere, gehiegi kotzat joenez, Wakley izeneko jaun batek,

Finsbury ordezkutzen zuen Parlamentuko kideak, urte hartako otsailaren 13an mozio bat aurkeztu zuen Komunen Ganbaran "Glasgoweko kotoi langileen Elkartearen eraketa, praktikak eta eraginak ikertzeko komite berezi" bat osa zedin. O'Connell mozioaren aurka agertu zen eta aukera hura gremio irlandarrei erasotzeko aprobetxatu zuen. Zera esan zuen:

"Ez zegoen Dublingo gremialistek euren lankideen gainean gauzatzen zuten tiraniaren parekorik. Langileen arau batek soldaten batezbesteko maila bat derrigortzen zuen, langilerik hobereak langilerik okerrenak baino gehiago ez jasotzeko moduan. Euren sistemaren beste alderdi batek jaunek langileak hautatzeko orduan zuten botereari askatasun osoa ezabatzea zuen helburu. Langileen izenak liburu batean idatziak ziren eta enpresaria zerrendako lehenengoa hartzera beharturik zegoen".

Bandonen faktoria handi bat itxia izan zela esan zuen soldata handiagoak eskuratzeko bertako gizonak egin zituzten ahaleginak zirela eta, Belfasten bezala, eta "gremioek soldatetan urteko 500.000 liberako kopurua galdarazi zutela kalkulatzen zen. Hiri horretako jostunen gremioak, esate baterako, jantzien salneurria halako muturreraino altxa zuen ezen pertsona batek nahiago zuela Glasgowra joan eta jantzi batengatik egun pare bat itxaron, salneurrien arteko desberdintasuna eta bidaiako gastua ordainduz". Ontzīgintza industriaren desagertzea ere sindikatuen eragin kaltegarriei egotzen zien.

O'Connellen diskurtsoari esker, Whig Gobernuko bere lagunek Komite bat izendatu zuten, ez Glasgoweko kasuak aztertze-ko, gremio irlandarren eta bereziki Dublingoen ekintzak ikertzeko baizik. Komite berezia martxan jarri zen eta frogez betetako bi bolumen bildu zituen, O'Connellek sindikalista irlandarren aurkako testigantzak emango zituzten lekukoen zerrenda bat eskainiz, baina Komitearen txostena ez zen inoiz Komunen Ganbaran aurkeztua izan. Urte bereko, 1838ko ekainean, O'Connelli langile klasearen aurkako bere gogoak asetzeko eta kapitalismo ingelesaren eta irlandarraren interesei zerbitzatzeko aukera berri bat aurkeztu zitzaion, eta ez zuen denborarik alferrik galdu honetaz baliatzeko. 1833an, antolaturik zeuden faktoretako langileen eta izpiritua goreneko filantropo batzuen ahaleginari esker batez ere, bederatzi urte baino gutxiago zituzten adin txikikoek faktoretan, oihal fabriketan salbu, lan egitea debekatu eta hamahiru urte baino

gutxiagoko adin txikikoak asteko 48 ordu baino gehiago edota eguneko bederatzi ordu baino gehiago lanean aritzea galarazten zuen lege bat jarri zen indarrean. Aipaturiko adinek jabeen klasearen diru gosea asetzeko zenbat haur odol sakrifikatu zenaren ideiarenekin bat emango diote irakurleari. Hala ere, lege izatez moderatu hau ankerki gorrotatzen zuten Ingalaterrako kapitalista sutsuek, eta bururatu ahal izan zitzaizkien baliabide guztiak erabiliz saiatu ziren honi buelta ematen. Hain etengabeki eta eragin-korki egin zioten ihes arau gupidatsu hauen betekizunari ezen, ekainaren 23an faktorieta langileen lagun famatua zen Ashley Lordak, Komunaren Ordenaren Eguneko Ordenaren emendakin gisa “Faktorieta lana modu eraginkorrago batean erregulatzeke Lege Proiektuaren” bigarren irakurraldi bat egitea aurkeztu zuela, honen helburua 1833ko legearen beste edozein lege-hauste saihestea eta zigortzea zelarik. O’Connell aurka agertu zitzaion aipamen horri eta enpresarienekin burutu zen lege transgresioa justifikatzen saiatu zen “haiek (Parlamentuak) gauzen naturaren kontrako eta industria eskubidearen aurkako legeak egin zituztela” baieztatuz. “Ez zaitez tala” esan zuen “helduen lana erregulatzearen zentzugabekeria umekoia errudunak izan eta ez dezazuela zuen gizatasun irri-garria munduaren aurrean irri-garriro paseatu, zuen manufakturalariak eskale bihurtzen amaituko bailuke horrek”. Helduen lanaren erregulazioaren inguruko esaldi hau, haurren enplegua saihesteak helduen lana ere oztopatuko zuela azaltzen zuen kapitalistek eginiko defentsatik hartua izan zen. Ingeles inuzenteak! O’Connell ez zuen artifizio honetan sinesten, aurreko kasuan, soldata minimo baten ezarpenak bereziki kualifikatutako edozein artisauri soldata handiago bat ordaintzea saihestuko zuenaren uste faltsuan sinesten ez zuen bezala.

Klase langileen eskaerekiko hartu beharreko jarreraren inguruko auzi honetan, O’Connell erradikalki bereizten zen bere ordezkari gaituenetako bat zen Fergus O’Connorrengandik. Azken hau, Parlamenturako Abolizionista gisa hautatua izan zenez, harrituta gelditu zen Ingalaterrako egiazko herriaren egoera miserablearen aurrean, Irlanda hauen intereserako gobernatzeko zela suposatzen baitzen, eta gai honen inguruko ikerketak egin ostean, Irlandako zapalkuntzaren oinarria ekonomikoa zela, Ingalaterrako klase langilea zapaltzen zuen klasea Irlandakoa zapaltzen

zuen berbera zela eta menperatze horren kausak Irlanda pobreziara eta hondamenera eraman zuten kausa berberak zirela ondorioztatu zuen; beraz, bi herrialdeen arazoaren konponbidea euren zapaltzaileen aurkako bataila komun bat burutuko zuen demokrazien batasun baten bidetik etorriko zenaren konklusiora iritsi zen. Zinez ahalegindu zen O'Connelli ikuspuntu hau buruan sartzan, baina azken honengan klase sentimendua askatasun nazional irlandarraren desira baino indartsuagoa zela eta O'Connellek Ingalaterrako jabeen klasea Irlandako langile klasea baino odolki-deagoa kontsideratzen zuela ikustera bakarrik iritsi zen. Hau frogaturik gelditu zen lehen aipaturiko kasuetan erakutsi zuen portaeragatik. O'Connellen eta O'Connorren arteko iritzi desadostasun honek Irlanda itxi zion azkenari eta kartistei eman zien; euren buruzagi ausartena eta konfiantzazkoena izango zen.

Hil zenean, 50.000 behartsu baino gehiagok desfilatu zuten bere gorpuzkia azken atsedeneko lekura eraman zuen hileta prozesioan. Britainia Handiko borrokalari irlandarren zerrenda luze horretako lehenengoetarikoa izan zen, bere sakrifizio eskuzabalek langile mugimendu "ingelesean" konstantzia utzi zutelarik. Jabeen klase eta klase zapaltzaileek O'Connellek demokraziaren aurka eskaini zizkien zerbitzuen balioa ongi ezagutzen zutela eta eskertzen ziotela Richard Lalor Shielen ekinbideak erakutsi zuen, Estatuaren epaiketa famatuetan defendatu zuenean O'Connellentzat Epaitegiaren kontsiderazioa eskatu zuenean Irlandako herriaren eta Ingalaterrako herriaren artean mantendu zela argudiatuz, eta ondorioz, "modu honetan, eratu zitekeen edozein administrazio suntsitzeko gai izatera irits zitekeen batasun bat sortzea saihestuz". Baina O'Connell eta klase ertaineko abolizionistak demokraziaren nazioarteko edozein ekintza saihesteko nahian ziren bezain tematiak ziren langile klase irlandarreko ki-deak huraxe bera burutzeko zuten desiran. Elkarte Kartista Irlandarrak irla osoan zehar sortu ziren, eta John Mitchellen *United Irishmanen*³⁹, 1848an, idazle batek berri ematen zuenaren arabera, Dublinen hain indartsu eta o'connellismoarekiko halako etsaitasunez sortu ziren ezen momentu batean Askatzailearen eta Dublingo gremioen ordezkari baten arteko eztabaida publiko bat antolatzeko negoziazioak ere izan omen zirela. Baina O'Connellen

39. Irlandar Batuak.

atxiloketaren eta kartzelaratzearen ostean, esaten du idazleak jarraian, langile klaseak bere erakunde independenteak alde batera uztea erabaki zuen, Gobernuaren aurrean fronte komun bat aurkeztearen ideiarekin, gerora atsekabez oroituko zuen neurria izango zena. Gutun honi, John Mitchellek, zuzendari gisa, ohar bat gehitzen zion bere irakurleei O'Connellen historial anti-langileak gogoraraziz eta bere gidaritzaren arbuiazteko arrazoi bat gehiagoko bezala azalduz. Bestalde, benetan bitxia da Mitchellek bere *Irlandaren historian* O'Connellen karreraren aurpegi lotsagarri honi buruzko erreferentzia oro alde batera utzi izana, gainerako "historialari" irlandar guztiek egiten duten bezala. Isiltzen denak baieztatu egiten badu, gure historiaren (?) eskribau guztiek historiako gertakarien isiltze hau onartu dute beraz, klase langileen itsutze-ari eta morrontzaren iraupenari laguntzarren.

XIII. KAPITULUA

Gure girondino irlandarrek nekazalgo irlandarra sakrifikatzen dute jabego pribatuaren aldarearen gainean

Bada iraultzaileen klase bat, girondino deiturikoena, beren patu historikoa nahiko esanguratsua delarik. Matxinatzen eta klase xeheak matxinatzera bultzatzen dituzten gizonak formula hutsak baino zerbait gehiago eduki beharko lukete. Milioika pertsonari eragiten dien lanaren miserian miseria ikusi beharrean, norberaren teoria hutsalen eta ezkutuko berekoikerien mesedetan elkartrukean aritzeko landu daitekeen lehengai bat bakarrik ikusten duten gizonak, milioika izaki bizidun, bihotz taupariez beteriko bularrak – euren taupadekin, pairamenekin eta itxaropenekin – dituztenak, “masa” gisa bakarrik ikusten dituztenak, Bastillak eraisteko, tribuna publikoetan “gure” alde bozkatzeko masa eztaugarri huts gisa ikusten dituztenak, halako gizonak, zalantzazko espezieetako kide dira.

Thomas Carlyle

Gosearen eztaugarri, 1845ean eskala txikian hasi zenak eta bai eremu bai intentsitatez 1849rarte hazi zenak, klase antagonismoak mutur jakin bateraino eraman zituen Irlandan, gremioekiko haustura horren isletako bat izan zelarik, eta berriro ere jabegoaren auzia gizon publikoen jokabidea, hauek iraultzaren arropak janzten badituzte ere, neurtzen duen proba esparru gisa finkatuz. Esan beharrik ez dago guk ez dugula garai beldurgarri haren historiaren inguruan idazle irlandar edota ingeles ortodoxoek ematen duten interpretazioa ematen. Larru guztietako nazionalista irlandarrek eta mota guztietako kritikari ingelesek adostasun zoragarri batean bat egiten dute Elkarte Abolizionistan gertatu zen zati-ketaren kausa, eszisionisten aldetik Konfederazio Irlandar gisa

ezagutuko zen erakundearen sorkuntza ekarriko zuena, indarkeria helburu politikoak eskuratzeko erabili daitekeenaren edo ez daitekeenaren auzi akademikoari egozterako orduan. Esaten digutenez, Elkarte Abolizionistako kide gehienek O'Connellrek enuntziatutako printzipioa, "lurreko bedeinkapen handienek ez lukete beraiengatik giza odol tanta bat bera ere isurtzerik merezi behar" dioena, bereganatu zuten eta John Mitchellek, Aita Meahnek, Gavan Duffyk, Thomas Francis Meagherrek, Devin Reillyk, William Smith O'Brienek, Fintan Lalorrek eta beste batzuek doktrina hau gaitzetsi egin zuten, O'Connelllek bereizketa desadostasun puntu soilki teoriko honengatik gertatu zelarik. Irlandar kopuru esanguratsu batek inoiz halako doktrinarik mantendu izan duela sinestea oso zaila da; egia da klero irlandar katolikoak, O'Connellen ordezkari garrantzitsuenak, Hamarrenen Gerran zehar ez zuela inoiz halako doktrinarik ez mantendu ez aholkatu. O'Connellrek berak adierazi zuenez, gogo onez gehituko zitzaiokeen Ingalaterrari "arrano amerikarra bere hegaldiaren harrotasun gorenean eraisten" laguntzeko, eta horrek ziurrenik gerra bat ekarriko zukeen berarekin, eta behin, Komunen Ganberan, irlandarra "odolez, hizkuntzaz eta erlijioz atzeritarra" zela azaldu zuen Lord Lyndhursti erantzunez, Richard Lalor Shielek, o'connellismoaren gerlari nagusiak, soldadu irlandarrek ejertzito ingelesean buruturiko balentriak goraiapatzen zituen hitzaldi bikain bat ahoskatu zuen. Bide batez Shielek Lord Lyndhursten esana iraintzat hartu zuela ikus dezakegu; bestalde, irlandar nazionalista modernoek, esaldi horretan biltzen den ideia nazionalismo irlandarraren egiazko oinarri bezala defendatzen dute arranditsuki.

Bestalde, sezesionistak, Irlandar Gazteak deitzen zitzaaien haiek, ez zeuden indarkeria fisikoaren alde, hegaldi poetiko eta oratorioen gai gisa ez bazen behintzat. Errealitatean bereizketa puntu faltsu baten inguruan gertatu zen; bi alderdietako kide gehienek, aitortuko ez bazuten ere, modu diziplinatu batean onartzen zuten elkar bereizten zituen egiazko auzia. Auzi hau gizartearen printzipio demokratikoa printzipio aristokratikoarekin aurkaritzen zuen auzi zaharra zen. Irlandar Gazte gartsu haiek garai hartan europar gizartea astintzen zuen printzipio demokratikoaren oldarraldia sentitu zuten; errealitatean, Irlanda Gaztearen izena bera Mazzini iraultzaile italiarrak 1831. urtearen ostean sortu zituen Italia Gaztearentzat, Suitza Gaztearentzat, Frantzia Gaztearentzat

eta Alemania Gaztearentzat erabilitako izenen egokitzapen bat zen. Eta kontinenteko mugimendu iraultzailearen garapena, masa iraultzaileen artean gertatzen ari zen ideia sozialisten zabaltzearekin lagunduta, goseak eragindako gizarte sistema irlandararren gainbeherarekin sinkronizaturik zihoanez, Irlanda Gaztea alderdiko buruzagiek gertakarien bilakabide iraultzailearen arabera ekiten zuten eta mugitzen ziren, itsasoratu nahi zuten ontzi hura zein korronte sakon eta indartsuaren gainean mugitzen zen ulertzeko gai ere izan gabe. Iraultza haren eguna, berari buruz hainbeste hitz egin eta gero, azkenean iritsi zenean beraien jokatubidea nolakoa izan zen aztertzen duen ororentzat begi-bistakoa da egia hau. Garai hartan, 1848an, Irlanda bere historiako gosetarik handienaren agonian aurkitzen zen.

Ongi etorriko da gure irakurle batzuentzat egoera hura hitz gutxi batzuetan azaltzea. Nekazalgo irlandararren elikaduraren produktu nagusia patata zen; gainerako nekazal produktu guztiak, zerealak eta abereak, lurjabeari errenta ordaintzeko saltzen ziren. Patataren urteko uztaren balio arrunta gutxi gora behera hogei milioi liberakoa zen diru ingelesean; 1848an, gosetearen erdian, nekazal produktuen balioa 44.958.120 liberakoa izan zen Irlandan. Urte hartan patataren uzta osoa porrot hutsa izan zen eta gosetea gertakari honi egotzi ohi zaio lasaitasun osoz, aurreko zifrek biztanleriaren bikoitzari ere jaten emateko adina elikagai bazegoela erabat frogatzen duten bitartean, beti ere gizarte kapitalistaren legeak baliogabetuta eta giza eskubideak merezi zuten mailaraino jasota egon izan balira. Nazionalista irlandarren artean ohikoa den esaera batek hala dio: “zoriak patataren gorrina ekarri zuen, baina Ingalaterrak sortu zuen gosea”. Baieztapen hau egia da eta emendakina honako hau gehitzeko bakarrik behar du: “Ingalaterrak sortu zuen gosea, gizarte kapitalistaren oinarrian topatzen diren printzipio ekonomikoen aplikazio zorrotzaren bitartez”. Gizarte kapitalista eta bere legeak onartzen dituen inork ezin ditu, logikoki, estatu gizon ingelesak garai beldurgarri honetan burutu zituzten ekintzengatik errudun kontsideratu. Jabegoaren eskubideak eta lehia askea defendatu zituzten eta hauek Irlandan izan zituzten ondorioak filosofikoki onartu zituzten; herri irlandararren buruzagiek jabegoaren eskubideak ere defendatzen zituzten eta hauek errefusatzeari uko egin zioten, milioi bat behartsu baino gehiagoren goseagatiko heriotzan defentsa

horren ondorioak ikusi eta gero ere. Patataren uztaren lehen porrota 1845ean jazo zen, eta urte hartako irailaren eta abenduaren artean gosearen erruz hildako 515 pertsona erregistratu ziren, 3.250.000 arroa behi haragi eta abere kopuru kontaezinak esportatuak izan baziren ere. Orduetik 1850erarte gosea hedatu egin zen eta elikagai esportazioek jarraitu egin zuten. 1848an 300.000 pertsona gosez hil zirela eta 1.826.132 arroa behi haragi eta garagar esportatu zirela estimatu zen. Sukar tifoideak, beti gosearen orpoen jarraian ibiltzen denak, goseagatik hil ziren haien antzeko kopuru bat eraitsi zuen zuzenean, azkenean, barruti askotan, hil zirenentzat hobi independenteak egiteko behar adina indar zuten behar adina langile eskuratzea ere ezinezko bilakatuz. Honen aurrean hartu zen neurria gosearen hobi komunak egitea izan zen, hauetan gorpuk bereizketarik gabe jaurtitzen zirelarik; familia osoak euren txabola errukarrietan hil ziren eta bertan etzanda usteltzen ziren, eta herrialdearen puntu urrunenetaraino bidaiatzen zuten haiek beraien biztanleri osoa gosez hilda topatzen zen herriekin egiten zuten tupust askotan. 1847an, “47 beltzean”, 250.000 pertsona hil ziren sukarragatik; 21.770 elikadura faltagatik. Emigratio agenteen ahaleginei eta urte hartan bertan atzerritik senideen aldetik jasotako diru bidalketei esker, 89.783 pertsona Kanada aldera itsasoratu ziren. Gosetik ari ziren ihes egiten, baina goseari hurbiltzen zaion sukarrari ezin zioten aurrea hartu, eta 6.100 hil ziren eta kareletik itsasora jaurtiak izan bidaiari zehar, 4.100 hil ziren Kanadara iritsi orduko, ospitaleetan 5.200 hil ziren eta barnealdeko herrietan 1.900.

Britainia Handia Amerika baino gertuago zegoen, eta azken honetara ihes egiteko aukerarik izan ez zuten asko lehenengoaren hondartza babesgabeetara jaurtiak izan ziren; ihesaren azkartasun maila itsasontzi konpainien menpe zegoen eta hauek bran kan bidaiatzen zuten haien guztien tarifak salneurri ia ordainezinetaraino igo zituzten. Ingalaterra aldera eginiko ihesaldi honetan historia osoko izugarrikeriarik beldurgarrienetariko bat gertatu zen, gure iritziz, bere lazgarrikeria kantitate itzelagatik Kalkutako Zulo Beltzeko tragedia⁴⁰ ere gainditzen duena. 1848ko

40. Kalkutako zulo beltza Bengalako Nawabak William Gotorlekuan gerra preso ingelesak giltzaperatzeko erabiltzen zuen kalabozoa zen Kalkutan, behin gotorleku hau ingelesei 1756an kendu ostean. Preso kantitate izugarri

abenduaren 2an, baparezko buke bat Sligotik abiatu zen brankan 200 bidaiari zituela Liverpoolera bidean. Ipar-mendebaldeko kosta hotz horretan igaroaldi hori ekaiztsua da beti eta erauntsiak bat-batekoak eta gupidagabeak dira. Halako ekaitz bat lehertu zen gaeuz, eta bidaiari kantitate ezohiko hura kubiertan pilaturik zegoenez, tripulazioak, bortizki eta zeremoniarik gabe, kubiertatik jaitsarazi zituen eta eskotilen ezkoztatuetako listoiak ipini zituen berriro ere igo ez zitezen. Eguraldia ona denean, halako kostako ontzi baten branka, gizakirik ez daramanean ere, kirasduna, itogarria eta jasanezina da; imajinazioa bera zalantzan jartzen da gau lazgarri hura nolakoa izan zen ulertzeko saiakera egiten dugun orduko. Laztura are gehiago puztuz, etsituenak eskotilari kolpeka hasi zirenean eta handik irteten uzteko eskatu zutenean, itsasontziaren kapitainordeak, eromenaren paroxismoan, egur oholen arteko irekiuneak alkitranez estaltzeko agindu zuen, oihuak isiltzeko. Oihuak isildu zituen, airea eta argia ere kendu zituen, eta infernu hartan, 200 gizasemek airea aurkitzearen bila borrokatu eta azken arnasak ere eman zituzten, kanpoan elementuek euren batailan jarraitzen zuten bitartean eta ontziaren oskol ahu- la uren gainazalean astindua zen bitartean. Azkenean, besteak baino indartsuagoa zen batek bidea irekitzea lortu zuenean eta kubiertara iristea eskuratuta, ontziko ofizialei aurre egin zien, egin berri zuten basakeria hark hiltzaile bilakatu zituela aurpegi- ratuz eta heriotza itsusia bidaiarien artean segan ari zenaren berri emanez. Egia hau handiegia zen. Kubiertapean giltzaperatuta- ko 200 bidaiarietatik 72, bidaiatzen zutenen herena baino gehia- go, hilda zeuden, airearen beharrak itota edota iluntasunean gertatutako etsipenezko borroka itsuan elkar hilik. Hauxe da *Londonderry* bukearen bidaia horren kontakizuna, ziurrenik edozein herri zuriren urteetako itsas kontakizunik izugarriena!

Bien bitartean, testuinguru honetan, Konfederazio Irlandarra matxinadaren zilegitasun morala predikatzen eta herri goseti bati, bere buruan irlandera bakarrik zuen bati, ingeleraz, Herbeheretako, Belgikako, Poloniako eta Tiroleko adibide historikoei buruz doktoki eztabaidatzen aritu zen. Zenbait gizonak, bereziki

bat egoera tamalgarriko zigor-geletan pilatua izan zenez, Holwellen kontakizun famatuaren arabera, 146 presotatik 123 inguru itota, beroagatik eta elkar zapalduta hil ziren.

John Mitchellek, James Fintan Lalorrek eta Thomas Devin Reillyk, euren ohorerako esan dezagun, modu irekian defendatu zuten, herriaren lehen eginbehar gisa, errenten ordainketari uko egitea, uztak euren familiak elikatzeko jasotzea, zubiak suntsitzea eta trenbidearen errailak altxatzea, elikagaiak herrialdetik eramana izan ez zitezen. Gazte Irlandarrek aholku hau erakunde gisa jarraitu izan balute, herriak osotasunean gogo biziz babestuko zituzkeen, gertakarien bilakaerak erakutsiko zuen bezala, eta kasu hartan Ingalaterran boterean zen indar bakar batek ere ezin izango zituzkeen lurjabeak salbatu, ezta Irlandako Inperio Britainiarrak bera ere. Fintan Lalorrek, garai hartako Irlandako intelekturik sarkorrenak, azaltzen zuenez, ejertzito ingelesarekin zelai beteko batailarik gertatzea saihestu behar zen eta hura printzipioei buruzko borroka batera bultzatu, haien diziplina, prestaketa eta metodoak laguntza bat baino gehiago oztupo bilakatuko zituen kanpaina plan bat sustatuz, masa matxinatuen aldetik mobilizaziorik, berauek batailoietan entrenatzerik edota zientzia militarren inguruko jakintza teknikorik beharko ez zuena. Laburbilduz, iraultza sozial eta nazional bat ondorioztatzen zen honetatik, batak besteari lagunduko ziolarik. Baina hau defendatzen zuten gizonak gutxiengo etsitu bat ziren eta Gazte Irlandarren buruzagiak Gobernu ingeleseko buruzagiak bezain arduratsuak ziren lurjabeen eskubideen inguruan. Herria hiltzen zen bitartean, Gazte Irlandarrak berrikerian ari ziren eta euren solasa oso ederra zen, erabat gramatikala, edukazio fin osokoa eta une psikologiko apropos bakoitzean behar adina pasio sartzen zuena. Baina, hala ere, herria hiltzen ari zen. Azkenean, Gobernuaren benetan arriskutsua zen gizonaz jabetu zen — bidegabekeriaren aurkako gorroto hura nola edo hala suntsitu nahi izateraino sustraiturik zuen gizonaz, masengan zuen fedea hauen jatorrizko bulkaden eztanda iraultzaile batean konfiantza izateraino iristen zitzaion gizonaz, eta pentsamendua ekintzarekin konbinatzeko gaitasuna zuen hartaz: John Mitchelletaz. Bere atxiloketarekin, herriak, eta baita Gobernuak eta Mitchell berak ere, berehalako iraultza bat espero zuten. Baina itxaropen honek huts egin zien guztiei. John Mitchell Van Diemengo (Tasmania) kartzela batera bidalia izan zen lan behartuak egitera, Thomas Meagherrek eta beste batzuk bere zigorgelan aurkeztu zioten manifestu bat sinatzeari mespretxuz uko egin ostean, testu honek herriari bera

erreskatatzen ez saiatzeko aholkatzen baitzion. Dublingo eta hiri gehienetako langile klaseak altxamendurako seinalea eman zeza-tela eskatzen zien bere buruzagiei; herrialdeko leku askotan nekazariak euren kasa ekin zuten. Azkenean, 1848ko uztailean, Irlanda Gaztea alderdiko buruzagiak atxilotzeko aginduak argitara eman zirenaren berri Dublinen jakin zenean, herrialdeari deialdi bat zuzentzea erabaki zuten. Baina dena modu “errespeta garri” batean egin behar zen; ejertzito ingelesa alde batetik, suzko armekin, musika bandekin eta banderekin; ejertzito irlandarra bestetik, hau ere bere suzko armekin, musika bandekin eta banderekin, “altzairu distiratsuzko lerro estuetan”, matxinada proletario-rik ez, ezta jabego eskubideen gaineko interferentziarik ere.

C. G. Duffy uztailaren 9an, larunbata, Dublinen atxilotu zute-
nean, langile irlandarrek Newgateko presondegira bidean zihuan
eskolta militarra inguratu zuten, zalgurdia geldiarazi eta Duffy
presionatu zuten, han eta une hartan bertan matxinadarako deia
egin zezala proposatuz. “Erreskatatua izan nahi duzu?”, galdetu
zion buruzagietako batek, “Ez inondik ere”, erantzun zion Duffyk.
Eta langileek, euren harriduran, atzera bueltan itzuli behar izan
zuten eta etorkizunean Australiako lehen ministroa izango zena-
ri presondegira joaten utzi zioten. Cashelen, Tipperaryn, Michael
Doheny atxilotua izan zen. Herriak presodengia asaltoan hartu
eta Doheny askatu zuen. Itzulia izan zedila eskatu zuen temati
eta finantzapeko askatasuna eskatu zuen. Waterforden Meagher
atxilotu zuten. Hirian barrena, tropek zaindurik, zeramata, he-
rriak barrikada bat eraiki zuen bidean, Suir ibaiaren gaineko zubi
estu baten alderik alde, eta zalgurdia zubira iritsi zenean zenbai-
tzuk zaldien loturak moztu zituzten eta zaldiak muinoxka batera
eraman zituzten. Meagherrek orduan barrikada hura ken zeza-
tela agindu zien; haiek matxinadari ekiteko seinalea eman zeza-
la eskatu zioten eta han eta momentu hartan hasiko zutela hura.
Hiri garrantzitsu hura beraien eskuetan zuten, baina Meagher
soldaduekin joatearekin tematu zen eta Waterfordeko langile
klaseko errebolitari gizagaixoek joaten utzi zioten, honakoa oi-
hukatzuz: “damutuko zara, damutuko zara, eta zure errua beste-
rik ez da izango”. Meagherrek geroago ejertzito erregular bate-
ko soldadu ausart izatea erakutsi zuen, baina errebolitari izateko
beharrezkoa zenarekin alderatuta inizatiba gutxiegi zuela era-
kutsi zuen.

Baina guztien artetik zentzugabekeriarik handiena William Smith O'Brienen buruzagitza izan zen. Herrialde osoan zehar hara eta hona ibili zen nekazalگوsetiari prestatu zedila esanez, baina hainbeste denboran zehar lurrik gabe utzi, gosez hilarazi eta etxeetatik bota zituzten nekazari haiei lurjabe haien kontura elikatzeko baimenik eman gabe; bere jarraitzaileei ez zien elikagai faltagatik hiltzen ari ziren herrien ondoko bideetatik igarozten ziren zereal alez betetako gurdietaz jabetzen uzten; Mulinahonen uko egin zion bere jarraitzaileei bide baten zabalean barrikada bat eraikitzeکو zuhaitzak eraistearen baimena emateari, zuhaitzen jabe ziren lurjabeei baimena eskatu arte behintzat; Killenauleko herriak dragoien gorputz bat bi barrikaden artean harrapaturik zuela, dragoiak egoera arriskutsu hartatik askarazi zituen, haien buruzagiak bera, O'Brien, atxilotzeko agindurik ez zeramala bermatu ostean; beste leku batean soldadu talde bat udaletxean topatu zuen, armak, hauek garbitzeko xedez, alde batera bazterturik zituztela, eta berauek konfiskatu beharrean haien armak Dublingo Gazteluan bezain seguru zeudela esan zien.

Garai hartako Irlandaren egoera, hau da, biztanleria gosez hiltzen ari zela, gogoratzen dugunean, aurreko kontakizun osoa opera komiko baten orri gisa irakurtzen da. Tamalez ez da opera bat; Irlandaren historiako garairik beltzenaren orri bat da. Hau irakurriz uler dezakegu zergatik Smith O'Brienek Dublinen monumentu bat duen, Fintan Lalorren izena eta idatziak berrogeita hamar urte baino gehiagotan zehar boikotatuak izan badira ere. W.A. O'Connor lizentziatuak bere *Herri irlandarraren historia* liburuan honela laburbiltzen du Smith O'Brienen karrera: "Gizon honek, gerraren kausagatik, erakunde baketsu bat disolbatu zuen, baldintza estuetan aurkitzen zen herri bati gerra promestu zion, landara joan zen hau piztera eta gero edozein gerra ekintza burutzea bekatu iruditu zitzaion". Onartu beharra dugu, noski, Smith O'Brien prestutasun moral handiko gizon bat izan zela, baina aldi berean beharrezkoa da bere klasearen interesekiko benetan arduratsua zen lurjabe bat ere izan zela eta eskubide horien zaintza arraza irlandarreko milioika pertsonen eta hauen bizi eta askatasun itxaropenen artean ipintzea baimendu zuela gogoraztea. Hala ere, krisi latz hartan izan zuen jokabidea leuntzeko, gogorarazi behar da, bestalde, bere arbasoen aspotasia sozial, nazional eta erlijiosoaren emaitza gisa etxalde zabalak oinordetzan

jaso zituela, eta halako leinua ikusita, are harrigarriagoa dela matxinadarekin amets egin izana, hasiera hasieratik iraultza mesprexatu beharrean.

Egun haietan Irlandan printzipio sozialistak aplikatu izan baira, pertsona bakar batek ere ez zukeen gosez hil beharrik izango eta izen irlandarra zikinduko zuen karitatezko zentabo bakar bat bera ere harpidetu beharrik ez zen izango. Baina denek, gizon gutxi batzuek ez ezik, miretsia izan behar zuen fetitxe baten mailara jasota zuten lurraren jabegoa eta ekonomia politiko kapitalista, eta fetitxe horren aldarearen gainean hil zen Irlanda. Kontaketa baxuenen arabera, 1.225.000 pertsona hil ziren erabateko gosez; hauek denak pentsamendu kapitalistaren aldarearen gainean sakrifikatuak izan ziren.

Gosearen lehen uneetan, Lehen Ministro ingelesak, John Russel Lordak, merkataritzaren bilakabide erregularrean enpresa pribatua kaltetuko zuen ezer ez zela egin behar adierazi zuen, eta hau izan zen Gobernuak finkatutako politika, hasieratik amaieraraino. Altxorraren 1846ko abuztuaren 31ko "Akta" batek "Longforden, Banagherren, Limericken, Galwayen, Waterforden eta Sligon elikagaiak saltzeko biltegiak ezartzea, eta mendebaldeko kostako beste leku batzuetan menpeko biltegiak ipintzea" erabakitzen zuen, baina arauen arabera, saltzaile pribatuek elikagaien horniketa mantendu zezaketen leku haietan biltegiak ezin ziren ireki. Benefizentzia lanak ezartzen zituzten lege guztiek finkatzen zutenaren arabera, lan horietan erabili beharreko lan esku guztiak erabat ez-produktiboa izan behar zuen, kapitalistek, orduan edo etorkizunean, irabazia atera ahal izatea ez saihesteko. Saltzaile pribatuek 40.000 eta 80.000 libera arteko dirutzak egin zituzten. 1845ean Benefizentziako Departamentu Komisario bat antolatu zen arto indiarra Irlandan saltzera ekartzeko, baina ez zen ezer saldu biltegi pribatuek euren izakin guztiak amaitu zituzten arte; Massachusettseko estatuak gerraontzi amerikar bat, "Jamestown" deiturikoa, alokatu, alez bete eta Irlandara bidali zuen; Gobernuak karga hura biltegiratu egin zuen, hau merkatuan jartzeak merkataritzan gatazkak sortuko zituela argudiatuz. Txiroaren Laguntzarako Lege Proiektu batek, 1847an, lan eskua lan publikoetan erabiltzea xedatzen zuen, baina akre laurden bat baino lur gehiago zuen inor lan horietarako ez zela enplegatuko finkatzen zuen; honek hamarnaka mila nekazari euren etxaldeak

entregatzera bultzatu zituen jateko zerbait eskuratzeko asmoz eta lurjabeak kaleratzeak egiteko arazo eta gastu guztietatik salbatu zituen. Hau maila esanguratsu bateraino iritsirik zela, 734.000 pertsona ziren jada landu zituzten lurretatik boteak izan zirenak, eta euren etxaldeak obretan lana eskuratzeko baztertu zituztenez, ozeanoaren erdian dagoen baltsa batean topatzen den pertsona multzo bat bezain babesgabe geratu ziren. Mulhall jaunak, bere *Aurrerabide nazionaleko berrogeita hamar urte* lanean, lurretatik kaleratutako pertsonen kopurua, 1838 eta 1888 urteen bitartean, 3.668.000 inguruan estimatzen du; gehiengoak euren etxeak nola suntsituak ziren ikusi zuen aipaturiko urteen artean, eta Txiroen Laguntzarako Legea, *Kaleratzeak errazteko legearen* ezizena jaso zuena, hondamendi haren arma nagusia izan zen. 1846an Ingalaterrak, orduraino herrialde protekzionista bat izan zenak, merkataritza askea ezarri zuen, antza denez irlandar gosetientzat artoa aske eta merke sartzea baimentzeko helburuz. Errealitatean, Irlanda artoa eta zereala esportatzen zuen herrialde bat zenez, neurri honek nekazal produktu kontinentalak Ingalaterrara ekarri eta Irlandakoekin lehian ezarri zituen, eta ondorioz, nekazal prezioak are eta gehiago jaitsarazi zituztenez, klase ekoizle irlandarren miseria areagotu egin zuen. Neurri honen egiazko esanahia zera zen, Ingalaterrak, manufaktura-nazio bat izanik, elikagaiak merkatu nahi zituela, bere soldatapeko esklaboak soldata baxuekin pozik gera zitezen, eta merkataritza askeak Irlandan errealitatean izan zuen berehalako emaitzetako bat manufakturetako proletalagoaren soldaten eskala handiko murrizpen izugarri bat izan zen.

Klase kapitalista ingelesak, bere erakustaldi publikoetan erakutsi ohi duen hipokresia horrekin, klase lurjabe ingelesak zerealen merkataritza askeari egiten zion oposizioa garaitzeko argudio bezala Irlandako miseria erabili zuen, baina honetan, gosete urte haietako beste edozein neurri hartzerakoan bezala, ekonomia politiko kapitalistaren lerroekiko kontsekuentzia osoz jardun zuen. Gizarte sistema horren eta bere teorien mugen barnean, ekintza horiek onartezinak eta arbuiagarriak dira; sistema hori eta inposatzen dituen kate intelektual eta moral horiek alde batera uzten ditugunean bakarrik eskuratzen dugu Irlandako administrazio ingelesak gosetearen garaian egindako haiek giza arrazaren aurka eginiko krimen kolosal bezala salatzen eskubidea. Administrazio horren aurka sumintzen diren gizon eta emakume

irlandar ez sozialistak, efektu bat bere kausa defendatuz salatzen duenaren posizio ideologikoan aurkitzen dira. Kausa hori jabego kapitalistaren sistema zen. Aurretik aipaturiko gizon apur horien salbuespenarekin, 1848ko Irlanda Gazteko buruzagiek ez zuten gaitasunik izan euren nazionalitatearen oinarri gisa giza eskubideak edota jabego eskubideak hautatzea erabaki beharraren aukera izugarria eskaini zitzaizenean gertakarien mailan egoteko, eta haien porrotaren neurria euren herrialdearen hondamenaren neurria izan zen.

XIV. Kapitula

Gazte Irlandarren irakaspén sozialista; pentsalariak eta langileak

*Zer egiten duzu gure atean,
gure jaunaren garautegiak txiroaren esku argalengandik
zaintzen dituzu.*

Lady Wilde (Itxaropena)

*Justiziaren Jainkoa, egin nuén oiñu, bidali zure izpiritua
hain jaun krudel eta harroen gainera.
Bigundu haien bihotzak eta erlaxatu euren kopeta,
edo bestela egin oiñu ahots ozenez,
emaiozu indarra nekazariaren eskuari
haiek lurretatik urrun bota ditzan.*

Thomas Davis

Irlanda Gaztearen buruzagiek, iraultzaren inguruan halako go-go-z deklamatu zutenek, azkenean hau beraien aurrean aurkeztu zenean berai onartzeko gaitasunik ez zutela inondik inora izan azpimarratu dugu. Bide batez esan behar dugu Dohenyk hitz hauxe bera erabiltzen duela Casheleko eszenak deskribatzerako orduan. "Iraultza zen", esan zuen, "onartu izan bagenu". Beste idazle batek, Lissagarayk, Frantziako antzeko buruzagi batzuk deskribatzerakoan erabili zituen hitzak justizia osoarekin aplikatu diezazkiekegu gizon disdiratsu baina zoritxarreko haiei, eta honakoa hau esan, "bizitza osoan zehar Iraultzaren loria kantatu ostean, hau beraien aurrean altxatu zenean beldurturik ihes egin" zutela, "arrantzale arabiarrek jeinua agertu zitzaionean bezala". Historialari arruntarentzat, Irlandaren eta Ingalaterraren arteko erlazioak, baldintza ekonomikoak ulertu gabe, edota bi nazioak ukabil bakar batean bildu zituzten nazioarteko mugimendu handiak kontutan hartu gabe, bi nazioaren arteko borroka baten moduan tratatzen dituenarentzat, Irlanda Gazteko buruzagiek beraien herrialdearen patuaren krisian zehar erakutsi

zituzten ezbaiak eta duda-mudak soluziorik gabeko arazo bilakatzeko dira; eta gainera, maiztasunez, idazlea ingelesa izan denean irlandarretaz iseka egiteko erabilia izan da; edota barkamen nardagarri bat justifikatzeko, idazlea irlandarra izan den kasuetan. Ekintza hauetako bat bera ere ez dago, inondik ere, justifikaturik. Errealitate sinplea zera da, hiriko eta landako langile irlandarrak matxinatzeko prest eta desiratzen zeudela, eta garaiko Gobernu ingelesa arazo larri batetik salbatu zela Smith O'Brien eta gero bera imitatu zutenak nazioa klase xehe deiturikoen pasioen eskuetan uztearen beldur zirelako. Matxinadak une hartan Irlandan eztanda egin izan balu, kartista ingelesek, antzeko helburu bati begira armatzen eta prestatzen ari zirenek, abagune hura beraiek ere gudu zelaira ateratzeko aprobetxatuko zuten, Mitchellek etengabe bere egunkarian azaldu zuen bezala. Ejertzitoko erregimentu asko ere matxinadaren aldekoak ziren eta behin eta berriz utzi zuten agerian euren izpiritua, kausa irlandarra eta kartista publikoki agurtuz. Kartisten buruzagi irlandar bat, John Frost, deportazio zigor gogor batera sententziatua izan zen garai hartan egin zituen sediziozko adierazpenenengatik, eta langile klasearen beste gudari ingeles handi batek, Ernest Jonesek, kasu honetaz hitz egiten ari zela, bilera publiko batean erronka tonuz adierazi zuen iritsiko zela "John Mitchell eta John Frost itzuliko ziren ordua, eta John Rusell Lordak, bere postua okupatzera bidalita, Downing Streeten eta Dublingo Gazteluan bandera berde garailea astinduko zueneko", Downing Street lehen ministroaren egoitza izanik. Sentimendu hau ahoskatu izanagatik, Ernest Jones atxilotua eta hamabi urteko kartzela zigorrera kondenatua izan zen.

Ingalaterrako langile klasearen matxinadarako adierazpen ororekiko zuten jarrerari zegokionean, Gazte Irlandarrak sakonki zatituta aurkitzen ziren. Bere *The United Irishmen* egunkarian John Mitchellek bozkarioz goraiatzen zituen haiek, Irlandarentzako laguntza bat ziren neurrian eta egiazko demokraziaren garaipenaren iragarpen bezala hartuz, ale bakoitzeko espazioaren zati esanguratsu bat Ingalaterran herriaren kausak zuen garapenez hitz egiten zuten kronikentzat erreserbatuz. Gai honen inguruan azaldu zuen jarrera masen artean izan zuen ospe etengabearen kausarik indartsuenetarikoa izan zen. Beste aldetik, aberatsa eta errespetagarria izatearen ageriko arrazoi bakarragatik, Smith O'Brien

euren idolo bilakatu zuen Gazte Irlandarren sektorea eskura zitu-
tuen baliabide guztietaz baliatu zen Irlandaren kausa demokra-
ziaren kausatik bereizteko. Honek Mitchellen eta bere kritikarien
arteko hitzezko gerra bat ekarri zuen, alde bakoitzak 1798ko au-
rrekaria mahai gainera ekarri zuelarik; eta honen ondorioz, Mit-
chellek erraztasunez frogatu ahal izan zuena zera izan zen, garai
hartako iraultzaileek — bereziki Wolfe Tonel — ez zutela Irlanda-
ren kausa demokraziaren kausa orokorrarekin bakarrik lotzen,
baizik eta Irlandan, aristokrazia lurjabearen kontura, iraultza so-
zial bat egitearen beharra ere sutsuki eta temati defendatzen zu-
tela behin eta berriro. Fintan Lalor imitatuz, Mitchellek ideia
haietan inplizituki aurkitzen ziren printzipioak kanpaina irault-
zailearen kontsigna bilakatu zituen. Altxamendu sozial batean
egin zuen azpimarra modu oso zuzenean, klase ekoizleen eskla-
botzari amaiera emango zion altxamendu matxino berberak hon-
nen gainean eraikitako tirania atzerritar gorrotagarria ere suntsi-
tuko zukeen batean. Bere idatzietako bi pasarte bereziki erabilga-
rriak dira puntu hauen inguruan — oraindik ere Irlandan
eztabaidarako gairik bortitzenak izaten jarraitzen duten puntu
hauen inguruan hain zuzen — mantentzen zuen posizioa berres-
teko eta aditzera emateko. Bere 1848ko martxoaren 4ko *Irlandako
Nekazarietzako Gutunean* zera dio: “Baina zuei modu honetan
hitz egitea hutsala dela esaten didate; O’Connellen bake politika
bizitza eta ohorea bera baino maiteago dituzuela, gure elizgizo-
netako askok, ingelesek “lege” deitzen dutena bortxatu aurretik,
heriotzak eraman zaitzatela erregutzen dizuetela eta haien eska-
kizuna onartzeko prest zaudetela. Hil zaitetze, beraz; hil zuen pa-
zientzian eta pertseberantzian, baina izan ziur honako hau: zuen
urrezko uzten artean pazientziaz hiltzea eskaintzen dizuen apaiz
hark Ingalaterraren Ebanjelioa predikatzen duela, gizateria eta
zentzu komuna iraintzen dituela, erlijioaren aurkako testigantza
faltsua jasotzen duela eta Jainkoaren Probidentziaren aurka irain
egiten duela.

1848ko Otsaileko Iraultzaren ostean Parisen boterera iritsi zen
Gobernu errepublikarrak, bere existentzia langile armatuei zor
ziela aitortuz eta langile haiek euren klasearentzako, burutu zu-
ten lan odoltsuaren ordain gisa, segurtasunen bat eskatu izana
onartuz, “lan eskubidea” denentzat bermatzen zuen lege bat in-
darrean ipini zuenean eta eskubide hori segurtatzeko nazioaren

konfiantza osoa behin jaso ostean, Mitchellek poztasunez agurtu zuen lege hura, berak hain justu "sistema ingelesa" deitzen zuenaren, edo kapitalismoaren, teoria absurduak jada herri frantziarraren buruetan lekurik ez zutenaren isla bezala aurkeztuz. Artikulu horren zati bat aipatuko dugu. Gure irakurleak konturatuko dira aipatzen den merkataritza askea lan eskuaren merkataritza askea dela, langileen eskubideen babes estatalaren aurkako alegia:

"Dinastiek eta tronuek tailerrek, etxaldeen eta faktoriek duten garrantziaren erdia ere ez dute. Are gehiago, esan dezakegu dinastiak eta tronuak, eta baita behin-behineko gobernuak ere, edozer gauzetarako direla onak, lan egiten duten haien joko garbia, justizia eta askatasuna bermatzen dituzten proportzio berean hain zuzen.

"Eta hona hemen Frantzia egiazki mundu osoaren buruan dugula. Hirugarren Iraultza Handiak ekonomia politiko ilustratu eta pedantea eraitsi du (Irlandan ekonomia politiko ingelesa edo Gosearen Ekonomia Politikoa bezala ezagutzen duguna) eta lanaren babesaren printzipio zaharrak eta langileek euren artean antolatzeko duten eskubidea eta betebeharra ezarri ditu behin betiko.

"Behin-behineko gobernuaren dekretuz, eta otsailaren 25ean:

"Hiritar guztiei lana bermatzearen konpromisoa hartzen du. Langileek, beraien lanaren produktu legitimoaz gozatzeko helburuz, elkartzeko duten eskubidea aitortzen du'.

"Errepublikar frantziarrek ez dute, whig ingeles inozo eta barbaroen gisa, laguntza txiroen auzi bihurtzeko eta alferkeriaren sari bilakatzeko eskubiderik aitortzen. Gizonak ogia bere kopetaren izerdiarekin, eta ez beste moduz, eskuratzeko pribilegio karta duela badakite, eta gobernuaren eginbehar goren eta sakratuena ezagutzen dute: ogia ekoizten duenak ogia izan dezala zaintzea. Arrazoi honengatik, espresuki eta ausardia osoz, uko egiten diete "lehiari" eta "merkataritza askeari", whig ingelesak hitz hauek erabiltzen dituen zentzuan, eta elkartzeko eskubidea eta babesa deliberazioz ezartzen dituzte: nazioa elkarte bilakatzeari, legeen bidez bere industria nazional propioa babesteko, eta gizabanakoak beste gizabanako batzuekin elkartzea, erakunde sindikalen bitartez industria nazionalaren adar ezberdinak babesteko.

“Merkataritza askea eta lehia – beste hitz batzuetan esanda, sistema ingelesa – oso ongi ulertzen da gaur egun; bere begi-bis-tako xedea eta eragina aberatsa aberatsago eta txiroa txiroago egi-tea da, kapitala munduaren agintari absolutu bilakatzea eta lana esklabo itsu eta babesgabe. Merkataritza askearen bidez Man-chesterreko merkatariek India, Txina eta Hegoamerika jantz di-tzakete, eta Manchesterreko artisauak ezin dira ia-ia hotzetik ere babestu. Merkataritza askearen eraginez, lihozko jantziak inoiz baino gehiago ugaldtu dira Belfasten; baina berauek ehuntzen di-tuztenek ia ez dute alkandora bat bera ere euren bizkarrentzat. Merkataritza askeak zerealez betetzen ditu kapitalista espekula-tzaileen biltegiak, baina bizigairik gabe uzten ditu haiek erein eta bildu dituztenak. Merkataritza askeak hiribilduak hustu eta be-nefizentzia etxeak betetzen ditu, etxaldeak egonkortu eta hile-rriak gosez hildakoen gorpuez betetzen ditu.

“Honelako merkataritza askerik ez da Frantzian gehiagoan izango. Gizonek jada ezin dute euren gauzekin nahi dutena egin.

“1848ko otsaila iritsi zen eta honekin oturuntzen erreforma-ren aitzakia⁴¹. Berrero ere Parisek agoniazko hiru egun izan zi-tuen eta bere hirugarren iraultza, jaiotako bidezkoena, eman zi-tzaion.

“Oraingo honetan ezin daiteke akatsik egon; tronuen eta di-nastien zaborra betirako barreiatua izan da eta herria subirano finkatu da luraren gainean. Bere ekintzen artean aurrenetariko eta handienetarikoa lanaren auzi erraldoi guztia aztertuko duen batzorde bat indarrean jartzea izan da eta batzorde honek argita-raturiko dokumentu guztietan Louis Blancen eta Albert Ouvrier (langilea) matxinatu lyondarraren izenak aurkitzen dira sinatu-rik. Ez da bere tituluz lotsatzen, orain Estatu-funtzionario handi bat baldin bada ere. Langile bat da eta langile izateaz harro ager-tzen da “edozein lotura, lege proiektu, kitatze-agiri edo obliga-ziotan” hala sinatzen duenean, Ouvrier.

41. Banketeen edo oturuntzen kanpaina, klase ertainek Lous Philippe I.aren aurka ekin zuten mugimendua, burges txiki hauek euren oturuntzen os-tean egiten zituzten mitinetan oinarritzen zena eta kalera protestan irteten amaitu ohi zuena. Egunkarietan euren kanpainaren berri eman zuten eta behin euren afarietako bat debekatua izan zenean piztu zen gatazkarik irekiena. Honetatik eratorriko dira 48ko gertakariak eta Errepublikaren al-darrikapena.

“Duela hirurogeita sei urte Frantziako nekazariak euren iraultza izan zuten. Duela hemezortzi urte klase ertain “errespetagarriak” berea izan zuten eta ordutik penike bikain askoak atera ditu bertatik, baina batez ere hirugarren eta azken honengan ikus dezake mundu osoak berau egin zuten gizonaren zigilua eta aztarna: Albert Ouvrier, bere marka. Guk hiru iraultza horiek ditugu egiteko, eta eginkizun horri zenbat eta lehenago ekin, hobe. Lan osoa bakarrean egin ahal izan dadila espero dezagun soilik. Historiaren lezioak ez daitezela erabat alferrikakoak izan.

“ “Merkataritza askearen” eta “lehia garbiaren” sistema nardagarri horrek; Louis Blancek “gizonetik gizonera eginiko diru-tratu guztiak mugarik gabe uzten dituen, txiroa aberatsaren eskuetan uzten duen eta beti bere unearen zain dagoen abarizari bere gosearen gaineko garaipen lasterra promesten dion sistema iruzurti” gisa deskribatzen duen horrek; Mammon⁴², eta ez Jainkoa edota Justizia, munduaren agintari bilakatu nahi duen sistemak – hitz batean, sistema ingelesak edota gosearenak – guztiz abolitua izan behar du; eta hiru iraultza, edo hiru aldiz hiru, beharrezkoak izango dira horretarako”.

Honela idazten zuen Mitchellek, tiraniaren aurkako gorroto sakratuz piztuta, bere isekaren bitriolua bere inguruan oilartzen ziren pedante guztien gainera isurtzen zuenean, mintzaldi baterako esaldi bat prestatzen desfile baterako ezpata bat zorrozten bezain eskrupulurik gabeak ziren pedante haien kontra, mintzaldi edota desfile horietatik baino haratago aurrera egiteko gaitasunik ere ez zuten haien aurka.

Dakigunez, bere zoriona hein batean goiztiarra zen, lege hura onartu zuen Gobernuak gobernu kapitalista bat baitzen eta behin behar adina indar zuela ikusi zuenean eta ejertzitoaren babesa irabazita, bere lege propioak indargabetu baitzituen eta odol isurketa beldurgarriarekin lege haien betekizuna inposatzen saiatu ziren langileak Ekaineko matxinadan zanpatu. Azken matxinada hau da Mitchellek bere Kartzelako Egunerokoan salatzen duena, bere eskura informazio iturri osoagoak zituenean ausartki gorai-patu zituen gizon haiek berak, egunkari ingelesaren informazio

42. Mammon, Bibliaren pasarteetan dirugose bidegabearen pertsonifikazio gisa agertzen dena eta Erdi Arotik aurrera aberastasunen eta materialitatearen deabru bilakatuko dena.

itxuraldatuek limurturik, anatemizatu zituenean. Baina beste iraultzaile batek, Devin Reillyk, *Irish Felon*⁴³ egunkarian, egokiago baloratu zuen Ekaineko matxinatuen posizioa eta Irlandak, bere erredentziorako, matxinada hura baino irismen handiagoko zerbait behar zuela azpimarratu zuen, giza ekintzaren zuntzik sakonenak ukituko zituen zerbait, Frantziako langile heroikoen inspirazio izan ziren irakaspenekin zenbait buruzagiren “zintzotasun pertsonalean”, “printzipio bikainetan”, “antzinazunezko jatorri aristokratikoan” edo “errespetagarritasun txit gorenetan” topatu zitezkeen ideiekin baino baliokideagoa zen zerbait.

Mitchell atxilotu eta bere egunkaria deuseztatua izan ostean, beste bi egunkari sortu ziren modu hartan hutsik gelditu zen arrisku-postua hartzeko. Batak, *The Irish Tribunek*⁴⁴, “matxinatze-ko eskubide morala” defendatzen zuen elementua ordezkatzeko zuen, eta besteak, *The Irish Felonek*, Irlandaren konkista ingelesa bikoitza zela, sozial edo ekonomikoa, eta politikoa zela, eta ondorioz, iraultzak bi aspektu haiek izan behar zituela behin eta berriro nabarmentzen zuten haien ideiak gorpuzten zituen. Azken hauek une oro elkartasunik handiena erakutsi zuten bai euren aberriko eta bai atzerriko langile klasearen demokraziaren aldeko mugimenduekiko. John Martinek editatu zuen *Irish Felon*, James Fintan Lalor eta Devin Reilly bere idazlerik garrantzitsuenak izan zirelarik. Reilly, Monaghanekoa jatorriz, langile klasearen mugimenduen eta erredentzio sozialeko proiektu guztien behatzaile arduratsua eta jarraitzailea zen aspaldidanik. *The Nation*⁴⁵ egunkariaren idazle gisa Louis Blanc sozialista frantziar handiaren inguruko artikulu zerrenda baten ekarpena egin zuen, honen Dix Ans (hamar urte) lan handia aztertuz, non, Blancen goretsiriko “Estatu Sozialistaren” birsorkuntza sozialeko eskemekin desados agertzen bazen ere, auzi sozialaren larritasunaren eta unibertsalitatearen ikuspegi sakonena erakutsi zuen bestalde, eta langile klasearen mugimenduaren jaiotzazko heroismoa eta sublimitatea ulertu zituen. Jarrera hau bere bizitzaren azken egunetaraino mantendu zuen. Amerikako erbestean aurkitzen zela, altxamenduaren ondoren, Bostongo inprenta langileek hautatua

43. Irlandako Azpisugea.

44. Tribuna Irlandarra.

45. Nazioa.

izan zen egunkari bat, *Protective Union*⁴⁶ deiturikoa, printzipio kooperatiboen gainean lanaren eskubideak defendatzeko helburuz sortua izan zena, zuzendu zezan, eta honela Estatu Batuetako langile kazetaritzaren aitzindarietakoa izan zen - egiazko iraultzaile irlandar batentzat harrotasunezko eta egokitasunezko postua. *American Review*⁴⁷ idazle gisa, Europako egoeraren inguruko artikulu sail bat idatzi zuen, hauen inguruan Horace Gre-eleyk liburu eran bilduak eta argitaratuak izaten baldin baziren Europan iraultza bat eragingo zuketela esan zuelarik. Frantziako Ekaineko altxamendua aipatzerakoan, zera dio *Irish Felonek*:

“Ez gara Komunistak – Komunismoaz arnegatu egiten dugu txiroen legeen sistemez eta aberastasunaren subiranotasun absolutuan oinarritutako sistemez arnegatzen dugun arrazoi beragatik. Komunismoak lanaren independentzia eta duintasuna suntitu egiten du, langilea Estatuaren txiro bilakatzen du, eta bere gizatasuna kentzen dio. Baina komunismoa izan edo ez izan, 70.000 langile horiek existitzeko eskubide osoa zuten – Frantziako beste edozein gizonek baino existentziarako eskubide gehiago zuten, eta euren eskubidea armen indarraren bitartez berretsi ahal izan balute erabat justifikaturik egongo ziratekeen. Lan egin nahi duen gizona gosez hiltzera behartzen duen sistema soziala iseka bat da, anarkia bat, baina ez sistema bat. Momentuz, errepublikak gaitzetsiriko aginte monarkikoaren biktima hauek konkistaturik daude: 10.000 hilak izan ziren, 20.000 agian andere marke-sei bidaliak. Baina hala ere, lanaren eskubideak ez dira konkistatuak izan, ez dira konkistatuak izango eta ezin daitezke konkistatu. Behin eta berriro langilea alferrontziaren aurka altxatuko da – langileek burgesiari egingo diote aurre eta berarekin liskartu eta borrokatuko dira, beraien arteko berdintasuna ez hitzez, baizik eta izatez finka dadin”.

Hauxe zen *Irish Felonen* inguruan biltzen ziren gizon haien izpiritua, zuzendaria bakarrik salbuesten zen. Sozialismoaren azterlariak ohartuko zirenez, gaur egun Sozialismoaren alde modurik sutsuenean lan egiten duten askok ere 1848ko komunismo gordinaz arnegatu egingo zuketena, Devin Reillyk bezala. Langile klaseak, behar izanez gero armen indarra erabiliz, bere salbazio

46. Batasun Babeslea.

47. Aldizkari Amerikarra.

propioa landu eta garatzeko baldintza-gabeko eskubidea zuela behin eta berriro nabarmendu izanak ohorezko postu goren bat erreserbatu dio Devin Reillyri Irlandako proletalگو militantearen estimuan. Northumberland Buildingsen, Eden Quayn, 1848ko apirilaren 4an ospatu zen bilera batean onartu eta John Savagek Presidente gisa eta Richard Dalton Williamsek Idazkari bezala sinatu zuten *Dublingo Medikuntza Ikasleek Zientzia eta Arteetako Ikasle Irlandar guztiei zuzenduriko Aldarriaren sarrerako pasarteak erakusten duenez*, belaunaldi hartako gazte hezien artean ere Irlandak bere zapaltzaileen aurka burutzen zuen borroka mundu mailako demokraziaren aldeko mugimenduekin naturalki loturik zegoenaren eta borroka hura azken honekin batera burutu behar zuenaren onarpena orokortua zen. Zera zioen, “gerra bat bizi da une hauetan Europa osoan zehar, alde batetik Adimena eta Lana, eta bestetik, eta hauen aurkari, Despotismoa eta Indarra daudela”, Joseph Brennanek “eskubide jainkotiarrari” buruzko bere poeman idatzi zuen sentimendu berbera alegia, azken honengan, pentsamenduaren bikaintasunak poesiaren pobrezia orekatzen zuelarik. Bertso batek hala dio:

*Egun bizirik dagoen herriak
onartzen duen eskubide bakarra
ohorea garunaren eta kopetaren izerdiarekin
eskuratzearena da.
Lanaren Eskubide Jainkotiarrak behar badu
gauza lurtarren artean lehena izan,
pentsalariak eta langileak izan beharko
gizateriaren errege bakar.*

Baina iraultzaren doktrina, sozialarena eta politikoarena, modurik argienean azaldu izanagatik ohorearen palmondo hostoa jaso beharko lukeena James Fintan Lalor da, Queen konderriko Tenakillekoa sortzez. Lalorrek, tamalez, ezintasun fisiko arin bat pairatzen zuen, eta honek intelektuala ez zen beste edozein norabide hartzeko ezgaitzen zuen, garai hartan, eta halako herri baten aurrean, berehalako eragina eduki ahal izateko zorigaiztoko errealitatea zelarik berau. Bestalde, gaur egun bere idazkiak aztertzerakoan, hauetan agertzen zaizkigun ekintza eta gizarte printzipioak behatzen baditugu, hauen baitan nazio menperatzaile bati aurre eginez bere askatasunaren bila matxinatzen den herrialde

batentzako kanpaina planik egokiena eta hoberena aurkitzeaz gain, etorkizuneko bakerik perfektuena eskuratzeko ernamuinak ere topatuko ditugu. Garai honetako bere idatzi guztiak hain argigarriak direnez, oso zaila egin zaigu guztien artetik pasarte jakin batzuk bakarrik, argitarapena beste edozein pasartek baino gehiago mereziko luketen haiek soilik, hautatzea. Baina pentsalari konparaezin honek jarraitutako argudiatze lerroaren erakusgarri gisa eta Smit O'Brienek eta bere adoratzaileek lurjabeen instituzioaren aurrean erakutsitako errespetu, ezkortasun eta erreberentziatzako jarrera paralizatzailearekiko zorioneko kontraste bezala, agian honako pasarte hauek baliagarri izan daitezke. *Azpisugarren Fedea* izenburutzat zuen artikulu batean, 1848ko uztailaren 8an argitaraturikoan, Konfederazio Irlandarra bere puntuetara bilakatuarazten nola ahalegindu zen kontaktzen du eta nola saiakera honetan porrot egin zuen, eta zera dio:

“Lurjabeekin aliantza bat nahi zuten. Haiek irlandar kontsideratzea erabaki zuten eta bandera berdea astintzera bultza zitzaketela iruditu zitzairen. Aristokrazia bat mantendu nahi zuten. Ez zuten iraultza demokratikorik nahi, iraultza nazional soil bat baik. Nik zera adierazi nuen, Konfederazioak, 47ko maiatzean edota ekainean, bere bihotza, burua eta baliabideak mugimenduaren zerbitzura jarri izan balitu, hau garaipenera eramango zuela eta behingoz eta betirako gure eta Ingalaterraren arteko auzi guztiak konpondu ahal izango zituela. Ordu hartan mantendu nituen iritziak, eta oraindik ere tinko defendatzen ditudanak, hauek dira:

“1. Geure bizitzak salbatzeko helburuz, Irlandaren zoruaren maizter diren nekazariak, datorren udazkenean, uko egin behar ko liokete zor dituzten errenta eta atzerapenak ordaintzeari, beraien lurraren uztak soberakin gisa utzi dieten harekin ordaintzen ez baldin badute behintzat, beti ere soberakin hau behin hurrengo hamabi hilabeteetarako euren biziraupenerako beharrezkoa izango duten bizigai kantitate hura jaso eta gero deduzituta.

“2. Nekazariak lurretatik botatzeko lege ingelesaren eraginpean, lurrik eta etxerik gabe geratzen ari diren honetan, eskale bilakatzeari uko egin behar ko diote eta erresistentzia erakutsi.

“3. Gero, printzipioz, egungo lurjabe usurpatzaileei errenta oro emateari uko egin behar ko diote, herriak, egiazko jabeek (edota subiranoek, lengoiaia legalaren arabera), kongresuan edota

konbentzio nazionalen zein errenta ordaindu behar diren eta nori ordaindu behar zaizkion erabakitzen duen arte.

“4. Eta herriak, politikaren eta ekonomiaren exijentziengatik, errenta hauek beraiei, herriari, helburu publikoetarako eta euren probetxu eta onurarako ordaintzea erabaki beharko du, herri osoaren mesedetan (salbuespenak onartzen dituen arau orokor gisa).

“Esan didate halako gerra bat, printzipioen inguruan proposatzen dudan hau, Europak gorrotatu egingo lukeela. Nik kontrakoa baieztatzen dut; halako gerra bat Europa osoan barrena zabalduko litzatekeela diot. Har itzazue ohar batean profezia honen hitzak: proposatzen dudan printzipioak Europaren oinarri berberak ere ukitzen ditu eta goiz ala berandu Europa altzaraziko du. Gizateria izango da, azken finean, edozer gertatuta ere, lurraren jaun eta jabe. Herriak legeak egiteko duen eskubidea: honek lehen lurrikara moderno handia eragin zuen, eta bere kolpe ezkutuak, oraindik ere, munduaren bihotzean altxatzen dira. Herriak lurraren jabe izateko duen eskubidea: honek eragingo du hurrengoa. Presta itzazue zuen eskuak eta zuen semeen eskuak, lurren jabe zareten zaldunok, zuek eta zuen semeek ere erabili beharko baitituzue”.

Paragrafo hau esanguratsua da Fintan Lalorrek, Irlandako egiazko iraultzaile arriskutsu guztiek bezala, bere printzipioak mundu mailako demokraziaren kredoaren parte bezala, eta ez soilik Ingalaterraren aurkako Irlandaren borrokaren gorabeheretarako bakarrik aplikagarri zen zerbait gisa, defendatzen zituela erakusteko. Baina azken hau izan da Irlandako klase ertaineko politikari eta historialariek euren irakaspenei eman nahi izan dieten interpretazioa, mende erdi batean zehar literatura iraultzaile irlandarrari autore honek egin zion ekarpenaren erreferentzia oro alde batera uzteko eta ezabatzeko egindako saiakera orok porrot egin ostean. Espero beharrekoa da beraz Irlandako langile klasearen demokrazia, bere aldetik, Lalorren begikotasunen unibertsalitatea baieztatzen bere burges aberkideak berau ukatzen bezain tematia izatea. Langile klase hau bere memoria propioaren zikintzearen onesle traketsa izango litzateke sozialismo iraultzailearen apostolu irlandar honen mezuaren zikiratzea baimenduko balu. Eta Lalorren begikotasun katolikoak, egitura sozialaren behaketan erakutsi zuen zorrotasunarekin batera, agerian ipiniz, langile klase horrek ongi egingo luke Irlandako politikari eta anti-

sozialisten abertzaletasun apostata horri autore honen obrako, eta jada aipaturiko, pasarte bikain hau aurrez aurre jarriko balio, bertan agerian geratzen baita Lalorrek bere posizioa moderatze-ko eta aldatzeko eskatzen zioten haien alegatuari nola erantzuten zion: bere eskakizunak larrialdizko testuinguru bati zegozkion ezinbesteko behar bat zirela predikatuz, eta ez printzipio unibertsal.

“Nik bere (Irlandaren) aldarrikapena erabat eta azkartasunez indartzeko dagoen premiaren fede ematen dut eta eginbehar hori sustatzen dut, ez ordea horretan bakarrik betirako finkatzea. *Hau ez dut baldintza tenporal eta iragankorren gainean sostengatzen, printzipio etengabe, iraunkor eta unibertsaletan baizik – garai eta herrialde guztietarako, eta hauen artean gurerako ere, aprobetxagarriak diren printzipioetan.* Nik unean uneko zirkunstantzia aldakorrek osatzen duten azaleko geruza zeharkatu egiten dut, azpian dagoen arrokaren gainean sostengua bilatzeko eta oinarriztat hartzeko. Nik auzia bere betiereko forman planteatzen dut – maiztasunez denboraldi baterako baliogabetua izango bada ere, azken – buruan inoiz menperatua izango ez den forma batean, iraungo duen eta beti itzuliko den forma batean, belaunaldien koldarkeriak eta us- telkeriak baino gehiago biziraunez eta mantenduz. Aroek ikusiko duten bezala ikusten dut: ez gosete baten behe-lainoen artetik, izarrarteko argi bizardunen bidez baizik”.

Halako argien bitartez dira ikusiak gaur egun Fintan Lalorren irakaspenak, eta denboran zehar gugandik urruntzen den heinean pentsalari gisa izan zuen handitasuna geroz eta aitortuagoa izatea ekarri du honek emaitza gisa; bere forma argiago eta nabarmenago agertzen da gure begien aurrean, garai historiko hartan egoeraren gaineko kontrola zutela ematen zuen agitatzaile txiki eta erreboltari hitzontzi haiek, gosearen bidezko konkista-plan inperial britainiarren faktore inkontzientek izan ziren haiek, merezi duten lekuan hondoratzen diren bitartean. Elokuentziaren dohain zoritxarrekoak kondenaturik, Konfederazioko gure girondino irlandarrek herri irlandarren gogoa menderatu zuten eta eurak berak mozkortu ziren, seriotasunez pentsatzeko gaitasuna ere galtzeraino; hitzekin mozkorturik, ezin izan zuten ulertu Fintan Lalorrek sortu eta hein batean Mitchellek onartu eta indar dramatikoz azaldu zituen ideia haiek mehatxu serioagoa suposatzen zutela Ingalaterraren botere gorrotatuarentzat, Irlandaren zoruaren gainean gertatuko omen zen ustezko klase batasun

hark baino; gosearen biktimen hezurak muino eta haran irlandarretan zuritzea, edota Atlantikoaren kala bakoitzean dilindan ibiltzea, horixe izan zen Irlandak ordaindu behar izan zuen prezioa, bere erreboltaiek elokuentzia besterik erakutsi ez zutelako eta bertako pentsalarien irakaspen sozialistak mespretxuz alde batera utzi zituztelako.

XV. KAPITULUA

Mugimendu sozialistaren zenbait aitzindari irlandar gehiago

Mendiko Sermoiak mundua goberna dezake, edo ez. Deabruak gobernatzeko eskubidea du, uzten baldin badiogu, baina ez du eskubiderik bere gobernuari Zibilizazio Kristau deitzeko.

John Boyle O'Reilly

Begirada garai gogoangarri hartara itzuliz (48. urtearen ondorenera), orain ikus dezakeguna zera da, belaunaldi harentzat mugimendu iraultzaile baten inguruko itxaropen oro hondoratuta zegoela, jada itota zeuden gure girondinoen beso maitekorren artean; baina errealitate hori, logikoki, ez zegoen hain argi garai hartako jendearentzat. Ez da harritzekoa, beraz, iraultzaileen kazetaritza-ekinbideak etenik jasan ez izana *United Irishmen*, *Irish Tribune* edota *Irish Felon* desagerraraziak izan ostean. *Irish National Guard*⁴⁸ izeneko argitalpen txiki iheslari batek, dirudienez iritzi aurreratuak zituzten Dublingo langile talde ausart batek argitaraturikoak, bizitza mugitu xamarra izan zuen iraultzaren aldeko kausa defendatuz, eta 1849ko urtarrilean beste egunkari bat atera zen, *The Irishman*⁴⁹, Bernard Fullamena, *The Nation*en zuzendari komertziala izandakoarena. Fullamek erakunde berri bat ere jarri zuen abian, "Elkarte Demokratikoa", "helburu ia osoki sozialistak eta iraultzaileak dituen elkarte bat" bezala deskribatu zena. Elkarte hau Britainia Handiko langile irlandarren artean ere zabaldu zen eta Feargus O'Connorren babes eta laguntza adeitsu osoa jaso zuen, honek erakunde honengan berak askotan amesturiko Irlandako eta Britainia Handiko demokrazien batasuna ekarriko zuen programa komunaren gauzatzea ikusi baitzuen. Baina iraultzaren denbora dagoenerako igarota zegoen eta beranduegi

48. Irlandako Guardia Nazionala.

49. Irlandarra.

zen langile klaseko iraultzaileek klase ertaineko doktrinek egini-ko kalteak konpondu ahal izateko. Egunkaria 1850eko maiatzean hil zen, hamazazpi hilabetetako bizitzaren ostean. Bere kolaboratzaileen artean Thomas Clarke Luby zegoen, gerora *Irish People*⁵⁰ Anaidi Feniarraren organoaren lan taldeko idazle garrantzitsuenetariko bat izan zena, egunkari honek defendaturiko doktrina aurreratua hein handi batean azaltzen duen gertakaria. *Irishman*eko lan taldeko beste kideetako bat garai haietan Joseph Brennan izan zen, jada *Irish Tribune*ko idazle gisa aipatu duguna. Brennanek azken-buruan Ameriketara emigratu zuen eta New Orleanseko *Deltaren orrietan hartu zuen parte, egunkari horretan argitaratutako poema askok iraganean Irlandako pentsamolde sozial iraultzaileko korronteeekin izan zuen erlazioaren eraginak erakutsiz.*

Egunkari hau alde batera utzi aurretik, hitz batzuk esan behar ditugu langile klase irlandarreko erbesteratuek Britainia Handiko langile mugimenduarengan utzi zuten inpresioari buruz. Idazle ingeles batek, H. S. Foxwellek, zera esan du, “propaganda sozialista batez ere odol zeltiar eta semitako gizonak” egin dutela, eta baieztapen orokor bezala balio ez badu ere, egia da behintzat ingelesa hitz egiten duten herrialdeetako odol zeltiarreko gizonen zor zaiela gizartearen ikuspegi sozialistaren hasiera uneetako propagandaren zatirik handienetariko bat. Hitz egin dugu dagoeneko Feargus O’Connorri buruz; Ingalaterrako mugimendu langile eta sozialistaren hasierako egituretan autore eta buruzagi kartista gisa bere izena sakonki grabaturik utzi zuen beste irlandar bat James Bronterre O’Brien izan zen. Bere lan ezagunen artean hauek daude: *Giza esklabotzaren sorrera, garapena eta faseak: Nola etorri zen mundura, eta nola kanporatu daiteke bertatik*, 1830ean argitaratua; *Britainia Handiko herri zapaldu eta engainatuari aldarria*, 1851koa; *Gutun Europarrak*; eta 1837an fundatu zuen *National Reformerren*⁵¹ orriak. Indar fisikoaren defendatzailea hasiera batean, bere bizitzaren azken egunak ia erabat nekazal bankuen sistema bat garatzen igaro zituen, klase kapitalistaren botere politiko eta militarretik ihes egiteko bide bat topatu zuela sinetsita. Ingalaterran sozialdemokrata hitza ordena berriaren defendatzaileak izendatzeko adiera gisa finkatu zuena Bronterre O’Brien izan zela esan ohi da.

50. Irlandar Herria.

51. Erreformatzaile Nazionala.

Langile klasearen mugimendu sozialistaren antzinagoko apostolu irlandar bat, John Doherty, askoz ere ezezagunagoa da be-launaldi berrien aldetik O'Brien baino, bere metodoek estatu-gizon iraultzaile eraikitzaile baten ezaugarri gehiago bazituzten ere eta bere mezua azken honena bezain argia izanik ere. Dirudenez Ingalaterrako eta Irlandako langile mugimenduko figura gailenatariko bat izan zen 1830 eta 1840 bitartean, teoria sozialisten garapenari denbora gehiegi eskaini ez ziona, bere indar guztiak langile klasea antolatzeari eta honi bere ekimen propioz ekiten erakusteari eskaini baitzizkion. "Iruite Elkarteen Federazioaren" Idazkari nagusia izan zen, ehun industria guztiak sindikatu industrial nazional batean batzeko asmoa zuen erakundea berau eta Britainia Handi osoan eta Irlandan zehar zabaldu zena; "Lanaren Babeserako Erakunde Nazional" bat fundatu zuen, bere ahalegin guztiak langile klasearen helburu ekonomiko eta politikoan lorpenerako sindikatu eraginkor bat eraikitza bideratu zituen, eta 100.000 kide izatera iritsi zen, Belfastko gremioei eskakizun bat bidaliz beraien elkartera blokean afilia zitezen; egunkari bat fundatu eta zuzendu zuen, *The Voice of the People*⁵², 1831n, ale bakoitzak zazpi penike balio izanda ere 30.000ko zirkulazioa izatera iritsi zena, eta "politika erradikalari eta iraultzak kontinentean zuen bilakabideari atentzio handia eskaintzen zio-la" esaten da. *Sindikalismoaren historian* Sidney Webbek Francis Place aipatzen du —bere garaiko Ingalaterrako langile mugimenduarin inguruan ondoen informatuta zegoen gizona—, zeinak esaten duen Erreforma Lege ingelesaren Proiektuaren krisi garaian, 1832an, Doherty, klase ertaineko erreformatzaileekin elkartu ziren langile mugimenduko beste hainbat buruzagi bezala desbideratu beharrean, "langile klasearengana zuzendu zela aukera hura Iraultza Sozialerako aprobeitza zezatela aholkatuz". Hauxe zen, hain zuzen, Dohertyren mezuaren joera; egin beharrekoa zen edozein gauza langile klaseak egingo zuen. "Informazio zabaleko, zuhurtzia natural handiko eta eragin eremu zabaleko xedeak zituen" pertsona gisa laburbiltzen dute. Lamena jaio zen 1799an.

Beste Doherty batek, Hughek, esangura zerbait lortu zuen Ingalaterrako zirkulu sozialistetan, eta Londresen topatzen dugu,

52. Herriaren Ahotsa

1841ean, egunkari sozialista bat zuzentzen, *The Phalanx*⁵³ izeneko, Fourier sozialista frantziarraren iritzien zabalpena jardunbide zuena. Eragin gutxi izan zuen langile mugimenduarengan bere muturreko izaera doktrinarioagatik, baina badirudi difusioa eta korrespontsalak izan zituela Estatu Batuetan. Tipografian osatutako lehenetariko egunkaria izan zen eta bere aleetariko batek makinaren deskribapen zehatz bat jasotzen du, gaur egun irakurketa bitxi bat suposatzen duena.

Orokorrean, langile mugimendu ingelesak jaso duen langile irlandarren kantitate izugarriaren eragina onuragarria izan da. Egia da enpleguaren bilaketan izan zuten lehiak, hasiera batean, ondorio benetan kaltegarriak izan zituela soldaten gainean, baina, bestalde, garai hartako mugimenduaren literaturaren azterketa bizkor batek erakusten du langile klase irlandarreko erbesteatuak aktibo eta presente zeudela langile mugimendu militantearengan eta populazioaren baitan zuten esanguran baino portzentaia desproporzionatuago batean gainera. Eta beti aurre-ratuenak ziren, trikimainetarako ez zeuden inoiz prest, mugimenduaren elementurik kontziliaezinenak ziren. Noski, sektario eta filosofo sozialistei ez zitzaizkien irlandarrak gustatzen —Charles Kingsleyk, prelatu, sozialista, chauvinista eta fanatiko zitalaren arteko konbinazio bitxi horrek, ia ezin du duintasunezko lengo-
aia baten mugen barnean mantendu bere narrazioen harira irlandarren bat eramaten duenean—; baina ezinikusi hau langile irlandarrek konpromisoaren aurrean zuten pazientzia faltari eta ekintzarako grinari beldurra ziotelako sortu zen. Eta ondorioz, langile irlandarra doilorkeria kapitalistaren aurkako erreboltaririk aktiboen bezala preziatu bilakatzen zuten ezaugarri haiexek berak izan ziren beraien mugimenduaren historialari bilakatu ahal izateko maila sozialean topatzen ziren haiengan langile irlandarrekiko mespretxua sortu zutenak.

53. Falangea. Fourier sozialista utopikoak *falansterio* deituriko komunitate igualitarioak eraiki zituen gizarte justuago bat sortzeren bidean. Gizarte minimo bat zen, Fourierren araudi sozialistari jarraiki, lurreko paradisua eskuratuko zuena. Baina proiektu hauek guztiek porrotean amaitu zuten.

XVI. KAPITULUA

Langile klasea: irlandarren iraganeko idealaren oinordekoa, etorkizuneko itxaropenen gordailua

Kristaia al da gosez hiltzea, makurtzea, menperatua izatea, manamendu kontsakratu goren baten aurrean bezala iraganeko esakuneak, "Ahultasuna indarra da" edota "Edozer gauza etor dadila", laudatuz?

Oh, zitalkeriaren testuak!

Oh, lotsagarritasun sakoneko kredoa!

Oh, doilorkeria hirukoitzeko ebanjelioa!

Kolpatua denean kolpea itzultzen duena eta gosez hiltzen ari denean hartu egiten duena ez da errebol-taria Jaunaren begien aurrean.

J. F. O'Donnell.

Liburu honek ez du Irlandako klase langileen historia bat izatea helburu; Irlandaren historiako klase langileen memorial bat da hobeto esanda. Horrexegatik, liburu honen planean Irlandako industriaren hazkuntzaren, garapenaren edo gainbeheraren inguruko zehaztasun oro emateko ahaleginak saihestu egin dira, gure argudio orokorrarengan auzi horiek eragina zutenean salbu. Argudio honek lanak gure historia modernoaren garai handietan izan zuen kokalekua eta buruzagi irlandarrek euren lanetik bizi diren haien itxaropenekiko, helburuekiko eta beharrekiko izan zuten jokabidea azaltzea eskatzen zigun. Noizbehinka, Grattanen Parlamentuaren "oparotasuna" edota 1800eko Batasun Legegilearen osteko merkataritza irlandarraren gainbehera analizatu genituen haietan bezala, nazio batzuen aurrerapen industrial eta merkataria eta beste batzuen atzerapena eragiten dituzten oinarrizko kausak aztertzeraz beharturik sentitu gara. Ez dugu justifikaziorik ez egiten ez eskatzen; ezinezkoa zen gure irakurleei lanak aro jakin bakoitzean izan duen kokaleku historikoaren inguruko ideia

argirik ematea langileen jokatzeko bideak nahitaezko eta beharrezko bilakatu zituzten kausa ekonomiko eta politikoak azaldu gabe. Arrazoi beragatik, askotan beharrezkoa izan da egin dugun bidean atzera itzultzea, gaiaren fase bati buruz atentzioa emateko, auzi hori aurretiaz aipaturiko narrazioaren batean txertatzeak une horretan aztertzen ari ginen gaiaren inguruko ikuspegia desitxura baitzezakeen. Era honetan, ez gara Irlandako sindikalismoaren jatorriaren inguruan aritu, gure azterketaren baitan gremio irlandarrak ongi antolatuta zeudela erakutsi badugu ere. Eta gai horretan sartzeko ere ez gaude prest oraindik. Agian une aproposagoren batean gai horretaz diharduten materialak azertu ahal izango ditugu eta orduan izango dugu Irlandan erakunde horrek izan duen garabidea zirriborrazteko aukera. Momentuz nahikoa da Irlandan, kontinentean edota Ingalaterran bezala, Erreformaren aurreko garai katoliko-erromatarretan gremioak existitzen zirela, Erreformaren ostean gremio horiek, jurisdikzio ingelespean, eskusiboki protestanteak edota antikatolikoak ere bilakatu zirela, katolikoak bertan sartzearen debekuak luzaroan iraun zuela eta gremio zahar haiek 1840an dekretuz ofizialki abolituak izan zirela baieztatzearekin. Baina gremioetan afiliatetik kanpo geratu behar izan zuten langile katoliko eta protestante baztertuak (episkopalak bakarrik ziren ahal zutenak), trabak traba, antolatu egin ziren eta euren batasun gremialak sortu zituzten (trade unions-ak), kapitalisten eta lurjabeen amorrurako eta gobernuen atsekaberako lan munduaren gaineko kontrola izatera iritsi zirenak. Erakunde honen ezaugarri aipagarri eta irakaspen sortzaileetariko bat zera izan zen, bai hirian bai landan, Irlandako matxinada politiko saiakera orori aurrea hartuz, matxinada hori osatuko zuten kideen artean ezinegon, haserre eta klase kontzientziaren garapen esanguratsua ematen zela, langile irlandar iragarlearen pentsatzeko moduan esklabotza politikoa eta esklabotza soziala estuki erlazionaturik zeudela erakutsiz. 1792ko urtarrilaren 28ko *Dublin Chronicle*an Dublingo ofizial-jostunen greba handi bati buruz hitz egiten da, eta beraren baitan jostun armatu batzuk Miller jaun-andereen tailerretara Rose Lanen, Letdarrengana Merchant's Quayen, Walshtarrengana Castle Streeten eta Wardarrengana Cope Streeten, joan zirela esaten da, haietan lan egiten zuten zenbait eskirol erasotu zituztela, biri eskuak moztu eta beste batzuk ibaira bota zituztela. Geroagoko

beste ale batean, garai bertsuan, Berorren Maiestatearen erreklutamendu unitateak ikatz zamari batzuk (portuko langileak) nola hartu zituzten kontatzen da, itsas armadan zerbitzatzera behartu asmoz, eta nola moiletako langile antolatuek, konturatu zirenean, beraien kideak bildu eta gizon horiek atxiloturik aurkitzen ziren guardia-etxola erasotu, guardia garaitu eta euren kamaradak askatu zituzten. Egunkari berean, 1793ko urtarrilaren 3an, Carrickmacrossen, Monaghango konderrian, bizi zen zaldun baten gutun bat agertzen da, Defendatzaileen partida armatu batek hiri horretan, Ardeerako bidean, nola desfilatu zuen azaldu ostean, ejertzittoa partida hura erasotzeko nola ekarrarazi zen eta bertako hainbat zein modutan hil zituen deskribatuz. 1793ko urtarrilaren 24an, beste korrespontsal batek Bailieboroughen eta Kingscourten artean, Cavango konderrian, gertatu zen bataila bat kontatzen digu, “defendatzaile deitzen diren pertsona horien eta ejertzittoaren zati baten artean”, bertan hemezortzi langile hil, bost larriki zauritu eta hogeita hamar preso hartu eta “Cavango kartzelan giltzaperatu” zituztelarik. 1793ko uztailaren 23an ere beste honako kontakizun hau agertzen da, Limericken jazotako bataila baten ingurukoa:

“Bart Limericketik mezulari bat iritsi zela entzun genuen, ondoko ohar honekin: larunbat gauean zazpi edo zortzi mila pertsonako jendetza batek hiri hura erasotu zuela eta erretzen saiatu zela; ejertzittoa, guardia nazionala eta hiritar zenbait erasotzaile lotsagabe haiei aurre egitera eta artilleria kalera ateratzera beharturik ikusi zirela, eta matxinatuak, erresistentzia gogor eta egoskor baten ostean, dispertsatuak izan zirela, ehun eta berrogei hildakoren eta hainbat zaurituren galerekin”. Antzeko batailak gertatu ziren nekazalgoaren eta lekuko terratenienteen babesaren soldadutzaren artean Wexfordeko konderrian.

Komunen Ganberaren Komite Sekretuaren txostenean, 1793an, Defendatzaileei buruz hitz egiterakoan (zeinak, lehen esan dugun bezala, irekita zituzten bide bakar haien bitartez euren baldintzak hobetzen ahalegintzen ziren langile antolatuak ziren), zera dio: “lehendabizi Lautheko konderrian agertu ziren”, “laster, Meathko, Cavango eta Monaghango konderrietara eta inguruetara zabaldu ziren”, eta “beraien neurriak hain baldintza umileko jendearengan ohikoak ez diren isiltasun eta erregulartasun eta sistema maila esanguratsuekin adostu eta

eraman dira aurrera, maila gorengoko gizonak zuzendu izan babiluzte bezala”.

Hau dena, kontutan har bedi, 1798ko borroka iraultzailearen bezperan gertatzen zen, eta langile irlandarren klase borrokak geroko matxinada saioaren prestaketa eskola izan zirela erakusten du.

Jada azaldu dugu nola hamarrenen aurkako borroka luzeak eta gremio irlandarren eta Ribboneko gizonen izpiritu militanteak 1848rako material iraultzailea ahalbidetu zuten, Smith O'Briek eta bere jarraitzaileek erabiltzen jakin ez zutena. Ondorengo aro iraultzailean, Konspirazio Feniarraren garaia bezala ezagutzen denean, kointzidentzia berbera topatzen dugu klaseko sentimendu militantearen eta nazionalismo iraultzailearen artean. Izatez, ez da arraroa Irlandako egiazko nazionalistak, separatistak, giza begikotasun eta demokrazia handiko gizonak izan izana, langile klasearen bihotzean, bere aberrian, topatu baitzuten beti babesik leialena eta atzerriko langile klasean euren defendatzaierik ausartenak.

Anaidi Feniarra⁵⁴ 1857an eratu zen, John O'Mahony jaunaren aitoparen arabera, elkarrean bi buruzagietariko bat hau, bestea James Stephens izanik. O'Mahonyren inguruan, John O'Learyk bere *Feniarren eta Fenianismoaren Memoriak* lanean dio iritziz sozialistak zituen demokrata aurreratu bat zela, eta W.A. O'Connorek, *Herri Irlandarraren historian* bai O'Mahony bai Stephens Frantziako elkarte sekretuetan sartu zirela aipatzen du, O'Mahony “elkartasun hutsagatik”. Elkarte Feniarraren arduradun ziren gizonen hauen izaerari buruzko ikuspegi honen geroagoko beste baieztapen bat Anaidiaren organoa, *The Irish People*, 1865ean Dublinden debekatu ostean fenianismoaren interesen alde eginez Londresen finkatu zen egunkari baten pasarte batean topa dezakegu. Egunkari honetan, *Flag of Irelanden*⁵⁵, *Irishmanen* Parisko korresponentsala aipatuz, zera esaten da 1868ko urriaren 3an:

“Hiri honetako Auzo Latinoan sortu zen, John O'Mahony, Michael Doheny eta James Stephens bertan erbestaturik egon zirenean 48aren ostean.

54. Fenian Brotherhood.

55. Irlandaren Bandera.

“Triunbirato honen buru konspiratzaileetatik sortu zen feniainismoaren ideia. O’Mahonyk, Irlandaren ezagule sakon eta bere tradizioen maitaleak, asmatu zuen elkarte berriaren izena; Dohenyk, bere izaera setati, zorrotz eta kementsuarekin, elkarteari bizia eman zion indarraren zati handi bat txertatu zion, baina Stephensi zor zaio elkartek kontinenteko Iraultzaren mugimenduekiko hartu zuen elkartasun bidea. Auzi irlandarra jada auzi erlijioso bat ez zela ikusi zuen honek; bere sen ona ere handiegia zen auzia arraza kontu gisa kontsideratzeko; Frantzia iragan mende amaieran astindu zuen borroka zahar berbera zela sentitu zuen, eremu berri batera eramanda; elkarren aurka zeuden indarrak berberak ziren, diferentzia honekin: Irlandako herriak ez zuela bere tiranoak aberkide gisa agurtzeko kontsolamendurik”.

Stephensek Irlandar Armada Errepublikarraren⁵⁶ komandante-buru izateko Cluseret jenerala bezalako pertsonaia bat, geroago, Parisko Komunaren garaian, Federatuen komandante-buru izango zena, hautatu izanak askoz ere gehiago esaten du mugimendu feniarraren garunak izan ziren gizon haien printzipioen alde, beraien menpekoen edozein testigantzek baino ere gehiago.

Fenianismoaren hasieraren urte berean, 1857an, okin-aprendizek mugimendu indartsu bat eragingo zuen lan agitazio ausart bati ekin zioten Irlandan, gaueko lanaren aurka eta lan egunaren murrizketaren alde. Bilera handiak ospatu ziren herrialde osoan zehar 1858 eta 1860 bitartean eta hauetan lanaren eskubideak suhartasunez berretsi ziren eta enpresari irlandarren tirania argitara eman eta salatu zen. Wexforden, Kilkennyn, Clonmelen eta Waterforden gaueko lana abolitu egin zen eta eguneko lana ezarri. Mugimendua hain larritzat hartu zen ezen Parlamentuko Komite bat sortu zela bera aztertzeko; bere txostenetik, Karl Marxek bere Kapitala lan handian aipatzen duenaren arabera, honako zati hauek hartzen ditugu:

“Limericken, apendizzen zorigaitzak gehiegizkoak zirela frogaturik gelditu zen lekuan, mugimendua maisu-okinen oposizioak garaitu zuen, hauen artean maisu-errotariak aurkari nagusienak izan zirelarik. Limerickeko ereduak atzera pausoak eragin zituen Ennisen eta Tipperaryn. Corken, zorigaitzaren adierazpen modurik handiena jazo zen lekuan, jendea lanetik kaleratzeko

56. Irish Republican Army.

duten boterea erabiliz, mugimendua hondoratu dute. Dublinen, maisu-okinek oposiziorik tinkoena egin diote mugimenduari, eta hau sustatzen zuten hainbeste apendiz, ahal zuten bezain beste, lanetik bota ondoren, langileek, euren konbikzioen aurka, igandeetan eta gauez lan egitea onartzea lortu dute.

“Komiteak uste du lan orduak lege naturalek mugaturik aurkitzen direla eta hauek ezin direla inpunitatez bortxatu. Maisu-okinek euren langileak, enplegua galtzearen beldurraren bitartez, euren sinesmen erlijiosoak eta sentimendurik hoberenak bortxatzera, lurraren gaineko legeak ez obeditzera, iritzi publikoa mespretxatzera, bultzatu izana apendiz eta maisuen arteko ezinegona eragitera bideraturik egon da eta eredu benetan arriskutsua eskaintzen du erlijioarentzat, moralitatearentzat eta ordena sozialarentzat. Komiteak uste du etenik gabeko edozein lanek, eguneko hamabi orduren ostean, langilearen etxeko bizitzaz eta bizitza pribatuaz abusatzen duela eta ondorioz emaitza moral dohakabeak ekartzen dituela, gizon bakoitzaren etxean eraginez eta seme, senar edota aita gisa dituen familia eginbeharrak utzaraziz. Hamabi orduren gairik lanak langilearen osasuna kaltetzeko joera duela eta zahartzaro eta heriotza goiztiarrera eramaten duela, langileen familien kalte handirako, familia-buruaren zaintza eta babesik gabe utziz hau beharrezkoena den momentuan”.

Irakurleak erreparatuko duenez, mugimendu honek indartsuen kolpatu zituen hiri haiek, langileek borrokarik indartsuena burutu eta klase sentimendua gorenaren topatzen zen leku horiek, ziren fenianismoa gehien garaturik aurkitzen zen guneak; Dublin, Cork, Wexford, Clonmel, Kilkenny, Waterford eta Ennis eta zegozkien konderrriak fenianismoaren mezuarekiko sentikorrenak zirenaren lekuko dugu historia. Richard Pigottek, The London Timesek eskainitako errearen eraginaren aurrean erori aurretik Irlandako egunkari aurreratuenetan arduradun gisa karrera luze eta eragin-korra egin zuenak, eta postu horretan zegoen neurrian bera aita-bitxi zuten gizon eta mugimendu haien gaineko ezaguera osoa jaso zuenak, Kazetari Irlandar baten Memoriak lanean fenianismoan parte hartzen zutenen inguruko testigantza hau jasotzen du, mugimendu iraultzailearen eta langile klasearen arteko erlazioari buruzko gure analisisa erabat baieztatzen duen testigantza bat izatez, ikusiko den bezala:

“Nabaria da fenianismoa disimulurik gabeko ezinikusiz hartua izan zela, gorroto sutsuz ez esateagatik, ez lurjabeen eta klase agintariaren aldetik bakarrik, baita klero katolikoaren, klase ertaineko katolikoaren eta nekazal klaseen gehiengo handi baten partetik ere. Izatez, langile klaseko kide gazteenen eta argienen babesa bakarrik eskuratu zuen, merkatal bizitzaren bide umiletan sartutako hiribildu handi eta hirietako klase artisau eta langileko gazteena”.

Karl Marxek aipu bat ateratzen du Dublingo Nekazal Langileen Soldaten inguruan Pobreen Legearen Inspektoreek eginiko txostenetatik (1870), 1849 eta 1869 urteen bitartean Irlandako soldadak ehuneko berrogeita hamar edo hirurogei igo ziren bitartean, oinarrizko produktu guztien salneurriak bikoiztu baino gehiago egin zirela erakusteko. Laguntza-etxe irlandar bateko kalkulua ofizialen ondorengo estraktu hau jasotzen du:

Asteko batezbesteko kostua buru bakoitzeko			
Amaitutako urtea	Bizigaiak eta beharrak	Arropa	Guztira
1849ko irailaren 29a	txelin 1, 3¼ penike	3 penike	txelin 1, 6¼ penike
1869ko irailaren 29a	2 txelin 7¼ penike	6 penike	3 txelin, 1¼ penike

Gertakariak frogatzen dute mugimendu feniarrak masa irlandarengan eragina lortu zuen garaian hirietan langileak enpresarien aurkako borroka bortitzetan sartuta zeudela eta oinarrizko bizigaien prezio guztiak bikoiztu egin zirela – asaldura iraultzailea eragiteko nahikoa diren bi kausa, Irlandak iraultzarako duen bezainbeste justifikazio historiko ez duen herrialde batentzako ere. Britainia Handia ere agitazio bortitz baten oinazeekin topatzen zen une hartan, 1866-67ko krisi industrialak eraginiko langile klasearen sufrimendu izugarria zela eta. *Morning Star*⁵⁷ Londreseko egunkariak hiriko sei barrutitan 15.000 langile, euren familiekin, pobrezia egoeran zeudela baieztatzen zuen; *Reynold's*

57. Goizeko Izarra.

*Newspaperrek*⁵⁸, 1867ko urtarrilaren 20an, Londres guztian zehar hormetan itsatsia agertzen zen kartel handi bateko hitzak jasozten zituen: “Idi Gizenak-Gizon Gosetiak: idi gizenak, euren kristalezko jauregietatik, aberatsa elikatzen joan dira honen luzuzko egoitzetara, txiro gosetiak euren kobazulo errukarrietan usteltzen eta hiltzen utzi diren bitartean”, eta “honek herri frantziarra 1789ko gertakarietarako prestatu zuen erakunde sekretu iraultzaileetarako bat gogorarazten” zuela aipatzen zuen. “Une honetan, langile ingelesak, euren emazte eta seme-alabekin, hotzagatik eta gosearengatik hiltzen diren bitartean, milioika diru ingeles –lan ingelesaren produktua–, enpresa errusiar, espainiar, italiar eta beste enpresa atzerritarretan inbertiturik topatzen da”. Eta Londreseko *Standardek*⁵⁹, 1866ko apirilaren 5an, zera zihoen: “ikuskizun beldurgarri bat ikusi ahal izan zen atzo metropoliaren gunen batean. East Endeko milaka langabek beraien bandera beltzekin en masse desfilatu ez bazuten ere, giza uholdea nahiko txundigarria zen. Gogora dezagun zergatik sufritzen duen jende honek. Gosez hiltzen dira. Horixe da egitate hain simple eta beldurgarria. 40.000 daude egoera horretan. Gure presentzian, metropoli zoragarri honetako laurden batean, pilatuta daude –munduak inoiz ikusi duen aberastasun metaketaren aloban– berarekin aurrez aurre, 40.000 pertsona, aterperik gabe, gosez. Milaka hauek gainerako auzoetan sartzen ari dira orain”.

Britainia Handiko gose eta matxinada egoera honek A. M. Sullivanek *Irlanda Berrian* aipatzen duen fenomeno berezi horri azalpen bat eskaintzen dio; fenomeno bitxi hori zera litzateke, Home Rulearen edota konstituzionalisten egunkariek Irlandan bertan *Irish People*aren aurka borroka erraztasunez burutzen duten bitartean, Britainia Handian egunkari feniarrak bere lehiakide irlandar guztiak erraztasun osoz alboratu izana. Britainia Handian zeuden langile klase irlandarreko erbesteratuek euren arrazaren helburu nazionalistek helmuga berera jotzen zutela ikusi ahal izan zuten, euren klasearen interes materialek eskatzen zuten ekinbide berberera, hau da, gobernu kapitalista eta honek sostengu zituen tirania nazionala eta soziala erabat suntsitzera.

58. Reynolden Egunkaria.

59. Estandarra.

J. E. O'Donnellen poemak jarraitzen dituen edozein irakurle, *Artisauaren ganbararen* kasuarekin adibidez, non hitzaren bidez Dublingo artisau feniar langabe baten gogo-aldarte sutsua adierazten duen, gosez hiltzen ari den bere emaztearen ohearen alboan, edota J. K. Caseyren poesia ezteki erregutzailearekin, txunditurik gelditzen da arraza irlandarreko eta klase menperatuko gizon eta emakumeen inguruko irakaspenak biltzen zituzten egunkariek Britainia Handian zuten harrera bikainarekin.

98. urtea Lehenengo Frantziako Iraultzak gorpuztutako joeren adierazpen irlandarra izan zen bezala, eta 48ak Europa kontinenteko eta Ingalaterrako altxamendu demokratiko eta soziallekiko elkertasunez astindu zuen gisan, gauza bera gertatu zen fenianismoarekin, langile klase europarraren bihotzaren taupadetikiko sentibera den bihotz irlandarraren bibrazio bat izan baitzen, langileria europarrak, beste leku batean, Langileen Nazioarteko Elkarte sortu zuen garai berean. Elkarte horren adarrak Parisko Komunaren gertakarien osteraino loratu ziren Dublinen eta Corken, eta oso azterketa interesgarria da Komunaren osteko Europako mugimendu sozialistaren garapenaren ibilbidearen eta 67ko porrotaren ondorengo kausa iraultzaile irlandarraren bilakabidearen analogia egitea. Bi kasuetan altxamenduaren metodoa alde batera uzten dutela ikus dezakegu eta klase matxinatuak, iraultza jopuntuan izaten jarraitzen badu ere, kontzienteki borroka armatuaren arbitraiari uko egingo dion borroka bati hasiera emango diola. Nazionalista irlandarrek euren patua Nekazal Liga irlandarrari lotu ziotenean eta nekazal borroka euren gerraren oinarri bilakatu zutenean, egin zuten gauza bakarra ez zen interes materialen harrobi amaiezin horrekin berriro ere harremanetan jartzea soilik izan, ordurainoko estatu gizon irlandar handi guztiek, St. Lawrence O'Tooletik hasita Wolfe Tonerarte, erakunde patriotiko militante irlandar bat eraikitzeko harriak behar izan zituzten aldi oro egin zuten bezala; kontzienteki edo inkontzienteki, langile mugimendu modernoaren oinarri diren printzipioekin bat datorren posizio batean ipini ziren.

Errealitate hau garai hartan bertan onartua izan zen, baita pasiorik erakusten ez zuten ikusle haien aldetik ere. Zentzu honetan, Frantzian 1887an *Chez Paddy* izenez, ingelesera itzulita *Paddy at*

*Home*⁶⁰ bezala, argitaratutako liburu nahiko harrigarri batean, bere autoreak, aristokrata frantzes batek, E. de Mandat-Grancey barroiak, 1886an Irlandan barrena Nekazal Ligako buruzagi asko ezagutuz eta aldi berean lurjabe zerrenda luze baten jauregiak bisitatuz egin zuen bidaia kontatzerakoan, zera esaten du: “izatez, disimulatu nahi badute ere, eskakizun irlandarrak aldarrikaturiko helburu gisa komunismoaz hitz egitera iristen ez badira ere — eta oraindik ere honen inguruan zenbait ilusio manten ditzakete —, egia da bestalde komunistarik aurreratuenek ere ez lituzketela Nekazal Ligak erabilitako metodoak gaitzetsiko”.

Egoera honen errekonozimendua izan zen Amerikako Nekazal Ligaren abokaturik garrantzitsuena zen *Irish World*⁶¹ bere izenaren azpititulu gisa “Askatzaile Industrial Amerikarra” esaldia hartu izana, eta garai haietako langile mugimendu jaioberriaren interpretatzaile bilakatu izana, eta baita, aldi berean, klaseertaineko buruzagi irlandarrek, borrokaren atzera pausoko egoera batek estrategia aldaketa baten aholkua emateko baldintzak sortu zizkieten bezain pronto, lurrarengatik borroka alde batera uztea sustatu eta euren indar guztiak Irlandaren interes osoa borroka parlamentarioantz bideratzearen ahaleginari eskaini izana ere.

Beldur ziren jabegoaren gaineko eskubideak ikertu nahiko zituena izpiritu bat piztuarazi eta hau errentan oinarritutako aberastasunen santutasunaren ukapenean bakarrik geratuko ez ote zen, baizik eta irabazitik eta interesetatik eratorritako aberastasunen zilegitasuna ere auzitan ipiniko ote zuen. Laster ulertu zuten halako ikerketa batek ez zuela inongo oinarritzko desberdintasunik topatuko aberastasun mota haien artean; kasu batean ez zetozela lurretik eta beste kasuan tailerretatik, baizik eta jabegorik gabeko klasearen esklabotza sozialetik, lurrean maizter gisa edota tailer eta faktorieta enplegatu gisa lan egitera behartuta zeuden haiengandik baizik.

Arrazoi beragatik, Nekazal Ligak (1879an Irishtownen, Mayo-ko konderrian, apaiz lurjabe xantaiaegile baten estortsioak salatze-ko burutu zen bilera batean sortu zenak), hasiera batean Irlandan

60. “Paddyrenean”. Paddy Patricken izen laburdura da, Irlandako St. Patrick patroiairena hain zuzen. Zentzu horretan, Paddy “mutiko” edo “mutil gazte” edota modu peioratibo batean “irlandar” esateko erabili ohi da.

61. Mundu Irlandarra.

Home Rulearen prentsa ofizial osoaren aurka eta Britainia Handian erbestera irlandarren kontra ireki behar izan zuen bidea, bere babes eta defentsa bakarra langile txiroak eta sozialista ingeles eta eskoziarrak izan zirelarik. Izatez, azken hauek izan ziren urte luzez Nekazal Ligaren printzipioen adierazle eta interprete nagusienak masa britainiarren aurrean eta euren eginkizuna auzarteki burutu zuten, Britainia Handiko komunitate irlandarretako gizon dirudun "errespetagarriak", euren bizilagun britainiar aberatsen disgustuaren beldur, hauen aurrean makurtzen ziren garai batean.

Gerora, Irlandako matxinada garailearen uholdeak Alderdi Liberala nekazalگو irlandarraren eskakizunei onespén xuhur bat ematera behartu zuenean eta Home Rule-Alderdi Liberala aliantza gauzatu zenean, Britainia Handian zeuden negozio-gizon irlandar guztiak lehen lerroa pasatu eta arrakasta izan zuten erakunde irlandarretako konfiantzazko leku eta zuzendaritza guztietan sartzen joan ziren. Aliantza honen lehenengotariko eta aldi berean mingotsena izan zen fruitua boto irlandarra alderdi sozialista eta laboristako hautagaien kontra erabiltzea izan zen. Michael Davitt bezalako gizonen lasturazko eta adozeko protestak protesta, boto-emaile irlandarren falange trinkoa behin eta berriro izan zen Irlandagatik borrokatu eta sufrimendua, ostrazismoa eta bortxakeria jasan zuten haien aurka jaurtikia, Gobernu Liberalak Irlandako kartzelak beraien eruduntza frogaturik ez zegoen gizon eta emakumez betetzen zituen garai batean. Era honetan maniobratuz, Britainia Handiko masa irlandarrak euren lagun zaharregandik, zirkulu sozialista eta laboristetatik, bereiziz, eta euren etsai zaharren, kapitalista liberalen, besoetara bidaliz, politikari burges irlandarrek zuhurtzia handiarekin defendatu zituzten euren klaseko interesak, euren ekiteko modua abertzaletasunaren izenpean mozorrotzen zutenean ere. Noski, abertzaletasun irlandarraren eta ekinbide sozialistaren batasun bat, Britainia Handiko erakunde irlandarrek sustatu eta babestu izan balute, ezin izango zuketén honen etsaiek erabat erasotu hau Irlandan bertan sartu izan balitz. Honek azaltzen du historia irlandarraren esangura bihurritzeko eta distortsionatzeko eta jabetzaren, honen jabegoaren eta bere garapenaren auzia nazionalitate irlandarraren inguruko eztabaida guztietatik kanpo uzteko burutu zuten ahalegin amorratu eta ilogikoa.

Baina horrenbesteko beldurra dioten auzi hau behin eta berriro sortzen da; ez da hilko eta ezin da ezabatua izan. Nekazal Ligaren arrakasta partzialak aldaketa bat eragin du Irlandan, bere miresgarritasuna oso gutxik ulertu dutena. Laburki esanda, esan nahi duena zera da, trafiko transatlantikoaren garapenaren eskutik doazen nekazal lege berriak Irlanda feudalismoaren kontzeptioaren arabera agindutako herrialde bat izatetik merkataritza kapitalistaren arabera gidatua izaten ari den lurralde bat bilakatzeko ari direla. Gaur egun, Estatu Batuetako eta Errepublikak Argentinareko etxalde monopolizatuen lehia askoz ere etsai hilgarriagoa da nekazari irlandarrarentzat instituzio terratenientearen hondarrak eta Inperio britainiarraren ofizialismo burokratikoaren direna baino. Oraingo honetan etsaia kapitalismoa da, ozeanotik iristen da; eta nekazari irlandarrak bere uzta bildu eta merkatura eramane duenerako, hiru mila miliatara, herrialdearekin erlazio adiskidetsuak dituen leku batean, bizi den lehiakide batek salneurri baxuago batean saldu du bere merkantzia, nekazaria porrotera bultzatuz. Klase ertaineko doktrinarioek ia 250 urtetan zehar askatasunaren aldeko borroka irlandarraren itxurapean moztortu duten heresia politikoa era honetan iritsi da bere amaierara. Tribu familiariek jurisdikzio ingelesaren aurka ekin zuten borroka eta honek zuen esangura osoa, XVIII. eta XIX. mendeko nekazari eta langileen borroka, aro guztietako borroka sozial handia, hauek denak sortuko dira berriro ere, forma berri batekin, Irlandako baldintza berriei egokitzeko. Nekazal Ligak hasi eta gero, irabazi edo galdu aurretik, alde batera utzi zuen gerra hori berriro ere piztua izango da irlandar desjabetuen aldetik, maila gorengo batean, arma gogorragoekin eta garaipen iraunkor bat eskuratzeko beharrezkoak izango diren oinarrizko elementuen gaineko ezagupen handiago batekin. Iraganeko tribu familiariek irlandarrak jatorrizko ordena soziala edo atzerrikoa onartzen edo ukatzen zutenaren arabera irlandar edo ingeles kontsideratzen ziren bezala, beraien zapalkuntza edota askatasuna lurren jabe kolektiboaren galeraren edo berreskurapenaren arabera neurtzen zen bezala, hemendik aurrerako desjabetu irlandarrek ere beraien askatasunerako eskubidea modu horretan oinarrituko dute, ez Parlamentu irlandar batean hitz egiteko eskubidea konkistatzearen edo galtzearen arabera, baizik eta herri baten oigia eta askatasunak baldintzatzen dituzten faktoria, tailer eta etxalde

horien gaineko agintea eskuratzeko egingo duten borrokaren garapenaren arabera.

Behin eta berriro azpimarratu dugun bezala, auzi irlandarra auzi sozial bat da, eta mende luzeetan zehar herri irlandarrak bere zapaltzaileen aurka egin duen borroka, azken instantzian, bizitzeko moduen, produkzio baliabideen, gaineko nagusitasu-nagatiko borroka batera mugatzen da Irlandan. Nork izan behar du lurraren eta honen kontrolaren jabe? Herriak edo inbaditzaileak? Eta inbaditzaileek izan behar badute, hauetatik zein taldek izan behar du? Lur-lapurren belaualdirik berrienak edo aurreko belaualdi bateko lapurren egungo semeek? Hauexek ziren politika irlandarraren oinarriko auziak, eta gainerako auzi guztiak jabeagoagatiko borrokan jada posizioak hartuta zituzten fakzioek gai horien inguruan zituzten interesen arabera eta mesedetzen zituzten edo ez zituzten heinean bilakatzen ziren baliotsu edo baliogabe. Gertakarien esangura ulertzeko giltza hau gabe, "gizon handien" ekintzak deszifratzeko gida hau gabe, historia irlandarra ez da euren artean erlaziorik ez duten gertakarien pilaketa bat besterik, inongo helbururik ez duten unean uneko eztanda, traizio, azpijoko, sarraski, hilketa eta gerren erremedioerik gabeko kaos bat besterik. Giltza honekin gauza guztiak ulergarri bilakatzeko dira eta berauen arrastoa euren jatorritik hasita jarrai daiteke; giltza hau gabe, Irlandan galdutako aukerek langile irlandarraren masailak gorritzeko gertakari soil dirudite; giltza honekin Irlandaren historia lanpara bat da haren oinentzat orainaldiaren bidexka ekaizsuetan. Hala ere, hau guri oso argi agertzen bazaitugu ere, ukalezina da gutxienez berrehun urtetan zehar mugimendu politiko irlandar guztiak egitate hau ez zutela ezagutu eta gainazal politikoaren azpian begiratzen ez zuten gizonek gidatuak izan zirela euren borrokan. Gizon hauek, herriaren pasioak piztu asmoz, zoritxar sozialen memoria ekartzen zuten jendearen gogoetara, lantzen zituzten lur haietatik kanporatuak zirenekoak edota goseteak kasu, baina gaitz hauentzat erremedio politikoak bakarrik proposatzen zituzten, zergen inguruko eraldaketak burutzea edota gobernu besaulkia (klase agintea) herrialde batetik bestera eramatea. Horrexegatik ez zen ezer lortu, proposaturiko erremedio politiko haiek ez baitzeuden arazo haien sustraian topatzen zen zapalkuntza sozialarekin erlazonaturik. Iraganeko iraultzaileak jakintsuak ziren, sozialista irlandarrak, gaur egun,

jakintsuagoak dira. Beraien mugimenduaren baitan Iparraldea eta Hegoaldea berriro ere eskutik helduko dira, berriro ere argi geratuko da, 98an bezala, zapalkuntza komun baten presioak langile klase protestante bateko kideak matxinatu sutsu bilaka ditzakeela eta katolikoak askatasun zibilaren eta erlijiosoaren gerlari kartsu bihur ditzakeela, bien batasunetik demokrazia sozial batu bat eraikiz.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

- 1 • Manifestu komunistari hitzaurea
- 2 • Ezkerkeria, komunismoaren haurtzaroko eritasunari hitzaurea
- 3 • Etengabeko Iraultzari hitzaurea
- 4 • Che Guevararen ondarea eta Latinoamerikako iraultza
- 5 • Estatua eta Iraultzari hitzaurea
- 6 • Zer da sozialismoa?
- 7 • Marxismoa eta artea

- MANIFESTU KOMUNISTA (K. Marx / F. Engels)
- ERREFORMA EDO IRAULTZA (R. Luxemburgo)
- ESTATUA ETA IRAULTZA (V. I. Lenin)
- TRANTSIZIO PROGRAMA (L. Trotsky)
- ANARKISMOA ETA KOMUNISMOA (E. Preobrazhenski)
- SOZIALISMO UTOPIKOTIK SOZIALISMO ZIENTIFIKORA (F. Engels)
- KLASE ZAPALDUAK IRLANDAREN HISTORIAN (J. Connolly)
- MARXISMOA ETA LANGILE KLASEA
- MARXISMOA ETA ASKAPEN NAZIONALA

Liburuxka hauek EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkariak argitaratu ditu Federiko Engels Fundazioaren laguntzarekin.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkaria edo liburuxkak jasotzeko, gurekin kolaboratzeko, marxismoari buruzko hitzaldiak antolatzeko edo ideia hauekin interesatua bazaude:

JARRI HARREMANETAN:
euskalherriasozialista@hotmail.com
TEL.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net

FEDERIKO ENGELS FUNDAZIOA

MARXISMOAREN KLASIKOAK bilduma

C. Marx / F. Engels

- Contribución al problema de la vivienda
- Crítica del programa de Gotha / Crítica del programa de Erfurt
- Del socialismo utópico al socialismo científico
- El 18 Brumario de Luis Bonaparte
- El Manifiesto Comunista (*castellano, euskara, catalá, galego*)
- El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado
- Introducción a 'Dialéctica de la naturaleza' (y otros)
- La guerra civil en Francia

V. I. Lenin

- Ludwig Feuerbach and el fin de la filosofía clásica alemana
- Salario, precio y ganancia / Trabajo asalariado y capital
- El Estado y la revolución (*castellano, euskara*)
- El imperialismo, fase superior del capitalismo
- La enfermedad infantil del 'izquierdismo' en el comunismo
- La revolución proletaria y el renegado Kautsky
- Las tesis de abril

L. Trotsky

- 1905 / Resultados y perspectivas
- ¿Adónde va Francia?
- Acerca de los sindicatos
- La lucha contra el fascismo
- El programa de transición (*castellano, euskara*)
- Historia de la Revolución Rusa (2 vols.)
- Escritos sobre la revolución española (1930-39)
- La revolución permanente
- La revolución traicionada
- Mi vida

R. Luxemburgo

- Problemas de la vida cotidiana
- Qué es el marxismo / Su moral y la nuestra
- Terrorismo y comunismo
- Una escuela de estrategia revolucionaria
- Huelga de masas, partido y sindicato
- La crisis de la socialdemocracia
- La revolución alemana de 1918-19

E. Preobrazhenski

J. Plejanov

- Reforma o revolución (*castellano, euskara*)
- Anarquismo y comunismo (*castellano, euskara*)
- Contra el anarquismo
- La concepción materialista de la historia

F. Mehring

- El papel del individuo en la historia / 'Cant' contra Kant
- Carlos Marx y la Internacional
- Sobre el materialismo histórico

KRITIKA MARXISTA bilduma

- Razón y revolución. Filosofía marxista y ciencia moderna *A. Woods / T. Grant*
- Rusia, de la revolución a la contrarrevolución *Ted Grant*
- Lenin y Trotsky, qué defendieron realmente *T. Grant / A. Woods*
- Bolchevismo, el camino a la revolución *Alan Woods*
- La revolución bolivariana. Un análisis marxista *Alan Woods*
- Euskal Herria y el socialismo. Marxismo y cuestión nacional *Eloy Val / Alan Woods*
- Apuntes revolucionarios. Cuba, Venezuela y el socialismo internacional *Celia Hart*
- En defensa de la Revolución de Octubre
- Reformismo o revolución. Marxismo y socialismo del siglo XXI *A. Woods*
- La batalla de Inveval *Pablo CORMENZANA*
- Pirómanos apagando un fuego *Juan Ignacio Ramos*
- Revolución socialista y guerra civil *Juan Ignacio Ramos*

LANGILE MEMORIA bilduma

- Rebelión obrera en Tejas y Ladrillos *José Martín*
- 3 de marzo. Una lucha inacabada *Arturo Val del Olmo*
- Carrier. Lecciones de una lucha *Felipe Palacios*
- Historia del movimiento obrero en Guadalajara *Enrique Alejandre*

